

Antonio Zavala

BILINTX
BERTSOAK ETA BIZITZA



Bilintx

(Bertsoak eta bizitza)

Auspoaren Sail Nagusia



EUSKALTZAINDIA

AZKUE BIBLIOTEKA



B. UGALDETXO, S/N

☎ 49 35 51 / 49 35 52

FAX: 493548

20180 OIARTZUN (GIPUZKOA)

Antonio Zavala
(Bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille)

Bilintx
(Bertsoak eta bizitza)

© SENDOA

ISBN: 84-85846-84-2

Legezko gordailua: SS.736/93

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Antza, S.A.L.

ITZAURREA

ITZAURREA

Bilintxen izena leenengo aldiz nun eta nola entzun nuan gogoratu nai izatearekin batera, gure ama zanaren oroitza datorkit burura.

Donostiko alaba zanez, sarritan aitatzen zigun bere erriko bertsolari aundia: ezbear batek arpegia okertu eta itxusia zala; neskak etzutela aintzat artzen; orregatik, amodiozko bertsoak jartzeari ekin ziola; eta abar. *Bein batian Loiolan* ere batzuetan kantatzen zigun.

Egia esan bear bada, arek Bilintxi buruz zekiana gauza axala eta arrunta zan. Ala ere, garrantzi aundiko argibidea gertatu zan neretzat beintzat: alegia, gure artean erri-literatura bat bazala; mundu ezezagun bat, aztertzea merezi zuana.

Urteen buruan, bertso biltzeari ekindakoan, Bilintxen izena eta bertsoak noiznai etortzen zitzaizkidan eskura, bai bertso-paperetan eta bai Errenteriko Makazagak argitara emandako liburuxketan.

Liburuak argitaratzen asitakoan, berriz, aurrenetako bat Bilintxena prestatu nuan, 1962 urtean. Baiña ofi-

zio ortan artean berria nintzan eta nere lan orrek akats ederrik badu noski. Ala ta guziz, bertsozale jendeak arrera ona egin zion.

Andik amalau urtera, berriz, 1976-an, Bilintxen eriotzaren eungarren urtea zala-ta, Donostiko erriak gogotik artu zuan arek merezi bezelako ospakizuna egitea. Itzaldiak eta abar antolatu ziran; eta aren bertsoak eta bizitza azaltzea nere kontu utzi zuten.

Ordurako, ordea, zerbait ikasita geunden, eta Bilintxen bizitza naiko argitu zala uste det. Ortarako, iturri oparo batzuk arkitu genituan: Donostiko udal-artxiboa, emengo eta Madrillko egunkari zaarrak eta bertan bizi zan Bilintxen billoba, beraren semearen semea alegia. Ala, 1978 urtean, liburu mardula atera genduan, tamaiñaz beintzat.

Liburu orrek Bilintxen izena eta bertsoak leenaz gain ezagutu arazi zituuala dudarik ez da. Ala, Eusko Jaurlaritzak euskal klasikoen bilduma bat plazaratzeari ekin zionean, bereala jabetu zan Bilintxen bertsoak ostera argitaratu bearraz. Donostiko bertsolala-

ria klasikoen maillara igoa zegoan, beraz. Lan ori guri agindu ziguten, eta atsegin aundiz egin genduan.

Orain, berriz, bertsolari onenen bizitza eta bertsoak agertu nai dituan *Auspoaren Sail Nagusia* deritzaion ontan, Bilintxenak nai eta nai ezkoak zirala ikusten ez duanik ez da. Bestela, izan ere, sail errena argitaratuko genduan.

Ala, zuzenketa batzuk eta abar sartu dizkiogu 1978-ko argitaraldiari; bai-

ta doiñu berri bat edo beste ere; eta bai Bilintxi eskeiñitako bertso-sail batzuk ere. Argitaraldi au obetu eta aberastu egin da, beraz. Ez, ordea, donostiar bertsolariak merezi ainbestean.

Izan ere, arek neskaxa batengatik ziona, guk berarengatik esan dezakegula uste det:

zuk asko merezi ta
nik gutxi baliyo.

A.Z.

BIZITZA

ETXEKO BERRI

Bilintxen jatorria, aitaren aldetik, Tolosatik eta Berastegitik zetorren. Aita, Jose, Tolosakoa baitzan; eta aitona, Rafael, Berastegikoa. Amona ere, Juana Bautista edo Maria Bautista -bitara esaten zaio agirietan- Tolosakoa zan.

Amaren aldeko jatorria, berriz, urruti samarretik aldatua. Aitona, Dionisio Ureña, Ayamonte-koa baitzan. Andaluzian dago erri ori, Huelva-ko probintzian, Atlantikoaren itxas-bazterrean eta Portugalgo mugan.

Bilintxen aitona ori, leenbiziko, Donostiko alaba zan Manuela Antonia Arbizuarekin ezkondu zan, San Bizenteko parrokian, 1785-III-19-an(1). Alargundu eta berriro ezkondu zan, 1792-IV-22-an, San Bizenten aldi ontan ere. Andregaiia, Jerarda Zamora, donostiarra zan, eta alarguna(2). Alaba bat izan zuten, Josefa Susana, 1795-II-11-n jaioa(3). Baiña berriro alargundu zan Bilintxen aitona ori, eta osteraz ezkondu, 1796-XI-3-an, San Bizenten. Andregaiia donostiarra zan, eta Maria Josefa Alana zeritzan(4). Alaba bat

izan zuten, 1797-X-31-n jaioa. Joakina Santos ezarri zioten izena(5). Auxe izango zan Bilintxen ama.

Bilintxen gurusoak, Jose Bizkarondo eta Joakina Ureña, 1819-VI-25-ean ezkondu ziran, San Bizenteko elizan(6).

Bost seme-alaba izan zituzten: Jose Ramon, 1820-IV-16-an jaioa; Teresa Martina, 1821-IX-5-ean; Josefa Ilaria Petra, 1825-IX-17-an; Josefa Franziska, 1827-IX-25-ean; eta Gillermo Joakin Indalezio, 1831-IV-30-can(7).

Azkeneko au degu, senideetan gazteena alegia, Bilintx bertsolaria izango zana. Iru izen ezarri zizkioten, beraz; baiña leenengo biak baztertu eta irugarrena bakarrik erabiliko zuan bere denbora guzian. Ez dakigu zergatik.

Bilintx izengoitia nundik zetorkion ere ez degu inñundik ere somatu aal izan; guk dakigularik beintzat, ez da ori inñun esaten.

Bilintxen bataio-agiriak onela dio:

“En primero de Mayo de mil ochocientos treinta y uno: Yo el infrascrito Vicario perpetuo de la Parroquia de San Vicente Levita y

Martir bautize á Guillermo Joaquín Indalecio que nació a las doce de ayer mediodía hijo legítimo de José de Bizcarrondo, natural de Tolosa, y Joaquina de Ureña, natural de esta: Abuelos paternos, Rafael, natural de Berastegui y Juana Bautista de Amunarriz, natural de Tolosa: Maternos Dionisio, natural de Ayamonte, y María Josefa de Alana, natural de esta: Padrinos Guillermo Marsan, y María Joaquina de Huici, y por ser verdad firme: Dn. Gregorio José de Echave.”(8)

Bilintxen aitona andaluzak, beste guziak bai, baiña bere biloba gazteen ura etzuan ezagutu; 1830-VII-20-an il baitzan, larogei ta zazpi urterekin(9).

Bilintxen ama 1855-VI-27-an il zan(10). Eriotz-agiriak berrogei ta amabost urte zituala esaten du; baiña berrogei ta amazapi zituan. Alarguna omen zan. Saiatu gera senarraren il-agiriaren billa, baiña ez degu arkitu. Ama il zitzaionean, Bilintxek ogei ta lau urte zituan.

Bilintx Donostiko Santa Mariko parrokian ezkondu zan, 1869-IV-5-ean. Ezkontza-agiriak ogei ta zortzi urte zituala esaten du; baiña oker dio, ogei ta emezortzi baitzitan.

Andregaiia Nikolasa Erkizia Makazaga zeritzan; ogei ta bi urte zituan, eta azpeitiarra zan.

Onela dio ezkontza-agiri orrek:

“En la Ciudad de San Sebastian, provincia de Guipuzcoa, yo Dn Elias de Gorostieta, Cura propio de la Parroquia de Santa Maria la Matriz, Obispado de Vitoria, desposé y casé por palabras de presente, y velé a Guillermo Joaquín Indalecio Biscarrondo, soltero, natural de esta, de edad de veinte y ocho años, hijo legítimo de José, natural de Tolosa, y Joaquina Ureña, natural de esta, y Nicolasa Erquicia, soltera, natural de Azpeitia, de edad de veinte y dos años, hija legítima de

Francisco Erquicia, natural de esta, y Josefa Antonia Macazaga, natural de Cestona: habiendo precedido despacho del tribunal Ecco. con dispensa de dos proclamas y otros requisitos necesarios para la validez y legitimidad de este Sacramento. Siendo testigos Dn. Antonio Arsuaga, natural de esta, Propietario, y Pedro Echeverria, natural de Villabona, sirviente de la Sacristia. Y para que conste lo firmo en San Sebastian a cinco de Abril de mil ochocientos sesenta y nueve. Dn. Elias de Gorostieta.”(11)

Andregaiia, esan bezela, Azpeitian jaioa zan. Baiña, amak ezin zualakoedo, Zizurkilko Pagamendi baserrian azi omen zuten(12).

Gero zeatzago esango degunetz, Bilintxen argazkirik ez degu inun arkitu; andrearen bai ordea. Argazki ori urteetan aurrera samar zijoanean egiña da. Baiña sasoiia joan ta gero ere alako lore ederra zana, zer izan ote zan ogei ta bi urterekin, Bilintxekin ezkondu zanean alegia?

Bilintx ia mutilzaartu ta gero ezkondu zan, eta ori neskatzak aintzat artzen etzutelako izan zala esan oi da beti. Baditeke orrela izatea ere. Baiña ez ote zan izango asko eskatzen zualako? Nekez konformatzen diran oieta-koa zalako, alegia?

Senar-emazte berriak Baionara joan omen ziran ezkonberritako ibillaldia egitera(13). Bilintxen bertsoetan eta bizitzan erri-izen gutxi ageri da: Oiartzun, Ondarrabi, Ernani, Tolosa, Azpeitia, Urretxua eta Goierriko beste erriren bat... Ibili ere gutxi egingo zan. Baionako ori, beraz, arek egindako joan-etorririk aundienetako bat izango zan, dudarik gabe.

Iru seme-alaba izan zituzten: Benito, 1870-I-12-an jaioa; Pio

1899 En la Ciudad de San Sebastian, provincia de Guipuzcoa, yo D.
 Don Juan de Guzman, cura propia de la Parroquia de Santa Ma-
 ría de la Victoria, Don Juan de Victoria, Don Juan de Guzman, cura propia de la
 Parroquia de San Sebastian, y Don Juan de Guzman, cura propia de la
 Parroquia de San Sebastian, hijos naturales de esta, de edad de veinte y
 ocho años, hijos legítimos de Juan de Victoria, natural de Victoria, y Doña
 Juana Victoria natural de esta, y de Juan de Guzman, natural de
 San Sebastian, de edad de veinte y dos años, hijos legíti-
 mos de Juan de Guzman, natural de esta, y Doña Victoria.
 Don Juan de Victoria, natural de Victoria, padre de Juan de Guzman, cura
 propia de San Sebastian, con su consentimiento y consentimiento
 necesario para la validez y legitimidad de este testamento.
 Hecho en la Ciudad de San Sebastian, natural de esta, Don Juan de
 Victoria, cura propia de San Sebastian, en virtud de la
 autoridad que me confiere el Sr. Obispo de esta Diócesis, y para que conste lo firmo en San Sebastian a once
 de Abril de mil ochocientos noventa y nueve.

1900 En la Ciudad de San Sebastian, provincia de Guipuzcoa, yo D. Juan de
 Guzman, cura propia de la Parroquia de Santa María de la Victoria, Don Juan de
 Victoria, Don Juan de Guzman, cura propia de la Parroquia de San Sebastian, y Don Juan de Guzman, cura
 propia de la Parroquia de San Sebastian, hijos naturales de esta, de edad de
 veinte y ocho años, hijos legítimos de Juan de Victoria, natural de Victoria, y Doña
 Juana Victoria natural de esta, y de Juan de Guzman, natural de San Sebastian,
 de edad de veinte y dos años, hijos legítimos de Juan de Guzman, natural de
 San Sebastian, y Doña Victoria, natural de Victoria, padre de Juan de Guzman,
 cura propia de San Sebastian, con su consentimiento y consentimiento
 necesario para la validez y legitimidad de este testamento.
 Hecho en la Ciudad de San Sebastian, natural de esta, Don Juan de Victoria, cura
 propia de San Sebastian, en virtud de la autoridad que me confiere el Sr. Obispo de esta Diócesis, y para que conste lo firmo en San Sebastian a once
 de Abril de mil ochocientos noventa y nueve.

Bilintxen ezkontza-agiria, Santa Mariko parrokian, Donostia.

Frantzisko, 1871-VII-11-n; eta Maria Ana Ilaria, 1874-VII-26-an(14).

-
1. San Bizenteko bostgarren ezkontza-liburuan, 94 orrian.
 2. San Bizenteko bostgarren ezkontza-liburuan, 110 orrian.
 3. San Bizenteko zortzigarren bataio-liburuan, 24 orrian.
 4. San Bizenteko bostgarren ezkontza-liburuan, 127 orrian.
 5. San Bizenteko zortzigarren bataio-liburuan, 55 orrian.

6. San Bizenteko seigarren ezkontza-liburuan, 4 orrian.
7. San Bizenteko bederatzigarren bataio-liburuan, 129 orrian; eta amargarren bataio-liburuan, 15, 73, 101 eta 168 orrietan.
8. San Bizenteko amargarren bataio-liburuan, 168 orrian.
9. San Bizenteko bostgarren eriotz-liburuan, 50 orrian.
10. San Bizenteko seigarren eriotz-liburuan, 33 orrian.
11. Santa Mariko irugarren ezkontza-liburuan, 114 orrian.
12. Bilintxen billobei entzuna.
13. Bilintxen billobei entzuna.
14. Santa Mariko laugarren bataio-liburuan, 228 orrian; eta bostgarrenean, 1 eta 172 orrietan.

BIZIBIDEA

Bilintxen bizibidea zer izan zan aztertutako genduke orain; bizimodua nundik eta nola ateratzen zuan.

Arotza omen zan. Arsuaga zeritzan baten aroztegiari aritzen zan lanean. Lantokiko bere bi lagun Domingo Kanpaña eta Erramun Moko izan ziran. Dakigunez, Moko esaten zioten Bilintxi ere bigarren izengoitiz.

Argibide auek Pepe Artolari zor dizkiogu; eta berak, gero zeatzago esango degunez, bere aitari ikasiak izango zituan.

Ain zuzen, Bilintxen leenengo semearen bataio-agirian esaten danez, aurraren aitapontekoa “*Jose Antonio Arsuaga evanista*” izan zan(1). Bigarren semearen bataio-agirian, berriz, onela esaten da: “*hijo legitimo de Indalecio Bizcarrondo, carpintero*”(2). Alabaren bataio-agirian: “*hija lejítima de Indalecio Bizcarrondo, carpintero*”(3). Eta Bilintx ezkondu zanezko agirian: “*siendo testigos Dn. Antonio Arsuaga, natural de esta, propietario*”(4).

Argibide geiago ere arkitu ditezke;

baiña aitaturako oiek aski dirala uste degu. Oietan esaten zaigunez, Bilintx arotza zan; eta Antonio edo Jose Antonio Arsuaga zeritzan baten aroztegiari lan egiten zuan.

Ala, beraren biloba Antoniok esan zigunez, Bilintxek egindako armario aundi bat, gaztain-egurrezkoa, oraindik ere etxean dute.

Baiña Teatro Zaarrean ere jarduten omen zan. Teatro Zaarra Kale Nagusiko sarreran dagoan *Teatro Principal* izeneko orri esan oi dio beti erriak euskeraz. Guk ere orrela esango diogu emendik aurrera.

Bilintx orko konserje izan omen zan. Leengo zaarretatik aotik aora datorriguna da ori; baiña idatziz ere ala esaten da zenbait tokitan. Leenengo semearen bataio-agiriak onela dio: “*hijo legitimo de Guillermo Joaquin Indalecio Bizcarrondo, empleado en el Teatro*”(5). Eta 1871-ko *Padrón Municipal*-ean Bilintx *conserje* zala esaten da.

Pepe Artolak ere onela esaten digu:

“Donostiako Biltoki edo *Teatro* zarrean bi-

zi zan bolara batean Bilintx, leku arretan ospatzen ziran *funtzio*etarako arotz-lanketak egiñaz.”

Baiña Teatro Zaar ori Donostiko erriarena zan Bilintxen denboran. Orregatik, Bilintx orko langille izanik, udaletxeko artxiboan argibideren batzuk ager zitezkeala uste izatekoa zan. Eta ara joan eta alaxe gertatu.

Udaletxeko artxibo ortan (*Sección B, Negociado 6, Serie I, Libro 3, Expediente 2*), zenbait paper bilduta daude izenburu onekin: (*Asunto: Teatro Principal (del Municipio) - Personal Encargado de su cuidado*).

Atal ontan emendik aurrera emango ditugun argibide guziak, besterik esaten ez bada beintzat, paper oietatik atereak dira.

1863 urtean, Teatro Zaar ori konserjerik gabe gelditu bearra dala-ta, zenbaitek lantegi ori eskatzen diote Erriko Etxeari.

Oietako bat, leendabizikoa, Lukas Rubio, 1863-III-16-ko eskari batean. Ogibidez “*pintor y director de maquinaria de teatros*” omen da. Amalau urte egin ditu ortan eta langintza ori ongi ikasia omen du.

1863-III-31-n, eskari berdiña egiten du Jose Domingo Agirrebarrenak. Onek ere, berak dionez, ongi merezia du lantegi ori:

“...*Que ha llegado a su noticia, que V. S. piensa proveer en otra persona la plaza de conserje del Teatro que hoy está á cargo de D. Juan Bautista Mignagoren, pero quien ha desempeñado por encargo suyo el servicio que aquel debía hacer en el espacio de catorce años, es el recurrente, que se presenta hoy á optar á esa plaza; al dirsela a V. S. debe ha-*

cerle presente, que para el servicio que ocurrido hasta hoy, y pueda ocurrir en adelante en el Teatro, tiene su taller de carpinteria en el mismo local y sitio en que lo tenia el finado Enrique Roset, y ofreciendo no molestar para nada de la habitación que ocupa la viuda é hijos del indicado Roset, con el fin de que puedan estar mas á mano para hacer la limpieza interior del Teatro y su cuidado, por todas las razones expuestas me mueven á recurrir a V. S.”

Suplicandole que previos los informes que guste tomar de la certeza de lo que llevo referido, y puesto que V. S. sabe proteger en cuanto este de su parte á los hijos de esta Ciudad, espera que accedera á la gracia que solicito...”

Beraz, Juan Bautista Mignagoren zan berez Teatro Zaarreko konserjea. Baiña ango lanak, amalau urtean, Jose Domingo Agirrebarrenak egiñak zitu. Aroztegia ere teatro barruan zuan jaun onek, Enrike Roset zanak izan zuan toki berean. Konserjeari zegokion bizilekuan, Roset orren alarguna eta familia bizi ziran; baiña Agirrebarrena orrek etzuan aiek andik ateratzetik nai. Arrazoi oiengatik, eta erriko semea zalako ere bai, langintza ortarako artuko zutelakoan zegoan.

1863-IV-1-ean, irugarren batek, Jose Fernandez-ek, eskabide berdiña egiten du. Onek ere baditu bere merituak:

“...*teniendo conocimiento práctico en dho teatro por los muchos años que lo ha frecuentado como actor dramático y actor representante de varias empresas...*”

Erriko Etxeak erantzunik emango zien noski eskutitz oiei; baiña artxiboan ez degu kopiarik arkitu.

Ala ere, nor aukeratu zuten ikasi

degu: 1865-II-17-an, Erriko Etxeko teatro-batzordeak araudi berria egiten du, konserjearen eginkizunak zein izango diran adieraziz eta asieran onela esanez:

“...al destino de Conserge de la casa Teatro, vacante por fallecimiento de Jose Domingo Aguirrebarrena que lo egercía.”

Oraingo ontan, esan bezela, konserjetzarako iñor artu baiño leen, araudi berria egin zuan teatro-batzordeak, arango eginkizunak eta lanak zein izango ziran zeatz adieraziz.

Oso aitamen luzea izango da. Baiña merezi du ósorik eta itzez itz onera aldatzea. Bilintx zertan aritzen zan, bere orduak zertan igarotzen zituan, aren eguneroko bizitza zer zan azalduko baitigu. Argitasun aundia egiten du araudi orrek Bilintxen bizitzan. Onela dio:

“La Comision del Teatro se há enterado de varias solicitudes presentadas por diferentes personas que aspiran al destino de Conserge de la casa Teatro, vacante por fallecimiento de Jose Domingo Aguirrebarrena que lo egercía.

Reservando la comision para manifestar al Ayuntamiento verbalmente la opinion que há formado acerca de las cualidades de los solicitantes, cree de su deber consignar, que deben renovarse por medio de un contrato público y solemne con la persona que obtenga ese destino, todas las condiciones necesarias para su buen desempeño, y para que se eviten en lo sucesivo descuidos que podrían acarrear graves disgustos y una gran responsabilidad á la Corporacion Municipal.

Estas condiciones, algunas de las cuales han estado vigentes cuando egercía el cargo de conserge Dn. Juan Bta. Mignagoren, con las modificaciones necesarias por el cambio del alumbrado público, podrían ser en concepto

de la Comision las siguientes:

1.ª El Conserge se hará cargo bajo inventario del edificio del Teatro, y serán de su cuenta la conservacion de este, la de sus decoraciones y maquinaria, la de todos sus muebles y efectos; la composicion ó reparacion de goteras, la reposicion de cristales del edificio, la reposicion de las cuerdas, poléas, cerrajas y llaves, el blanqueo de los tránsitos y la limpieza y asêo del interior y exterior de dicho edificio. Será tambien de cuenta del mismo Conserge, la renovacion de las manchas o rozaduras de los telones y bastidores, pero no así las restauraciones en todo ni en parte, fuera de lo arriba indicado.

2.ª El Conserge no responderá de las averías de fuerza, incendio ni de cualesquiera defecto de construccion del edificio ni tampoco de los vicios que puedan aparecer en él.

3.ª No será de cuenta del conserge la renovaciôn del papel de los palcos ni tránsitos en todo ni en parte, ni tampoco la del forro de las lunetas ni otra clase de asientos.

4.ª Será obligacion del Director de Compañía o Artistas que ocupen el Teatro el que con respecto al alumbrado se entiendan indispensablemente con dicho Conserge, que como responsable de la conservacion de las piezas que constituyen el material y accesorios del Teatro, guardará siempre en su poder la llave del Contador y encenderá y apagará los mecheros de gas.

5.ª Por ningun concepto consentirá el Conserge que en sitios donde no esten establecidos los mecheros de gas se haga uso de cabos de vela sueltos, y las luces que necesite la Compañía para el servicio de vestuarios etc. deberán estar colocadas precisamente en faroles de cristal.(6)

6.ª El conserge, despues de concluida la funcion y cuando se hayan retirado los actores girará una visita de inspeccion con toda escrupulosidad para ver si se nota alguna causa de incendio, y cerrará las ventanas bajas que estuviesen abiertas.

7.^a El conserge cuidará de que no se haga ninguna alteracion en la forma en que se encuentran el escenario y decoraciones, ni tampoco que se varíen el órden de los asientos y de los palcos, sin consentimiento prèvio de la Comision.

8.^a Todas las personas que se hayan de emplear en el manejo de la maquinaria han de ser designadas por el conserje, pero pagadas por la compañía del teatro.

9.^a El empresario de la compañía deberá satisfacer igualmente los jornales de dos operarios, que son de absoluta necesidad para preparar de ante mano las decoraciones, mutaciones ó cambios de la representacion, para cuyo objeto deberán entregarse al conserge las notas correspondientes, antes de las ocho y media de la mañana del dia de la representacion.

10.^a La compañía no podrá hacer uso de las puertas exteriores ó tenerlas abiertas para los ensayos ú otro objeto cualquiera, sin que ponga porteros á fin de no permitir la entrada á otras personas, que las que tengan que acudir á los ensayos.

El conserge cuidará de prohibir que en el átrio del edificio jueguen los niños y haga nadie uso de los escusados durante las horas que no son de funcion, esceptuando las personas de la compañía y demas empleados ocupados en preparar y ensayar las representaciones.

11.^a Se autoriza al conserge para que como una retribucion de las obligaciones á que se compromete á virtud de las condiciones precedentes, exija y cobre dies y seis reales vellon por cada vez que hay representacion, concierto ó baile en el teatro, cuya cantidad deberá ser satisfecha por los empresarios de la funcion. Por la inspeccion y cuidado del alumbrado en lo referente a la bien entendida economía que redundan en beneficio del Empresario, pero sin perjuicio al Público, podrá contratar con aquél el uso de una gratificacion que en ningun caso escederá de diez reales vellon por cada noche.

12.^a El Conserge hará uso de la habitacion y cuarto al piso llano que le están destinados en el edificio, siendo el cuarto el que ocupa de taller, sin pago alguno por el Conserge.

San Sebastian 17 de Febrero de 1865.

Franc^o de Mendiola / Diego Camp... (7) / Fermín Machimbarrena."

Biamamonean batzarra egin zuten udal-gizonak, eta araudi ori ontzat artu eta Juan Bautista Mignagoren ori izendatu zuten konserje:

"En sesion del diez y ocho de Febrero, adoptó el Ayuntamiento las reglas precedentes, y el veinte y dos del mismo mes, quedó nombrado para Conserge del teatro, D. Juan Bautista Mignagoren. San Sebastian 27 de Marzo 1865.

El secretario: Lorenzo Alzáte."

Mignagoren orrek idatziz beartu zuan bere burua araudi ori betetzera, eskatu ere ala egingo zioten eta:


"Me obligo al cumplimiento de las reglas que preceden. Jn. Bta. Mignagoren."

Baiña Mignagoren ori gaixorik-edo zegoan. Konserje-lanetarako gauza etzan beintzat. Berea zuan lanategi ori *-en propiedad-*, baiña zer egin danak beste bati utziak zizkion. Beste ori Bilintx zan.

Onela dio berak, Bilintxek alegia, 1865-XI-28-an, bere eskuz firmatutako eskutitz batean:

"Indalecio Bizcarrondo de esta Vecindad á V. S. con el respeto debido expone:

Que á la muerte del anterior Conserge del Teatro mereció de esa Corporacion favorable acogida la solicitud que presentó para alcanzar ese puesto, y obtuvo la provision de el aunque en cabeza de Dn. Juan Bautista Mignagoren, y desde entonces lo viene desempeñando con el caracter de sustituto de este.



Donostia, 1836 urtean. (Vista general de San Sebastián en 1836: Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis. Viaje al país de los fueros, 1878.*)

Habiendo fallecido el espresado Señor, confia en obtener de la munificencia de V. S. la continuacion en su empleo y

Suplica tenga á bien acordarle el debido nombramiento si así lo estima conveniente.

Dios guarde á V. S. muchos años,

San Sebastian 28 de Noviembre de 1865.

Indalecio Bizcarrondo.

Muy I. Sor. del Ayuntamiento / San Sebastian."

Bilintzek leendik ere eskatua zuan, beraz, konserje izatea, aren eskari ori orain arte iñun azaldu ez bada ere. Izendapena Mignagoren orrentzat izan zan, naiz eta lana Bilintxen bizkar gel-ditu.

Baiña Mignagoren ori il eta Bilintzek berriz ere eskatu.

Biaramonean, 1865-XI-29-an, udal-gizonen batzarra egin eta teatro-batzordeari iritzi bat eskatzea erabaki zan:

"Sesion de 29 de Noviembre 1865. Informe la comision del Teatro."

Baiña beste batzuek ere eskatua zuten lantegi ori:

"Tambien aspirantes, Jose Fernandez y Jose M^a Ariztimuño. Juntar sus memoriales."

Dakigunez, Jose Fernandez batek leen ere eskatua zuan, eta jaun ori bera izango da seguru aski.

Bilintzek, ordea, lantegi ori nai zuanik besterik ere bazala ikasi zuan; eta orduan, berriz ere galduko zuan kezketan jarri eta eskutitz bat egin zion teatro-batzordeari, 1865-XII-9-an.

Eskutitz orrek argibide asko ematen dizkigu. Bilintxen autobiografia-puska bat dala esan ditekete. Orregatik, oso-

-osorik eta itzez itz aldatzen degu onera:

"Indalecio Bizcarrondo, Conserje en sustitucion del Teatro de esta Ciudad, se atreve á molestar la atencion de Vs. para exponerles los siguientes hechos.

Al entrar á desempeñar el cargo de Conserje de este Teatro en 20 de Febrero de este año, lo encontré en el estado de suciedad y abandono mas lastimoso que puede imaginarse. El pavimento interior del escenario, los cuartos de los actores, la galeria interior y los fosos de la maquinaria estaban tan cargados de basura que se estrageron tres carretadas de ella, y entonces desapareció el hedor que despedia esta sección del Coliseo. La parte de carpinteria estaba en un estado de abandono completo, y fué necesario que tomase á mi cargo á jornal otro oficial de carpinteria que me ayudase en la obra, á causa del excesivo volumen y peso que tienen los aparatos de la maquinaria. Solo de esta manera y á favor de un trabajo constante he logrado poner órden en la parte material del edificio, y solo así he podido ademas corregir los desperfectos que encontré en el mobiliario, poniendo asientos nuevos a veinte sillas de la orquesta, cubriendo con veinte y seis fundas nuevas los quinqués y retocando todo lo que encontré en estado de abandono. Solamente en los jornales y en el material necesario para esos reparos, he desembolsado desde mi entrada en el teatro la suma de 540 reales de vellon. Durante ese término se han dado en el Teatro 74 representaciones que á razon de 16 reales que van para el conserje han rendido 1184 reales: de estos he tenido que dar al finado Dn. J. B. Mignagoren como conserje propietario 444 reales á razon de 6 reales por funcion: de manera que descontando esos y los 540 por mí desembolsados, solo me han quedado en limpio, de los 1184 reales cobrados al cabo de nueve meses, doscientos reales para mí; esto es, menos de un real por dia.

Los trabajos que yo he realizado en el tea-

tro han sido con la esperanza de obtener algun día el cargo de conserge en propiedad, á una con los de maquinista y alumbrador que siempre han sido de la pertenencia del Conserge, atendiendo á lo poquísimo que produce la consergería, y atendiendo tambien á que nadie tiene mas interés que él en cuidar de esos objetos, puesto que es obligacion suya el reparar las averías que sufran.

En estas circunstancias ha llegado á mi noticia que el empresario actual del Teatro trata de conferir esos dos cargos á otra persona; y esta es la causa de que me haya decidido á molestar la atencion de Vs., en la confianza de que sus sentimientos de justicia y de equidad no permitan que en esta ocasion se alteren las costumbres que en este particular han sido observadas desde la ereccion del Teatro.

Dios guarde a Vs. muchos años. San Sebastian 9 de Diciembre de 1865. Indalecio Bizcarrondo.

Sres Presidente y Vocales de la Comision del Teatro. Sn. Sebastian.”

Teatro-batzordeak andik amalau egunera, 1865-XII-13-an, eman zuan bere iritzia:

“En virtud de lo que se ordena en el decreto que antecede, la Comision del Teatro se ha informado á cerca de las cualidades y méritos que adornan á los individuos que pretenden la consergeria del mismo y en atencion á las que reune el solicitante Indalecio Bizcarrondo y teniendo presente que durante el tiempo que viene desempeñando interinamente dho cargo, lo ha hecho con las mejores condiciones, es de su opinion proponerlo al Ayuntamiento dho cargo en Propiedad.

Sn Sebn. 13 Dicre. 1865.

Isaac Goizueta / Pio Baroja / Grego Manterola.”

Bilintxen izendapenik ez degu iñun arkitu(8). Baiña bera berezi eta onartu zutela dudarik ez da. Geroztik teatro

ortan izan zuan bere bizibidea.

Ain zuzen, andik iru urtera beste eskutitz bat egin zion Bilintxek udalari, zerbait eskaturik:

“Indalecio Bizcarrondo, Conserge del Teatro, á V. S. respetuosamente expone:

Que siendo insuficiente para taller de carpinteria del Teatro por su escasa capacidad el cuartito que se encuentra en la fachada principal frente al despacho de billetes, como que suelen hacerse fuera de él los trabajos de carpinteria por regla general, desearia el exponente utilizarle para otro uso mas propio del lugar en que se halla, haciendo en él por su cuenta una estantería y mostrador con destino a la venta de libros, libretos de ópera, comedias, etc. que en la estacion de verano sobre todo suelen ser solicitados.

Y no siguiéndose de esto ningun perjuicio al local ni al Ayuntamiento, toda vez que el exponente hará los trabajos de carpintería y decoracion en otro local por su cuenta, espera y

Suplica a V. S. tenga á bien concederle la autorizacion que solicita.

Dios guarde a Vs. muchos años, San Sebastian 3 de febrero 1869. Indalecio Bizcarrondo.”

Eman ere egin zioten baimen ori. Ain zuzen, teatro barruan dendatxo bat izan zuala leendik ere gauza jakiña genduan. Liburuak ez-ezik, edariak ere saltzen omen zituan. Baiña ontaz geroago mintzatuko gera.

Oar bat egin nai genduke orain. Bilintxen eskutitz oiek berak firmatuta daude, baiña beste batek idatzita. Beste orrek letra dotorea du Bilintxen aldean. Garai artan idazteko makinarik etzan, eta edozein moduz eta itz arruntez ezin, bada, udalari eta olako tokietara eskutitzik egin. *Calígrafo*-ren bat-edo bearko zan ortarako, onek bere

saria eskatuko bazuan ere.

Eskutitz oietan, Teatro Zaar ortan lanean agertzen zaigu Bilintx, 1865-II-20-tik aurrera. Ogei ta amalau urte bete gabeak zituan orduan, eta ia beste amaika urtean antxe jardungo zan. Orregatik, gogoko gauza bazuan edo ez bazuan, teatro-jaialdi asko ikusia izango zan ura; ta, guk esan bear bagendu, gustatu ere egingo zitzaizkion ari.

Baiña teatro-jaialdi oiek kutsurik utzi al zuten, geroztik arek jarritako bertsoetan? Galdera orrek merezi luke, guk uste, azterketa bat arretaz egin eta erantzun sakona ematea. Baiña bego beste batentzat edo beste aldi baterako lan ori, denbora asko eramango liguke eta.

Beste galdera bat: teatroan asi zanean, Arsuagaren aroztegia utzi ote zuan? Alegia, bi lan oiek batera egiten zituan ala leendik zuana utzi bearrean arkitu zan? Andik urte batzuetara, 1887-an, konserje-lana beste lantegirekin ezin uztartu ditekela esaten da. Baiña, bearbada, Bilintxen denboran etzan orrela izango. Ziur esateko ez dakigu, beraz. Argibide berririk agertu ezean, galdera ori bere ortan utzi bear-ko degu.

Baiña konserje-lanak etzitian Bilintxek bakarrik egiten. Andrea laguntzen zion. Aditzera ala ematen du, beintzat, beren billoba Antoniok kon-tatu digun urrengo gertaera onek.

Besoan erreuma-aizeak jota omen zebillen andrea, eta batenbatek, besoa alkoolez ondo igurtzi eta gero, *venda*

bat, lotura bat jartzeko esan omen zion, ona zala eta.

Bai jarri ere. Baiña ondoren teatroan jaialdiren bat izaki eta argiak piztutzen asi zan. Artean indar-argirik ez eta su-argiak erabili bear noski. Arestian aitaturako araudi ortan, konserjearen eginkizunetatik bat onela adierazten da: “...*encenderá y apagará los-mecheros de gas*”. Artan ari zala, besoak su artu omen zion; eta, itzali zutenerako, asko xamar erre. Bere denbora guzirako seiñalea gelditu omen zitzaion.

Baiña teatroko lanak egin ez-ezik, *refreskoak*-eta saltzen omen zituzten bertan, jaialdirik zanean: ura *eskonfakin* eta orrelakoak. Ortarako ere, bearbada, liburuak-eta saltzeko prestatutako gela ura izango zuten.

Zaartu ondoren Bilintxen andreak bere billobei esaten zienez, erderaz *aguardiente de caña* deritzaion patarra ere izaten zuten salgai, eta oso ona gaiñera; Donostian beste iñork etzuan bezelakoa.

Andrea ere gogotik saiatzen zan, beraz, etxerako biltzen. Ain zuzen, 1871-ko *Padrón Municipal*-ean, Bilintxen andrearen izenaren ondoan, zer bizibide zuan adierazteko tokia utsik dago. Etzuan artean etxeko lana besterik egingo.

Baiña 1872-ko *Padrón Municipal*-ean toki ori beteta dago. Onela dio: *comercio*. Dendaren batean-edo salmentan saiatzen zala esan naiko du.

Granadak Bilintx jo zuean, Serafin Barojak eskutitz bat bialdu zuan Donostitik Madrilko *El Tiempo*

egunkarira, berri txar ori eman ez eta onela ziola:

“El fruto de largos años de un penoso trabajo unido á una cantidad mayor que tenía dispuesta para el pago de suscripciones de periódicos, 8.000 rs. en total, le fueron arrebatados por un infame que no pudo ser habido.”

Diru ori, beraren billoba Antoniok esan digunez, etxean zuten, komoda batean, kajoian; eta batenbatek, etxera sartu eta eramán. Ez omen zuten nor izan zan iñoiz ikasi.

Egunkarietako arpideen dirua eramán bazien lapur orrek, periodiko saltzen ere jarduten zirala esan nai du. Andrea saiatuko zan ortan.

Ain zuzen, gerra asi zanean eta ola-koetan oi danez, jendea egunkariaren zai-zai egoten omen zan, berriak jakitearren. Donostian bertan bazuten *Diario de San Sebastián* zeritzana. Baiña agidanean arekin ez asetzen eta Madrilkoak ere nai jendeak. Oiek, ordea, trenez ekarri bear eta trena ez beti etortzen.

Bein batez, trena iritxia zala-ta, Bilintxen andrea estaziora joan omen zan periodiko billa. Jaso du bere zama ori; eta, etxe aldera abiatu danean, or ekiten diote karlistak kañonazoka, Donostia bonbardeatzen.

Garai artan, estazioa erritik kanpora zan, eta nun izkutatu ez Bilintxen andreak. Aalegiñean korrika egiñagatik, ez omen zan nai ordurako etxeratu.

Gero, zaartutakoan, askotan kontatzen omen zuan bere larrialdi ura. Ez omen zan une gozoa izan.

Eta *Diario de San Sebastián* egunkariak, granadak Bilintx jo eta berealaxe, 1876-II-27-an, onela esaten du:

“Tenemos entendido que la familia del apreciable cuanto desgraciado poeta vascongado Vilinch, ha solicitado se le conceda autorización para la venta en su establecimiento de toda clase de efectos timbrados.

Se le ha otorgado desde luego la venta de tabacos del Estado, pero no así todavía la de sellos de correos y telégrafos y el papel sellado.”

Periodiko saltzen asi ziran, beraz, leenengo. Urrena, tabakoa jarri zuten salgai. Ondoren, korreo-seilloak eta orrelako beste zera guziak saltzeko baimena eskatu zuten. Eman ere egingo zieten, itxurak diranez beintzat.

Izan ere, tartean gerra izan zalakodo, ez da beste *Padrón Municipal*-ik azaltzen, 1882 urtera arte. Eta orduan Bilintxen alargunagatik onela esaten da: *empleada*. Eta 1887-koan: *estancuera*.

Ez dakigu estanko orrek noiz arte iraun zuan. Dionisio Azkuek, *Dunixi* idazleak alegia, 1931-n Bilintxi buruz egin zuan itzaldian, onela zion bere buruagatik:

“...compró en su estanco(8), de chico, las “calcaminias” y más tarde las primeras “ixortas”...”

Estanko ori Teatro Zaarraren aurre-aurrean omen zegoan, Kale Nagusia eta Enbeltran kaleko kantoi-kantoián.

Bilintxek eta bere emazteak izan ziztuzten bizibideak, beraz, onako auek agertu dira: arotz-lana, Teatro Zaarra, bertan *refreskoak*-eta saltzea, egunkariak eta estankoa. Ezin esango degu senar-emazte saiatuak etziranik.

Bilintzen billobak etzuten beren aitonazagutu noski; baiña beren amonaz bai. Eta, danak ao batez esan diguteenez, ura langille purrukatua omen zan.

Senarra il ondoren, berak bakarrik familia aurrera ateratzeko ere, zerbait bearko zuan noski; baiña ori arek bezela egiten dutenak oso bakanak izaten dira.

Beste argibide gogoangarri bat ere agertu da *Padrón Municipal* oietan. Batean, 1872 urtekoan, irakurtzen eta idazten ez dakiala esaten da Bilintxen andreagatik. Urrengoan, berriz, 1882-koan alegia, baietz: irakurtzen eta idazten badakiala.

Beste bide batetik ere gauza bera ikasi degu. Senarra il eta laster, 1876-VIII-2-an udalari egin eta geroago aitatu degu eskutitz batean, ez du berak firmatzen. Onela esaten da: "*De mano agena: Nicolasa Erquicia. Viuda de Indalecio Bizcarrondo*". Berak firmatuko zuan noski, jakin izan balu. Baiña 1887-XII-5-ean egindako eskutitz batean, berak bere eskuz firmatzen du.

Irakurtzen eta idazten ikasteko urterik onenak aspaldi joanak zituan arek; baiña nolabait ere moldatu zan ortaraiño irixteko ere. Ez du edozeiñek orrenbeste egiten.

Beraren billobak esan digutenez, beren amona ori buruz oso argia omen zan, eta gauzak ikasteko ere gogo aundikoa. Berak ezagutu zutenean, periodikoa egunero irakurtzen omen zuan, eta an esaten ziranaz ederki jabetu ere bai. Eskutitzak ere idazten omen zituan, lan ortan ainbesteko erreztasunik ez bazuan ere.

1. Santa Mariko laugarren bataio-liburuan, 228 orrian.

2. Santa Mariko bostgarren bataio-liburuan, 1 orrian.

3. Santa Mariko bostgarren bataio-liburuan, 172 orrian.

4. Santa Mariko irugarren ezkontza-liburuan, 114 orrian.

5. Santa Mariko laugarren bataio-liburuan, 228 orrian.

6. Saietsean eta bi esku ezberdiñez idatzita, onako oar auek erantsita daude emen:

"excepto en los casos que el mismo conserge, como responsable, lo conceda."

"excepto en los casos que a juicio del conserge pueda concederles."

7. Abizena ezin osorik irakurri.

8. Bilintxen alargunak, Donostiko Udalari 1887-XII-5-ean egindako eskutitz batean, onela dio:

"Y expone: que hallandose desempeñando el cargo de conserge del "Teatro Principal" de esta Ciudad, propiedad de esa Exma. Corporacion, desde el 4 de Febrero de 1869 en que fue nombrado su finado esposo, D. Indalecio Bizcarrondo (Q. E. P. D.)..."

Baiña 1869-II-4-eko egun ori ez al da oker egongo? Bezperan eskutitz bat egin zion Bilintxek udalari, asieran onela esanez:

"Indalecio Vizcarrondo, Conserge del Teatro..."

Bere burua konserjetzat zeukan, beraz, Bilintxek. Baiña etzeukan ori esaterik, artean izendatu gabe izan balitz.

Ortaz gaiñera, eskutitz berean, eskaera luze bat egiten dio udalari: teatroko gela bat, ordurarte zeregin baterako erabiltzen zana, andik aurrera beste baterako izatea.

Era ontako eskabidea urteak bere lanean daramazkian bati obeki dagokio noski, bere lantegia artean seguratu gabe daukanari baiño.

Barbada, 1869-II-4-eko ori ez da Bilintxen izendapena izango, bezperan berak egindako eskutitzari udalak ematen dion erantzuna baizik.

BIZILEKUA

Bilintx, leen esan bezela, San Bizenten bataiatu zuten. Parroki orren barrutian jaioa izango zan, beraz. Baiña zein kale eta etxetan? Bataio-agiriak ez du orrelakorik esaten, eta ori somatzeko beste biderik ez degu iñun ikusten.

Aurreko atalean esan degunez, Teatro Zaarreko konserje izateak teatroko etxe berean ematen zuan bizilekua.

Bizitoki ortan Enrike Roset zanaren familia zan 1863 urtean, Jose Domingo Agirrebarrenak konserje-lantegia eskatu zuanean. Baiña, esan bezela, etzuan nai famili ori andik ateratzerik.

Teatro-batzordeak 1865-II-17-an egin zuan araudian, berriz, onela esaten da:

“El Conserje hará uso de la habitacion y cuarto al piso llano que le están destinados en el edificio...”

Orduan Mignagoren jaunari eman zioten lantegi ori, eta beraren mende geldituko zan bizilekua ere.

Baiña andik illabete batzuetara il zan. Orduan Bilintxi eman zioten lan-

tegia, eta bizitokiko atea ere zabalik utziko zioten. Segituan aldatu ote zan ara? Ditekena da noski; baiña berak udalari egindako eskutizetan ez degu orren aitamenik arkitu, eta beste iñun ere ez.

Andik lau urtera, 1869-IV-5-ean, Santa Mariko elizan ezkondu zan Bilintx. Baiña andregaia parroki ortakoa izan zitekean eta ortik ezin genezake argibiderik atera.

Beren leenengo semea, ordea, Santa Marian bataiatu zuten; eta onek senar-emazteak parroki orren barrutian bizi zirala esan nai du.

Baiña zein kale eta etxetan? Bilintx Teatro Zaarreko konserjearentzat zegoan etxean bizi zala esan izan da beti; Kale Nagusian alegia. Arestian aitatutako Pepe Artolak ere orixe esan digu.

Padrón Municipal izeneko liburuak ere ori bera esaten dute. Leenengo *Padrón Municipal* 1871-koa da; eta onek Bilintx bere emazte eta leenengo semearekin Kale Nagusian eta Teatro Zaarrean bizi zala adierazten digu: *Calle Mayor, Teatro*.

Urrengo *Padrón Municipal*-a 1872-koa da. Ontan, Bilintxen bizilekua nun zan onela esaten da: *Mayor 1, 3º*. Leengo etxe ori bera izango da, dudarik gabe. Or goien esan bezela, Teatro Zaarra Kale Nagusiko sarreran edo asieran baitago.

Leen esan degunez, bitartean gerra izan zalako-edo, urte-mordoska batean ez da *Padrón Municipal* edo orrelako libururik egiten. Urrengoa 1882-koa da; Bilintx il eta gerokoa, beraz. Eta onek ere, Bilintxen alarguna eta aurrak nun bizi ziran adierazteko, onela dio: *Mayor, Teatro*.

Bilintxen billobei ere galdetu genien ontaz, eta baietz esan ziguten: etxea Kale Nagusian zutela; teatroak konserjearentzat bizileku bat zuala eta antxe; teatroaren gaiñeko aldean zala ori; geroztik bi aldiz-edo berriztatua dala eta teatro orrek leengo antzik ez duala orain; eta granadak ere antxe jo zuala beren aitona.

Juzgadoko eriotz-agiriak ere, Bilintxen bizilekua nun zan onela adierazten du: *“domiciliado en la calle Mayor, casa-teatro, piso tercero”*.

Jose Alberdi zeritzan batek Teatro Zaarreko konserje izatea eskatu zion udalari, 1887-XII-7-an egindako eskutitz batean. Eskabide ortatik onako itz auek artzen ditugu:

“Como quiera que al Conserje anterior se concedió en el edificio del mismo Teatro, habitación para vivir en él, el exponente, al encargarse de dicha conserjería, solicitó la concesión de la misma habitación, que ocupaba y ocupa Dª Nicolasa Erquicia, viuda del anterior conserje...”

Bilintx an bizi izana zan, beraz, eta alargunak artean bertan jarraitzen zuan.

Ez dago ortaz zer duda egin. Baiña bestela esan duanik ere bada. Granadak Bilintx jo eta purrukatu zuanean, M. Curros Enríquez periodistak, oi zuanez, eskutitz bat bialdu zuan Donostitik Madrilko *El Imparcial* egunkarira, onela esanez:

“Cuando lo supe, anoche mismo, yo, que conocía al nobilísimo Vilinch por varios de sus cantares y por referencias de las personas más ilustradas de esta capital, acompañado de su buen amigo D. Cirilo Latierro, fui á su casa, calle del Puerto, núm. 5...”

Ori ez da orain arte esan ditugunekin iñola ere ondo uztartzen. Curros Enríquez ori gallegoa zan berez, eta etorkiña Donostian; eta bearbada kale-izenak artean ondo ikasi gabeak izango zituan.

Edo bestela, arriskutik atera eta toki babesagoan jartzearren, beste kale ortara eraman ote zuten Bilintx? Baiña gizarajoa bai ote zegoan, granadak anak apurtu zizkion egun berean, iñora eramateko moduan? Ez du itxurarik.

GERTAERAK

Adolfo Morales de los Ríos, bere *Las sidrerías de San Sebastián* idazlanean (*Euskal-Erria*, 1888), Bilintxen gertaera au kontatzen digu:

“El célebre Vilinch, el vate donostiarra, gustaba en sus mocedades de correr las sidrerías.

Cierto día, la persona que me refería el caso, al pasar por la calle de Pescadería, oyó por entre las rejas de Soroaeneko-bia, una voz conocida que cantaba el precioso Domingo Campaña; era Vilinch. Acertó a pasar por allí su amigo Ugartemendía, y como le oyera concluir la canción, le cantó a su vez:

Indaleziok, dagon tokiyan,
arratoi zarra diruri...

A lo que le contesta seguidamente el de abajo:

Arratoi zarra eroriko dek,
tranpan jarri zak urdaia...

Estas improvisaciones eran cons-

tantes. Era costumbre, cuando el pueblo ceñía murallas, reunirse en dos bandos sastres y zapateros a la hora del toque de queda y recorrer cantando la ciudad. (Buena manera de guardar la queda.)

En cuanto ambas partidas se encontraban, entablábase entre ellas duelo cortés de chanzonetas y pullas, cantadas y versificadas por uno de los de la banda.

Las voces de los bajos de la ronda acompañaban y coreaban en sordina al canto del improvisador o bersolari.

Muchas de éstas canciones subsisten y es lástima que no se recojan oportunamente, porque las hay lindísimas...”

* * *

Bilintxen gertaera batzuk Pepe Artolak bildu eta idatzi zituan.

Pepe Artola ori Donostian jaio zan, 1864-I-4-ean; eta bertan il, 1929-IV-29-an. Amar urte zituan, beraz, Bilintx mundu ontatik joan zanean. Gazte-

txoa, noski, ura ondo ezagutzeko. Baiña etxean zeukan aren gertaerak-eta nori ikasi: beraren aita, Ramon.

Ramon Artola Tolosan jaio zan, 1831-VIII-31-n; baiña Donostian egin zuan bere denborarik geiena, eta bertan il zan, 1906-VIII-20-an. Bilintxen kidekoa ez-ezik, bertso-jartzaille ugari eta bikaiña izan zan, eta aren laguna ere bai, dudarik gabe.

Ontzat ar ditzazkegu, beraz, Pepe Artolak kontatzen dizkigun Bilintxen gertaerak: iturri garbitik datorren ura da.

Gertaera oiek bi tokitan argitaratu zituan: leenengo, Bilboko *Euskalzale* aldizkarian; eta, urrena, Donostiko *Baserritarra*-n. Biak gertaera-sail bera dakarte; baiña itzetan ez datoz berdin. Alkarren ondoan jarri eta irakurri ondoren, gure iritzia au da: *Euskalzale*-n agertu baiño leen, norbaitek, euskera *garbitzarren*-edo, Pepe Artolaren itzak eta joskera an eta emen aldatu egin ditu; *Baserritarra*-n, berriz, bate-re ikutu gabe daude.

Orregatik, naiz eta geroagokoa izan, *Baserritarra*-k dakarren era aukeratu degu onerako. Baiña, damurik, aldizkari onen sorta osoa ez degu orain arte inun arkitu. Ori dala-ta, gertaera batzuk aldizkari bati eta besteak besteari kopiau bear izan dizkiogu. *Baserritarra*-ri artuak leenengo bostak dira, beraren 69 eta 71 zenbakietatik (1907-V-25 eta 1907-VI-22) berezita; eta beste bostak, 1899 urteko *Euskalzale*-ri.

Baiña, geiago luzatu gabe, ona Pepe Artolaren itzak:

“*Bilintx* dei zitzaion gizon bat zan Donostiyako semea.

Nola Jaungoitiak mundu onetan gizon bakoitzari doai bana bialdu diyon, oni eman ziyon bertso eta puntu sortzekua, zan guztiz bikaña. Berez pobrea zalarik, zuben izketan aberastasunezko buru edo zentzoa.

Euskaldunak, beste atzerritarrak gordetzen dituzten modura beren seme onen kondaira, kontu, lan eta beste grazi doaiak, gorde bear ditugu gure maisu onaren egiñak; ala, al bada ezertan utsik egin gabe, nai nituzke nik argitaratu al ditudan edo goguan dauzkatanak. Arren lan aundiyak edo itz neurtuak ispillutat agirian daude; baiñan kontutxo edo *ixistiak* ez aztulekuan geratzeko asmoa artu det eta ara zeintsu edo nola diran.

I

Mutill koskorra zala, zebiltzan bein soka-saltuan, eta usterik gutxienian etorri zitzaioten zelatari edo aguazilla, zeñak sokari eldu eta orrekin batean mutill koskor guziyak eraman zituben illunbe edo presondegira.

Nola geienak aberats-aurrak ziran, illunabarrean asi ziran marruaz ojuka:

- Ai, ama! Ai, aita!

Bilintx orduan -amabi urtekoa- zan arlote xamarra eta ez zitzaion ainbeste ardura ango egoeragaitik, eta alakorik batean, denen aurrian jarririk, diyo:

- Mutillak, zaudete ixilik! Bestela, kartzeleroa etortzen bada, beso ondolik elduta danak kanpora bigalduko giotzik!

Lendabiziko bertsoak orduan jarri zitubene aguazillari; ara azkeneko puntuak nola ziran:

Ikusi zubenian
soka ona zala,
azkar eantsi ziyon
bere azkazala.

II

Aunditzera, abiatu zan arotzeian. (Lanerako etzan aña argiya, bañan nagusiak zeukan gustora, aldiyan bein berekin par batzubek egitiagatik; nagusiya zan Arsuaga.)

Onekin batian aritzen ziran lan-leku artan beste asko, eta aien artean bi oso umore onekuak: bat zan Domingo Kanpañña eta bestea Erramun Moko.

Egun batian joan zan lanera eta nagusi onak diyo:

- *Bilintx*, i gizon-modura zintzo etorri aiz lanera, baña Domingo Kanpañña galdul arrek gaur goizian egun-laurdena galdu dik; ezagun dek astelena dala.

Au aditzian bat, diyo onek:

- Nagusia, utziko al dit piska bat ir tetzen emendik eginkizun batera?

- Zer da? Ik ere astelena al dek?

- Ez, jauna; astearte-bezpera!

- Ua, bada, bañan aguro etorri!

Bilintxek ere lanerako gogorik etzuben eta aitzekiyakin atera zan, zeña egun guziyan etzan lan-lekura jiratu; oso umore onez pasa zuben eguna. Urrengo goizian, kandela bat piztu eta baztar bat miratzen ari dala, alderatu

zitzaien nagusia eta *zart!*, ostikoaz joaz, diyo:

- Ai, erropa, zer egiten dek or?

- Pagu ederra ematen dit beorrek!

- Zer dek bada?

- Ez al daki, ez al daki bada...

Emen ere ez dago...

- Baña zer?

- Zer? Atzo esan ziran Domingo Kanpañña egun-laurdena galdu zubela; erri guziya miratu nuben eta ez nuben billatu, eta emen ari nintzan orain, kofre tartien batian ote dagon billa... Esker ederra ematen dit; ez du baliyo fiña izateak mundu onetan.

Nagusiya algaraz asi ta barkatu ziyon pekatua.

III

Astelen batian, komoda bat txarolatzeko agindu zuben nagusiyak Erramun Mokori eta Bilintxi; abek jarri ziran komodaren alde banetandik aurrez-aurrez, eskuan tanpoia zutela.

Ontan sartu zan emakume bat aiek arki ziran lekura, eta, ikustean aietako bat Indalezio zala eta au ezaguna izanik, galdetu ziyon:

- Aizazu, Indalezio: zer da ori?

- Au? Komoda, eta ori Moko da.

IV

Kaiean zegoala bein lagun batzuekin arrantzan ari ziranari begira, inguratu zan bertara erdaldun bat galtza narbarben batzuekin, zeñak zitubene arrai



Donosti'ko Santa Maria eliza.
(Iglesia de Santa María, en San Sebastián, sacado de una fotografía de I. Laurent: Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis, Viaje al país de los fueros*, 1878)

gorri-gorri aundi batzuek, eta, au ikus-
tean, diyo Bilintxek arrantzan ari zira-
nari:

- Zertan botatzen dezute orren urru-
ti aparejua? Botaiozute amua erdaldun
orren galtzari eta naiko arrai gorri
arrapatuko dezute bertatik bertara!

V

Jai-arratsalde batean alkartu zan
Ernanin bertsolari batekin; bertsolari
onek zuan lagun begi oker bat. Asi zi-
ran bertsoetan, eta, nola Bilintxek eto-
rri aundiya zeukan, beriala menderatu
zuben beste bertsolariya.

Begi okerrak, ikustean laguna gain-
bera zijoala, ala diyo:

- Zanpatuko au *moko okerrak!*

- Zer? Ni *moko okerra?* Zuri bai
iruritu, oker begiratzen dezulako!

VI

Beste beñ apustua egin zuten,
Domingo Kanpaiña mando gaiñean
eta Bilintx oiñez, zein lenago iritxi
Donostitik Loiolaraño.

Kanpaiña mando gaiñera igotzen
moldatu zanerako, Bilintx bidez erdira
eldu zan, baiña beldurturik arrapatuko
zuela Domingok, esan zioten lagunai
gelditzeko nola edo ala mandoa, arrek
apustua irabazi zezan.

Lagunak egin zuten Bilintxen esa-
na, eta noiz ere bait azaldu zan
Domingo Kanpaiña. Iritxi beziñ laister
asarre bizian eresi edo kantatu zion
Bilintxi:

Indalezio, Indalezio,
Indalezio Moko,
uste al dek, uste al dek
ez autela joko?

Au erestearekin batean, erantzuten
dio besteak:

Berriz esaten banak
Indalezio Moko,
ezurrak autsi arte
eztirat lagako!


Erantzukizun oekin farrari ekin
zion an arki zan talderiak, eta, are
geiago amorrasteagatik, aotik aora bo-
ta zion Bilintxek itz neurtu egoki au:

Mando baten gaiñean
Domingo Kanpaiña,
ez dijoa utsikan
mandoaren gaiña;
azpian dijoana
mandoa da baiña,
gaiñekoa ere bada
azpikoa aiña,
mando baten gaiñean
bestea, alajaiña!(1)

VII

Gure Bilintx, nola edo ala moldatu
zan, geienetan bezela, pelota-lekura,
partidua jokatzen ari zirala, bein batez
diru gabe sartzea, kolkoan zeramala
gipuzkoarrak *ontza* deitzen diogun
pixti bat.

Lagun-saill baten inguruan jarririk,
asi zan beriala ojuka:



Hernani. Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis, Viaje al país de los fueros*, 1878.

- Ontza bat sakien alde! Sakien alde ontza bat!

Ontan ari zala, otsegiten dio zaldun edo *caballero* batek:

- Badijoa!

Ezagun izaten zan noiz Bilintxen alderdikoak irabazten zuten kintzea; asko zan Indalezioren eskuetara begira egotea.

Baiña bat edo bati tokatu bear irabaztea galtzeko eskubidea, eta Bilintx gertatu zan galtzaille.

Zaldun irabazaillea amasei ogerleko mixkatzeko asmoan joan zan Bilintxgana eta eskatzen dio ontzakoa.

- Tori -dio Bilintxek kolkotik pixtia aterata-; zuriagorik arkitzen lanikan asko izango zenduke.

- Zer zuri ta zer beltz? Ekatzu neri irabazi dizutan ontzakoa!

- Begira, adiskidea: nik oju egin det "ontza bat sakien alde" eta ona nun dezun ontza; eta ez uste izan, nik irabazi banuen, dirurik artuko nizuenik; non edo an billatu bearko zenduan zuk ere ontz onen antzekoa.

VIII

Emaztegaia kalean topo egiten zuan guzian, oitua zeukan geldiazitzen itz neurtuetan itzeginaz.

Bein batean ark nonbait etxerako presa izanda, betarik ez galtzeagatik, ozta-ozta agur eginaz aldegin zion noski. Bilintxi miñ emana izan bear zuan oztasun onek, eta, urrengo ikusi

zuenean, aotik aora eresi omen zion itz neurtu eder au:

Egun batez zuk neri
-ai, San Antonio!-
doi-doi egiñ zeñiran
kalean adio;
badakit, bai, badakit
zer dala merio:
zuk asko merezi ta
nik gutxi balio!(2)

IX

Donostiako Biltoki edo *Teatro* zarreran bizi zan bolara batean Bilintx, leku arretan ospatzen ziran *funtzio*etarako arotz-lanketak eginaz.

Eguerdi batean, Biltokiko atetan zaindari zegoela, orduak lenago igarotzeagatik, trintxa bat zorrotzen jarduntzen zan.

Bi mutill koxkor inguratu zitzaizkan bere ondora, zekitelako ordu arretan *ensaioa* zala, batak besteari esanaz:

- Aizak: Indalezio gure aitaren lagun aundia dek eta utziko ziguk barrenara sartzen.

Ontan, bietako batek, besteari aurrea arrapatuta, Bilintxi galdetzen dio:

- Indalezio, sartuko al nau?

Eta, len esan detan bezela, nola ari baitzan trintxa zorrotzen, erantzuten omen dio, trintxa eskuan artuta:

- Bai, zorrotzen detanean.

Orduan beste mutillak, bere lagunari egin zion erantzuera aditu gabez, omen dio:

- Ta ni, Indalezio, sartuko al naiz?
- Urte askotan bizitzen baaiz, bai.

Bata ta bestea aoa zabaldurik utzi zituan noski.

X

Buru soill edo ille gabekoa zuen antzera, lagunena batek, far egin naiean, kentzen omen dio txapela esanaz:

- Oi, oi, Indalezio! Ire buruak gazta zirurik, moteill!

- Zergatik?
- Legun-leguna ta zuria dagoelako!
- Eta ireak, berriz, illerri edo *kanposantua*.
- Zergatik?
- Illez betea dagoelako.(3)

XI

Etzuen gogoko izaten edozeiñek *Bilintx* otsegitea, eta gau batean, etxeruntz zijoala, topo egiñik ardoak oiñez alderorik egin gabe ibiltzea galerazi zion batekin, ta onek esan ondoren: "Agur, *Bilintx*", esan omen zion Indaleziok: "Agur, *Balantx*".(4)

* * *

Bertsotan jarritako Bilintxen beste gertaera au ere Pepe Artolak idatzia da. Beraren esku-idatzietan arkitu de-

gu. Began, letra ta tinta berarekin idatzita, onela dio: *Mayo 3 de 1886*. Eta gaiñetik eta beste letra batekin: *Publicado Galerna el día 27 Julio 1890*. Garai artako aldizkariren bat izango zan *Galerna* ori. Ona, bada, nola dion:

BILINTXEN ESAERA BAT

Loreziyo kaleko kantoi-kantoyian anai-arrebak ziran elkartu batian; arrebak igarririk zeukala ark dirua, eskatzia zitzaion etorri burua: esan ziyon frantzesez: "*Donemua le archan!*"(5) "Ua nere boltsara eta andik artzan!"

* * *

Zeladoreak soka kendu eta Bilintx eta onen lagunak kartzelara eramantzen gertaera ori, beste onela kontatzen digu *Equech* izenordeaz firmatzen duan batek -Serafin Barojak alegia-, bere *Humoradas - El capitán inglés Asasórtén* idazlanean (*La Voz de Guipúzcoa*, 1910-XI-26):

"...*Otra noche fría y cruel de invierno los llevaron a la cárcel, desde la plaza de la Constitución, por haberlo cogido saltando a la soga, o a la comba, con unos obreros jóvenes que salían de una clase nocturna.*

De aquella noche datan los si-

guientes versos de nuestro incomparable Indalecio Bizcarrondo;

Zeladoriak soka
kendu zigun bada,
ori gizon prestubaren
aziyo motza da.

Y la otra media estrofa de:

Baldin zeladoriak
etortzen badira,
erdiyak eta geiago
gaur kartzelan dira”.

* * *

Donostiko *Dunixi* zanak, Dionisio Azkue zanak alegia, Bilintxen beste gertaera bat kontatu zigun:

“Bein batean, nagusiak bialdu omen zituan Bilintx eta beste langille bat Ixturin eta Mirakontxa bitarteko *palaziyo* batera, *mueble* batzuk eramatera. Garai aietan, inguru artako Muntto baserrian-eta, sagardotegia izaten zan. Alkarri esan zioten:

- Aizak: sagardoa edan bear diagu. Palaziyo ontan zakurra izaten dek bai, eta egin zagun papera zakurra zaunka-ka irten eta guk alde egin bear izan diagula.

Eta alaxe egin zuten: *mueble*, gurdi eta guzi bertan utzi eta sagardotegira.”

* * *

Urrengo lau gertaera auek, berriz, *Calei-Cale*-k firmatu eta Donostiko *La*

Voz de Guipúzcoa egunkarian agertu zan idazlan batetik artuak ditugu.

Izengoiti ori Eujenio Gabilondok erabiltzen zuan. Aitatutako egunkari ortan idazten zuan. Aren zenbait lane-kin liburu bat osatu zan: *A través de Iruchulo / por Calei-cale / San Sebastián, 1963*. Ortxe jaso zan Bilintxen gertaera auek kontatzen dituan idazlana ere.

Onek, asieran, Jose Manterolaren aitamen luze bat egiten du. Ez degu onera aldatzen, gero ere jarri bearko degu eta. Urrena, esan bezela, Bilintxen lau gertaera oiek eskeintzen ditu. Auetatik leenengo biak Pepe Artolaren sortan ere badaude; baiña ez dira emen berdin kontatzen. Eta beste biak erabat berriak dira.

“Como mi objeto no es retratar a Vilinch poeta, sino referir algunas de las innumerables agudezas que le han hecho célebre entre sus convecinos, voy a relatar las que han llegado á mis oídos y corren por ahí para regocijo y solaz de los que hemos conocido y escuchado al malogrado Indalecio.

Una de las ocurrencias que más revelan el agudo ingenio del buen Vilinch, tuvo por teatro el café de la Marina, en donde entró el poeta y se sentó á tomar un refresco en un velador desocupado.

Se hallaba al frente, en otra mesa, un conocido industrial de la localidad, que tampoco ha sido rana en sus buenos tiempos, el cual, viendo que Indalecio se quitaba la cachucha, obligado por el excesivo calor que en el establecimiento había, quiso diri-

girle una pulla y le dijo aludiendo á la calva de nuestro protagonista:

- Vilinch; ire buruak illargiya zirurik.

- Zergatik? -*replicóle aquél sonriéndole.*

- Diz diz egiten dulako.

- Ikusi iria?

- Ara! -*díjole el industrial, mostrando una cabellera abundante que le cubría la cabeza.*

- Ori berriz kanposantua dek -*replicó con sorna Indalecio.*

- Zergatik?

- Illez betia dagolako.

Otra vez que se encontraba de portero en un baile de carnaval, uno de aquellos animados y fastuosos bailes que solía dar la antigua "Fraternal" en sus salones de la subida del castillo, se acercaron a él varios amigos suyos, solicitando permiso para entrar á dar nada más que un vistazo.

- Sartuko al gera, Indalezio? -*le preguntaron con cierto mimo, creyendo conseguir así el anhelado deseo.*

- Bai urte askoan bizi bazerate -*respondió sin titubear el ocurrente Vilinch.*

Tampoco carece de miga la respuesta que dió á un amigo suyo, en ocasión en que Bizcarrondo acompañaba á un entierro, conduciendo un hacha encendida, según costumbre en aquel tiempo.

El amigo quiso saber de quién era la conducción y preguntóle con la mayor naturalidad:

- Zeiñ ill da?

- Maiatza! -*respondió, siguiendo adelante su camino y dejando burlado al curioso preguntón.*

En otra ocasión dirigiase el buen Vilinch á presenciar un partido de pelota que se iba á jugar en el cercano pueblo de Oyárzun, llevando por compañera de viaje á una mujer que le molestaba con infinidad de preguntas insípidas cuyo objeto no era otro que el de trabar animada conversación que le sirviera de distracción en el camino.

La mujer, no sabiendo con quién se las había, viendo que las primeras preguntas no daban el apetecido resultado y tenaz en su empeño de hacer hablar al compañero de viaje, dijo á éste:

- Nik ezagutzen det beorri. Uste det Zestuan ikusi deala.

- Ezta galbaian ere -*contestó Indalecio cortando por lo sano.*

Pudiera continuar refiriendo mil agudezas por el estilo, pero por no hacer interminable la relación de las sabrosísimas ocurrencias que hicieron célebre al desgraciado Vilinch, voy á concluir trasladando al papel los punzantes versos que el satírico poeta dedicó a Campaña.

Dicen así:

Mando baten gañian
Domingo Kanpaña?
Ez zijoan utsikan
manduaren gaña!

Azpiyan zijoana
mandua zan, baña
gañekua ere bazan
azpikoa aña,
mando baten gañean
bestia alajaña!!!

¡Pobre Vilinch! Un proyectil lanzado por la batería carlista de Venta Ciquiñ le hirió mortalmente y según aquel mutilado cuerpo que atesoraba una hermosa alma nacida para sentir.

* * *

Garai batean, Donostia, antziñako iri guziak bezela, arrizko ormaz inguratuta zegoan. Baiña gero, erria zabaltezko lotura estua zala-ta, esi ori kentzea erabaki zan, eta 1863-V-4-ean asi ziran botatzen. Bilintxen denboran, beraz.

Baiña erabaki ori artu baiño leen, eztabaida aundiak izan ziran. Orra nola dion Serapio Mujika jaunak bere *Las calles de San Sebastián* liburuan:

“Se suscitaron luego porfiadas discusiones que salieron a relucir en folletos y periódicos, y de nuevo sobrevino una muy honda división en el vecindario entre los Boulevardistas y Antiboulevardistas, sobre si en el punto de enlace de la parte vieja con la nueva, había o no de interponerse la hermosa Alameda, que hoy es el encanto de cuantos visitan la población.”

Adierazpen ori aurretik jarri bearra zan, urrengo gertaera au ulertuko bada. Antonio Bizkarrondok, Bilintxen billobak, kontatua degu. Lagun batek

onela galdetu omen zion bein batez bere aiton orri:

- Aizu, Bilintx: zu zer zera: *boulevardista* ala *antiboulevardista*?

Eta Bilintxek:

- Ni? *Ajolakabista!*

* * *

Urrengo gertaera auek Antonio Peña y Goñi jaunak idatziak dira, eta *Euskal-Erria* aldizkarian, 1885 urtean, *Bilinch / Recuerdos* idazlanean argitaratuak. Erderaz kontatzen ditu eta bere ortan uzten ditugu. Onela dio:

“La casa de Arsuaga, el café de la Marina y la iglesia de Santa María: hé aquí tres lugares que evocan en mi mente otros tantos recuerdos de Bilinch.

En el primero conocí al poeta, en el segundo al hombre, en el tercero vi la caja que guardaba los despojos del cuerpo y escuché las voces de duelo, cariño y admiración que sancionaban la inmortalidad del vate guipuzcoano.

El primer recuerdo es lejano, pero puedo precisarlo perfectamente, exceptuando la fecha exacta. Era por los años del 59 al 61 y en un día de Miércoles de Ceniza. Había entonces la costumbre, que no sé si subsiste aún, de merendar en ese día copiosamente, con la particularidad de que los manjares se componían en su casi totalidad, de mariscos, descollando entre estos, las lampernas, las lapas y unos moluscos largos y estrechos, en forma de calzoncillo, que se conocían con el nombre de déitus.

La merienda se verificó en la casa de Arsuaga, sita en el paseo de Atocha, y allí pude ver una singularísima y chistosa competencia poética entre Indalecio Bizcarrondo y el entonces popular y nunca bien ponderado Campaña.

Para que se vea que nada invento, hago memoria de algunos de los asistentes y recuerdo á Ramon Emparanza, mi tío Domingo Peña, Arsuaga, José Javier y Policiano Serrano.

Sentados todos á la mesa, y entre mariscos y libaciones, comenzó de pronto Campaña la pelea dirigiendo á Bilinch una redondilla satírica en bascuence.

El famoso sacristan de San Vicente, el cataléptico Campaña, que se dormía de pié tocando el bombardino en pasacalles y procesiones, y á quien yo ví más de una vez en la Fraternal, quedarse aletargado jugando al billar, en el momento de volver la cara para escupir, cuando se preparaba á dar un tacaño; Campaña, vuelvo a decir, tenía sus puntas y ribetes de poeta y no sin razon, porque improvisaba con facilidad y aderezaba el chiste con presteza.

Bilinch y Campaña fueron los héroes de la merienda á que me refiero, y allí, en casa de Arsuaga, pude apreciar de cerca la prodigiosa facundia de Indalecio, su sátira punzante y fina y el arte naturalísimo y persuasivo con que aparejaba los versos.

La réplica de Bilinch surgía de sus labios como una centella. Mientras Campaña hablaba lentamente, con su respirar ruidoso de cataléptico, Indale-

cio componía en el acto la contestacion. Y era de ver á aquellos dos séres tan extraños y diferentes, obeso el uno y receptáculo de aquellos malos humores como Falstaff, delgado el otro y con cara de sátiro averiado, insultándose mutuamente, poniéndose de relieve los defectos físicos, y cruzando entre sí un fuego graneado de denuestos, en los cuales la gracia, la oportunidad y el calor y la expresion de los conceptos poéticos formaban admirable conjunto y no dejaban punto de reposo á la hilaridad de los concurrentes.

En esta ocasión conocí, como digo, al poeta. En el café de la Marina conocí al hombre; y le conocí embebido en el vicio que por entonces le dominaba: el juego.

No se vaya á creer que Bilinch jugaba por el afan del dinero; nada ménos cierto. No le seducía el interés intrínseco; y prueba de ello es que odiaba los juegos de azár. Lo que Indalecio buscaba en el juego, era la lucha del amor propio á la cual le escitaba naturalmente su esquisita sensibilidad.

Adoraba el tute entre dos y tenía delirio por el tute alternado entre tres, llamado la pincheta. Toda su irascibilidad de artista aparecía en estas ocasiones y dejaba ver al desnudo al hombre nervioso, casi histérico, que la fortuna del contrario ponía fuera de sí.

Gabino Iribas, con su calma imperturbable, era el más a propósito para contender apaciblemente con Indalecio y el tutista predilecto del célebre poeta. Yo les acompañé muchas veces, pero mi intervencion fue con frecuencia origen de disputas sin cuento, por reunir yo,

como jugador, las mismas desdichadísimas condiciones del pobre Bilinch.

Quien sepa lo que es el dominio exclusivo del amor propio, en el juego, comprenderá hasta qué punto son violentas las controversias de los que se interesan apasionadamente en las combinaciones azarosas del juego de cartas, lo mismo cuando se juega un puñado de habichuelas, que cuando se apuesta un puñado de duros.

Si cito este caso, es porque revela en Bilinch el alma del artista y su extrema susceptibilidad, á par que el amor propio de quien jugó siempre por vencer al contrario y jamás por ganarle el dinero.”

Emendik aurrera, Bilintxen illetaren berri emanez jarraitzen du. Baiña ori gero ezarriko degu.

1. Gertaera au 1897-IX-23-an ere agertu zan *Euskalzale* aldizkarian, *E.-G.* firmarekin. Bertsoa berdin du, baiña aurreko adierazpena beste onela:

“Beste bein, Bilintx aserre jarri nairikan, Donostian txit czaguna zan Domingo Kanpaña gizon lodi ezin mugitu zarrak, bota ziozkan itz neurtu batzuek mando-gañetik, eta Bilintxek bereala crantzun zion ezin ta ego-kiago:

Mando baten gañean...”

2. Gertaera au *Euskal-Erria* aldizkarian ere agertu zan, 1903 urtean. Baiña ez da berez gertaera, Pepe Artolak-eta orrelakotzat badaukate ere. Bilintxen *Neskatxa bati mutill batek jarriak* izenburua duan sail-llaren amargarren bertsoa da.

3. Gertaera au *Euskalzale* aldizkarian ere agertu zan, 1897-IX-23-an. Onela dio:

“Bein arkitu zan Bilintx bere erritar batekin eta onek esan zion:

- Aizak, Indalezio: ire buruak illargia zirudik.
- Eta iriak, berriz, *kanposantua*.
- Zergatik?
- Illez bete dagoalako”.

Euskal-Erria aldizkarian ere agertu zan gertaera au, 1899 urtean, eta *Euskalzale*-n bezela agertu ere.

4. *Euskalzale* aldizkarian ere agertu zan gertaera au, 1897-IX-23-an, *E.-G.* firmarekin. Onela esaten du:

“Bere ondoan igaro zan bein, ardoz ondotox bete dagoalako, zutik eziñ egon zan bat, eta esan zion:

- Ario, Bilintx.

Eta onck, itzetik ortzera, crantzun zion:

- Ario, *Balantx*.

5. *Donnez moi l'argent!*

EZBEARRAK

Orain arteko gertaerak Bilintxen umorea eta bere lagunarteko giroa azaldu digute. Ikusi dēgunez, egun onak ezagutu zituan arek ere. Orain beraren egun txarrak esango ditugu.

Bilintxen ezbearren berri Serafin Barojak eman zuan leenengo. Jaun ori Donostian jaio zan 1840 urtean, eta Naparroako Beran il, 1912-an. Bilintxen laguna izango zan ura ere noski. Karlista eta liberalen gerra-denboran, Madrillko *El Tiempo* egunkariaren berri-emale izan zan. Alegia, Donosti aldean gertatzen ziranak eskutitz batean idatzi eta periodiko ortara bialtzen zituana. Granadak Bilintx jo zuanean ere, bere eginkizun ori zintzo bete zuan. Aren 1876-I-21-eko eskutitzak onela dio:

“¡Pobre Indalecio Bizcarrondo! ¡Pobre Vilinch! Vilinch, como todos los poetas, es un alma fuerte, atormentada por la desgracia.

La caída de un tercer piso desfiguró su semblante: una profunda herida producida hace algunos años le retuvo largo tiempo en el lecho del dolor: hace unos seis meses fué villanamente robado. El fruto de largos años de un penoso trabajo diario, unido á una cantidad mayor que tenía dispuesta para el pago de suscripciones de periódicos, 8.000 rs. en total,

le fueron arrebatados por un infame que no pudo ser habido...”

Jose Manterolak ere Bilintxen ezbearren berri eman zuan. Onela dio bere *Cancionero Vasco-n*(1):

“Perseguido por la suerte impía, cada paso de Bizcarrondo era un tropiezo. Parece que la despiadada parca se había propuesto atormentarle sin cesar, pues su vida entera es una série de contratiempos y reveses.

Nació en modestísima esfera, y vivió y murió sin alcanzar á salir de ella.

Aun niño, una terrible caída desfiguró su rostro, dando á su fisonomía por su naturaleza dulce y cariñosa un sello especial que parecía reflejar la desgracia que por todas partes le perseguía.

Más tarde, y por azar de su destino, el asta de un cornúpeto taladró uno de sus muslos, poniendo en peligro su vida y obligándole á guardar el lecho durante algunas semanas.

Varios años despues, y cuando contra todas sus esperanzas la fortuna parecia comenzar a sonreírle, una mano aleve arrebató de su establecimiento la suma de ocho mil reales, que constituía el preciado caudal de sus ahorros, cuando no la caja de prevision para satisfacer obligaciones pendientes...”

Batera datoz bi idazle auek: mutil koskorretan irugarren bizitza batetik

erori eta arpegia itxusitu egin zitzaio-
la; zezen batek iztarretik adarra sartu
eta oso gaixo utzi zuala, eta zenbait
aste oian egin bear izan zituala; eta la-
pur batek zortzi milla erreal garbitu
zizkiola.

Beste idazle batzuek ere aitatu izan
dituzte Bilintxen ezbearrak, baiña ezer
berririk erantsi gabe. Barojak eta
Manterolak esanak errepikatu besterik
ez dute egiten.

Bilintxen billobei ezbear auetaz
galdetu genien. Lapurketari buruz esan

zigutena leenago idatzia degu. Zeze-
narena, berriz, iñoiz ere entzun gabea
zuten; beren amonak ez omen zuan
orrelakorik ezer aitutzen. Baiña erori
zaneko ori, bai, kontatzen omen zuan;
kalera ez, ordea; eskailleretako zulotik
erori omen zan.

1. *Cancionero Vasco, II serie, Tomo II, Abril de 1878.*

ARPEGIA

Bilintxek, *Gaztetan jarriyak dama bati* izenburua duten bertsoetan, bostgarrenean onela esaten du:

Ez naiz mutil ederra,
au lana, au lana!

Serafin Barojak, berriz, arestian aitaturtutako idazlan ortan, onela dio:

"La caída de un tercer piso desfiguró su semblante..."

Eta Jose Manterolak:

"Aun niño, una terrible caída desfiguró su rostro, dando a su fisonomía por naturaleza dulce y cariñosa un sello especial que parecía reflejar la desgracia que por todas partes le perseguía."

Antonio Peña y Goñik, 1885 urtean Bilintxi buruz *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zuan idazlanean, onela esaten du:

"...delgado el otro -Bilintx alegia- y con cara de sátiro averiado..."

Eta Benito Jamar jaunak, bere *Poesía Euskara* liburuaren itzaurrean, onela dio:

"Yo era niño: Vilinch era ya hombre maduro en años, y á su lado se hallaba casi siem-

pre uno (Arruti) que á él se asemejaba en muchas cosas, sobre todo en aquellos labios caídos por un lado, que parecían la expresión del dolor."

Klaudio Otaegi olerkariak (1836-1890), berriz, bere *Bilintx doakabeari* bertso-saillean:

itsuskitua ustekabetan,
denak ez oso ezurrak...

Pepe Artolak kontatu digunez, Bilintx eta beste bertsolari bat Ernanin bertsoetan ari zirala, beste orren lagunak *moko okerra* esan omen zuan Bilintxengatik.

Beste aldetik, berriz, Bilintx buru-soilla omen zan. Pepe Artolak esaten digu ori ere. Eta orretxegatik lagun batek onela esan zion:

- Ire buruak gazta zirurik, motell!!

Eta, *Calei-cale* izenordearekin firmatzen duan Eujenio Gabilondok dienez, lagunak beste onela esan omen zion:

- Ire buruak illargiya zirurik!

Baiña naiz gazta eta naiz illargia



esan, gauza bera adierazi nai da: Bilintx buru-soilla zala.

Bestetik, berriz, bizarduna zan. Berak esaten digu ori, Ondarrabiko Joxepari jarri zizkion bertsoetan:

aiekin batian zan
bizar aundi arrek
izkribatzen dizkizu
zuri bertso abek.

Oiek dira, Bilintxen arpegia nolako zan jakitearren, beraren bertsoetatik eta besteren idatzietatik bildu ditugun argibideak.

Garai artan, erretratatzeko makina asi berri-berria zan. Orregatik, Bilintxen argazkirik nunbait ere izan diteke, baiña ez da oraindik azaldu. Egia esan, agertuko dan itxaropen aundirik ez degu, berria ez-ezik oso bakana baitzan artean tresna ori.

Baiña “artoa ez bada, lastoa” dio esaera zaarrak; eta, argazkirik ez bade-gu ere, marrazki bat edo beste bada, naiz eta danak ura il ondoren egiñak izan. Liburu ontan ezartzen ditugu. Baiña nork, nola eta noiz egiñak diran aztertzea on izango da, zer konfiantza eman genezaieken ikus dezagun.

Leendabizikoa, *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zan, 1885 urtean; Bilintx il eta andik bederatzirterera, beraz. Egillearen firma ere badu: *V. Iraola*. Biktoriano Iraola da ori. Pasai San Juanen jaioa zan 1841 urtean, baiña Donostian egin zuan bere denbora guziaz edo geiena beintzat; eta 1919-an il zan. Bera ere bertso-jartzaillea zan; eta ipui eta antzerki-egille ere bai. Onek

Bilintx ondo ezagutu zuala dudarik ez da. Marrazkilari bezela ere saiatzen zan; eta aren marrazki-lanak bein baiño geiagotan agertu ziran *Euskal-Erria* dalako ortan.

Bilintxen bigarren marrazkia Donostiko Frantzisko Lopez-Alen-ek egiña da. Jaun au, idazlea ez-ezik; pinto-rea ere bazan; kuadro-egille alegia. Alderdi ortatik, aren marrazkiak danetan onena bear zuala ematen du. Baiña Lopez-Alen ori 1869 urtean jaioa zan. Zazpi urte zituan, beraz, Bilintx il zanean. Ez dakigu ezagutu zuan ere; eta, ezagututa ere, gaztetxoa zan aren arpegiaz andik urteetara ondo oroitzeko. Marrazki ori, izan ere, 1898 urtean, bere *Iconografía biográfica de Guipúzcoa* liburuan argitaratu zuan. Bilintx il eta andik ogei ta amabi urtera, beraz. Guk uste, ura ezagutu zuten donostiarrak ziotenaz baliatuta egingo zuan bere marrazki ori, eta segurantzi gutxiko lana gertatu da guretzat.

Donostiko *El Día* egunkarian, Bilintx jaio zaneke eungarren urtea betetzean, *Dunixi*-k, Dionisio Azkue jauna zanak alegia, idazlan bat azaldu zuan. Artan ere bada Bilintxen marrazki bat. Baiña nork eta noiz egiña? Guk beintzat ez dakigu galdera orri erantzuten. Bearbada, leen ziran marrazkietatik batenbatek berria egingo zuan. Guri, beintzat, Bilintxen obian dagonetik egiña ote dan iruditzen zaigu.

Edozein moduz, Lopez-Alen jaunaren marrazkiak, eta *El Día* egunkariarenak, akats aundi samarra dute. Dakigunez, Bilintx buru-soilla zan; baiña marrazki oietan ille ederraren ja-



Bilintx, López-Alen'en marrazkian.
(*Iconografía biográfica de Guipúzcoa*,
1898)



Bilintx, *El Día* egunkarian, 1931.IV.30'an

be ageri da. Ala ere, irakurleak ikus ditzan emen jartzen ditugu.

Bilintxen beste irudi bat, arriz egiña, beraren illobiaren gaiñean dago. Noizkoa dan arkitu degu; baiña nork egiña dan ez degu inñundik ere somatu aal izan, aalegin guziak egin baditugu ere.

Donostiko udal-artxibora joan giñan, andik argi pixkaren bat aterako ote genduan. Gero zeatzago adieraziko degunez, 1885 urtean egin zan Bilintxen ezurrak orain dauden Polloeko illobi ori, eta argiñaren izena eta burni-esia egin zuan errementariarena ere ematen zaizkigu. Baiña irudiaren egillearena ez. Eta, nor izan zan jakin gabe, egille orrek Bilintx zenbateraiño ezagutu zuan esaterik ez dago. Ala berean, marrazki ortaz zenbat fia gaitzen ere ezin esan.

Bilintxen billoba Antoniok ez digu irudi ori asko goraldtu. Bere amonari askotan entzun omen zion irudi orrek Bilintxekin batere antzik etzeukala; etzala ura or ageri dan bezin itxusia; aleman artista baten lana zala; ari eman ziotela zeregin ori; eta, ezagutu zutenak ziotena entzunda, irudi ori atera zuala; baiña, esan bezela, Bilintxen andrearen gustokoa etzala.

Baiña Iraolarena eta illobian dagoan beste ori arretaz begiratzen baditugu, antza badutela ikusiko degu. Bietan, sudurra, begiratu, kokotxa, belarriaren ondoko illea, jazkera eta abar oso berdintsuak dira. Batean Bilintx alde batera begira dagoala eta bestean bestera; batean buru utsik dagoala eta bestean mariñel-buruko batekin estalia. Txeetasun pare ori baka-

rrik ezberdin. Baiña buru utsik dagoan ortan ere, buru soil samarra, leen esan bezela Bilintx ala baitzan.

Ortaz gaiñera, biak urte berean egiñak dira: 1885-ean. Garai artan, gero esango degunez, Biktoriano Iraola ori Donostiko kontzejal zegoan, eta Bilintxen illobi berria egiteko lanetan gogotik saiatu zan.

Orregatik, segurutzat ezin joko badegu ere, gauzak onelatsu gertatuko zirala ematen du: Bilintxen illobirako beraren irudiren bat nai eta artistari aren arpegia nolakoa zan nolabait ere adierazi egin bear. Orduan Iraolak, berak ala nai izan zualako edo besteren batek esan ziolako, eta dibujatzen zekiana zalako, bere lagun zanaren marrazkia egingo zuan, eta artistak andik kopiatu.

Baiña, gure iritzirako, Bilintxen arpegia azaldu nai diguten marrazkiak etzaizkigu oso sinisgarriak gertatu.

Bilintxen beste irudi bat, baiña au ez marrazkiz eta paperean eratua, igeltsuzkoa baizik, beraren seme Benitok egin omen zuan. Ala esan zigun Bilintxen billoba Antoniok. Etzan oroitzen, ordea, irudi orrekin zer gertatu zan. Puskatu-edo egingo zala zion. Galdu beintzat. Ortik ere probetxurik ez, beraz.

“Ez naiz mutil ederra, au lana, au lana!” idatzi zuanak bere arpegiaz arrenkura bazuala dudarik ez da. Eta badirudi, emendik joan ondoren ere, mundu ontako gauzak naasten aalegin-du dala, beraren arpegia nolakoa zan garbi jakin ez dezagun.



Bilintx, bere illobiaren arrizko idurian.

BILINTX

ETA GARAI ARTAKO BERTSOLARIAK

Bilintx, leen esan degunez, 1831 urtean jaio zan; eta, aurrerago esango degunez, 1876-an il.

Lagunartean aotik aora kantuan aritzen zala Antonio Peña y Goñik esanda dakigu; Domingo Kanpaña eta Bilintx merienda-ondo batean alkarrekin bertsotan jardun zirala kontatu digu. Pepe Artolak, berriz, Ernanin bertako bertsolari batekin neurtu zala adierazi digu. Eta, irakurleak geroago ikusiko duanez, Ondarrabiko Joxepa izeneko dama bertsolari bati bertsotan egiteko desapioa egin zion Bilintxek sei bertsotan.

Baiña garai artan, eta batez ere Donosti inguruan, bertsolari on asko zan. Oietako batzuen izenak eta jaio eta il-urteak eman ditzagun: Xenpelar (1835-1869); Patxi Bakallo (1832-1896); Udarregi (1829-1895); Pello Errota (1840-1919); Zakarra (1832-1898); Pedro Santa Kruz (1839-1905); Eperra (1825-1906); Larraburu (1829-1876); Ardotx (1826-1878); eta abar.

Oiekin ere jarduten al zan Bilintx? Galdera orrek badu, guk uste, bere garrantzia. Bilintx, paperetan jarri eta ar-

gitaratutako bertso zoragarri oiekin, bakar xamar agertu zaigu beti orain arte. Baiña bere garaiko bertsolariekin bertsotan jator jarduten zala ikusiko bagendu, aien saillean sartu bearko genduke. Alegia, bakardadetik atera eta taldera bildu.

Orri buruz zenbait argibide eta testigantza bilduak ditugu.

Leenengo, Donostiko Aieten, Oriamendi baserrian, jaio eta bertako Irolan bizi izan zan Segundo Kalonje bertsolariak eman zigun argibidea. Onela esan zigun itzez itz:

“Gure aitak esaten zun, ba, ta ari adituko nion ori noski.

Garai aietan, gero ere bai, Donostia Igeldoko arriarekin egiña asko; *Buen Pastor* ere ala da. Igeldo-arria, arri gorri ori.

Ta orduan ere Igeldotik arriketan itzaiak-eta. Ta tabernaren batean itzaiari laguntzen Udarregi bertsolaria. Mutil gaztea zala ere, bertsolari ona omen zan ura. Arek, *fuego!*, bere bertsoetan egingo zun emezortzi urterako ere. Ta, tabernara sartu ziranean, an Bilintx ori, ta ala esan omen diote:

- Au omen dek bertsolari on ori!

* * *

Aita ere bertsolari ona omen zun Udarregik, eta:

- Au omen dek, i, bertsolari on ori! Udarregi gaztea au omen dek!

Ala, berak bota bazion edo ez bazion, baiño seguru asko berak botia izango zan, olako bertsoa ezto edozeiñek botatzen eta. Arrobian dabilienak badakizu zer erropa-klase ibiltzen dun: loi-zipriztiñak-eta. Alazankua, Bilintx orrek probatu egin nai Udarregi, ta onela bota zion:

Galtzetan badaduzkak
iru arrua loi,
gañerakuan berriz
zenbait urre-galoi;
etxian aizenian
agintzen dek doi-doi,
kanpora atera ezker
edozeñen morroi.

Orduan Udarregi orri nagusiak:

- Bota iok! Arraioak ez badituk, bota, bota orri bertsoa! Gero ere izango dek denbora lana egiteko!

Ta izugarritzko saioa egin zutela aditu izan det. Ori aditu izan det. Beste bertsorik ez, baiño bai: ori ziri ederra, e? Kanpora atera ezker edozeñen morroi!"

Oneraiño Segundo Kalonje zanaren itzak. Bertso orrek, ona izateaz gaiñera, badu beste zerbait: orain artean, Bilintxek aotik aora kantatutako bertso bakarra ezagutzen zan: Domingo Kanpañari bota ziona; Udarregiri kantatutako ori, bigarrena.

Ondoren, Bilintxek eta Patxi Bakallok alkarrekin egindako beste saio baten berri eman zigun Segundo Kalonjek. Onela esan zuan:

"Len esan deguna, Bilintx ori aparta, baiño boza ez omen zun oso ona; baju xamarra edo ez dakit ba. Nik ori osabari aditu nion; Linori, ta arek ere bateonbati aditua. Nik ez det, plazan asko kantatu zunik Bilintxek, aditu izandu beñere.

Beintzat, orain nola kantatzen dituzte bertso zarrak, Txirritarenak-eta? Orduan ere izango ziran kantoreak. Baiño zeozer apustu jokatu Patxi Bakallorekin. Or egin dute zerbait ere, meriendaren bat-edo. Patxi Bakallok berak etzun egingo, besteren batzuk-eta; baiño arek botatzen zun bertsoa.

An ere bearko zuten eskribitzen zutenak-edo. Bertsoa gogoan ondo artzen ezta errexa, besteak kantatzeko. Ta beste bi jarri arek -ori ola aditu izan det nik-, ondo kantatzen zutenak. Ta Bilintxek botatzen zun bertsoa, aiek kantatu. Ta gero Patxi Bakallok erantzun, bertsoetan ari balira bezela. Ori ere esana izango da bearbada.

Asi omen dira ta ezta konparaziorik ere. Bilintxek botatzen zun bertsoa, tximixta baiño zorrotzagoa ta zuzenagoa. Patxi Bakallo eskax geratu omen zan beintzat. Ori aditu izan nion nere osaba Linori."

Lino Kalonje bertsolari ori Oriamendi baserrian jaio zan 1890 urtean, eta Donostiko Antiguan il, 1960-an. Aren berri Uztapidek ematen du bere *Lengo egunak gogoan* liburuan.

* * *

Ondoren onela jarraitu zuan Segundok:

“Garai aietan, sagardotegian, orduan ere dirurik etzutenentzat garesti gauza; baiño zerbait modu zutenak-eta, arrantzaleak berak ere, *arrai-gorriya -neskazarra* deitu izan diote *arrai-gorriyari-*, ta galantak zintzilik artuta, gaur baiño merkeago izango zan-ta, arrantzaleak sagardotegira oiñez, Astigarragara ta Ernanira-ta, sagardotarako.

Orain eun urteko kontuak. Sagardoa-ta lenago, ta orain oiek ere ardora geienak joak egongo dira.

Olaxe, Ernanira Bilintx ori, eta Ernanin ere bertsotan aritzen zan.

Batean, ola erdi ipurdiko gure gixako bertsolariaren bat eta oiek joan dira kuadrillan sagardotegira, eta Bilintx ere bai beste kuadrilla batekin.

Besteak, ordurako, goizetik-eta ari ziranak eta inporta aundirik gabe jarririk egongo ziran, da:

- Ara Bilintx!

Beintzat asi zaio beste ori bertsoetan, da aren egitekoak nola etzitun ba egingo Bilintxek? Bertso asko baiño len bai.

Arpegi okerra omen zan Bilintx ori, gaitzak jota-edo. Ta erdi ipurdiko bertsolari orren kuadrillan begi oker bat omen zan, eta begi oker orrek esan bertsolariari:

- Moko okerrak autsi au! Autsi au Moko okerrak!

Eta Bilintxek:

- Ni moko okerra? Iri bai iruditu, oker ikusten dekelako!”

Gertaera ori, leen ikusi degunez, Pepe Artolak ere kontatzen du.

* * *

Bilintxen billoba Antoniok esan zigunez, bere aitona Urretxura edo Goierriko erriren batera joan omen zan bein batez, an zerbait festa bazala eta. Eta antxe Iparragirre eta biak topo egin zutela alkarrekin.

Batenbatek, aien ezaupideak egitearren-edo, onela esan omen zion Iparragirreri:

- Onek ere bertsoak egiten ditu.

Eta Iparragirrek:

- Bai, ezagutzen det; au nere semea bezela izango da.

Iparragirre, izan ere, 1820-an jaioa zan; Bilintx, berriz, 1831-n. Amaika urteko aldea zuten, beraz. Ala ere, bietan gazteena itzaliko zan aurrena, 1876-an; zaarrenak, berriz, beste bost urte egingo zituan mundu ontan. Iparragirreren esana etzan, beraz, egiazkoa atera.

Baiña alkar ikuste ori noiztsu gertatu ote zan? Bilintx etzan Euskal-Erritik atera; Iparragirrek, berriz, atzerrian egin zuan bere denborarik geiena. Karlisten leenengo gerra ondoren emendik joan zan ezkeroztik, beti kanpoan ibili zan, bi aldi auetan izan ezik: 1852-1858 eta 1877-1881. Azken aldi onen aurretik il zan Bilintx; alkar ezagutzekotan, 1852-1858-ko ortan bearko zuten, beraz.

Orduan Bilintx mutil gaztea zan, eta Iparragirrenen esanak obeto ematen du orrela.

* * *

Eta, azkenik, Bilintxek eta Xenpelarrek ere alkar ezagutu omen zuten. Urdanetak, Pedro Artetxe idazleak alegia, onela zion *Goiz-Argi* aldizkarian, 1976-V-15-ean, idazlan batean:

"Iñoiz entzun eta irakurri ere egin izan dugu, Xenpelar'ekin kantatu izan zuala eta ez omen zala au ainbeste.

Ez gera batere arritzen, bi onetan ere batek bear izaten du onena eta Xenpelar garai batean etzan edozein izango noski."

Xenpelar, izan ere, 1835-ean jaio zan, eta 1869-an il. Bilintx, berriz, 1831-n jaio eta 1876-an il. Alkarren kide samarrak, beraz; eta Errenteri eta Donosti, gaur ia erri bat bezela, eta orduan ere alkarrengandik ez urrutiegi. Aiek alkar ez ezagutzea izango zan arritzekoa.

Eta Xenpelar bat-bateko jardunean geixeago izateak ere ez gaitu arritu bear. Arek bere doaiak artarako zituan: burrukako bertsogintzarako. Bilintxek, berriz, beste alderdi bat zuan; beste sena bat. Ala ere, ez du orregatik ezer ere galtzen.

Bilintx, berea zuan alderdian, orain arte izan dan onena degu noski. Xenpelar ere bai berean. Eta aurrera ere, gure iritzirako beintzat, oso nekez azalduko da aien neurrikorik.

BERRI-EMALE

Granadak Bilintx zauritu zuanean, Madrilko periodikoak ere eman zuten ezbear orren berri. Oietako bat *La Correspondencia de España* izan zan, bere 1876-I-24-eko zenbakian, *F. Peris Mencheta* batek bialdutako eskutitz batean.

Eta bertan uste gabeko eta garrantzi aundiko argibide bat ematen digu. Onela dio:

“Uno de ellos (de los proyectiles) ha estallado en la habitación del poeta vascongado y correspondal de La Correspondencia en esta Sr. Vilinch...”

Bilintx periodista zala, alegia; periodiko orri emengo berriak bialtzen zizkiola. *Correspondal* itza orrela uler-tu bear dala uste baitegu. Egunkari-saltzaille izateak ez du, gure iritzirako beintzat, itz edo *título* oi ñori erans-teko eskubiderik ematen.

Baiña egunkari orren izen osoa, le-en esan degunez, *La Correspondencia de España* zan, eta *F. Peris Mencheta* dalako orrek *La Correspondencia* esaten du. Periodiko bera al da? Baietz ematen du.

Gero zeatzago adieraziko degunez, izan ere, *La Correspondencia de España*-ren jabe eta zuzendaria zana, Bilintx il ondoren, onen bertso guziak bildu eta argitaratzeko gastuak pagatzeko prest agertu zan. Etzukean orre-lakorik eskeiñiko, Bilintx ez-ezaguna izan balu. Zerbaiten artu-eman bear zuten alkarrekin. Artu-eman ori, Bilintx egunkari orren *correspondal* edo berri-emale izatea izango zan.

F. Peris Mencheta orrek, 1875-XII-8-an, Tafallatik bialtzen ditu gerrako berriak egunkari ortara. Donostitik, berriz, urte bereko Eguberri-egunetik asi zan bialtzen. Arrezkeroztik, berak firmatzen ditu Donostitik *La Correspondencia de España*-ra bialtzen diran berriak.

Leenagotik eginkizun ori betetzen zuana Bilintx ote zan, beraz? Egunkari orren zenbakiak aztertu ditugu; eta, *F. Peris Mencheta*-ren firma azaldu aurretik, Donostitik bialtzen diran berriak firmarik gabe daude. Eta orrek, esan oi dan bezela, ez zerurako eta ez infernurako uzten gaitu.

Gure iritzirako, gerra-denboran izango zan Bilintx, iñoiz izatekotan, egunkari orren berri-emale. Gerrate artan, Madrilko eta edonungo periodikoak asko estimatuko zuten noski Donostian berri-emaleren bat izatea; Donosti inguruan eta Gipuzkoa guzian zer gertatzen zan esango ziena, alegia. Oietako bat izan zan Serafin Baroja ere. Eta Bilintxekin ere gauza bera gertatuko zan bearbada: gerra-denboran asiko zan ura langintza ortan.

Baiña oiek danak gure asmakizunak dira; gauza segururik ez dakigu. Gaiñera, berri-emale bat baiño geiago izatea ere ditekena da. Baita Bilintx gerra-denbora guzian ez izatea ere.

Onekin esan nai deguna auxe da: firmarik eza orrek gauzak oso illun utzi dituala eta ezin esan genezakeala: "Au Bilintxena da". Alegia, besterik gabe ezin erantsiko zaizkiola berri-emate oiek Bilintxi.

Ala ere, nolakoak diran erakustearren, banaka batzuk kopiatu genituan, eta ara emen:

"La Correspondencia de España, Madrid, Martes 9 de Noviembre de 1875:

San Sebastian, 5:

Las baterías de Arratzain continuan sin hostilizarnos, Las noticias recibidas hoy dicen que las aguas han causado grandes desperfectos en sus baterías.

Ayer y anoche continuaron sus trabajos con grande actividad.

Los carlistas han sufrido en sus baterías de San Marcos considerables desperfectos, ocasionándoles nuestros proyectiles bastantes bajas.

Un despacho de Nueva York anuncia el incendio en alta mar del buque Jhon Pascal de

1500 toneladas, en su viaje a Calcuta. La tripulacion pudo salvarse en los botes y llegar a Madera."

* * *

"La Correspondencia de España, Madrid, 19-X-1875:

Servicio particular telegráfico de la Correspondencia de España:

San Sebastian, 19:

Han llegado dos batallones, procedentes el uno de Galicia y el otro de Castilla la Nueva, que vienen a reforzar esta guarnicion.

El fuego que hacen las baterías sobre esta plaza es lento.

El que hace el enemigo sobre Guetaria cesa en el momento que nuestras baterías de San Anton disparan sobre Zarauz."

* * *

"La Correspondencia de España, Madrid, Sabado 18-XII-1875:

San Sebastian, 15:

Las honras fúnebres del coronel Urdampilleta han estado hoy concurridas asistiendo las autoridades todas, y comisiones de los cuerpos de guarnicion y miqueletes.

Una batería nuestra ha subido por el camino de Hernani con objeto de castigar a los pueblos de Usurbil y Lasarte ocupados por los carlistas.

Las baterías de Arratzain rompieron hoy el fuego, lanzando seis granadas sin causar daño alguno. El vecindario tranquilo.

Tal vez se suspenderá el fallo del consejo en la causa mandada formar á Oliver y Dorregaray. Hoy están en Tolosa."

ERDAL OLERKARIAK

Orain, Bilintx Madrilko egunkari baten berri-emale edo *corresponsal* zala ikasi ondoren, obeto gera beraren bertsogintzaz zerbait esateko.

Maiz samar esan da, izan ere, Bilintx ikasi gabea zala. Adibidez, *M. Curros Enríquez*-ek, granadak Bilintx jo zuanean Madrilko *El Imparcial* egunkarira bialdu zuan eskutitzean, onela zion:

“Hay en San Sebastian un poeta eminentemente popular. Hijo de este país, escaso de instruccion, pero dotado de privilegiadas luces...”

Eta Jose Manterolak, bere *Cancionero Vasco*-n(1), gauza bera dio:

“Hombre de escasa instruccion, era un bardo solitario á quien la poesía se revelaba espontáneamente...”

Jaun oien iritzirako, beraz, Bilintx eskola gutxiko gizona zan. Bearbada, onek orrela merituz geiago izango zuala eta orregatik esango dute ori. Baiña oiek diotena gaizki uztartzen da Madrilko egunkari baten berri-emale izatearekin. Etzuten langintza ortarako artuko, eskola-puska baten jabe izan ez balitz. Mutil koskorretan zanpatuko

zuan arek eskola-bidea, Donostiko garai artako mutikoak egiten zuten ainean; eta geiago ere bai, agian.

Aren esku-idatzietako letrak ere idazten naiko oitura zuan eskua salatzzen du.

Eta gero, barruko gogoak artara bultza egiñik, irakurzale izan zan, orrela bere burua are geiago argitu eta jantziz.

Manterolak aitortzen du ori:

“Vilinch conocia y hablaba bien la lengua castellana y era aficionado á la lectura de los buenos poetas. Campoamor, Trueba y Aguilera, cuyos escritos saboreaba á menudo, eran sus poetas favoritos.”(2)

Gauza bera ikusten da, baita ere, Benito Jamar jaunak esaten duana irakurritan. Benito Jamar ori naparra zan, 1848 urtean Nagore-n jaioa. Baiña txikitin Donostira etorri eta bertan bizi izan zan, 1887-an il arte. Anai bat ere bazuan: Joakin. Biak ere idazle saiatuak izan ziran. Benitok testigantza ederra utzi zigun Bilintxi buruz. *Poesía Euskara* liburuarentzat(3) idatzi zuan itzaurrean onela dio:

“...á uno de ellos conocí y traté yo; al más sensible a lo bello, al más tierno, y al mismo tiempo, por uno de esos contrastes misteriosos de la naturaleza humana, al más mordaz; conocí y traté a Vilinch. Parece que le estoy viendo. En aquel café Oriental de la calle de Esterlines, célebre por sus helados, nos reuníamos, en horas en que nadie acudía allí, varios aficionados á la literatura. Yo era niño; Vilinch era ya hombre entrado en años; y á su lado se hallaba casi siempre uno que á él se asemejaba en muchas cosas, sobre todo en aquellos labios caídos por un lado, que parecían la expresión del dolor. ¡Quién había de decir que aquel parecido físico y moral había de acompañarles en la vida y en la muerte! A los pocos años Arruti moría fusilado por las hordas de Santa Cruz, y á Vilinch le arrebató la vida una granada lanzada desde la batería carlista de Arratsain... Quizás las almas de los dos poetas, al encontrarse en el espacio infinito, se dieron, mirando al mundo en que tan desgraciados fueron, un beso de amor...!”

Vilinch nos recitaba sus tiernos versos. Allí conocí las Doloras de Campoamor; quiso cultivar el género, y fracasó. No era esa la lira que debía él pulsar. Pero yo le leí la poesía que aquella alma se podía asimilar, le leí las Rimas de Becquer y las Elegías de Aguilera. Aún recuerdo la intensa atención con que seguía Vilinch la lectura: aquello era más que poner atención: era desprenderse de toda su alma para identificarse con el alma del poeta. ¿Qué salió de aquella honda emoción producida en el espíritu de Vilinch por aquellos sentidos y profundos versos de los dos grandes poetas castellanos? Salió algo que se perdió, algo que murió con Vilinch, algo muy superior á todo lo que él escribiera: composiciones que él nos recitó, dignas de Becquer y del autor de las Elegías.”

Beste testigantza eder bat ere utzi zigun Jamar anai oietako batek. Euskal olerkiari buruz geiena idatzi zuana Benito izan zan, eta berarena

izango da. Ez baitegu testigantza ori orain artean inun arkitu. Billa aalegin-du gera; alperrik, ordea. Eskuratu ditugun bi anai oien idaz-lanetan ez dago. Baiña Benitok *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian ere idazten omen zuan, eta bearbada an egongo da. Periodiko orren zenbakiak aztertzea oso lan luzea izango litzake, ordea, eta agian alperrikakoa ere bai; or egongo ote dan gure uste edo susmo bat besterik ez baita.

Zalantzas jositako izketa-modu au zelebre samarra irudituko zaio irakurleari. Orra ori nundik datorren: Oñatin, 1918 urtean, *Primer Congreso de Estudios Vascos* deritzaion batzarra egin zan. Ondoren, izen orrekin berarekin, liburu mardul bat argitaratu zan ango itzaldiekin. Auetako bat, ain zuzen, Pedro Mourlane Mitxelenak egin zuana izan zan: *La Poesía Vascongada en el siglo XIX*. Ontan, Jamar anai oietako batek Bilintxi buruz nunbait ere esandakoak aitatzen dira. Baiña ez da adierazten Benito ala Joakin dan; ezta nundik artuak diran ere. Orregatik, Mourlane Mitxelena orrek dakarren bezela aldatu bearko degu onera testigantza ori; beraren itzak eta Jamar jaunarenak naastuan, alegia. Onela dio:

“Nuestro Vilinch sí que estaba en disidencia con su mundo. El ha contado que la vida le apaleó “como a un asnillo desobediente”. Un Jamar ha contado las cosas de Vilinch. Bizcarrondo “era menestral”. Con todo, era poeta. Por todas las cosas creadas -se ha afirmado- pasa un nervio divino. Vilinch ha sabido auscultar en las cosas este pulso delicado. Le leía Jamar en una taberna de la calle del Puerto versos de Heine, traducidos al castellano. Oía Vilinch, “con el corazón al galope”, maravillado y casi en éxtasis.

- Eederraa!... -decía, o se llevaba la boina a los ojos húmedos. Y Jamar, volviéndose a un tercero comentaba:

- Ikusi al dek arpegi luze orreri?...(4)

Vilinch se complacía también en los relatos de viaje. Era corriente oírle hablar de Mac-Clure, de Hue, de Livingstone. Solía conservar esos grabados (que ahora vemos en las ilustraciones viejas) del Thibet o del gran lago Victoria. Se le iba siempre el alma a lejanías o latitudes remotas. Un Soraluze le enseñó una noche a nombrar estrellas. Vilinch oía, intimidado ante tanta gracia celeste.

Se sentía a la vez sobrecogido y desasido del suelo. Porque dijo de pronto esta frase llena en cierto modo de platonismo cristiano: "Auts ariña naiz".

Ondoren, Bilintxen euskera nolako zan neurtzen asten da Mourlane Mitxelena ori. Gai ontan seta txoro samarra erakusten degu, nik uste, geren burua ikasitzat daukagunok: euskeraz bertsolariak baiño askoz gutxiago jakin eta, ala ere, aien euskera juzkatu bearra.

Urrena, onela jarraitzen du Mourlane Mitxelenak:

"No es Vilinch, por otra parte, un escritor coherente. No pretende atar o ligar sus períodos como inflexibles vértebras."

Dirudianez, Mourlane Mitxelena ori ez da oartu gure lojika eta bertsolariena oso ezberdiñak dirala. Gurean, geienetan beintzat, ez da adimena besterik sartzen. Baiña bertsolarien eta edonungo olerkari jatorren lojikan beste gauza asko arkituko ditugu: irudipena, sentimentua, eder-sena, erderaz *intuición* esaten dana, eta abar eta abar. Izan ere, *Ja-jai*, *Juramentuba*, *Potajiarena* eta abar idatzi dituana *coherente* ez dala esatea aundi samarra da iñundik ere.

Ondoren onela dio Mourlane Mitxelenak:

"No soy -le decía a Jamar- un maestrillo. Yo hago versos que se pueden cantar esas tardes de otoño, con la primera sidra en las cubas".

No, maestrillo no es Vilinch. "Si apenas, advertía otra tarde, sé leer. Pero leo lo que hay que leer". Esto nos recuerda un versillo del Reg Veda, que alude a lo que ojo del bueno cifra o indaga en el paisaje: "en el viento voluntarioso, en el nido o en el par de estrellas que enciende el buey al mirar".

Vilinch sabía cifrar e indagar su paisaje. No lo veía sin una figura animada: "damacho gabe" solía decir. Y así resulta poeta amoroso de sentido más elevado que Elizanburu."

Bi testigantza auek Bilintxen izake-ra asko argitzén digute, eta itz-bidea eman ere bai.

Gure iritzirako, Bilintxen azken urteetako gora-beerak aitatzen dira itz oietan. Asieran, bertsolaritza beste iturritik etzuan Bilintxek edango. Aren leenengo bertsoak kanpoko usairik ez dute. Baiña gero, garai artan Donostian ziran gizon ikasiak, Manterola, Jamar eta abar alegia, Bilintx zer zan oartu egin ziran; eta, on-ustean, orduko erdal olerkarien lanak erakusten asi zitzaizkion. Bilintxek, berriz, poesiegarritz baitzegoan, ur berri aiek edan.

Erioak eramán zuan eta, bizi izan balitz, andik aurrera arekikoa zer izango zan ezin igerri noski. Baiña bertsolari eta idazle baten izakera eta sena osatu eta mamitu diranean, arrisku aundiko gauza da ari ezer berririk erantsi nai izatea. Zugaitzak ere ez du onik izaten, aunditu eta gero lur berri-ra aldatzen bada.

Bilintx, ain zuzen, bide berritatik abiatua zan. *Epígrama* batzuk egiñak zituan; *somaketa* bat eta itzulpen batzuk ere bai; *Orlando Furioso*-ren zati bat ere euskeratua zuan. Baiña alde ederra dago lan oietatik *Kontzezirentzat*, *Triste bizi naiz eta* edo *Kale garbitzallea*-ren bertsoetara.

Bilintxi ez-ezik, gauza bera gertatu zitzaien beste zenbaiti ere: Pedro Maria Otañori eta Ramon Artolari, adibidez. Beren gaztetako frutuak obeak dira. Gero, obe bearrez, kanpoko modaren aizeak artzen asi; eta irabazi-ustean, galdu.

Gero, denborarekin, erriak eta urteak beren erabakia ematen dute: gaur egunean, bertsolari oien azken bertso-

ak ez ditu iñork gogoan; asierakoak, berriz, oraindik ere kantatzen dira.

Au dana, noski, gure iritzi bat besterik ez da. Gai onek, gaiñera, azterketa luze eta sakon bat eskatzen du, eta guk itz gutxitan erabili eta erabaki dugu. Dudarik ez duana auxe da: Bilintxek bide berri bat asia zuala; baiña bide berri orrek mesederik egingo ote zion, oso badaezbadako gauza dala.

1. Jose Manterola: *Cancionero Vasco, serie II, tomo I, Abril de 1878.*

2. Jose Manterola, toki berean.

3. *Poesía Euskara, Tomo I, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, San Sebastián, 1896.*

4. *Luze ori* bearko luke, guk uste, emen. Baiña besteren itzak dauden bezela aitatzea obe.

BERTSO-SAILLAK

Guk ezagutzen degun Bilintxen bertso-sailik zaarrena *Gálop Infernal* izenekoa da. Iñauteri batzuetan jarritako bertsoak dira. Paperak moldiztegi-izena badu eta alboan onela dio: 1852. Ogei urte zituan orduan Bilintxek. Ondo gazterik asi zan, beraz, bertso gintzan.

Urrengoa, noizkoak diran dakigunetan, *Kontzezirentzat* deritzaiona izango da. Ontan ere, paperaren moldiztegi-izenaren alboan, urtea irakurtzen da: 1857. Bilintxek ogei ta bost urte zituan orduan.

Zaldi zuriyarena 1859-koa izango degu.

1862-garrena, oso urte ugaria izan zuan Bilintxek. Ordukoak dira *Pozeta bildurrak*, *Juramentuba*, *Loriak*, *Potajjarena*, *Maita nazazu arren* eta *Beti zutzaz pentsatzen*. Bat ez beste danak, amodiozkoak.

Beste sail batzuk ez dakigu noiz jarriak diran; baiña urte gutxiren aldea izango dute alkarrekin, guk uste beintzat. Olakoak izango dira *Ja-jai*, *Zenbait damaren esker txarra*, *Izazu*

nitzaz kupira, *Gaztetan jarriyak dama bati*, *Biyotz erituba* eta *Kanpuan da*.

Orain arteko amodio-bertsoetan, Bilintxek bere izenean itzegiten du bere sentimentuak agertuz. Bereak balitu bezela adierazten ditu beintzat; eta, guk esan bear bagendu, alaxe izango ditu: bere-bereak.

Amodiozkoak, beste iru bertso-sail ere baditu. Baiña iru auetan beste baten izenean itzegiten du; beste baten gertaera da. Olakoak dira: *Neskatxa bati mutil batek jarriak*, *Dama ta galala* eta *Juana Bixenta Olabe*.

Iru autetatik azkena, 1875 urtekoa da. Beste biak ez dakigu noizkoak, baiña bearbada Bilintx ezkondu eta gerokoak. Bere kuttuna billatu zuanean, biotza ere paketu; eta orduan besteren kezka agertzen asi.

Domingo Kanpaña-rena, berriz, noiznai kantatua izan diteke. Alperrikakoa litzake, guk uste, bertso orri urterik billatzen astea. Eta berdin esan diteke beste auengatik ere: *Aspaldiyan Joxepa*, *Bertsolariyen gudua* eta *Orentzaro*.

Orain arteko oiei zor die Bilintzek bere izen eta ospe guzia. Beste batzuk ere baditu, baiña ez dira iñola ere aurreko oien maillara irixten. Eta noiz jarririk diran ere nork jakin?

Oietako batzuek sozial alderdia dute: *Pobriaren suertia* eta *Penetan daramazkit*.

Bere azken urteetakoak ditu Bilintzek, gure iritzirako beintzat, ipui edo *epigrama* batzuk, *somaketa* bat, Bilboko erituen alde moldatu zuan bertsoa eta *Dolores'i* deritzaiona.

Beste batzuk, berriz, itzulpena dira:

Apirillaren lagun elkarra, Kanta, Zaldun gazte.

Itz-lauz, berriz, lau puska ditu: oietatik iru, amodiozkoak; laugarrena, *Orlando Furioso*-ren zati baten itzulpena.

Azkenik, bertso bakar bat, *Nik au pentsatu nuben* asten dana, granadak Bilintx jo zuan egun berean *Diario de San Sebastián* egunkarian agertu zana. Orregatik, seguru asko, aren azken bertsoa izango da.

Oietxek dira ezagutzen diran Bilintxen bertso-saillak, galduak ere baditu eta.

GALDUTAKO BERTSO-SAILLAK

Bilintxek bertso geiago ere moldatu zituan. Aren bertso-sail batzuk galduak dirala esan nai degu. Ori bertso-lari guziekin gertatu da. Zer esanik ez antziñakoekin. Baiña, bearbada, are geiago Bilintxekin.

Serafin Barojak onela esaten zuan, Bilintx granadak jo eta biaramonean, aren ezbearraren berri emanez, Madrilko *El Tiempo* egunkarira bialdu zuan idazlanean:

“Gracias al álbum publicado por el Sr. Santestéban no se perderán en el olvido algunas de sus bellísimas producciones.

En cambio otras muchas, de indiscutible mérito, solo conocidas de algunos íntimos amigos suyos, se hallarán posiblemente reclusas en un rincón de su memoria.”

Manterolak, berriz, onela esaten du bere *Cancionero Vasco*-n:

“¡Pobre Vilinch! Lástima grande es que su modestia, llevada ya al extremo de una exajeración verdaderamente punible, nos haya privado de tantas de sus composiciones, tanto más hoy que su desgraciada y temprana muerte ha dejado huérfana á la Musa vascongada de uno de sus predilectos cultivadores.”

Eta beste toki batean:

“El defecto capital de Vilinch, defecto bastante comun en los poetas euskaros, es su extremada modestia, que nos ha privado de buen número de sus composiciones.

Vilinch nunca hablaba de ellas, y cuando alguien se las citaba, parecia como que se avergonzaba de los elogios que se le prodigaban, y procuraba despojarlas de todo su mérito.

Así es que el número de las que nos ha legado es corto, comparativamente con el de las que ha escrito...

El escaso valor que la modestia de Vilinch concedia á sus producciones ha sido causa de que ni aun conservara los originales de muchas de ellas, que rasgaba apenas escritas, é indudablemente son muchas las que se han perdido para siempre.”

Barojaren iritiz, beraz, galduak asko dira; eta, Manterolaren ustez, gorde diranak baiño geiago. Ala ere, galdutako batzuk zein diran zerbait ere somatu ditekela uste degu. Ortan saiatu nai genduke urrengo lerroetan.

* * *

Manterolak, leku berean, onela dio:

“Entre las que han corrido tan triste suerte debe contarse una traducción del poema burlesco La Mierdepolis que había oído a uno de sus amigos había vertido al vascuence de una manera magistral. Ostigüé repetidas veces á Vilinch para que me la diera á conocer, pero despues de muchas excitaciones sólo obtuve de él la manifestacion de que había roto los originales en un acceso de mal humor.”

Itzulpena izanik ere, Bilintxen bertso-lan bat zan; baiña alperrik aaleginduko giñake orain aren billa.

* * *

Ramon Artolak, Bilintxi buruz jarritako bertso batzuetan, zortzigarrenean eta bederatzigarrenean, aren bertso-sail batzuk aitatzen ditu. Oietako bat ezezaguna da. Onela dio:

Nork ez dakizki Euskal-erriyan
Txomin zanaren kontua...

Txomin izenekorik aitatzen dan konturik ez da orain arte Bilintxen lanetan agertu, Domingo Kanpañarena ez bada beintzat.

* * *

Antonio Peña y Goñik, Bilintx zauritutakoan Madrilko *El Imparcial* eta *El Tiempo* egunkarietan idatzi zuan idazlan batean, onela esaten du:

“Una golondrina que vuela, las ruedas de una carreta que rechinan, un tipo ridiculo que atraviesa una calle, cualquier incidente de la vida de un amigo: he ahí los temas de Vilinch.”

Benetako aitamenak al dira oiek? Alegia, gai oietxei jarritako edo aotik

ora kantatutako bertsorik bai al zuan Bilintxek? Edo-ta zerbait esan bear eta Peña y Goñik berak bere burutik asmatutako gaiak al dira? Ez dakigu zer esan. Benetakoak badira, *tipo ridiculo* ori Domingo Kanpaña izan diteke; baiña beste guziak galdutako bertsoak genituzke.

* * *

Pepe Artolak kontatu digunez aguazillak kartzelara eramán zituan Bilintx eta bere lagunak, soka-saltuan ari ziran batean eta soka kenduta. Bilintxek amabi bat urte omen zituan orduan. Artolak onela bukatzen du bere kontaera:

“Lendabiziko bertsoak orduan jarri zituben aguazillari; ara azkeneko puntuak nola diran:

Ikusi zubenian
soka ona zala,
azkar eantsi ziyon
bere azkazala”.

Bertsok itza nola artu bear da emen? Erderazko *estrofa* al da ala aapaldi-lerroa? Batetik bestera bada alde pixka bat. *Estrofa* balitz, aapaldi batzuk jarriak zituala esan naiko luke; beste sail bat, alegia. Baiña ori ere galdua.

Leen esan degunez, Serafin Barojak ere aitatzen ditu egun artako bertsoak.

* * *

Bilintxen denboran, ainbeste aldiz aitatu degun ezbearra izan zuan Euskal-Erriak: anai arteko gerra.

Orduan ainbat bertso jarri dan gerrarik ez du Euskal-Erriak ezagutu. Tiroka ez-ezik, bertso-paperez ere burruka latza izan zan, batek bat atera eta besteak ordaiña, erriaren gogoa irabaztearren.

Baiña geien-geienak egillearen ize-nik gabe argitaratu ziran, bai alde batekoak eta bai bestekoak. Etzegoan giroa muturra nolanai agertzeko.

Ori alde batetik. Bestetik, berriz, Bilintxek politikaz zer iritzi zeukan badakigu. Gero zeatzago esango degunez, liberalak, erriak, zaintzeko-eta, *voluntarios* izeneko talde batzuk antolatu zituzten beren mendeko plazetan. Donostian ere bai noski, eta oietako bat izan zan Bilintx ere: Donostiko batalloiaren laugarren konpañikoa.

Orregatik, bera liberala izanik eta gerra artan liberalak bertso asko jarri baitzituzten, oietako batzuk ez al dira Bilintxek moldatuak izango? Baietz esango genduke; gauzak itxura badu beintzat.

F. Peris Mencheta-k, ain zuzen, Bilintx zauritua izan zan egunean idatzi eta Madrilko *La Correspondencia de España* egunkarira bialdu zuan idazlanean, onela esaten du:

"Vilinch tiene 35 años(1), empleados en su mayor parte procurándose un porvenir honrado y defendiendo la libertad con la pluma y el fusil."

Fusilla zergatik aitatzen duan badakigu: esan bezela, *Batallón de Voluntarios* taldekoa izan zalako.

Baiña luma ere aitatzen du. Ori *La Correspondencia de España* egunkariaren *corresponsal* edo berri-emale izan zalako ere esan zitekean. Baiña karlisten kontra bertso jartzen saiatu

zalako ere bai.

Curros firmatzen duan periodista batek ere, Bilintx zauritutakoan Madrilko *El Imparcial* egunkarian agertu zuan idazlan batean, onela dio:

"...cuyos cantares -Bilintxenak alegia- inspirados en el más noble concepto de la libertad, ora son repetidos con entusiasmo por los defensores de la honra nacional en estas montañas..."

Garai artako euskal liberalak, mikelleteak eta abar alegia, karlisten aurkako bertsoak gogotik kantatuko zituzten noski. Eta oietan Bilintxen bertsorik bazan, berdin. Baiña, oi danez, orrelakoak bakarrik etzizuzten beren ezarrrietatik pasako. Amodiozkoak ere gustatuko zitzaizkien aiei. Bide ontatik ere ziurtasunik ez dago, beraz; beti zailantza baten mendean gelditzen gera.

Karlisten kontrako bertsoetan izango da, ziur asko, Bilintxen bertsorik ere. Baiña beraren izenik gabe argitaratuko baitziran, orrelakoak orain nola berezi? Gu beintzat ez gera ortarako gauza.

Jaunak nai badu, gerra artako bertsoak ere argitara emango ditugu egunen batean. Orduan, langintza orrekin ausartzen danik baldin bada, ez da iñoren kalterako izango.

* * *

Bilintxen il-berria ematerakoan, 1876-VII-22-an, onela zion *Diario de San Sebastian* egunkariak:

"El pobre Vilinch ha muerto, víctima del profundo pesar que le aquejaba, el mismo día que se firmaba la abolición de las libertades vascongadas, que tantas veces había cantado..."

Ba ote zuan, beraz, fueroen alde jarritako bertsoarik ere? Baietz esan bear genduke, egunkari orren itzak benetan artu ezkeru. Ala ere, gerra-bertsoengatik esan deguna errepikatu bearko degu: fueroen aldeko bertso-sail edo beste badegu, baiña Bilintxen izenik duanik ez. Eta, ori gabe, ezin oietako bat bakarra ere berezi, donostiar bertsolariaren sailletan sartzeko.

* * *

Benito Jamar jaunak *Poesía Euskara*(2) liburuarentzat idatzi zuan itzaurrean esaten digunez, erdal poeta batzuen lanak ere entzun eta ezagutu zituan Bilintxek: Campoamor, Becquer, Aguilera eta abar. Ondoren onela jarraitzen du Jamar orrek:

“¿Qué salió de aquella honda emoción producida en el espíritu de Vilinch por aquellos sentidos y profundos versos de los dos grandes poetas castellanos?”

Salió algo que se perdió, algo que murió con Vilinch, algo muy superior á todo lo que él escribiera: composiciones que él nos recitó, dignas de Becquer y del autor de las Elegías.”

Or ere baziran, beraz, Bilintxek jarri eta betirako galdu diran beste bertso batzuk.

* * *

Bilintx, beraz, zabar samarra izan zan bere bertsoak gordetzen. Orri buruz, leen aitatutako *Curros* dalako orrek onela esaten digu leku berean:

“...cada una de sus poesías es una joya para los que saben estimarlas y conocen las bellezas del lenguaje en que están escritas. Para

todos dije y me equivoco: ellos no comprenden el valor de lo que escriben.

Por eso, el poeta de que me ocupo no coleccionó jamás sus poesías. Alma privilegiada, recibe el germen de la idea en el primer rayo de la luz que le hiere, y sin otra transición que la que el pensamiento necesita para ser revelado en el arte, conmuévase y produce. Y esta producción que fascina, que halaga y seduce á todo el que la escucha, es para todos menos para él. Todos en su oído ó en su memoria conservan algo de ellas menos su padre.

Y á veces dos hombres escuchan en una calle desierta los acordes de un piano, sobre cuyas notas culebrea la cadente armonía de un zortzico.

- ¿Oyes? -pregunta uno.

- ¡Qué hermosa es la canción! ¡Que yo no pueda hacer eso!

- Pues esa canción es tuya.

Y suya es efectivamente...”

Ziran baiño aundixeagoak egiten zituan emen gauzak *Curros* dalako orrek. Baiña, edozein moduz, Bilintx nolakoa zan garbi adierazten du. Eta, orrelakoa izanik, ez dago zertaz arritu, aren bertso asko galdu badira. Manterolak esan digunez, gorde diranak baiño geiago.

* * *

Orain arte, Bilintxek sail geiago ere bazituala ikasi degu. Baiña galdutako sail oien bertsoarik edo puskarik ez da guregana iritxi.

Urrengo ontan suerte oberik izango degu, ordea. Julio Caro Barojari argibide auek zor dizkiogu:

“En esta misma serie de Las memorias de un hombre de acción el tío se permitió también otra licencia cronológica, haciendo alusión a

unos versos de una canción que probablemente tiene una letra anterior alusiva a la guerra civil y otra que le puso Bilintx, siguiendo un poco el patrón de la letra vieja.

La canción vieja de San Sebastián que el tío recordaba, era ésta:

Iru dama gaztiak
daude penatuak,
agertu diralako
beren pekatuak;
aurretik egiñikan
or beren tratuak,
oiera juan zaizkate
gizon armatuak.

Y la conocida y muy repetida de la época de nuestros abuelos es la dedicada a Atanaxi Irisarri, que parece que es de Bilintx:

Atanaxi Irisarri
berez etorkiña,
bizitzaz etorriya
Donostiko aldera.
Dama orrek omen ditu
beatzi nobiyo,
apenas joan danari
baietz esan diyo.
Bi nobiyo izan ta
biyari agindu.
Bakarra zertako du?
Ederki egin du.

La letra tiene esta malicia popular que tienen muchas de las canciones humorísticas de Bilintx, que además de ser un poeta lírico extraordinario, fue también un poeta humorista."

Irakurlea oartuko zanez, bigarren zati au ez da bertso bakarra; iru edo lau bertso-puska alkarri erantsita bai-zik.

Julio Caro Baroja jaunak bere etxe-
an entzunak omen ditu oiek danak: bai

bertsoak eta bai Bilintxenak dirala ere. Beraren amona donostiarra zan eta Bilintxen kidekoa; pixka bat gaztexasgoa. Orregatik, Caro Barojaren esanak ontzat ar ditezkenak dirala uste degu.

Pio Barojak bertso ori bera ere badakar bere nobela batean: *Los impos-
tores joviales - El tesoro del holandés,
O. C. Tomo VII*, 109 orrialdean.

Penagarria auxe da, ordea: sail oien bertso-papera guk iñun ere arkitu ez izana, bertso oiek paperetan zabalduko ziran eta.

* * *

Bilintxena dala bein edo bitan esan dan sail bat aitatu nai genduke orain; baiña orrela izango dan batere segurantzirik ez duana, gure iritzirako beintzat.

Sail orrek onela du izenburua bertso-paperetan: *Bertso berriak zapatero bati jarriak*. Bein baiña geiagotan argitaratua izan da. Baiña paper oietan ez da egillearen izenik ematen.

Bilintxek jarria zala leenengoz esan zuana, oker ez bagaude beintzat, Errenteriko Makazaga moldiztegia izan zan. Bere *Bertsolariya* aldizkarian, 1932-III-6-an, onako izenburu au ezarri zion: *Anton Ixkiñentzat Bilintx'ek jarriak*. Eta bere *Bilintx'en bertsuak* liburuan ere argitaratu zuan, izenburu onekin: *Anton Iskiñari*.

Baiña ez du esaten ori, Bilintxenak dirala alegia, nundik ikasi duan. Orregatik, batere segurantzirik ez du orrek, eta ez derizkiogu bertso oiek liburu ontan sartu bear diranik.

* * *

Euskal-Esnalea aldizkariak argitara arazi zuan *Bilintx, Neutitzak eta Neurri gabeko itzak* izeneko liburuan (1911, *Donostia'n, Martín, Mena y C.^aren etxean*), onako bertso au Bilintxena bezela ematen da:

Iru errege datoz
kale nagusitik,
ardo bete-beteta
ezin egon txutik.
Meltxorrek eltzen diyo
Gaxparri besotik,
ez muturrez aurrera
erortziagatik.

Baiña ez du esaten Bilintxena dala nundik ikasi duan. Bertso ori, izan ere, edo orren antzekoa, erri askotan kan-

tatzen da. Ala ere, guk dakigularik beintzat, iñun ez da arena danik aita-tzen.

Are geiago: Bilintxen billoba Antoniori galdetu eta onela erantzun zigun:

- Bertso ori askotan kantatzen zan gure etxean; baiña gure aitonarekin zer ikusirik zuanik ez nion sekulan iñori entzun.

Beste argibiderik gabe, beraz, ez derizkiogu bertso ori donostiar bertsolariari erantsi bear zaionik.

1. Oker zion: berrogei ta bost urte zituan orduan Bilintxek.

2. *Poesía Euskara, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, San Sebastián, 1896.*

JOSE MANTEROLA

Jose Manterola jauna bein baiño geiagotan aitatu izan da liburu ontan, baiña beraren bizitzaren berri orain eman bearra degu.

Donostian jaio zan, 1849-III-23-an. Bertako ikastetxeko, *instituto*-ko maisu edo irakasle izan zan; baita *Diario de San Sebastián* egunkarian idazle eta udal-liburutegiaren zaintzaille ere. *Guía Manual Geográfico Descriptiva de la Provincia de Guipúzcoa* deritzaion liburua argitaratu zuan 1871 urtean. *Cancionero Vasco* izenekoa, berriz, 1877 urtetik 1880 urtera atera zuan. *Euskal-Erria* aldizkariari 1880 urtean eman zion asiera, eta aren zuzendaria izan zan, il zan arte. Bertso-bilduma bikain bat ere osatu zuan. Euskerazko itz-neurtu edo olerkien norgeiagoka eta sariketak antolatzeari berak ekin zion Gipuzkoan. Itz batean esateko, garai artako euskaltzaletasunak ari zor dio geien-bat. Ogei ta amabost urterekin il zan, 1884-II-29-an. Eta arrigarriena auxe da, guretzako beintzat: lan oiek danak ain urte gutxitan egin izana.

Manterolaren beste meritu bat

Bilintxen bertso askoren salbatzaillea izatea da.

Bilintx, izan ere, eta leen esan bezela, zabar samarra zan bere bertsoak gordetzen. Sail batzuk bazituan ala ere argitaratuak. Oietxetatik oartu zan Manterola bertso aien egillea nornai etzala. Ala, egun batean arengana joan zan. Baiña Manterolak berak kontatuko digu:

“Allá por los años 1870 al 1871 solicité de él con mucho empeño su colección completa con el propósito de darla á la estampa, pero poseído Vilinch de su eterna manía de que nada valían, como escritas -decía él- en sus ratos de melancolía y con el único fin de endulzar sus pesares, se opuso á la idea de que fueran publicadas.”(1)

Izketaldi ori nola izan zan obeto jabetu gaitezen, gauza bat ondo gogoan artu bear degu: Manterolak orduan ogei ta bat edo ogei ta bi urte zituala; Bilintxek, berriz, ogei ta emeretzi. Orregatik, mutiko ura bere aurrean eskaera ori egíñez ikusi zuanean, purrustada batez bialduko zuan seguru asko.

Baiña saio bakarra etzuan Manterolak egin. Ez izan ura etsitzen erreza.



José Manterola (1849-1884).

Bilintxen beste bertso-sail batengatik onela esaten baitu:

“Ostigué repetidas veces á Vilinch para que me la diera á conocer, pero despues de muchas excitaciones sólo obtuve de él la manifestación de que habia roto los originales en un acceso de mal humor.”

Egiñaal guziak alperrik, beraz.
Baiña, geroago ikusiko degunez,

Manterolak etzituan aazten utzi ez
Bilintx eta ez beraren bertsoak.

1. *Cancionero Vasco, Segunda Serie, Tomo II, abril de 1878.*

GERRATEA

1868 urteko iraillean, Isabel II erre-
giña atzerrira bota zuan iraultza sortu
zan Espāñian. Ain zuzen, erregiña
Donostian zan, udara pasatzera etorria,
eta emendik abiatu zan Frantzira.
Irungo muga igarotzean, onela esan
omen zuan: “*Creía tener más raíces
en este país*”.

Berealaxe asi ziran karlistak mugit-
zen. Leenengo txinpartak 1869 eta
1870-ean saltatu ziran; baiña liberalak
itzaltzeko modu egin ere bai. Urrena,
1872-an ekin zioten; Orokietan, ordea,
egurra jaso zuten. Ala ere, berriz altxa
ziran; eta orduan, bai; orduan indarra
artu zuten.

Liberalak, noranai joateko solda-
duak ez-ezik, beste talde batzuk ere
antolatu zituzten, *voluntarios* izenare-
kin. Talde oiek erri bakoitzeko libera-
lekin osatuak ziran. Etzuten mendiz
mendi ara eta onera ibili bearrik iza-
ten. Nork bere erria zaindu eta solda-
duei laguntzeko omen ziran.

Diario de San Sebastián egunka-
rian, 1876-II-10-ean, bertako goberna-
dorearen itzaldi bat argitaratzen da, bi-
de batez *voluntarios* izeneko oien egi-
tekoak zer ziran adieraziz.

Leenengo, aien goralpenak egiten
dira:

“...*todos veis la abnegacion con que nues-
tros leales hermanos en armas prestan un pe-
noso servicio con el heroismo que tanto les
honra.*”

Liberalak, izan ere, geroago esango
degunez, egun aietan jo zuten beren
azken erasoak karlisten kontra, eta
Donostian etzan agidanean *voluntario*
oiek beste indarrak gelditu:

“*Confiada hace dias la defensa de esta
plaza y algunos de sus fuertes exteriores á los
decididos Voluntarios que componen el
Batallon de esta Ciudad y al 2º y 3º de los su-
fridos emigrados, justo es que compartamos
con ellos tanta fatiga...*”

Eta ondoren onela dio:

“*Es innegable que el Batallon de Volunta-
rios de esta Capital lo forman en su inmensa
mayoría beneméritos artesanos y no pocos jor-
naleros, que se ven al presente en la necesidad
de abandonar cada veinte y cuatro horas sus
familias y hogares con notable perjuicio de
sus menguados intereses, para cumplir con el
sagrado deber que su mision les impone: mu-
chas personas hay que su posicion social les
permite sin gran quebranto prestar igual ser-
vicio y es de esperar que así lo harán inspi-
rándose en su conocido patriotismo. A estas se
dirije principalmente mi escitacion, secundan-*

do los deseos de todos los Voluntarios y los de sus dignos señores Jefes, que con tanto celo como actividad fomentan el aumento de la fuerza ciudadana que les está encomendada."

Bilintxek bereala eman zuan bere izena Donostiko taldean. Onela dio Manterolak *Diario de San Sebastián* egunkari ortan, 1876-VII-23-an, aren eriotzaren berri ematerakoan:

"Sus restos mortales han sido acompañados á su última morada por los Jefes, Oficiales y numerosos individuos del Batallon de Voluntarios, al que perteneció desde su fundacion el finado..."

Il-berria edo *esquela* ere bere lagun oietxek atera zioten *Diario de San Sebastián* ortan, bide batez Bilintx laugarren konpañikoa zala esaten digutela:

"El Capitan, Oficiales é individuos de la cuarta compañía del Batallon de Voluntarios de San Sebastian, al que pertenecia el finado, invitan á los Sres. Jefes y Oficiales y demás Voluntarios del mismo al funeral..."

Bilintx ere an ibiliko zan, beraz, besteak bezela, aal zuana egiten. Gertaera bat ere badegu ordukoa, beraren billoba Antoniok kontatua.

Gauetz, gerra-denboran oi dan bezela, liberalak an eta emen beretakoak jartzen zituzten Donosti inguruan guardia egiten, eta Bilintx ere an izaten zan batzuetan.

Aldizka-aldizka, "*¡Centinela alerta! ¡Alerta está!*" edo olako oi u bat pasatzen zioten alkarri. Batean, ordea, Bilintxen txanda iritxi da eta onek ezer esan ez; ixilik geratu. Lagunak bereala bial diote abixua buruzagiari, eta au joan da presaka Bilintxen tokira, zer gertatzen ote zan jakitera. Iritxi da eta Bilintx antxe, lasai eta trankil. Buruzagiak asarretuta:

- Zergatik ez dek erantzun?

Eta Bilintxek:

- Lotsatu egiten nintzan!

DONOSTIKO BONBARDEOA

1875 urteko udaran, Gipuzkoa guziaz, kosta aldeko erriak izan ezik, karlisten mende zegoan.

Orduan, Donostia artu nairik, kañoiak Arratzain mendian jarri, Bordatxo eta Benta-zikin esaten zaion ortan, eta tiraka asi ziran. Arratzain mendi ori Usurbil eta Igeldo bitartean dago, Donostia andik oso bistan eta mendean artzen dala. Gaurko autopista pasatzen da, oso gutxi gora-beera, karlistak beren kañoiak jarri zituzten tokitik.

Diario de San Sebastián ortan, bonbardeo orren berri ia egunero ematen da.

Iraillaren 28-an ekin zioten. Gaueko bederatzi ta erdietan tiratzen asi eta goizeko iruretan bukatu. Berreun bat granada bota omen zituzten. Iru edo lau kañoi omen ziran. Bitartean, Donostiko eliz-torretan su-kanpaia jotzen zuten.

Biaramonetan, granada batek kartzelan erori eta bi emakume zauritu ziotuan. Beste bat, Santa Teresako mojen baratzan erori zan.

Ondoko egunetan ixillaldi bat izan zan. Arratzain mendian iñor gutxi ikusten zan. Arratzain-goitin eta Benta-zikiñen, kañoi-lekuak konpon-tzen eta antolatzen ari ziranak beste iñor etzan ageri. Baiña urriaren 9-an berriz ekin zioten.

Donostiko gazteluan eta Santa Mariko torrean beti izaten omen zan batenbat katalejoz begira; eta, kañoia- ren kea-edo ikustean, kanpaiari eragiten zion, kalean zebillen jendea etxe- barrenetan leenbaileen izkutatu zedin.

Ala, gazteluko eta Santa Mariko kanpaiak asten ziran leenengo; eta, aiek entzundakoan, erriko beste guziak segi atzetik. Kanpai-otsa entzun eta granada erori bitartean, bulebarra alde batetik bestera korrika pasatzeko aibat denbora izaten omen zan.

Bein batez, granada bat sukalde batean sartu zan, iru soldadu bertan beren arrantxua maniatzen ari zirala; baiña iñork etzuan ezereen okerrik izan.

Beste batez, kalean zijoan gizon bati granadak jo eta burua kendu zion, eta burua bueltaka lurrera.

Bestean, emakume bat astoarekin zijoala, kanpaia entzun eta bera ezkaratz batean sartu zan; eta granadak as-toa jo eta dana txikituta utzi omen zuan.

Eguraldi txarragatik ere etzuten karlistak jairik artzen; eta, tiratzeari utzi gabe, Arratzaingo kañoi-lekuak gero eta obeto antolatzen jarduten ziran.

Baiña liberalak ere etzeuden lo, eta Igeldo, Artola eta Lugariztik tira egiten zuten berak ere, Benta-zikin eta Arratzaingo karlisten kontra.

Baita Lugaritz, Oriamendi, Puyo, Santa Barbara eta Ametzagañatik, Usurbil, Lasarte, Urnieta, Ergobia eta Astigarragaren aurka, erri eta baillara auek karlisten mende zeuden eta. Karlistak Donostia bonbardeatu, alegia, eta liberalak beste toki oiek. "Odolkiak ordaiñetan" esan oi da eta...

Udarregi bertsolariaren baserria, Artikula-aundi, Arratzain eta Mendizorrotz mendien tarteko lepoan zegoan, gaur autopista igarotzen dan ortan; eta, karlistak an gordetzen ziralakoan, ari ere tira egiten zioten liberalak. Etxe aundia zan, bi bizitzakoa; eta Udarregi-eta, tiraka asten zitzaizkienean, beste aldeko bizitzara pasatzen omen ziran korrika, ura babesago zegoan eta. Iru aldiz jo zuten granadak Artikula-aundi. Pareta bat pasa eta bestea pasa gabe gelditzen zan granada. Auetako batek, etxe-kantoia jo eta ango arri sillarea puskatuta utzi zuan.

* * *

Atal ontan emendik aurrera eskeiñiko ditugun argibideak, Donostiko udal-artxiboaren zaintzaille zan Koro Gorostidi andereñoari zor dizkiogu. Bilintxi buruz andik argibide geiago aterako etzala uste genduanean, eta gure ango azterketa-saioak bukatutzat genituala, berak telefonoz deitu zigun: joateko arren, paperen batzuk agertu berriak zirala eta.

Joan giñan eta paper-mordoska bat atera zuan. Leenengo, orri batzuk izenburu onekin:

"Documentación referente a la escuela sanitaria".(1)

Leen ere aditzera eman degunez, gerra asi zanean, liberalak *Batallón de Voluntarios* izeneko taldeak eratu zituzten beren mendeko errietan. Baita Donostian ere. Bilintx, esanik daukagunez, oietakoa izan zan.

Batalloi oiek, ordea, zaurituak nork jaso eta nork kontu egingo zien ere bear zuten noski. Donostikoak, beintzat, paper auetan ikusten danez, amabi gizon berezi zituzten zeregin ortarako.

Beren lana egiteko onako tresna auek zituzten gizon oiek:

"Nota de los efectos que como primer médico del Batallón de Voluntarios me hago cargo y obran en mi poder:

1.ª Dos camillas de campaña completas, con cubiertas de gutapercha.

2.ª Dos mochilas-botiquines de madera y cuero con su correspondiente maletín de hoja de lata, cubierto de gutapercha; cada uno de estos botiquines contiene seis vasos de cristal con sustancias medicinales, una lata con unguento, una caja de cartón con aglutinante en tela, un vaso de cristal, hilas formes e informes, compresas, globos de venda, cordonetes,

una tijera, un sacacorchos, agujas, alfileres, una varilla de vidrio y una espátula.

3.º *Dos cajas de cinc forma de mochila para agua, con su vaso esponjera y esponja.*

4.º *Una blusa, pantalón, y boina con chapa, y un sable con cinturón.*

San Sebastián, 15 de julio de 1875.

Recibí: El primer médico:

Estanislao del Castillo."

Gizon oiek ez dakigu asiera batean lan ori egiten zuten; baiña gero, karlistak Donostia bonbardeatzen asi ziranean, zauritutakoren bat jasotzean, gertatuaren berri idatziz ematen zieten beren buruzagiei.

Ala, 1875-ko iraillaren 29-an, paperean onela zioten:

"Batallón de Voluntarios de esta Ciudad. Sanidad.

A las once de la noche de ayer fue herido, al retirarse de la llamada general, el voluntario de la 1ª Compañía Juan Bautista Amiel, en la parte superior e interna del muslo izquierdo, por un casco de granada que obró de dentro a fuera, contundiendo y rompiendo todas las partes blandas, para salir por la parte externa de dicho miembro en dirección transversal, produciendo la fractura conminuta del fémur por debajo del trocánter menor, cuya lesión es sumamente grave, y siendo muy probable tener que proceder a la amputación de dicho miembro..."

Iraillaren 29-an idatzia bada ere, bezperako kontua da, 28-koa. Ain zuzen, leen esan degunez, egun ortan asi ziran karlistak Donostia bonbardeatzen, gaueko bederatzita erdietan. Granada aiek berealaxe billatu zuten, beraz, nori gaitz egin.

Urriaren 24-ean, arratsaldeko lauretan, berrogei ta amalau urteko emaku-

me bat jaso zuten zaintzaille oiek Bengoetxea kalean, granada batek zaurituta:

"Herida con un casco de granada cuyo proyectil ha penetrado por el vacío izquierdo saliendo por la región glútea derecha y causando la muerte de dicha mujer a las cinco menos cuarto de la misma tarde."

Ez da emakumearen izenik ematen. Patrikan amabi erreal eta giltza batzuk arkitu omen zizkioten.

Abenduaren 16-an, goizeko zazpi t-erdietan, Bergara kalean, zazpigarren zenbakian, laugarren bizitzan, emakume bat il zuan granada oietako batek: Frantziska Artola. Astigarragan jaioa zan, ogei ta bederatzita urtekoa, ezkondua, bi aurren ama.

Gela berean zegoan aur bat ere zauritu zuan granada orrek berak, baiña ezer gutxi egin. Ez da esaten Frantziska orren seme edo alabaren bat ote zan.

Abenduaren 20-an, batalloiko leenengo medikua zana, Estanislao del Castillo dalako ori alegia, granada batek jo eta ildako baten billa joan zan:

"A las ocho y media de la mañana de hoy me he presentado en la calle Loyola, letra C, cuarto piso, a recoger un herido, encontrándome un niño de tres años, llamado Juan Méndez, hijo de Juan y Josefa Fernández, cuyo niño presentaba una herida de granada, que entrándole por la parte posterior de la región molar izquierda ha salido por el carrillo derecho en su parte inferior; esta herida ha producido la muerte instantánea de la criatura."

Egun berean, arratsaldeko lauretan, Boulevard eta Narrika kalearen kantoian, zortzi urteko mutil bat jo zuan

granada batek: Sinforoso García, Bergara kalean bizi zana, irugarren zenbakian, goiko ganbaran. Leenengo sendaketa egin eta etxera eraman zuten, baiña itxaropen gutxi omen zegoan arekin ere:

“...la herida ha sido producida por un casco de granada que ha entrado por la parte inferior lateral derecha de la región pectoral, atravesando la base del pulmón derecho en su parte anterior, fracturando una de las superiores costillas falsas del mismo lado en su parte media y deteniéndose en la parte anterior de la costilla fracturada, dejando percibir al tacto el proyectil en dicho punto; la herida es sumamente grave.”

Usurbillen-eta, liberalak bonbardeatzen zituzten beste errietan alegia, berdintsu gertatuko zala esan bearrik ez dago. Eta, ikusi degunez, askotan, batere errurik etzuanak, aretxek paga-

tu. Oraingoak bildugarriagoak izango dira; baiña orduko gerra ura ere txantxetako gauza etzala or degu erakuspen ederra.

Diario de San Sebastián-ek ez du eriotz eta ezbear oien berri ematen. Liburu ontan beste toki batean esaten degunez, argi eta garbi dago egunkari orrek zer jokabide zuan: erriko jendea ez ikarátzea.

Baiña *escuadra sanitaria* dalako orren agiri oiek emen agertzeak mesede egin digu. Orrela obeto jabetuko gera Bilintxen ezbearra zer izan zan.

1. Donostiko udal-artxiboa: *Sección E, Negociado 5, Serie 11, Cajón 11, Expediente 10.*

SAN SEBASTIAN EGUNA

San Sebastian eguna etorri zan; 1876-ko ilbeltzaren 20-garrena, alegia.

Egun artako *Diario de San Sebastián* egunkariak onela dio:

“Con motivo de la fiesta patronal del pueblo la charanga municipal ha recorrido hoy las calles de la poblacion entre seis y ocho de la mañana, en union con una banda de tambores y barricas.”

Gerra bazan ere, alegia, donostiarak etzuten egun ori pasatzen utzi, beren *tamborrada* jo gabe.

Egun artantxe, Bilintxen bertso bat agertu zan egunkari ortan: *Nik au pentsatu nuben asten dana; geroago arkituko du irakurleak.*

Egun berean, granada batek Bilintx jo eta zauritu zuan. Biaramonean onelazion periodiko orrek:

“Los carlistas han arreciado nuevamente sus hostilidades sobre esta Ciudad, causando ayer los proyectiles enemigos algunas desgracias personales.

Entre las víctimas del hierro enemigo se cuenta el honrado conserje del Teatro principal, el simpático y popular poeta Vilinch, que á primera hora de la tarde resultó herido en su misma habitacion. Esta desgracia ha sido

generalmente sentida por toda la poblacion, en la que tantas simpatías cuenta el discreto cuanto desgraciado D. Indalecio Bizcarrondo.

Nos asociamos al comun dolor y enviamos a su honrada familia la expresion de nuestro sentimiento, á la vez que hacemos votos por el restablecimiento del desgraciado Indalecio.”

Diario de San Sebastián orrek berak, zenbaki berean, egun ortan zenbat granada erori ziran eta zein ordutan adierazten du. Onela dio:

“El resumen de proyectiles lanzados sobre esta Ciudad por las baterías enemigas de Arratzain, durante el día de ayer, 20 de Enero, es el siguiente:

	<i>Granadas</i>
<i>Desde las 6 y 40' hasta las 6 y 45'</i>	
<i>de la mañ.....</i>	2
<i>Desde las 8 y 42' hasta las 8 y 44'</i>	2
<i>Desde las 9 y 45' hasta las 9 y 52'</i>	3
<i>Desde las 11 y 15' hasta las 11 y 18'</i>	2
<i>Desde las 1 y 20' hasta la 1 y 58'</i>	
<i>de la tarde</i>	2
<i>Desde las 3 y 12' hasta las 3 y 56'</i>	3
<i>Desde las 6 y 2' hasta las 6 y 25'</i>	
<i>de la noche.....</i>	3
<i>A las 7 y 56'</i>	1
<i>Total.....</i>	18
<i>Suma anterior.....</i>	1889

Total general..... 1907

Eta, leen esan degunez, “a primeras horas de la tarde”, arratsaldearen asieran, alegia, jo baitzuan granadak Bilintx, ordubatetik ordubietara erori ziran oietako bat izango zan.

Manterolak, bere *Cancionero Vasco-n*, onela esaten du:

“...cuando en aciagos dias de lamentables y sangrientas discordias civiles se disponia á estrenar un modesto traje para festejar al Santo patrono de su pueblo, el dia 20 de Enero de 1876, una granada lanzada por una batería de las que los carlistas tenían en los alrededores de esta ciudad, penetró en su habitacion y mutiló horriblemente sus dos piernas...”

Bilintxen billobak esan zigutenez, onela gertatu omen zan: Bilintxek traje berria zuan egun artan, eta galtzak jzuten orduantxe asia omen zan. Une artantxe kanpai-otsa entzun zan. Entzun bezin laster, andrea eta aurrak beera abiatu ziran korrika, granada erori birtartean ezkatzeraiño jexteko astia izaten zan eta. Bilintx, ordea, esan bezela galtzak aldatzen asia, eta etzuan iges egiterik izan. Berandu egin zitzaion.

Granada etzan zuzenean etorri. Leenengo beste etxe bat jo zuan, eta rebotean Bilintxen gelara leiotik sartu.

Madrilko egunkariak ere eman zuten Bilintxen ezbear orren berri; luze eta zeatz eman ere.

Txeetasunik geien ematen duana *La Correspondencia de España* da. Leen ere esan degunez, Bilintx orko *corresponsal* izana zan eta orregatik izango da. *F. Peris Mencheta-k*, 1876-1-24-ean, onela dio periodiko ortan:

“San Sebastian, 20.

Hoy ha sido dia festivo para la generalidad de los habitantes de esta capital, y de tristeza y luto para dos familias. Festivo, porque ha solemnizado el vecindario la fiesta de su patrono San Sebastian; desventurado y triste para dos familias que han visto caer mortalmente heridos, víctimas del bombardeo, á dos individuos de su seno.

Queriendo, sin duda, los artilleros carlistas de Arratzain dejar triste memoria de este dia, han disparado más cañonazos que otros dias contra la plaza, y sus proyectiles han producido dos sensibles desgracias. Uno de ellos ha estallado en la habitacion del poeta vascongado y corresponsal de La Correspondencia en esta Sr. Vilinch, hiriéndole en el tercio medio de la pierna derecha con fractura conminuta de ambos huesos, por lo que ha habido necesidad de amputársela por el sitio de eleccion.

Esta delicada operacion ha sido practicada por el Sr. Sagastinúe, presidente de la Cruz Roja de esta capital, auxiliado por los facultativos señores Mayora, Aristizabal, Oa y Tames.

El paciente ha sufrido la amputacion sin revelar abatimiento de espíritu ni lamentarse de su desventura, lo cual patentiza un alma grande y un corazón á prueba de vicisitudes.

Otro casco le ha herido en el tercio opuesto de la pierna izquierda, con fractura de ambos huesos, causándole además varias contusiones; pero se confia en que no habrá necesidad de amputársela.

No quisiera recordarlo: le he visto tranquilo en el lecho del dolor, mientras que temblaban mis piernas al ver una de las suyas separada del cuerpo y destrozada la otra.

Vilinch tiene 35 años(1), empleados en su mayor parte procurándose un porvenir honrado y defendiendo la libertad con la pluma y el fusil.

No se ha satisfecho el hierro rebelde ocasionando una víctima, y ha elegido á una jo-

ven para que sufriera también los estragos de su bárbara misión, lastimándole un brazo, que le ha sido curado inmediatamente de primera intención en el hospital de sangre.

También los carlistas deben haber sufrido hoy los efectos de la guerra, pues se ha visto estallar varios proyectiles de los que han lanzado nuestras baterías de Artola, Lugariz y Hernandez, sobre las trincheras y reducto de Arratzain..."

El Imparcial egunkariak, berriz, 1876-I-26-ko zenbakian eta *M. Curros*-ek izenpetuta, onela zion:

"San Sebastian, 21 de Enero de 1876

...caía (Bilintx) por la tarde mortalmente herido de una granada al lado de su esposa y de sus tiernos niños.

...Cuando lo supe, anoche mismo, yo, que conocía al nobilísimo Vilinch por varios de sus cantares y por referencias de las personas más ilustradas de esta capital, acompañado de su buen amigo D. Cirilo Latierro, fui a su casa, calle del Puerto, núm 5(2), y lo que entonces sentí aún lo recuerdo ahora con dolor.

El lector me excusará de entrar en detalles referentes á esta visita, que para todos serán inútiles desde el momento en que sepan que aquel desgraciado acababa de sufrir la amputación de una de sus piernas destrozadas horriblemente, y se preparaban los médicos, según me dijeron, á hacer lo mismo con la otra, siempre que el paciente se sintiere con valor y pudiese resistir la operación..."

Granadak, beraz, anketan jo zuan Bilintx: txorkatilla eta belauna bitartean. Ango bi ezurak, eskubiko ankakoa, puskatu eta apurtu egin zizkion; eta ezkerrekoak ere puskatu. Eskubiko anka berealaxe moztu zioten, arratsalde artan bertan. Ainbesteraíño purrukatu zion granadak. Ezkerrekoari ere gauza bera egin bearko ote zioten bildur ziran sendagilleak; baiña alakorik egin ote zioten ez degu iñun ere arkitu.

Ala, Bilintxen billobei galdetu genien eta baietz erantzun ziguten. Denborarekin bestea ere moztu bear izan ziotela; berandu samar, ordea. Anka salbatuko ziotelakoan zai egon zirala, baiña bitartean gangrena sartu eta artatik il zala Bilintx gizarajoa.

Irakurlea oartuko zanez, Madrilko egunkariak *Diario de San Sebastián* orrek baiño txetasun geiago ematen dituzte. Ez dakigu zergatik izango dan. Bearbada, egunkari ori Donostiko jendea izutuko ote zan bildur zan. Madrilkoak, berriz, orrelako kezkarik ez eta ezeren trabarik gabe mintzatzen ziran, zenbat eta aundiagoak esan, orduan-eta gorroto geiago artuko baitzien jendeak karlistei. Propagandaren jokabideak oiek danak, noski. Baiña Madrilko joera ori gure mesedetarako izan da, orrela Bilintxen ezbearra zer izan zan obeto jakiteko bidea eman baitigute.

Illaren 27-an onela zion *Diario de San Sebastián* orrek:

"Afortunadamente, Indalecio Bizcarrondo, á quien se hizo ayer la segunda cura, sigue bien, dada la gravedad de sus heridas."

Biamamonean, berriz, onela esaten zuan:

"El desgraciado Vilinch que tuvo ayer un pequeño recargo, seguía hoy en un estado relativamente muy satisfactorio."

Eta otsaillaren 1-ean onela:

"El simpático cuanto desgraciado poeta vascongado Vilinch, á quien se hizo ayer la tercera cura, sigue relativamente bien de las graves heridas que recibió el día 20 de Enero último."

Ontara ezkerero, on izango da oar bat egitea: *Diario de San Sebastián* dalako

orren zuzendaria, leen esan bezela, Jose Manterola zala. Geroago adieraziko degunez, jaun orretzek salbatu zituan Bilintxen bertso asko, beraren alargunarengana joan eta senar il berriaren lanak eskatuta. Bilintx nor zan iñor baiño leenago eta obeto oartu zalako egin zuan ori, eta beragatik jarri ere egingo zituan bere egunkarian aren ezbearren gorabeerak.

Ala ere, egunkari orrek ez du Bilintx geiago aitatzen, andik sei illabetera il zan arte. Bitarte ortan, Euskal-Erriak ere gertaera latzak ezagutuko zituan.

1. Leen ere esan bezela, ontan oker dago: berrogei ta bost urte zituan orduan Bilintzek.

2. Dakigunez, Bilintxen etxea Kale Nagusian zan, Teatro Zaarrean.

GURUTZBIDEA

Sei illabete iraun zuan Bilintzek bizirik. Aren egoera denbora ortan zer izan zan, onela adierazten du *Diario de San Sebastián* orrek, uztaren 23-an, Bilintxen eriotzaren berri eman ondoren:

“El celebrado y sin rival poeta euskaro ha pasado á mejor vida, jóven todavía, triste víctima de los horrores de la guerra civil, despues de yacer postrado seis largos meses en el lecho del dolor, destrozadas ambas piernas por una granada enemiga y herida su alma de triste presentimientos que le han hecho vivir en tan largo tiempo en una prolongada agonía, mil veces peor que la muerte.”

Ta bere *Cancionero Vasco*-n onela esaten du Manterolak-k:

“...seis largos meses de amargos sufrimientos y privaciones que constituyeron el doloroso calvario de su cruel y prolongada agonía.”

Bilintzek, bere billobak esan digutenez, oiñaze aundiak izan zituan. Leenago esan bezela, gangrena ere sartu zitzaion.

Batzuetan, burua galdu eta zer egi-ten etzekiala jartzen omen zan. Alako batean, nola edo ala bere paperak es-

kuratu eta erre egin omen zituan. Orduan zer galdu zan, Jaungoikoak bakarrik daki.

Beste zenbait paper, berriz, Larramendiren iztegi baten barruan omen zeuden, eta aiek bakarrik salbatu ziran.

Bilintxen esku-idatziak askotan aitatuko ditugu liburu ontan. Baita arek etxean zituan bertso-paperak ere. Oiek danak, esan bezela, Larramendiren iztegiak gorde zituan.

Gurutzbide latza eta samiña pasa bear izan zuan, beraz, gizarajoak. Baiña etzan bakarra izan. Euskal-Erriak ere gertaera garratzak ezagutu zituan denbora berean; gurutzbidea onek ere.

Liberalak, 1875-eko udaran, Balentzia eta Aragoi aldeko karlistak menderatu zituzten. Urte bereko udazkenean, berriz, Kataluñakoak. Orduan bere indar guziak Euskal-Errira ekarri zituzten.

Eun ta ogei milla bat soldadu omen ziran; karlistak, berriz, ogei ta amairu milla ere ez.

Liberalak bi talde antolatu zituzten: bata, eskubikoa, Naparrotik, eta bestea, ezkerrekoa, Bizkaitik erasotzeko.

1876-ko ilbeltzaren 27-an, Moriones liberal jeneralak uste gabean eraso eta Getariko Garate mendia artu zuan. Biaramonean, liberalak atake aundia jo zuten alde guzietatik.

29-an, Arratzain eta Mendizorrotz artu nai izan zituzten. Leen ere esan degenez, an zeuden Donostia bonbardeatu eta Bilintx jo zuan granada tira zuten kañoiak. Anko karlistak, ordea, gogor erantzun zuten. Pirala liberal kondaira-idazleak onela dio:

"...pero defendían el parapeto unos 40 carlistas mandados por don León Trecu, y agotados los cartuchos y las granadas de mano, se defendieron á pedradas, arrojando hasta las tejas, rechazando toda propuesta de rendición, hasta que auxiliados por Pérez Dávila, hicieron retroceder á los que en tan apurada situación les tenían y se consideraban dueños del Bordacho..."

Orixe izan zan karlistak Gipuzkoan irabazi zuten azken burruka-aldia.

Andik aurrera, ordea, liberalak alde guzietatik eta pillaka erasotzen zieten, eta atzeraka asi bear izan zuten. Mendizorrotz eta Arratzain mendiak otsaillaren 11-n utzi zituzten. Gauza aundia izan zan ori donostiarrentzat, eta ederki ospatu zuten. Onela dio *Diario de San Sebastián* egunkariak, otsaillaren 18-an:

"El pabellón nacional ondea ya en las formidables posiciones de Arratzain y Mendizorrotz, ocupadas por el ejército nacional."

La noticia ha sido recibida aquí con el entusiasmo que puede suponerse por todo el vecindario.

La campana del Castillo, presagio durante cinco largos meses de los proyectiles lanzados por los carlistas sobre esta hermosa Ciudad, ha comenzado á repicar á las tres y media de la tarde, siguiéndole poco despues en la misma tarea las de las parroquias echadas á vuelo.

Varias músicas han recorrido las calles, redoblando el general entusiasmo, se han lanzado cohetes por los aires, y el vecindario casi unánime ha adornado con colgaduras los balcones, en señal de regocijo.

San Sebastián, la última Ciudad bombardeada por los hoy fugitivos partidarios del Pretendiente, ha sido ya libertada, y en tanto el ejército nacional camina de triunfo en triunfo por el interior del país rebelde, y ocupadas ya Durango, Azpeitia, Vergara y Guernica, los valientes soldados de D. Alfonso XII caminan con paso firme á Estella, la Meca del carlismo."

Ala, karlistak etsi zuten, eta sakanatzen asi ziran. Erderaz itz egokia asmatu zan egun aietako berri emateko: *la deshecha*. Karlistetako komandante batek, Mugertzak, onela esan omen zien bere soldaduei Lasarten:

- Mutillak, onek egin dik!

Eta bakoitzak nai zuan tokira joateko baimena eman. Orduan Tolosara joan ziran batzuk, armak entregatzera.

Jose Manuel Arrizabalok onela esaten du *Baso-mutillak* liburuan, bere aittagatik ari dala:

"Gerra galdutakoan, Tolosara armak entregatzera zijoazela, bidean onela kantatzen omen zuten:

Rau, rau, raketa prau!

Au dek umoria!

Utzi alde batera

euskaldun jendia!

Tolosan egin omen zuten, plazan, arma-txondor ikaragarri aundia; arma-pilla aundia txondor-moduan. Eta andik etxera.”

Don Karlosek otsaillaren 28-an Arnegitik barrena muga pasa eta alde egin zuan, bere “*¡Volveré!*” ura esanez. Araiño lagundu zioten batalloiak erdaldunak izan omen ziran, kastillatarak-eta; emengotarik bat ere ez.

Segituan, fueroen kontrako giro zorrotza sortu zan Españi guzian. Euskal

probintzietako ordezkariak Madrillera deituak izan ziran, fueroen aldaketari buruz itzegin bear zala eta. Joan eta aalegin guziak egin omen zituzten, baiña alper-alperrik. Batzar aietako berri ederki eman zuan Jose Manterola jaunak *Diario de San Sebastián* ortan.

Bitartean, gertaera oiek danak, bai gerrakoak eta bai Madrikoak, oietik entzungo zituan Bilintx gizarajoak, artarako gauza bazan beintzat.

MILITARREN ARTEKO ESKUTITZAK

Leen ere esan degunez, 1977 urtean, Bilintxi buruzko azterketa bukatutzat genduala, Donostiko udal-artxihoaren zaintzaille zan Koro Gorostidi andereñoaren deia izan genduan, paper berriren batzuk agertuak zirala eta.

Paper auek Donostiko bonbardeoari buruz diotena or goien ezarri degu. Baiña Bilintxen zauriaren berri ere ematen dute, beren izenburuak garbi asko adierazten duanez:

“Documentación referente a la herida que recibió Don Indalecio Bizcarrondo (a) Vilinch” (1)

Paper oietan zaarrenak granada batek Bilintx zauritu duala esaten du; *partea eman alegia:*

“Milicia Nacional de San Sebastián, Primer Batallón, Cuarta Compañía.

El Capitán que suscribe da parte de haber sido herido en este día, por una granada lanzada desde Arratzain, el voluntario de la misma D. Indalecio Bizcarrondo, cuyo estado es sumamente grave, según me he informado de los facultativos que le han asistido en el primer momento.

San Sebastián, 20 de Enero 1876.

El Capitán:

*Andrés Núñez y González
Señor Comandante del Primer
Batallón de Voluntarios.”*

Urrengo papera gobernu militarra idazten du, andik illabete batzuetara, Bilintxen berri zeatz ikasi nairik:

“Gobierno Militar de Guipúzcoa.

Al objeto de que el Excmo. Sr. Capitán General y en Jefe del Primer Ejército pueda conocer de una manera clara cuanto tiene relación con D. Indalecio Vizcarrondo, voluntario de la 4ª Compañía del Batallón de su digno mando, a quien se refiere su atenta comunicación del día de ayer, se servirá V. facilitarme un informe tan extenso que me permita conocer hasta en sus menores detalles las causas que ocasionaron la desgracia de dicho individuo y forma en que medió, así como respecto a su conducta y antecedentes.

Dios guarde a V. muchos años. San Sebastián 6 Julio 1876.

El Brigadier Gobernador:

Salvador de Calver.

Sr. Jefe de Voluntarios de San Sebastián.”

Boluntarioetako komandanteak idazkiren bat bialia zion, beraz, bezperan: *su atenta comunicación del día de ayer.* Eta gobernadoreak eskutitz orren

bidez eman zion erantzuna.

Komandanteak laugarren konpañi-ko kapitanari pasa zion gobernadorearen eskutitza, saiets batean itz auek erantsiz:

“Voluntarios de la Libertad, Comandancia, San Sebastián.

San Sebastián, 7 de Julio de 1876.

El Capitán de la 4ª Compañía del Batallón se servirá informar a continuación sobre los extremos que abraza el presente oficio del Sr. Brigadier Comandante General de la Provincia.

Alvarellos.”

Kapitanak, berriz, jator eta zeatz bete zuan egiteko ori, onako eskutitz au idatziz:

“En contestación a la orden superior que antecede y en cumplimiento a lo mandado por el E. S. Brigadier Comandante general de la Provincia, debo manifestar a V. que desde el mes de Agosto de 1870 ha pertenecido Don Indalecio Bizcarrondo a la 4ª Compañía del Batallón de su digno mando, prestando el servicio que como a voluntario le ha correspondido tanto de patrullas como de guardias, distinguiéndose siempre por su ciega obediencia y puntualidad a todos los actos hasta el veinte de Enero de este año. En este referido día, el Bizcarrondo, que tiene una tiendecita en la Calle Mayor para dedicarse a la venta al por menor del periódico La Correspondencia de España y algunos otros, subió a su habitación, que lo es el 4º piso de dicha casa, a desnudarse el uniforme de voluntario por haber salido de servicio el mismo día, y, estándolo verificando, reventó en ella una granada lanzada desde Arratzain por los carlistas, con tal desgracia para Indalecio que le rompió las dos piernas, teniendo necesidad de sufrir la amputación de una de ellas, quedando bastante mal de la otra, por cuya razón yace todavía en el lecho del dolor, sin que pueda abandonarle,

según opinión facultativa, todavía en mucho tiempo.

Es padre de tres hijos, el mayor de seis años, conociéndosele siempre de una ejemplar conducta y furioso defensor del orden.

San Sebastián 8 de Julio de 1876.

Andres Núñez y González.”

Eskutitz onek argibide eder asko ematen dizkigu: Bilintxek 1870-eko abuztuan eman zuala bere izena boluntarioetara, gerra-zalapartak asi orduko alegia; aren lana guardia egitea eta taldeka ibiltzea zala; nagusien aginduek betetzen itxua eta zuzena zala; Kale Nagusian egunkariak saltzeko denda-txo bat zuala; granadak zauritu zuan egunean ere, goizetik or ibilia zala boluntario-zerbitzua egiten; etxera laugarren bizitzara igo, uniformea erantzten asi eta orduantxe jo zuala granadak, bi anak puskatuz; bat bereala moztu bear izan ziotela; baiña bestea ere gaizki zuala; geroztik oiean zala, denbora askoan andik ateratzeko itxaropenik gabe.

Argibide oietako batzuk berri-berriak dira. Geienak, ala ere, leendik ezagunak. Baiña auek ere eskutitz onek ederki egizatzen ditu.

Andik amabi egunera, beste eskutitz bat atera zan gobernu militarretik, leengo gaiari jarraituz:

“Gobierno militar de la Provincia de Guipúzcoa y Plaza de San Sebastián.

El Excmo. Sr. Capitán General en Jefe del Primer Ejército, con fecha 18 de actual, me dice:

Excmo. Sr.: Me he enterado de todo cuanto me manifiesta V. E. en su comunicación del 11 del mes anterior, referente al voluntario de esta capital Don Indalecio Vizcarrondo, y, con

el objeto de que sea atendido, se servirá V. E. manifestarme si el interesado desea ser admitido en el Cuartel de Inválidos o prefiere ser propuesto para la Cruz del Mérito Militar, pensionada con 7'50 pesetas mensuales.

Lo que traslado a V. a fin de que se sirva manifestarme la resolución del voluntario D. Indalecio Vizcarrondo.

Dios guarde a V. muchos años. San Sebastián 20 julio 1876.

El Brigadier Gobernador:

Salvador de Calver

Sr. Comandante jefe del Batallón de Voluntarios de esta Ciudad".

Bi bide oietako bat aukeratu bear zuan, beraz, Bilintxek: elbarri-kuartera joan ala gurutze ori illeroko eskupeko orrekin jaso.

Galdera ori egin ote zioten? Ez degu uste. Ura etzan ortarako egongo, andik bi egunera il baitzan.

Jose Manterolak, 1876-VII-25-ean *Diario de San Sebastián* egunkarian agertu zan idazki batean, onela zion:

"Tenemos entendido que precisamente pocas horas antes de su muerte había sido propuesto al Gobierno para una recompensa el

insigne poeta euskaro Indalecio Bizcarrondo, (a) Vilinch."

Artu-eman oien berri bazuan, beraz, Manterolak. Izan ere, Bilintxen lagunen batzuk izango ziran, guk uste beintzat, burutazio ori artu eta aurrera eraman nai zutenak; eta ura ere taldekoa izango zan.

Txeetasun bat gogoan artu bear gendūke: gobernadoreak bere eskutitz ortan onela díola:

"Me he enterado de todo cuanto me manifiesta V. E. en su comunicaci3n del 11 del mes anterior..."

Beste eskutitz bat ere izan zan, beraz, *Batall3n de Voluntarios* dalakoa-ren komandanteak idatzi eta gobernu militarra bialdua. Eskutitz ori ere oso jakingarria izango litzake noski, eta beste zenbait argibide emango lizkiguke, eskuratuko bagendu.

Ala, gobernu militarra joan giñan, eta zer nai genduan adierazi. Eskutitz orren billa aalegiñak egin zituztela badakigu, baiña etzan ezer ere agertu. Agian, or ez bada, beste toki-ren batean azalduko da oraindik ere egunen batean.

ERIoTZA ETA ILLETA

Euskal-Erriko fueroak kentzen zituana legea onartua izan zan Madrillen, eta erregeak firmatu ere bai, 1876-ko uztaren 21-ean.

Biamamonean, 22-an alegia, goizeko laueta, Bilintxen eriotza gertatu zan. Onela dio eliz-agiriak:

“Como Cura propio de la parroquia de Santa María, la Matriz de esta Ciudad de San Sebastian, provincia de Guipuzcoa, mandé dar sepultura Ecce. en el día de la fecha al cadáver de D. Indalecio Bizcarrondo, natural de esta, de edad de cuarenta y cinco años, casado con Nicolasa Erquicia, natural de esta(1). Falleció ayer, habiendo recibido los Santos sacramentos de Penitencia, Sagrado Viático y Extremauncion. No testó; y fueron testigos Sebastian Echeverria, Vicente Ezcurdia, sirvientes de la Sacristía. Y para que conste lo firmo en San Sebastian á veinte y tres de Julio de mil ochocientos setenta y seis. Dn. Elias de Gorostieta.(2)

Juzgaduko agiriak, berriz, onela:

“En la Ciudad de San Sebastian á las diez de la mañana del veinte y cuatro de Julio de mil ochocientos setenta y seis, ante Don Canuto Ignacio Muñoz, Juez municipal, y Don Pio Guereca, secretario, compareció Sebastian Estala, celador municipal, manifestando que Indalecio Bizcarrondo y Ureña, natural de

esta Ciudad, de edad de cuarenta y dos años(3), y domiciliado en la calle Mayor, casa-teatro, piso tercero, ha fallecido á las cuatro de la mañana de anteayer, á consecuencia de heridas de granada, de lo cual daba parte como agente.

En vista de esta manifestacion y de la certificacion facultativa presentada, el Sr. Juez dispuso que se extendiera la presente acta, consignandose en ella: Que era hijo legitimo de José, natural de Tolosa, y de Joaquina, natural de esta, ya difuntos. Que el referido finado estaba casado con Nicolasa Erquicia, natural de esta Ciudad, de cuyo matrimonio tuvo tres hijos, que son Benito, Juan y Ana.

Que no consta si testó; y que á su cadáver se habrá de dar sepultura en el cementerio de esta Ciudad.

Fueron testigos Francisco Salcedo y Ramon Mugica, mayores de edad, y vecinos de esta Ciudad.

Leida esta acta por todos los concurrentes y, hallándola conforme, se sella y firman; y de todo ello como secretario certifico: Canuto J. Muñoz: Sebastian Estala: Ramon Mugica: Francisco Salcedo: Pio Guereca.”(4)

Diario de San Sebastián dalakoak, 1876 urteko uztaren 22-an, bi gertaera oien berri ematen zuan, biak batera, leenengo orrialdean: fueroen galera eta

1779.
Fundación
Bisarrumita.

Como cura propio de la parroquia de Santa Maria, la Natividad de esta Ciudad de San Sebastian, por via de diez y nueve
marcha dar sepultura sea en el dia de la fiesta de San Juan
de S. Blas de Bisarrumita, natural de esta de edad de cincuenta
y cinco años, casado con Victoria Arguina, natural de esta.
Gallego ayer, habiendo recibido los Santos Sacramentos de Penitencia
y Sagrado Viatico y Extrema unctione. A los testigos y firmados
de San Sebastian Sebastian Arguina, Vicario General, presidente de la
Parroquia y Juan Jose Cortes, secretario de San Sebastian a
veinte y tres de junio de mil ochocientos setenta y nueve
Yo el Obispo

N.º 80
Juan de Gamba

Como cura propio de la parroquia de Santa Maria, la Natividad de esta Ciudad de
San Sebastian, por via de diez y nueve, el Obispo de Ultramar, mandó dar sepultura sea en el
dia de la fiesta de San Juan de S. Blas de Gamba, natural de Vizcaya y de esta
Ciudad de veinte y tres años, ayer de Pedro Arguina, natural de esta de esta
edad de diez y nueve habiendo recibido los Santos Sacramentos de Penitencia, sagrado
Viatico y Extrema unctione. A los testigos y firmados de San Sebastian Sebastian Arguina, Vicario
General, presidente de esta, presidente de la Parroquia y Juan Jose Cortes, secretario de San Sebastian a
veinte y tres de junio de mil ochocientos setenta y nueve
Yo el Obispo

N.º 81
M.º Manuel de Alvar

Como cura propio de la parroquia de Santa Maria, la Natividad de esta Ciudad de San
Sebastian, por via de diez y nueve, el Obispo de Ultramar, mandó dar sepultura sea en el
dia de la fiesta de San Juan de S. Blas de Alvar, natural de esta, de edad de veinte y
siete años, viudo de D.ª Maria Juana Arguina, natural de San Sebastian. Gallego de
esta de diez y nueve años para haber recibido los Santos Sacramentos de Penitencia y
Sagrado Viatico y Extrema unctione. A los testigos y firmados de San Sebastian Sebastian Arguina, Vicario
General, presidente de esta, presidente de la Parroquia y Juan Jose Cortes, secretario de San Sebastian a
veinte y tres de junio de mil ochocientos setenta y nueve
Yo el Obispo

N.º 82
Don Benito de Alvar

Como cura propio de la parroquia de Santa Maria, la Natividad de esta Ciudad de San
Sebastian, por via de diez y nueve, el Obispo de Ultramar, mandó dar sepultura sea en el
dia de la fiesta de San Juan de S. Blas de Alvar, natural de esta, de edad de veinte y
siete años, viudo de D.ª Maria Juana Arguina, natural de San Sebastian. Gallego de
esta de diez y nueve años para haber recibido los Santos Sacramentos de Penitencia y
Sagrado Viatico y Extrema unctione. A los testigos y firmados de San Sebastian Sebastian Arguina, Vicario
General, presidente de esta, presidente de la Parroquia y Juan Jose Cortes, secretario de San Sebastian a
veinte y tres de junio de mil ochocientos setenta y nueve
Yo el Obispo

Bilintxen eriotz-agiria, Santa Mariko parrokian, Donostia.

Bilintxen eriotza. Orrialde tristeagorik gutxitan agertuko zuten Euskal-Erriko egunkariak.

Aurrena, fueroen galera adierazten da:

“La suerte de estas nobles, valerosas y libres Provincias está fallada. La ley que destruye tan antiguas, tan admirables y tan bienhechoras instituciones locales ha sido ya votada definitivamente.

Triste es el resultado, pero estaba previsto ha largo tiempo. Los buenos vascongados no se hacían ilusiones...

...Decía admirablemente el otro día Castelar: algo grande muere hoy en la gran patria española...”

Idazlan ederra da, baiña ezin osorik onera aldatu. Dударik gabe, Manterolarena izango da. Onela bukatzen du:

“Mañana tal vez la ley ahogue nuestra voz. Mas hoy ¡cómo dudar! el país entero repetirá con nosotros:

¡LOS FUEROS HAN MUERTO! ¡VIVAN LOS FUEROS!”

Ondoren eta segiran, arrasto txiki bat tartean dala, Bilintxen eriotzaren berri ematen da:

“A las cuatro de la madrugada de hoy ha fallecido, despues de mortales angustias en que ha vivido desde el 20 de Enero último en que una granada enemiga lo hirió mortalmente en su propia habitación, durante el bombardeo por los carlistas de esta Ciudad, el insigne poeta vascongado Indalecio Bizcarrondo, cuya pérdida lloran hoy las letras vascongadas.

El pobre Vilinch ha muerto, víctima del profundo pesar que le aquejaba, el mismo día que se firmaba la abolición de las libertades vascongadas, que tantas veces había cantado, y deja en el más triste desconsuelo a su cariñosa esposa y sus tiernos hijos.

Sus funerales al cual quedan invitados todos sus numerosos amigos, se celebrarán ma-

ñana a las 8 1/2 en la parroquia de Santa María.

¡Pobre Vilinch! ¡Séale la tierra ligera!”

Egun berean, beste orrialde batean, Bilintxen il-berria edo *esquela* agertzen da *Diario de San Sebastián* ortan.

Urrengo egunean, uztaren 23-an, berriz ere bi eriotz oietaz mintzatzen da egunkari ori, eta orri berean aldi ontan ere.

Leenengo, *Los funerales de los fueros* izenburuarekin, fueroei buruz idazlan bat. Bertan adierazten denez, Arabako ordezkari zain Moraza jaunak onela esan zuan Madrillen:

“Pensad, señores, en el grande acto que vais a ejecutar: vais á acabar con las libertades más antiguas del mundo...”

Eta onela bukatu omen zuan:

“...la causa que hemos sostenido ha sido, es y será la causa de la razón, de la justicia y de la humanidad.”

Urrena, berriz ere tartean arrasto txiki bat besterik ez dala, *Vilinch* izenburua duan idazlan bat. Onela dio:

“Esta mañana se han verificado en la iglesia parroquial de Santa María las honras fúnebres por el eterno descanso del insigne cuanto popular bardo vascongado Indalecio Bizcarrondo, mas conocido por Vilinch.

El celebrado y sin rival poeta euskaro ha pasado á mejor vida, joven todavía, triste víctima de los horrores de la guerra civil...”

Eta illetaren berri emanez bukatzen du:

“Sus restos mortales han sido acompañados á su última morada por los Jefes, Oficiales y numerosos individuos del Batallón de Voluntarios, al que perteneció desde su fundación el finado, por la charanga del mismo, y por buen número de amigos. El duelo ha sido presidido por el Sr. Gobernador Civil de la



DON

INDALECIO BIZCARRONDO,

HA FALLECIDO,

*victima de una granada carlista que
le destrozó ambas piernas el 20 de
Enero del corriente año.*

El Capitan, Oficiales è individuos
de la cuarta compañía del Batallon
Voluntarios de San Sebastian, al que
pertenece el finado, invitan à los
Sres. Jefes y Oficiales y demás Vo-
luntarios del mismo al funeral que
en sufragio de su alma se celebrará
mañana 23 del corriente, à las 8 1/2
en la iglesia de Santa Maria.

*San Sebastian 22 de Julio de 1876.
El duelo se recibe y despide en la Iglesia.*

Bilintxen il-berria, *Diario de San Sebastián* egunkarian, 1876.
VII.22'an.

Provincia, y los Alcaldes Srs. Tuton y Amilibia.”

Baiña illeta orren berri askoz zeatzago eman zuan Antonio Peña y Goñik andik urte batzuetara. *Euskal-Erria* aldizkarian, 1885 urtean, *Recuerdos* izena duan idazlan batean, onela dio:

“Numerosa asistencia se reunió en la nave de Santa María, donde descansaba el cuerpo magullado del pobre Indalecio. Todos sus amigos acudimos allí á darle el último adios. Terminada la ceremonia, salió de la iglesia el cortejo, y al llegar en frente del teatro Principal del cual fue Bilinch conserje durante muchos años, incorporóse á la comitiva una pobre, una humilde charanga que ejecutó al instante una marcha fúnebre.

Aquel metal estridente y desafinado, aquellos desgarrados acordes penetraron en mi alma con tal fuerza, que presa de emocion indefinible rompí a llorar como una criatura.

No sé lo que sentí. Si en vez de la charanga aquella, hubiera ejecutado la marcha fúnebre de Chopin, por ejemplo, la mejor de las bandas conocidas, es probable que yo hubiera permanecido indiferente.

Pero al ver á aquellos pobres menestrales que unian al duelo general, su particular manifestacion, en la forma más expresiva del sentimiento; al oír aquella ejecucion burda y descuidada, me pareció que el alma del pueblo se cernía sobre el féretro de Bilinch y lo cubría de lágrimas, despidiéndose del poeta para siempre, con el dolor rudo, varonil, inculto, si puedo espresarme así, de las expansiones populares.

Las desafinaciones mismas de la charanga adquirian en aquel momento para mí una fuerza de expresion inenarrable, traian á la memoria la naturaleza esencialmente popular del vate guipuzcoano. Y aquellos acentos desnudos de belleza intrínseca, herian mi mente y agitaban mi alma, porque resumian toda la vi-

da y todos los azares de Indalecio Bizcarronda.

¡Pobre Bilinch! De cuantas coronas ha depositado sobre su tumba la admiracion y el cariño de los easonenses, ninguna como aquella marcha fúnebre en la cual el pueblo preluvió á la inmortalidad de su inolvidable poeta.”

Bilintxen gorputzak San Bartolomeko kanposantu zaarrean artu zuan lurra. Gero, esango degunez, Polloera aldatu zuten, eta geroztik antxe dago, bere emazte, bi seme eta familiko beste zenbait lagunekin batera.

Bilintx il eta andik irugarren egunera, uztaren 25-ean, bertso bat agertu zan *Diario de San Sebastián* egunkarian, Bilintxen oroipengarriztat. Egillearen izenik ez du, baiña Manterolaren bilduman ere an dago bertso ori, eta alboan onela esaten da:

“Ramon Artola’k ipiñia Donostiyan Uztaillaren ogei ta bigarreanean 1876’garren urtean.”

Bilintx il zan egun bereko bertsoa, beraz. Baiña ori oker idatzita egongo da, bertsoak “Lurperatu da Bilintx” esaten baitu, eta lurra 23-an eman baitzioten.

Dana dala, onela dio:

Lurperatu da Bilintx
doaitsu umilla,
atsekabe-samiñak
igarota milla;
denok pena degula
izandu da illa,
mundu ontatik joan da
konsuelo billa,
zerubaren erdiyan
gertatu dedilla!

Askotan esan izan da fueroak eta Bilintx, biak egun berean il zirala. Gerok ere orixe idatzi genduan *Auspoa*-ren 12-garrenean. Manterolaren itz auek eman dute, guk uste, ortarako bidea:

“El pobre Vilinch ha muerto... el mismo día que se firmaba la abolición de las libertades vascongadas...”

Baiña ez degu uste ori orrela danik. Leen esan bezela, fueroak 21-ean galdu ziran, eta Bilintx biaramonean il zan.

Fueroak kendu zituan agindua uztaren 21-ekoa da. Onela bukatzen du:

“Dado en palacio á veintiuno de Julio de mil ochocientos setenta y seis. YO EL REY.- El presidente del Consejo de ministros, Antonio Cánovas del Castillo.”

Eta Santa Mariko il-agiria, ikusi degunez, 23-koa da eta onela esaten du: *“Falleció ayer”*. 22-a, alegia. Juzgaduko agiria, berriz, 24-ekoa da eta onela dio: *“Ha fallecido a las cuatro de la mañana de anteayer”*.

Diario de San Sebastián egunkariak ere onela dio: *“A las cuatro de la madrugada de hoy ha fallecido...”*

Ori uztaren 22-ko zenbakian agertu zan. Orregatik, batenbatek onela esango du: *“Bai; uztaren 22-an ori agertu, baiña bezperako gertaera adieraziz”*.

Gaurko prentsarekin, izan ere, orrela oituta gaude: periodistak gauez lana egin eta egunkariak urrengo goizean kaleratu, bezperako berriak emanez. Baiña *Diario de San Sebastián* dalakoa ak lan-modu bera al zuan? Galdera orri erantzuten guk beintzat ez dakigu;

baiña beste aldi batean ere gauza bera egiten du periodiko orrek.

Bilintxen gorputzari, Santa Mariko agirian irakurri degunez, 23-an lur eman zioten. Eta *Diario de San Sebastián* orrek egun bereko zenbakian ematen du orren berri:

“Esta mañana se han verificado en la iglesia parroquial de Santa Maria las honras fúnebres...”

Ori elizkizunarengatik bakarrik ere esan zezakean. Baiña ondoren onela jarraitzen du:

“Sus restos mortales han sido acompañados...”

Bi lan oiek, beraz, elizkizuna eta lur ematea, egun berean egin ziran: uztaren 23-an.

Ala, goizean gertatutakoak egun bereko arratsaldean-edo zabaldu zituan egunkari orrek. Eta berdin izango da, eriotzaren berri ematen duanean ere:

“A las cuatro de la madrugada de hoy ha fallecido...”

Bi eriotz oiek ez dira, beraz, egun berekoak. Fueroak uztaren 21-ean galdu ziran; eta Bilintx biaramonean, 22-an, il zan.

1. Bilintxen andrea azpeitiarra zan; ez donostiarra.
2. Santa Mariko irugarren eriotz-liburuan, 101 orrian.
3. Oker dio; il zanean, berrogei ta bost urte zituan Bilintxek.
4. Folio 43 vuelto, tomo XVII, sección de defunciones del Registro Civil de San Sebastián., Nº 5090.

SANTANA JAUNAREN ESKEINTZA

Bilintx granadak jo zuan bezin laster, aren lagunak kezketan jarri ziran beraren bertsoekin zer gertatuko zan.

Leen ere aitatu degunez, Serafin Barojak onela zion Bilintx zauritu eta biaramonean:

“Gracias al álbum publicado por el Sr. Santestéban no se perderán en el olvido algunas de sus bellísimas producciones.

En cambio otras muchas, de indiscutible mérito, solo conocidas de algunos íntimos amigos suyos, se hallarán probablemente recluidas en un rincón de su memoria.”

Eta Manterolak, Bilintx il eta andik bigarren egunera *Diario de San Sebastián* egunkarian argitaratu zuan idazlanean, onela esaten zuan:

“Ya que su exagerada modestia habia sido constante rémora á que se publicaran muchos de sus numerosos escritos, creemos que es llegada la ocasion de coleccionar todos aquellos cuyos originales puedan ser habidos, rindiendo así este pobre tributo á su memoria, y presntando á la par un señalado servicio á las letras vascongadas, harto abandonadas hoy para desgracia nuestra.

No nacen todos los dias poetas como Vilinch, y sus concepciones literarias son harto dignas de estima, para que se las deje per-

der en el olvido ó en la indiferencia. Ya que no aparecen en el solar euskaro nuevos poetas, rindamos este tributo de justicia á los que se van y aprendamos en sus obras á conservar vivo el recuerdo de nuestras gloriosas tradiciones.”

Bilintxen lagun oiek ori esateak ez gaitu batere arritzen. Baiña ao zabalik utzi gaituen beste berri bat arkitu degu *Diario de San Sebastián* ortan. Bilintx il eta laugarren egunera, 1876-VII-26-an alegia, onela esaten baitu:

“Tenemos la satisfaccion de anunciar que el Director-propietario de La Correspondencia de España, D. Manuel María de Santana, que llegó el domingo á esta Ciudad, en cuanto tuvo noticia de la muerte de Vilinch, se ha prestado generosa y espontáneamente á publicar la coleccion de sus poesías vascongadas, con objeto de enaltecer así el nombre del insigne poeta euskaro, y ver de allegar á la vez algunos recursos para su desdichada viuda é hijos.

Es un rasgo que honra al Sr. Santana, y que merecerá desde luego el aplauso de todos los hijos de San Sebastian.

Caso de que el Sr. Santana persista en sus propósitos, juzgamos que seria conveniente nombrar una comision de hijos del país, concedores de la lengua, que se encargara de buscar y recoger cuantas composiciones que-

den del insigne Vilinch, así como todas las anécdotas y frases originales suyas que recuerdan sus amigos y que corren de boca en boca entre ellos, y de ordenar todos estos trabajos, y de anotar los que fueren necesarios, para su publicación."

Santana jaunak bere eskeintza ori zergatik egin zuan, erreza da igertzen: Bilintx, leen ere esan bezela, jaun orren egunkarian, *La Correspondencia de España*-n alegia, *corresponsal* izan zalako.

Manterola jauna, orrelako egokie-
rrik noiznai izaten ez baita, pozez txorutzen jarri zan; eta, albiste on ori zabaldu ez-ezik, ametsetan efe asi zan lan ori nola egin eta burutu. Bera izango baita, dudarik gabe, *Diario de San Sebastián* egunkarian berri ori ematen duana.

Or esaten danez, batzorde bat izendatu bear zan; batzorde orrek Bilintxen bertso biltzeari ekin; bertsoak ez-ezik, gertaerak eta esaerak ere jaso aren lagunen aotik; bildutako saillak, bakoitza bere tokian jarri, eta inprentarako antolatu eta prestatu.

Ori dana ederki asmatuta zegoan; eta, egi biurtu izan balitz, beste Bilintx bat izango genduan gaur, askoz ere aberatsagoa eta ugariagoa. Ortaz dudarik ez da.

Eta bearbada -gu ere ametsetan asi-

ko gera-, bein bertsolari batekin ori egin ezkeru, zergatik ez besteekin ere? Leenengo pausoa izaten da zeregin guzietan zailena. Bazan garai artan lan ori nori buruz egin: Xenpelar eta Iparragirre, adibidez. Eta, egin izan balitz, beste txori batek joko zion gaur kuku euskerari.

Baiña asmo on orrek lur jo zuan. Noren utsegitez? Santana jaunak atzera egin ote zuan? Ala biltze-lan ori egiteko gizonik etzan gure artean arkitu?

Ez dakigu zer gertatu zan. Baiña, bigarrenko au balitz, ez litzake gure edergarri izango, eta euskaldunok ere "Ni pekatari" zergatik errezatu bade-gula aitortu bearko genduke.

Baiña, bigarrenko ori izanda ere, erru guzia etzan gurea izango. Gerra bukatu berria zan, eta gerra batek lur jota uzten du erria. Erri orrek badu naiko lan bere burua berriz ere jasotzen; ez du beste ezertaz pentsatzeko gogorik. Eta, ori aski ez balitz bezela, bere antziñako legeak ere galdu berriak zituan orduan Euskal-Erriak. Garairik txarrenean etorri zan, beraz, Santana jaunaren eskeintza. Beste egokiera batean arrera ohea izango zuan noski. Baiña, edozein moduz ere, pena artzekoa da...

ALARGUNA ETA AURRAK

Bilintx il ondoren, beraren alarguna eta iru aurra nola geldituko ziran edozeinek pentsa lezake. Baiña izan zuten, zorionez, nork lagundu.

Diario de San Sebastián dalakoak onela dio uztaren 25-ean:

“Tenemos entendido que precisamente pocas horas antes de su muerte habia sido propuesto al Gobierno para una recompensa el insigne poeta euskaro Indalecio Bizcarrondo, (a) Vilinch, por servicios prestados como Voluntario de la libertad durante la insurreccion, y especialmente en el bombardeo de esta Ciudad, durante el que contrajo las heridas que le han llevado al sepulcro.

Celebrariamos en el alma que la familia del pobre Vilinch obtuviera en este concepto alguna pension del Gobierno.”

Batenbatek gauzak mugitu eta gobernuari eskabide ori egin zion, beraz; baiña zerbait lortu ote zuten ez dakigu.

Egunkari orrek berak, bi egun leenago, uztaren 23-an alegia, Bilintxi buruz argitaratu zuan idazlanean, onako dei au egiten zuan:

“Tenemos entendido que la empresa que tiene á su cargo el Teatro Principal de esta Ciudad, aceptando generosa la idea que emi-

tiamos en nuestro número del domingo último, se propone por su parte dar una funcion en dicho coliseo, á beneficio de la viuda é hijos del desgraciado vate vascongado Vilinch, conserje que ha sido durante muchos años del referido teatro.

Dicho propósito será desde luego recibido con aplauso por toda la población, que no dudamos prestará su concurso para ello, y la empresa merecerá nuestros modestos pláces si, como esperamos, llega á realizarlo.”

Biamonean, illaren 26-an, onela zion:

“Esta mañana hemos recibido la siguiente carta del empresario del Teatro Principal, Sr. Mendoza, que tenemos un verdadero placer en publicar:

‘Sr. Director del Diario de San Sebastian.

Muy señor mio y de toda mi consideracion: En las columnas de su apreciable periódico he visto con satisfaccion iniciada una idea que me apresuro a secundar en la parte insignificante que puede corresponderme.

Nada mas agradable. Sr. Director, que so-correr las desgracias, y siempre que como en ocasion semejante se trate de tan loable propósito, cuente V. con que las puertas del coliseo que tengo la honra de dirigir, estarán abiertas á la caridad.

En este supuesto la empresa del Teatro Principal de esta Ciudad tiene el gusto de po-



Bilintxen andrea, semea, erraiña eta billobak.

ner en su conocimiento, que atendiendo su noble excitacion, dispone un escogido espectáculo que tendrá lugar lo más pronto posible, y cuyo producto líquido se destinará á beneficio de la desdichada viuda del malogrado cuanto querido poeta vascongado D. Indalecio Bizcarrondo, víctima de un accidente horroroso de nuestra felizmente terminada guerra civil.

Al atender apresuradamente su generosa indicacion, al mismo tiempo que creo cumplir un deber, aprovecho la ocasion de manifestar sinceramente mis profundas simpatías por cuanto se relacione con este hermoso país, objeto de mi predileccion constante.

Es de V., Sr. Director, s. s. q. b. s. m.

Antonio Mendoza

San Sebastian 26 y Julio 1876'

Damos desde luego las gracias en nuestro nombre, y en el de los numerosos amigos de Vilinch, al Sr. Mendoza, por su generosa conducta, y no dudamos que el vecindario de esta Ciudad, siempre noble y caritativo, prestará su eficaz concurso á la empresa del Teatro Principal, para que la funcion en honor de nuestro insigne poeta euskaro y á beneficio de su viuda é hijos, sea todo lo solemne que se merece, y dé los resultados que hay derecho á esperar."

Teatro-jaialdi ori egin zan, eta San Inazio egunean egin ere. Atsegin genduke *Diario de San Sebastián* dalako orrek biaramonean festa orri buruz zer irizten zion onera aldatzea. Baiña ez daukagu ori egiterik.

Egunkari orrek, izan ere, aurreko eskutitz ori argitara eman zuan egun berean, erregeak fueroak kentzen zituagindua agertu zuan. Ori beste periodiko askok ere egingo zuten Españian barrena; ez, ordea, Donostiko onek egin zuan bezela.

Onek arrasto beltz eta lodi bat jarri zion buelta guzian agindu orri. Il-berriedo *esquela* bat balitz bezela, luto beltzez inguratu. Fueroen il-berria zan, izan ere, eta artarako bezela jantzi.

Baiña gobernuari etzion jazkera orrek onik egin. Leendik ere, uztaren 22 eta 23-an argitaratutakoak egunkari ori auzitara eramateko bide eman zuten; eta ura aski ez eta beste ori. Ala, gobernuaren aginduz, atera gabe egon bear izan zuan abuztuaren 7-garrena arte.

Bitarte ortan egin zan Bilintxen familiaren aldeko jaialdia. Orregatik, beraren berri ez du egunkariak ematen, ostera asi zan artean. Abuztuaren 7-an onela esaten du:

"El lunes último se dió en el Teatro principal de esta Ciudad la anunciada funcion á beneficio de la familia del malogrado poeta euskaro Vilinch, en cuyo obsequio tomaron parte en ella el eminente actor D. Antonio Vico, el joven violinista de esta Ciudad D. Clemente Iburguren, la compañía dramática que actuaba en dicho coliseo, y la orquesta del Casino-Indo. El público, como era de esperar dadas las simpatias con que contaba el desgraciado Bizcarrondo, correspondió dignamente al llamamiento de la empresa, y la funcion, en la que obtuvieron justos aplausos cuantos artistas tomaron parte en ella, tuvo lugar con un lleno completo."

Laguntza ederra izango zuten Bilintxen etxeakoak jaialdi ortan bildu zanarekin; baiña iraupen geiago izango zuan beste zerbait ere billatu egin bear. Orregatik, 1876-VIII-2-an, onako eskutitz au egin zion alargunak udalari:

"Iltre. Ayuntamiento de esta Ciudad.



Bilintxen andrea.

La que suscribe se dirige á V. S. con el objeto de suplicarle se sirva concederla la Conserjería del Teatro Principal de esta Ciudad, cuyo cargo desempeñaba mi finado esposo Indalecio Bizcarrondo (Q. E. P. D.).

Contando con suficientes medios para atender á la conservacion y custodia del edificio, me atrevo á esperar de la bondad de V. S. lo que pido, pues en ello depende el que yo pueda atender á las necesidades de mi familia.

Favor que espera de V. S. á quien Dios guarde muchos años en vida, en San Sebastian á 2 de Agosto de 1876.

De mano agena

Nicolasa Erquicia, Viuda de Indalecio Bizcarrondo.”(1)

Udalak idatziz erantzun zion, eta biaramonean bertan erantzun ere. Ala ageri da, andik urteetara, 1887-XII-5-ean, Bilintxen andreak udalari egin zion eta aurrerago osorik azalduko degun eskutitz batean:

“...hallandose desempeñando el cargo de conserje del Teatro Principal de esta Ciudad... en propiedad desde el 3 de Agosto de 1876 en que fué nombrada la exponente segun credencial que acompaña...”

Geroztik eta urte askotan, konserje-lana eta estankoa izan zituan. Bazuan, beraz, zertan saiatu eta nun denbora pasa andre gajo arek.

Alaba, Maria Ana, aingerutan il omen zan, aren eriotz-agiria iñun arkitu ez badegu ere.

Semeak, Benito eta Pio, gerratean umezurtz gelditutako mutikoentzat ikastetxe bat ba omen zan Guadalajarán, *Palacio de los Duques del Infantado* deritzaion jauregian, eta ara joan omen ziran beren ikasketak egitera.

Bilintxen arreba bat, Josefa Franziska, Bizente Zapirain zeritzan bate-

kin ezkontuta zegoan. Bizente ori donostiarra zan, eta mariñel izana. Senar-emazte auek aurrik etzuten, eta oso maiteak zituzten Bilintxen alarguna eta aurrak.

Beren illoba auek askotan joaten omen ziran osaba-izeba oien etxera. Joan ta bereala, izeba onela asten zitzaizen:

- Ez da ori ikutu bear! Ez gero ori zikindu! Ez al dezute geldirik egoten ikasi?

Ez omen zegoan arekin burutzerik. Batzuetan, ordea, izeba kanpora joana, eta osaba bakarrik etxean. Orrelakoe-tan, osabak bere illoba oiek artu eta silloietan eta abarretan saltoka eta zili-purdika berak erabiltzen omen zituan, izebak debekatutako deabrukeri guztiak egiten.

Osaba ori, teatroan jaiialdirik zanean, dana bukatu ondoren eta iñori ezer esan gabe, ara joaten zan, ateak ondo itxita, argiak itzalita eta dana bear bezela ote zegoan ikustera. Baiña gaeuz eta illunpetan egin bear lan ori, eta bein batez, ateren bati bultza-edo egin zionean, usai onik ez duan zerbaitez zikindu omen zitzaion eskua...

Bizente Zapirain ori 1886-VIII-6-an il zan, irurogei urterekin, “*por lesión vascular del corazón*”, eriotz-agiriak dionez, Aingeru kalean, bederatzigarren zenbakian, bigarren bizitzan.(2)

Bilintxen arreba ori, berriz, 1901-VII-19-an il zan, irurogei ta amalau urterekin, “*por lesión vascular del corazón*” bera ere, eriotz-agiriak dionez, Juan de Bilbao kalean, amairugarren zenbakian, laugarren bizitzan(3).

Senar-emazte auek Bilintxen alarguna eta aurrentzat utzi zituzten beren diru guztiak: zenbait milla duro alegia. Laguntza aundia izan zuten ori.

Bilintxen alarguna berriro ezkondu zan, 1887-XI-10-ean, Bergarako semea zan Pedro Alberdi Mendiarazekin(4). Onak berrogei ta bat urte zituan; andreak berrogei, eta onen semeak amazpi eta amasei. Adin ortan auei aita-orde bar ekartzeak badu bere arriskua; baiña ura oso ondo artua eta maitatua izan omen zan. Bera ere jatorra, atsegiña eta maitekorra izaki. Benetako aitatzat izan omen zuten Bilintxen semeak. Auen amarentzat ere laguntza ederra izango zan.

Baiña laguntza ez-ezik, buru-austea eta kezka ere ekarri zizkion Bilintxen andreak ezkontza orrek.

Ezkondu eta andik ogei egunera, azaroaren 30-ean, Ordizian jaio eta Donostian bizi zan Bonifazia Bidegainek onako eskari au egin zion udalari:

“que habiendo oido que la actual conserje del Teatro Principal piensa renunciar a dicha plaza y hallándose la que suscribe en condiciones a propósito para desempeñarla con todas las obligaciones inherentes al cargo,

Suplica a V. E. se sirva nombrarla...”

Andik bost egunera, abenduaren 5-ean, Bilintxen alargunak onako esku-titz au egin zion udalari:

“Exmo. Ayuntamiento de esta Ciudad.

La que suscribe, natural y vecina de esta, segun cedula personal número 455 de 8ª clase á V. E. respetuosamente participa: haber contraido matrimonio en segundas nupcias con Don Pedro Alberdi natural de Vergara segun cédula personal número 9.492 de 11ma clase:

Y expone: que hallandose desempeñando el cargo de conserje del Teatro Principal de esta Ciudad, propiedad de esa Exma Corporacion, desde el 4 de Febrero de 1869 en que fué nombrado su finado esposo, D. Indalecio Bizcarrondo (Q.E.P.D.), y en propiedad desde el 3 de Agosto de 1876 en que fué nombrada la exponente segun credencial que acompaña; se atreve á suplicar se transfiera dicho nombramiento en favor del citado Alberdi, confiriendole el cargo de conserje del Coliseo Municipal.

Ningun merito puede exponer la suscribiente que haya podido contraer en el desempeño de su mision y si tan solo hacer presente el no haber recibido apercibimiento ninguno por falta en el desempeño del mencionado cargo, lo que la hace creer, haber cumplido con su cometido á satisfaccion de esa Exma. Corporacion.

Nunca podrá olvidar la suscribiente las inmerecidas consideraciones obtenidas á raiz del fallecimiento de su malogrado esposo Don Indalecio Bizcarrondo (Q.E.P.D.), ni las que mas tarde y en época no lejana han sido reiteradas con la ereccion de un mausoleo en Polloe, de aquel que fué su esposo, lo que pone en evidencia los humanitarios sentimientos por los que siempre se ha guiado y guia esa Exma. Corporacion, todo lo cual le anima a solicitar nueva gracia, la que de concedersela, redundaria en beneficio de sus hijos (menores hoy) habidos en primer matrimonio y de los que la suscribiente es madre y tutora.

En vista pues de lo mucho que esa Exma Corporacion ha hecho por el que fué autor de los hijos de la exponente, espera y

Suplica á V. E. que previos los informes que crea convenientes adquirir acerca de la personalidad, á favor de quien la infreescrita solicita y tomando en consideracion lo expuesto, acceda á lo solicitado.

Es gracia que espera obtener de la benevolencia y rectitud de esa Exma. Corporacion, cuya vida guarde Dios muchos años.

San Sebastian 5 Diciembre 1887."

Eskutitz au beste batek idatzita dago, baiña Nikolasak firmatuta.

Andik bi egunera, abenduaren 7-an, Jose Alberdi zeritzan batek onako eskutitz au egin zion Udalari:

"Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de San Sebastian.

Jose Alberdi, vecino de esta Ciudad, á V. E. respetuosamente expone: que habida consideracion a los servicios que por espacio de catorce años tenia prestados en el cuerpo de bomberos de esta capital, y tomando tambien en cuenta su oficio de carpintero, se le concedio, hace cuatro años el cargo de conserje del Teatro Principal de esta dicha Ciudad, y le fueron entregados bajo inventario todos los objetos y utiles del mismo teatro.

Como quiera que al Conserje anterior se concedió en el edificio del mismo Teatro, habitación para vivir en él, el exponente, al encargarse de esta conserjería, solicitó la concesión de la misma habitación que ocupaba y ocupa aun D.^a Nicolasa Erquicia, viuda del anterior conserje; y se le manifestó, que atendida la triste situación en que quedó la misma Doña Nicolasa, falta de recursos para pagar el alquiler de una habitación, no era posible por entonces conceder al exponente la mencionada habitación en el Teatro.

Hoy las circunstancias han variado completamente, toda vez que dicha D.^a Nicolasa ha contraído segundas nupcias con una persona que segun se dice de público, cuenta con medios suficientes, para la decorosa subsistencia de su familia, y por lo tanto para poder satisfacer la renta de una habitación.

Es además muy conveniente para el mejor desempeño del mencionado cargo por el exponente, el que ocupe la indicada habitación del Teatro, vigilando así mejor, por la conservación de los objetos que se le tienen entregados.

Habiendo desaparecido pues las causas que impidieron el conceder al exponente la

mencionada habitación, ó vivienda existente en el mencionado Teatro Principal,

A. V. E. nuevamente suplica, se digne acordar que se conceda al exponente la mencionada habitación ó vivienda del Teatro principal, para que pueda ocuparla en la forma que hizo el conserje anterior y ha venido haciendolo su viuda; pues en ello recibira favor con justicia. Dios guarde a V. E. ms. as. San Sebastian 7 de Diciembre de 1887.

Jose Alberdi."

Egun berean batzarra egin zuten udal-gizonak, eta gai ortaz itzegin:

"Se dio lectura de una instancia elevada por D.^a Nicolasa Erquicia, en la que despues de manifestar que ha contraído segundas nupcias, suplica que la conserjeria del Teatro principal que fué concedida a su primer esposo D. Indalecio Bizcarrondo, y que á su fallecimiento pasó á ella, se le conceda hoy al actual marido D. Pedro Alberdi. Tambien se leyó otra instancia de D. José Alberdi solicitando dicha plaza que considera viene ejerciendola de hecho si bien el Ayuntamiento cree que este en su pretension parte de un error. El señor Laffitte con este motivo hace presente que aun cuando anteriormente se presentó tambien otra solicitud para esta plaza no ha creído conveniente que por la Comision respectiva se tratara de este asunto por cuanto no habia precedido renuncia de la persona á cuyo cargo se hallaba la conserjeria del Teatro, haciendo constar la mala costumbre que existe de demandar plazas antes de que estas se hallen vacantes, por lo que cree que no debieran aceptarse las solicitudes que vengan en esta forma. Que hoy la Erquicia viene pidiendo se transfiera el cargo de conserje á su actual esposo, y que en su concepto conviene tratarse de esto antes de ocuparse en los demas que solicitan dicha plaza.

El señor Marticorena manifiesta que el marido de la Nicolasa Erquicia tiene un empleo en el Tranvia por lo que acaso no podria estar al cuidado de la conserjeria del Teatro

como fuera de desear; pero el Sr. Laffitte le contesta que segun noticias que tiene, de concedérsele la conserjeria renunciaria al citado empleo; acordando el Ayuntamiento en consecuencia, á propuesta del Sr. Iraola que la Comisiòn de Espectáculos informe del punto principal, esto es, de la instancia de Doña Nicolasa Erquicia, y que entre tanto este se resuelva queden en suspenso las demas instancias presentadas.”

Batzorde orrek Nikolasaren alde eman zuan bere iritzia, baiña baldintza berri batzuek eskatuta:

“La Comision opina que debe concederse la Consergeria del Teatro Principal a D. Pedro Alberdi pero en la condicion de que no desempeñe cargo ni empleo particular incompatible con su nuevo destino y opina tambien que dada la mejor situacion en que queda en adelante la Nicolasa Erquicia, conviene exigirla una pequeña renta por el alquiler de la tienda que ocupa en el edificio del Teatro y cuyo importe pudiera ser de 300 pts. anuales. V. E. sin embargo resolverá etc. A. Laffitte. Sesion de 7 de Diciembre de 1887.”

Bilintxen andreak, berri on ori ikasi zuanean, beste eskutitz bat egin zion udalari, eskerrak ematearren:

“Por oficio de fecha de 15 de actual de esa Exma. Corporacion, se me notifica el dictamen de la Comision de espectaculos en el que opina que debe concederse la consergeria del Teatro Principal á mi esposo D. Pedro Alberdi á condicion de que no pueda desempeñar ningun cargo ni empleo particular, por ser incompatible y exigir una pequeña renta de 300 ptas. en concepto de alquiler por la tienda que ocupa en el citado edificio; informe que merece la aprobacion de esa Exma Corporacion en sesion de 14 corriente.

Enterada la suscribiente dá las gracias á esa dignisima Corporacion por las inmerecidas consideraciones de que es objeto y cumplirá las obligaciones que le impone el acuerdo

aprobado por esa Exma. Corporacion, cuya vida guarde Dios muchos años.

San Sebastian 20 de Diciembre de 1887.

Nicolasa Erquicia.

Exmo. Ayuntamiento de esta Ciudad.”

Urrena, 1888-I-25-ean, batzordeak araudi berri bat egin zuan Teatro Zaarreko langilleentzat. Bi ziran auek: konserjea eta makinista.

Konserjeak, teatro-taldearen eskuetik, jaialdi bakoitzeko lau pezeta kobratuko zituan, gaeuz egiten bazan; eta bi pezeta, arratsaldean egiten bazan. Bitokia teatroko etxe berean izango zuan. Eta, ondoren, zer eginkizun izango zituan esaten zaio.

Makinistari ere oso zeatz adierazten zaizkio eginkizunak. Makinista, ain zuzen, konserje ere izatea nai zuan Jose Alberdi ori zan.

Pedro Alberdik amabi urte egin zituan konserje-lanetan. Baina onako eskutitz au egin zion udalari, 1899-XII-11-n:

“Una enfermedad que vengo padeciendo desde hace algun tiempo me impide cumplir á mi satisfacciòn los deberes que me impone el cargo de Conserje del Teatro Principal, que desde hace doce años vengo desempeñando; y, como esa enfermedad, por los caracteres que presenta, parece ser crònica, me veo obligado a renunciar al citado cargo.

Lo que pongo en conocimiento del Excmo. Ayuntamiento.

San Sebastian 11 de Diciembre de 1899.

Pedro Alberdi.”(5)

Eskutitz ori artu eta onako erabaki au artu zuan batzordeak:

La Comision de Fomento en vista de la anterior comunicacion y sintiendo los motivos

que han obligado al Sr. Alberdi á presentar la dimision del cargo de conserje del Teatro Principal, es de parecer que, V. E. anuncie la vacante, concediendose un plazo para la presentacion de solicitudes que terminará el 25 del corriente.

San Sebastian 18 Diciembre 1899.

Manuél Ecenarro."

Udalak ontzat artu zuan erabaki ori:

"Aprobado en sesion 19 de Diciembre 1899. Por acuerdo. El secretario: Antonio de Egaña."

Konserje-lantegia Jose Zapirain Irastorzari eman zioten. Zapirain ori bertso-jartzaillea zan. Aren bertsoak *Euskal-Erria* aldizkarian-eta argitaratu ziran. *Txapillo* esaten zioten izengoitiz. Donostian bertsolari-saioren bat zanean, bera izaten zan gaiak eta puntuak jartzen zituana.

Pedro Alberdi andik zazpi illabete-ra il zan, berrogei ta amalau urterekin, "*por arterio esclerosis*" eriotz-agiriak dionez, 1900-VII-22-an(6). Dakigunez, urteko egun berean itzali zan Bilintx ere.

Onen seme zaarrena, Benito, 1898-X-9-an il zan, bularretik gaixotuta(7).

Bigarren semea, Pio, Andoaingo alaba zan Benita Gorosabel Arrietarekin ezkondu zan. Zazpi seme-alaba izan zituzten.

Nikolas, 1893-XII-5-ean jaio(8) zan, eta 1920-IX-11-n Birjilia Mendi-zabal Goyos-ekin ezkondu. Etzuten aurrik izan. Nikolas 1968 urtean il zan.

Rosario, 1895-X-24-ean jaio zan (9), eta 1897-V-22-an il(10).

Beste Rosario bat, 1898-III-27-an jaio zan(11) eta 1899-II-10-ean il(12).

Bi Rosario auen amapontekoa, amona, Bilintxen andrea alegia, izan zan.

Ramon Maria Pablo, 1901-I-15-ean jaio zan(13) eta 1902-IV-1-ean il(14).

Gu argibide auek biltzen ari giñan garaian, bi bizi ziran: Antonio, 1902-VII-15-ean jaioa(15); eta Alfredo, 1907-IX-5-ean(16).

Zazpi senide auen ama berrogei ta bat urterekin il zan, 1911-VII-18-an, *meningitis* gaitzak jota(17)

Orregatik, Bilintxen andreak azi zituane etxe artako aurrak. Amona izan zuten amatzat Bilintxen billobak. Orain esaten ari geranak, eta leen esandako gauza asko ere bai, billoba oiei jaso genizkien; eta auek beren amonari entzun eta ikasiak zituzten.

Billoba auetan, Antonio izan zan, aitonagatik amonari galdetu eta geiena itzegin arazten ziona. Artaz gustora mintzatzen zala oarturik, gai ori ateratzen zion. Antonio orrek onela esan zigun bein baiño geiagotan:

- Oraindik ere, aitona aitatzean, maitasunez beterik itzegiten zuan arek; neska gazte maitemindu batek bezela, alegia. Urte gutxi egin zituzten alkarrekin, baiña urte zoriontsuak. Aiek alkar benetan maite zuten.

Senarraren bertsoak ezagutzen omen zituan, eta buruz esan ere bai. Baiña kantatu ez.

Leen aitaturtako bataio eta eriotz-agirietan etxea ere esaten da; eta, ortik ikusten danez, 1899 urtearen bukaeran edo urrengoaren asieran, familia etxez aldatu egin zan. Dakigunez, 1899-ko bukaeran utzi zuan Pedro

Alberdik konserje-lantegia. Ziur aski, erabaki au artu eta teatroko etxea ustu, bateratsu egingo zuten.

Baiña etziran urrutira joan. Kale Nagusitik Enbeltran kalera aldatu ziran: amaseigarren zenbakia, bigarren bizitza, eskubia.

Beste bi aldaketa ere egin zituzten gero: leenengo Garibay kalera -bosgarren zenbakia, laugarren bizitza-, eta andik Avenida-ra -emeretzigarren zenbakia, laugarren bizitza-.

1931 urtean, Bilintx jaio zaneke eungarren urtea betetzen zan, eta etzuten donostiarrak ospatu gabe utzi nai izan. Azaroaren 29-an, arratsaldeko zazpitan, *Dunixi*-k, Dionisio Azkuek alegia, itzaldi bat egin zuan erderaz ari buruz.

Itzaldiaren bukaera aldera, Ramon Laborda, Remijio Peña, Gurutzeaga eta Kortajarena kantariak Bilintxen zenbait bertso kantatu zituzten: *Izazu nitzaz kupira, Bein batian Loiolan, Juramentuba, Biyotz erituba* eta *Juana Bixenta Olabe*. Eta, azkenik, txistulariak euskal doiñu batzuk jo zituzten.

Jendea gustora noski. Baiña nork esan zer sentitzen zuan une aietan Bilintxen andreak? Antxe baitzan, larrogei ta bost urte betetzeko sei egun falta zituala. Bere seme Pio eta billoba Antoniorekin joana zan.

Itzaldiaren une batean, Bilintxen andrea aitatu eta onela esan zuan *Dunixi*-k:

- *Por cierto, no sé qué habrá sido de ella. Habrá muerto seguramente.*

Ori entzundakoan, Bilintxen andreak bere eserlekuan mugitu eta onela esan omen zuan aopean:

- Ez ba! Oraindik bizi naiz!

Itzaldia bukatutakoan, Bilintxen semea, Pio, *Dunixi* jaunarengana joan zan, eta ama bizi zuala esan eta itz batzuk egin zituzten alkarrekin.

Itzaldi ori *El Día* egunkariak argitaratu zuan 1931-XII-1-ean. Baiña *Dunixi*-k esan eta arestian aitatu ditugun itz oiek ez ditu. Oien lekuan, onako beste auek bai, ordea:

“Indalecio Bizcarrondo dejó un apellido rodeado de simpatía y de respeto, que hemos visto dilatarse con dignidad, entre nosotros, hasta la tercera generación, en vida todavía de la venerable Andre Nikolaxa (Doña Nicolasa Erquicia), la virtuosa compañera del gran poeta, a quien desde este lugar, con infinito cariño de donostiarra (de donostiarra y de parroquiano, que compró en su estanco, de chico, las “calcamunías” y más tarde las primeras “txortas”), con infinito cariño quiero dirigir, en memoria de su esposo, el saludo de un pueblo reconocido.”

Bilintxen billoba Antoniori berriz galdetu eta baietz esan zigun: seguru zala *Dunixi*-k leen aitaturako itz oiek esan zituala. Eta bai guk sinistu ere. Zer gertatu zan igertzen erreza dala derizkiogu. *Dunixi* jaunak etzeukan iñola ere bere anka-sartze ori argitaratzerik; eta, inprentara baiño leen, ori kendu eta ordaiñetan beste itz dotore eta loretsu oiek sartuko zituan.

Antonio ori Billabonako alaba Purifikazion Albea Urrutiarekin ezkondu zan 1930-IX-15-ean, eta amonak onela esaten omen zion bere errain orri:

- Oraindik ere komeni da nik pixka batean bizitzea, zuk etxe ontako mar-txa ikasi arte: baiña denbora asko ere ez, zaarrak etxe batean enbarazu aundia egiten degu eta.

Bronkioetatik sufritzen omen zuan, eta gaitz orrek eraman ere egin zuan.

Il zan egunean, goizean, baserritar bat etxera etortzea egokitu omen zan, kontu batzuk egitera. Baserritar ori eta Pio, semea, izketan jardun ziran, eta kontuetan bat zetzozela eta alkar agurtu egin zuten. Izketaldi ura amonak bere gelatik entzun zuan, ordea; eta, baserritarra joandakoan, onela esan omen zion bere semeari:

- Baserritar orrek engañatu zaitu!

Eta semeak:

- Bai zera!

Baiña andik bi egunera-edo, ama il ondoren, onela esan omen zien etxekoei:

- Amonak arrazoi zuan! Baserritar orrek engañatu nau!

Il aurretik, mundu ontatik bazijoa-la igerririk eta bere prestakizun guziak egin ondoren, etxekoei azken agurra egiten eta kontseju onak ematen jardun zan.

Ondoren kordea galdu zuan, baiña ostera esnatu ere bai. Orduan onela esan omen zuan:

- Oraindik ere emen al naiz?

Andik puska batera il zan; 1932-ko otsaillarren 18-garrena zan, eta arratsaldeko bostak laurden gutxi. Larogei ta bost urte eta illabete ta erdi beraren

adiña. Polloeko kanposantuan lur eman zioten, Bilintxen ondoan.

1. Donostiko udal-artxihoan: *Sección B, Negociado 6, Serie 1, Libro 3, Expediente 2.*

2. Santa Mariko laugarren eriotz-liburuan, 44 orrian.

3. San Bizenteko bederatzigarren eriotz-liburuan, 169 orrian.

4. Santa Mariko laugarren ezkontza-liburuan, 246 orrian.

5. Donostiko udal-artxibotik: *Sección B, Negociado 6, Libro 4, Expediente 7.*

6. Santa Mariko seigarren eriotz-liburuan, 55 orrian.

7. Santa Mariko bostgarren eriotz-liburuan, 274 orrian.

8. Santa Mariko amaikagarren bataio-liburuan, 30 orrian.

9. Santa Mariko amabigarren bataio-liburuan, 11 orrian.

10. Santa Mariko laugarren aur illen liburuan, 55 orrian.

11. Santa Mariko amairugarren bataio-liburuan, 23 orrian.

12. Santa Mariko laugarren aur illen liburuan, 86 orrian.

13. Santa Mariko amalaugarren bataio-liburuan, 65 orrian.

14. Santa Mariko laugarren aur illen liburuan, 137 orrian.

15. Santa Mariko amalaugarren bataio-liburuan, 220 orrian.

16. Santa Mariko amabostgarren bataio-liburuan, 17 orrian.

17. Santa Mariko zazpigarren eriotz-liburuan, 200 orrian.

BILINTXEN ESKU-IDATZIETAKO ZENBAIT ORRI

Bilintxen esku-idatzietan badira orri batzuk berezi xamarrek diranak.

Oietako batean, orriaren bi aldeetan, *Pobria* izenburua daukan eta *Beste alibiyorik pobriac ez daca* asten dan bertso luzea dago.

Orrekin batera, orri bereko alde batean, itz-zerrenda bat goitik beera. Onela dio bere ortografia zarrean:

baba gaba
gabiraba
alaba
ballaba billaba
carnaba
osaba
crístaba sancrístaba
arraba
traba
cacaba
prueba
arriba
iseba
illoba
caoba

Zerrenda ori zer dan ez dago adierazi bearrik: puntuak dira, bukaera

berdiñeko itzák alegia, ondoren bertso gintzan aietaz baliatzeko-edo.

Orri berean, beste bi itz:

pillaca
jocatuba

Orriaren beste aldean, lau lerro auk:

uda berrico goisetan
icusi ditut maisetan
arbola berde gañetan
choriyac cantari.

Bertso baten puska da ori.

* * *

Beste orri batean, bi itz-zerrenda, goitik beera eta alkarren parean:

<i>Amoriyos</i>	<i>Naitasunes</i>
<i>Erreguiña</i>	<i>Maitasuna</i>
<i>Diamantes</i>	<i>viyotzian</i>
<i>Erriya</i>	<i>itzasua</i>
<i>lore ostos</i>	<i>intzentzentsuba</i>

i bonos yos *Aaitasunes*
 Errigunak *Aaitasunna*
 Diamantes *vijetarian*
 Enriqua *itasaia*
 lorye ostos *intantayla*
 colonia *Perreçiya*
 rehumena *aberatza*
 eguizula *rosegula*
 aldania *disdabare*
 meretbau *reustere*
 justelico *teuplicio*
 urriquitza *alegnatu*
 jaguntian *alegnia*
 Eguisguiza *manite zaitut*
 ilnavigon *lenoge ell*
 belu naiten *il to guero*
 imbiriga *piramentia*
 jantiriga *naratu*
 onasia *graciyetan*
 erigua *enigotza*
 sure lilla *basemitu*
 bueriquet *baserragoi*
 banitague *sure lerra*
 len are qui *nisquitique*
 sure galie *nodondyds*
 nodonia *linitegu*
 nodulao *informula*
 basenigue *suregana*
 politerre

Brasi ederra demun meriyo
 izquetan eta ichurran
 londalicio egumetican
 goyuan artu cimbrun
 zuc ez daquiru quereñit crumita
 ser naitanua dozuran
 graui oyedaz quistulu eta
 nie sembrat manite zaituran

- Aitesan ta sur jagunt *- Nay dezua jagunt ceim dan*
 - liaru erican + *- betetren dulcena*
 - Erconditziac iraxliar du *- mere amorigoro*
 - peçist gauza char combat *- Eguizareo amorigos*
 = Zure graciyeturo *-- Nay dizetaleo*
 - oto zoratula + *-- etferri omunt eto etaten*
 - Ala dimirig to *-- ezata detalanian*
 - rancorquit lortzat *-- Aropegu fina gorpitza berri*
 - Maite goshua ligyts liguna ez da go cer esanican *-- Amorigorri galie*
 - aur driqui boteo bredit det *-- perate etiner*
 - Maite urragariya *-- Penacha gaste pare bayua*
 - eguiya esatera *-- udo berico anra*
 - guaiya utra cera *-- Et aldirasu antie ematen*
 - jolta deubomas, logyphitree *-- nie zaitutala nay nyo*
 - lta eguita chit ondu *-- Nie aimbhat inur nay dizudoa*
 - Bete desioo det zore *-- Et zarula isan uste*
 - zure arriua + *-- Nere betico pensamentula*
 - Aingueribaca baratbaa *-- nere con solagariya*
 - sayotaco fruta *-- Ghalaciza dazulaw*
 - clonsala zaru Dolores zure *-- necacub abillaron fama*
 - matari quisharathua *Aditerra detonez*
 - mere pena bat airtotuw det *dama begui ilay.*
 - ama ereguira dazula *Chay duntan*
 - Loriai ndan intra brecla *ez duntan dudan*
 - Maite det dazna gaste bat *Chit areo sentitren det*
 - ori aimb-este nay driyotarie *esari dazulu*
 - oda munduban beste bat *nere amorigua*
 - Ceim ta politae diran *cludon ducupula*
 - amora paminia *peñtasen tuchantau*
 - nay det jagunt dezazun *eguiya gogotza*
 - crain beriala + *perregutren chant*
 - errenenganaco *stunista zarula*
 - beti loren dater *Bullin baranoe ala*
 - nay det jagunt dezazun *dezu dezula*
 - ~~errenenganaco~~ *duda lingue zuria*
 - ber ste da grantan *izango zarula*
 - inur erortio *fin nabillen edo ez*
ez gumeen dudan
ara cer juramenti

<i>coloria</i>	<i>bereciya</i>
<i>ichumena</i>	<i>aberatza</i>
<i>eguisute</i>	<i>soseguba</i>
<i>aldaria</i>	<i>dizdisara</i>
<i>neretzaco</i>	<i>icustera</i>
<i>jostatuco</i>	<i>lembicico</i>
<i>urriquitu</i>	<i>alegratu</i>
<i>jaquitian</i>	<i>alegriya</i>
<i>egusquiya</i>	<i>maite saitut</i>
<i>il nariyen</i>	<i>lenago ill</i>
<i>beti miñez</i>	<i>il ta guero</i>
<i>imbiriya</i>	<i>juramentu</i>
<i>garistiya</i>	<i>icaratu</i>
<i>oñasia</i>	<i>graciyetan</i>
<i>eriyua</i>	<i>eriyotza</i>
<i>sure billa</i>	<i>basenitu</i>
<i>baseniquet</i>	
<i>banituque</i>	<i>basenaqui</i>
<i>len arc nic su</i>	<i>besela</i>
<i>sure galde</i>	<i>nisquitzuque</i>
<i>podoria</i>	<i>podoriyos</i>
<i>seculaco</i>	<i>lisuteque</i>
<i>basenuque</i>	<i>infernuba</i>
<i>politian</i>	<i>suregana</i>

Ta orriaren beste aldean bi itz:

iruquico saitut

Irakurlea oartuko zanez, Bilintzek, sarritan naasten ditu z eta s letrak. Gaur ere orrela egiten dute askok eta aspalditik datorren gaitza izango da. Baiña beste gauza bat ere erakusten du onek: Bilintzek itzak aukeratzen kontu ta arreta puska bat bazuala.

* * *

Beste orri txiki batean, bertso au:

*Grasi ederra desun meriyo
izquetan eta ichuran
lendabicico egunetican
goguan artu cinduran
zuc ez daquizu gueroztic onuntz
ser naitasuna dizuran
graci oyetaz gustatu eta
nic senbat maite zaituran*

Bilintzek *cindran* idatzia du; bañan *cinduran* bear duala dudarik ez du.

* * *

Ondoren, beste lau orritan, lerro batzuk. Lerro oiek danak bertso-neurrietan daude, eta erdiak baño geiago Bilintxen bertsoetan arkitu ditezke. Gure iritzirako Bilintzek, esaera polit bat bururatzen zizaionean, bertso-neurrietan jantzi eta idatzi egiten zuan; ta gero bere bertsoetan sartu.

Lerro oiek orain emen ezarriko ditugu. Leenengo, ezkerreko aldean, Bilintxen itzak, beren ortografia zarrean. ta, eskubikoan, zein bertso-sailletan zein bertso ta puntutan sartua dagoan somatu badegu bertso-sail orren izenburua eta zenbatgarren bertso eta puntua dan.

Bilintxen bertso-sailletan sartu ga-beak badira, ordea. Oiek eskubiko aldean utsik izango dute.

Baiña, len esan bezela, galdutako bertso-saillak ere baditu Bilintzek, eta bearbada oietan sartuko zituan.

Beste aldetik, berriz, guk ere badegu Bilintxen denborako eta egillearen izenik gabeko bertso-sail edo beste;

Hare ligueta garhuan
 nay laguerembat du
 Zure onatitzi zuana
 gaur bay nie sentiñan
 Biner maite narula
 nante informatu
 ne banan dama jolbitagorie
 ez det zure sekular
 lendaritzi egundican
 goguan abtu dindurra
 Zu iustian contentu nage
 ez zuzur ta tristurra
 Ay zuzur nola gustatzen naiz
 ez combat maite zaituran

Ez det nere biçyan
 Zure origo ez da arizo
 Zure onatitzi zuana jolbitagorie
 Hic ana inore nay dizumian
 amen ez zarula irate
 Bay arzeur zuacela
 Zengo egun batian
 Maite nerio zu iustitza
 ez zaitutan egundean
 Damielo bat ura mañtatu
 equi tenet combat zago
 Hic onatitzi zuana iustian
 neront zure iguesi
 Zure jabe ni egundean lauris
 Hic airatze egun jachita
 Jachitza dea lreola
 irreca baterra
 atzo ez gaur trantze

ez det nere biçyan
 nezachie topatu
 arpegi finca gersutza lreola
 ez dago cer emancian
 ezin ta jolbitae diran
 etorri onatitzi eta ezalen
 Jalla duhenac logratutzeor
 nere pena bat aito lreola det
 Maite zoragarriya
 equiya baterra
 Bay deru jaquin ezin dar
 amorri orie gabe
 jasatu ezin ez
 nezacha gaito jure lagua
 ez aldirazu autrie ematen
 lreola udan inñia lreola
 nere biçie puzamantula
 nie aibat inore nay dizumian
 ez zarula irate
 aditza de tior
 dama begui alay
 irabaciya daraman
 nezach abillaren fama
 ne e ligit gaur
 naylague rembat du
 Zure obdit zuana
 gaur bay nie sentiñan
 ciner maite narula
 nante informatu
 bay arzeur zuacela
 jachitza nay nage
 Zengo egun batian
 ay p^a Antonio

zur banan dama jolbitagorie
 ez det zure sekular
 lendaritzi egundican
 goguan abtu dindurra
 Zu iustian contentu nage
 ez zuzur ta tristurra
 Ay zuzur nola gustatzen naiz
 ez combat maite zaituran
 Hic ana inore nay dizumian
 Amen ez zarula irate
 nere beguiya banan amantur
 lreola deia z d lreola
 Zu iustian contentu nage
 ez inñi ta chit triste
 ay zure maite lreola lagua
 nireu zaitutan aitat est e.

gaiñera, amodioa gaia dutenak dira. Bertso-sail oiek danak arretaz aztertu ditugu, Bilintxen lerro oietakorik agertzen ote zan. Orrelakorik agerto ezke-ro, saila Bilintxena zala besterik gabe

ikasiko baigenduan. Baiña, damurik, ez da orrelakorik gertatu.

Ona emen, beraz, lerro oiek, len esan bezela ezarrita:

*Nic esan tan zuc jaquiñ
biazu ecican*

Zenbait damaren esker txarra: 7/1-2

*Ezcondutziac izan biar du
preciso gauza char embat*

Izazu nitzaz kupira: 9/1-2

*Zure graciyetara
oso zoratuba*

Neskatxa bati mutil batek jarriak: 8/1-2

*Ala dirurizu ta
zaucazquit loretzat*

Neskatxa bati mutil batek jarriak: 9/1-2

*Maite goshua biyotz biguña
aur chiqui batec beciñ det*

*Maite zoragarriya
eguiya esatera
graciya utza cera.*

*Falta dubenac, logratutzeco
itz eguitia chit on du*

Izazu nitzaz kupira: 8/1-2

*Beti desioco det
zure arrimua*

antzekoa: Neskatxa bati mutil batek jarriak: 11/4

*Ainguerubaen baratzan
jayotaco fruta*

*Consola zazu Dolores zure
matari guisharashua(1)*

*nere pena bat aitortuco det
ama beguira dagola*

- Loriac udan intza becela
Maite det dama gaste bat
ari aimbeste nay diyotanic
es da munduban beste bat* Izazu nitzaz kupira: 1/1-4
- Ceiñ ta politac diran
arrosa jazmina* Zenbait damaren esker txarra: 2 /1-2
- nay det jaquiñ dezazun
orain beriala* Zenbait damaren esker txarra: 3 /1-2
- erocenenganaco
beti borondatez*
- Cer ote da gracitan
iñor erortzia* antzekoa: Neskaxa bati mutil batek jarriak: 5/1-2
- Nay dezu jacquin cein dan
betetzen dubena
nere amoriyozco*
- Eguiyazco amoriyoz
nay dizutalaco(2)* Neskaxa bati mutil batek jarriak: 2/1-2
- Etorri onuntz eta eraten
escatu detalarican*
- Arpegui fiña gorputza berriz
ez dago cer esanican* Izazu nitzaz kupira: 5/1-2
- Amoriyoric gabe
pasatu eciñez* Zenbait damaren esker txarra: 8 /1-2
- Nescacha gazte pare baguia
uda berrico arrosa* antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 2/1-2
- Ez al dirazu antzic ematen
nic zaitutala nayago* Izazu nitzaz kupira: 3/1-2
- Nic aibat inorc nay dizunican
ez zazula izan uste* antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 4/1-2

Dama gaste bat esagubien det

Arguotarum aundio

Bray arcan zuabela

Lengo egun latian

Maite neria zu iustien

Poina uelo bat ura mailatan

Shure jaje ni eguiten bonadr

Merom nabill rure ondoren

Jachitren dan beela

Atro es gadinon trantze

Chori, aiddie egon jachita

Uhit asu sentitren det
esan dirasula

Shin nabillren edo ez.

Piyotza bete maitarun

emango dit^u p^ossian

negarra franco equisa

negarra beguigetara

~~bat~~ gojuan sacasquit

negarre darigetela

maitatren badet beiteni

gorputz guaira lanatitsoni sait
alaw gusotasun bat

Ay biyotian sentitubien det
alaw gaua goso bat

Osque garrata bat igaroben sant
saini guigeton barrera

Meru biyian artien ludiyo
nagtasurican beiteni

Amori gwa deroiztela
erue anguru guigot.

baer bacarric zurtrat dacet
cuidado aundis gordia

cuidado aundis gordela dacet
baer bacarric surtrat
surtrat baer bacarric

ni bete subas penit^uatres-
ze mitas aurdadren es

Bete guigot p^ossio beela
nie imbiriya diantet

Casenegique s^ottararun
amoxigua diutan

Aiduturian abisatres
juango naisela p^ossian

*Nere betico pensamentuba
nere consolagarriya*

Izazu nitzaz kupira: 6/1-2

*Irabaciya daczulaco
nezcach abillaren fama*

antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 7/4

*Aditzera detanez
dama begui alay*

Neskatxa bati mutil batek jarriak: 12/1-2

*Nay dizutan edo ez
ez zaudecen dudan*

Neskatxa bati mutil batek jarriak: 7/2

*Chit asco sentitzen det
esan dirazula
nere amoriyua
dudan daczula
pentsamentu charrican
eguin ez zazula
erregututzen dizut
shinista zazula
baldin bazaude ala
dezu dezula (sic)
duda bague zuria
izango nazula*

*fñ nabillen edo ez
ez zaudecen dudan
ara cer juramentu*

Neskatxa bati mutil batek jarriak: 7/1-3

*Nere biyotz gashuac
nay baguerembat du*

*Zure ondotic juana
gaur bay nic sentitu*

*Sinez maite nazula
naute informatu*

*Zu bañan dama politagoric
ez det icusi secular*

*lendabicico egunetican
goguan artu cinduran
zu icustian contentu nago
ez icusi ta tristuran
Ay zutzaz nola gustatu naize
o cembat maite zaituran.*

Ez det nere biciyan

Zure ariyo ez da ariyo

Zu bañan dama politagorik

*Nic aña inorc nay ditzunican
arren ez zazula uste*

antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 4/1-2

Bay azcar zuacela

Lengo egun batian

Neskatxa bati mutil batek jarriak: 10/1

*Maite neria zu icusitzen
ez zaitutan egunetan*

*Panuelo bat ura maitatzen
eguiten det cembait sayo*

*Neroni nabill zure ondoren
neroni zure iguesi*

Zure jabe ni eguiten banaiz

Chori airetic egan jachita

*Jachitzen dan becela
erreca batera*

atzo ez guiñan trantzze

*ez det nere biciyan
nezcachic topatu*

- arpegui fiña gorputza berriz
ez dago cer esanican* Izazu nitzaz kupira: 5/1-2
- ceiñ ta politic diran* Zenbait damaren esker txarra: 2/1
- etorri onuntz eta eraten (4)*
- falta dubenak logratutzeco* Izazu nitzaz kupira: 8/1
- nere pena bat aitortuco det*
- Maite zoragariya
eguiya esatera*
- Nay dezu jaquin cein dan*
- amoriyoric gabe
pasatu ecinez* Zenbait damaren esker txarra: 8/1-2
- nezcacha gazte pare baguia* Izazu nitzaz kupira: 2/1
- ez al dirazu antzic ematen* Izazu nitzaz kupira: 3/1
- loriac udan intza bezela* Izazu nitzaz kupira: 1/1
- nere betico pensamentuba* Izazu nitzaz kupira: 6/1
- nic aimbat inorc nay dizunican
ez zazula izan uste* antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 4/1-2
- aditzera detanez
dama begui alay* Nexkatxa bati mutil batek jarriak: 12/1-2
- irabaciya dacazulaco
nescah abillaren fama* antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 7/4
- nere biyotz gashuac
naybagerembat du*
- Zure ondotic juana
gaur bay nic sentitu*

*cinez maite nazula
naute informatu*

*bay azcar zuacela
pocican nay nuque*

lengo egun batian Nexkatxa bati mutil batek jarriak: 10/1-2
ay Sn Antoniyo

*zu banan dama politagoric
ez det icusi secular*

*lendabico egunetican
goguan artu cinduran
su icustian contentu nago
ez icusi ta tristuran
Ay zutzaz nola gustatzen naisen
¡O! cembat maite zaituran*

Nic aña iñorc nay dizunican Izazu nitzaz kupira: 4/1-4
Arren ez zazula uste (5)
nere beguiyac beren aurrian
beti desio zaituste
zu icustian contentu nago
ez icusi ta chit triste
ay zuc ni maite baninduzuque
nic zu saitudan aimbeste.

Dama gaste bat esagutzen det Beti zutzaz pentsatzen: 1/1

Arguitsaun aundico Gaztetan jarriyak dama bati: 1/1

Bay azcar zuazela

Lengo egun batian Nexkatxa bati mutil batek jarriak: 10/1-1

Maite neria zu icusitzen

Pañuelo bat ura maitatzen

Zure jabe ni eguiten banaiz (6)

Neroni nabill zure ondoren

Jachitzen dan becela

Atzo ez guiñan trantze

Chori, aidetic egan jachi-ta

*Chit asco sentitzen det
esan dirazula*

Fiñ nabillen edo ez Nexkatxa bati mutil batek jarriak: 7/1-2

Viyotza bete naitasun

emango dizut pocican

negarra franco eguiña

negarra beguiyetara

beti goguan sacasquit

negarra dariyotela

maitatzen badet besteric

*gorputz gucira banatutzen sait
alaco gosotasun bat*

antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 1/7-8

*Ay biyotzian sentitutzen det
alaco gauz goso bat*

antzekoa: Izazu nitzaz kupira: 1/7-8

*Osqui garratz bat igarotzen zait
saiñ guciyetan barrena*

*Nere biciyan artzen badiyot
nayasunican besteri*

*Amoriyua desaizutela
ceruco aingueru guciyac*

*bacar bacarric zuretzat dacat
cuidado aundiz gordia*

*cuidado aundis gordeta dacat
bacar bacarric suretzat
zuretzat bacar bacarric*

*ni beti sutsas pentsatzen nago
zu nitzaz acordatzen ez*

*beste guciyac pena bezela
nic imbiriya dizutet*

*basenquique sertarañoco
amoriyua disutan*

*Nai dubenian abisatzeco
juango naisela posicam*

-
1. Guk uste, *maitari* bearko luke emen.
 2. Dudarik gabe, *dizutalaco* bearko luke.
 3. Emen, berriz, *naizen* izango da berez.
 4. Bilintxek *onust* idatzi zuan; *onuntz* bear duala dudarik ez.
 5. Bilintxek *zazul* idatzi zuan.
 6. Bilintxek *jaje* idatzi zuan; uste gabeko okerranoski.

BILINTXEN ILLOBIA

Leen ere esan bezela, Bilintxen gorputzari San Bartolomeko kanposantu zaarrea lur eman zioten. Gero, ura txikia zala eta, Polloekoa egin zuan Donostiko erriak, eta Bilintxen ezurak ere kanposantu berrira aldatu ziran. Atal ontan, aldaketa ori nola egin zan adieraziko degu.

1882-XI-20-an, Donostiko udal-gizonen batzarra egin zan, eta Ponsol jaunak itza atera eta onela esan zuan:

“Yace casi olvidado en el Cementerio de San Bartolomé uno de los poetas líricos de este país, á la vez que perfecto tipo del donostiarra, ó sea lo que el vascuence con su especial grafía llama un Erricosheme. Tan solo una tosca cruz de madera indica el sitio en que se hallan sepultados en la fosa comun, los restos de aquel hombre, cuyo merito se veía aun a través de la modestia con que lo cubría. Hablo de Dn. Indalecio Bizcarrondo, conocido con el apodo de Vilinch -añade el Sr. Ponsol- quien termina proponiendo que el ayuntamiento acuerde la traslacion de dichos restos al nuevo Cementerio y los deposite en una sepultura, modesta sí, pero digna de la persona á la que se dedica.”(1)

Udal-gizonak ontzat artu zuten Ponsol jaunaren eskaria, eta batzorde

bat izendatu ere bai, asmo ori aurrera eramane zezan:

“Una comision especial, formada por los Sres. Lizasoain, Iraola y Garat queda encargada de llevar á efecto el pensamiento iniciado por el Sr. Ponsol y que merece la más completa aprobación del Ayuntamiento.”

Emen aitatzten diran Lizasoain eta Garat jaun oiek ez dakigu nor izan ziran. Baiña Iraola ori bai. Leen ere esan degunez, Biktoriano Iraola zeritzan; 1841-ean jaioa eta 1919-an il zan. Bertso-jartzaille eta idazle ugaria izan zan, eta Bilintxen kidekoa eta laguna ere bai, seguru aski. Gustora artuko zuan arek eginkizun ori.

Donostiko udal-gizonen erabakia-
ren berri jakin zutenean, gure izkuntzaz *Euskarazko itz-jostaldien batzarra* eta erderaz *Consistorio de Juegos Florales* zeritzan elkarteak, eskutitz bat bialdu zion udalari 1882-XI-27-an, eskerrak emanez eta bi eskaera egiñez:

“...rogarle que la inscripcion que se coloque en la nueva tumba de Vilinch se escriba en bascuence, como tributo á este hermoso idioma, dulce cual ninguno otro en las composiciones que nos legó el bardo donostiarra; que el Consistorio, asociándose á la laudable ini-



Bilintxen illobia, Polloe'ko kanposantua.

Bilintxen illobia, Polloe'ko kanposantua.

ciativa tomada por V. E., envíe oportunamente una Comision de su seno á la traslacion de los restos mortales del malogrado Bizcarrondo, y que el mismo día en que se verifique dicho acto celebre este instituto una sesión pública en honor de este simpático y desgraciado poeta.”

Eskutitzaren firmatzaillak: *El Presidente accidental: Jose Irastorza. El Secretario: Jose Manterola.*

Jose Irastorza ori ez dakigu nor izan zan. Jose Manterola, berriz, sarritan aitatu degu eta ez gera ostera asiko aren berri ematen.

Baiña andik sei illabetera, 1883-V-28-an, agidanean artean ezer egin gabe zeuden danak ere, udal-gizonen batzarreran onela esan baitzan:

“Acuerdase recordar al Ayuntamiento municipal el proyecto de ereccion de un mausoleo á la memoria del poeta vascongado D. Indalecio Bizcarrondo (Vilinch) recomendándole toda la actividad compatible con los demás trabajos de su cargo.”

Ala, 1883-IX-26-an beste erabaki au artu zan:

“Se acuerda que en atencion á la índole de la obra, se proceda á esta por administracion, encargando al Sr. Arquitecto la lleve á su término valiéndose de los operarios que le parezcan, de acuerdo con el Sr. Iraola.”

Andik urte t’erdira illobia eginda zegoan. Donostiko udal-arkitektoa zan Nemesio Barriolak, 1885-III-2-an alkate jaunari zuzendutako eskutitz batean, onela esaten du:

“Adjunto tengo el honor de remitir á V. S. un certificado de lo que debe satisfacerse por el busto que debe colocarse sobre la sepultura del malogrado Dn. Indalecio Bizcarrondo así como una relacion del importe que se ha in-

vertido en la construccion de la espresada sepultura con el pequeño mausoleo colocado sobre ella y su comparacion con el presupuesto quedando todavía 139 pesetas para el pago de la inscripcion que debe colocarse sobre el mismo mausoleo.”

Eta, beste orri batean, egindako lan guzien kontua bialtzen zion:

“Relacion de lo que ha costado la sepultura y mausoleo dedicado a Dn. Indalecio Bizcarrondo.

Dn. Domingo Calzacorta por la sepultura y piedra de un pequeño mausoleo.....	400
Dn. Miguel Orbeagoz por una verja para sepultura y pintura	186
Por el busto y talla de capiteles	175

Importe total de lo satisfecho	771
Importe del presupuesto	910
Importe de menos que lo presupuesto ..	139

Falta que pagar la inscripcion que deba ponerse en el pequeño mausoleo.

San Sebastian 2 de Marzo de 1885.”

Baiña, leen ere esan degunez, benetan penagarria da argiñaren eta errementariaren izenak, eta bai irudi-egilearena ere, ez esatea.

Illobian zer idatzi bear zan, or goien aitaturako *Euskarazko itz jostaldien batzarra*-k erabaki zuan. Udalari 1885-III-26-an zuzendutako eskutitz batean, onako idazki au ezartzeko eskatzen zion:

“¡BILINTX! DONOSTI MAITE ONTAN ZURE BERSOAK ENTZUN GENITUENOK, ESAN GENEZAKE, JAUNAREN MISERIKORDIAK KANTATZERA JOAN ZIÑAN EZKEROZTIK, ZERUA BERA GOZOGOA IZANGO DALA.”

Eta idatzi ere ori egin zan, letrarik aldatu gabe.

Eskutitz orren firmatzaileak onako jaun auek izan ziran: *El Presidente: Luis M.^a Elizalde. El Secretario: Antonio Arzac.*

Luis M.^a Elizalde orren berri ez dakigu. Antonio Arzak ori, berriz, (1855-1904), euskal olerkari bat izan zan. Jose Manterola il zanean, berak artu zuan *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendaritza.

Andik bi urtera, 1887-IV-20-an, Bilintxen alargunak, bai berak eta bai semeak ildakoan Bilintxen illobian leku izateko eskubidea eskatu zion udalari:

“D.^a Nicolasa Erquicia, Vida. de Bizcarrondo, al recordar que el Ayuntamiento de esta Ciudad en sesion de 20 de Noviembre de 1882, acordó dedicar a su difunto esposo Dn. Indalecio Bizcarrondo (Vilinch) una sepultura que guardara sus restos en el Campo Santo de Polloe y aprovechando el momento de la traslación de los mismos desde el cementerio de San Bartolomé, para expresar en su propio nombre y en el de sus hijos la profunda gratitud de que se hallan poseidos, suplican que se permita que en su día descansen tambien los restos mortales de ellos junto á los de su querido esposo y padre en la misma sepultura.”

Udal-gizonak ontzat artu zuten eskaera ori:

“Considerando la Corporacion ser muy justa y puesta en razón la suplica que se hace acuerda que se consideren con derecho a ser depositados en su día en la misma sepultura de “Vilinch” los restos de su esposa y de sus hijos.”

Andik laster, 1887-IV-27-an, eraman ziran Bilintxen ezurak San Bartolomeko kanposantutik Polloera. Frantzisko Lopez-Alen jaunak (1866-

1910) onela idatzi zuan 1898-an, bere *Iconografía Biográfica de Guipúzcoa* liburuan, Bilintxi buruz itzegitean:

“...el autor de este libro fué el encargado del traslado de los restos mortales del poeta donostiarra, del cementerio de San Bartolomé en que yacían, al nuevo de Polloe.

...érase un cementerio, llamado de San Bartolomé, nombre tomado de un monasterio que en el mismo lugar existió...

...érase el 27 de Abril, el cielo mostrábase límpido y azul, apenas distraía su luminoso tono nubecilla alguna.

En primer término de aquel extenso cuadro aparece un hombre, y en su diestra empuña una azada; con marcada indiferencia espera junto á una cruz de palo; á un lado dos sacerdotes, á otro curiosos; en el fondo, allí, en lontananza distínguese la majestuosa silueta del “Larrun”, delante del Larrun el “Ayako-Arri”, en término más cercano la cumbre de “San Marcos”, en su frente Choritokieta y más a la vista y en escorzo, un trozo de “Santiago-Mendi”, cortado todo esto por una simpática línea que produce la tapia del cementerio.

El hombre citado empieza su faena; arranca la cruz de cuajo y cava...

Ya a ambos costados amontona la tierra: el interés de los espectadores crece por momentos. A cada golpe de la azada baja el hombre. La zaja queda entreabierta...

Ha cesado en su trabajo, ya no golpea, recoge cuidadosamente unos huesos y partículas careadas; el hombre fondea algo más y logra alcanzar un cráneo.

Es el mismo. ¡Es el cráneo del poeta. Es la caja encefálica en donde tantas y tantas bellezas imaginó!...”

Baiña andik ogei urtera, 1907-IV-12-an, Bilintxen alargunak beste eskaera bat egin zion udalari: Bilintxen illobia berritu-asmoak zituala eta artarako baimena nai zuala. Eskaera one-

kin batera, *plano* bat bialtzen zion, zer egin nai zuan adieraztearren. Baiezkoa eman zioten.

Plano ori gaur dagoan illobiarena da. Leengoa desegin eta berria egin ote zuten, beraz? Ez, inola ere.

Illobian, arretaz begiratzen bada, bi alditan egindako lana ikusten da. Liburu onek illobi orren argazkia ere badu, eta orri begiratu dezaiola, mese-dez, orain esango deguna ulertu nai duanak.

Ildakoen izenak idatzita daudenetik gorakoa zaarragoa da, ortik beerakoa baiño. Gorako ori, guk uste, leenengo egin zan lana da; beerakoa, Bilintxen alargunak 1907-an egin arazi zuana.

Illobiaren arrizko estalkia ere berri-tu egingo zuan, alboko illobiak dutena ezberdiña da eta.

Bilintxen alargunak lan ori zergatik egin zuan somatzen erreza dala uste degu. Bilintx il zanetik 1907 urtera arte familiko asko il zirar: Bilintxen seme bat eta iru billoba. Eta danak an sartuak eta illobiak lekurik ez aien izenak jartzeko. Orregatik, obra berria egin bear: leengoa altxatu, alegia, eta aren azpian danen izenak idazteko lekua izango zuan beste arri landu bat ipiñi.

Gaur egunean an nortzuk dauden, illobiaren argazkian irakur diteke: Bilintx, beraren andrea, bi seme, erraiña, iru billoba eta billoba baten andrea.

1. Atal ontako argibideak Donostiko udal-artxibotik atereak dira: "Año de 1882 a 1887 / Sección B / Negociado 2 / Libro 4 / Expediente nº 10. Asunto: Monumentos (Cementerio de Polloe) / Expediente: Erección de un monumento á la memoria del poeta vascongado D. Indalecio Bizcarrondo (Vilinch)".

BILINTX KALEA

Bilintx kalea Donostiko Parte Zaarreen dago. Mutur bat Kale Nagusian du, eta bestea Lasala plazan. Seguru aski, erri guziko kalerik laburrena izango da, eta estuenetako bat ere bai noski. Baiña saiets bat, oso-osorik, Teatro Zaarrak betetzen eta osatzen dio; eta, dakigunez, antxe lan egin eta bizi izan zan Bilintx. Orregatik, ain txikia izanik ere, ongi dago an, daukan izena.

Baiña noiztik eta nola jabetu zan kale txiki ori izen ortaz?

Leen ere bein baiño geiagotan aitatutako Biktoriano Iraola izan zan burutapen ori izan zuana, eta aurrera eramaten aalegindu zana. Iraola ori nor zan leendik esanik daukagu.

Donostiko konzejala zalarik, Iraola orrek, 1884-II-6-an, Bilintx il eta andik zortzi urtera alegia, onako eskabide au agertu zuan udal-gizonen batzar batean:

“Excmo. Ayuntamiento:

Existe, en la zona primitiva de esta Ciudad, una calle que no tiene aun denominacion oficial, á pesar de servir de tránsito bastante frecuente: tal es la que por el lado Norte

del Teatro Pral. conduce desde la calle Mayor a la Plazuela de Lasala.

Esta omision que hasta hace poco tiempo no suponía ningun inconveniente en cuanto al régimen de la Policía urbana, merece subsanarse ahora que se han habilitado varias puertas de ingreso al Coliseo mencionado, el cual, en un principio, no tenía más puertas de entrada que las de la Calle “Mayor” y de su paralela, llamada “Nueva”.

Una vez, pues, que debe señalarse el nombre con que ha de ser conocida esa vía pública, preciso será aplicarle alguno que conmemore algun acontecimiento célebre de la Ciudad ó el recuerdo de algun easonense ilustre, cuya fama se perpetúe en las generaciones venideras.

Fresca se halla hoy todavía entre los que fueron contemporáneos la memoria de un artesano modesto, que sin la preparacion académica, ni otras luces que la de su brillante inspiración, supo dejar sazonados frutos de su estro poético, cantando en correcta y fluída versificación los sentimientos todos que animan y repercuten en el alma del pueblo.

Vilinch era el sobrenombre con que familiarmente se llamaba Indalecio Bizcarrondo, á quien he aludido.

Su celebridad por nadie es hoy discutida; antes bien se consideran como modelo digno de imitación las galanas muestras de su fecun-

do ingenio, que recoge cuidadosamente y con esmero la posteridad.

V. E. mismo abunda en esta opinion, como lo revela el acuerdo por el cual resolvió erigir, en el campo santo de Polloe, un sencillo mausoleo en que se guarden las cenizas del malogrado vate, y cuya solemne inauguracion tendrá lugar dentro de breve plazo.

Vilinch constituye en las páginas de la Historia de San Sebastian, una figura de clásica magnitud. La posteridad, por el órgano del Consistorio de Juegos Florales euskaros de esta Capital que V. E. patrocina, ha sancionado el juicio de los contemporáneos, y parece lícito afirmar que es llegado el momento de que la Municipalidad consagre el recuerdo de aquel nombre tan admirado, haciéndolo grabar en los muros de la calle que está por rotularse.

El Concejal que suscribe, creyendo interpretar el sentir general de la poblacion en el asunto, no menos que el criterio que anima a

V. E., tiene el honor de hacer la presente mocion deseando que sea aceptada y elevada a la categoría de acuerdo.

Dios guarde a V. E. muchos años.

San Sebastian 6 de Febrero de 1884

Victoriano Iraola”(1)

Udal-gizonak ontzat artu zuten Iraolaren eskaera:

Leida la mocion del Sr. Iraola. (Vease). Es aprobada la mocion preinserta y acuerda el ayuntamiento que se solicite la oportuna autorización del Gobierno.”

Gobernuaren baimena ez degu iñun arkitu. Baiña arek baiezkoa eman zuala dudarik ez da. Kale ori gaur ere Bilintx izenarekin dago beintzat, iñork ikusi nai badu.

1. Donostiko Udal-artxiboan: *Seccion D / Negociado 7 / Libro 2 / Expediente nº 3. Asunto: Rotulacion de calles y numeracion de casas.*

BILINTXEN BERTSO-BILDUMAK

Leenago ere adierazi degunez, Manuel Maria de Santana jaunak Bilintxen bertso guziak bere kontura argitaratzeko eskeintza egin zuan; eta Manterola-edo lan ori nola egin pentsatzen asi zan.

Orduan zan, izan ere, Bilintxen bertsoen bilduma egiteko garairik onen-onena. Eta Manterola, alargunari bere senar zanaren bertsoak eskatu eta ortan saiatu zala dudarik ez da. Manterolak ezagutu etzuan Bilintxen bertso gutxi azaldu da geroztik; eta Manterolari esker ezagutu ditugu guk, bestela betiko galduko ziran Bilintxen bertso asko.

Baiña donostiar bertsolariaren bertsoak argitaratzeko asmo eder aiek, zergatik ez dakigula, lur jo zuten; utsetan gelditu ziran. Leenengo argitaraldia izan bear zuanak porrot egin zuan.

Baiña Manterolak, liburu batean ezin egin izan zuana, berak sortutako *Euskal-Erria* aldizkarian gauzatu zuan, bertan Bilintxen bertso asko argitaratu emanaz.

1911 urtean azaldu ziran leenengo, liburu batean bilduta, Bilintxen

bertsorik geienak. *Euskal-Esnalea*-k egin zuan ori. Liburuari onako izenburu au ezarri zion: "*Bilintx / Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak / Bilintx'en idazti oek Euskal-Esnalea'k bildu ta argitaldu ditu / 1911 / Donostia'n Martín, Mena y C^aren etxean*".

Bertsoen aurretik Bilintxen bizitzaren laburpen bat eta Karmelo Etxegarai jaunak ari buruz egindako itzaldi bat ezarri zituan.

Naiko bilduma osoa da. Baiña Manterolak, zergatik ez dakigula, bere bildumara jaso bai, baiña argitaratu eman gabe utzi zituan Bilintxen esku-idatzietatik kopiatutako bertso asko. Eta oiek ezagutu ez eta etzitian *Euskal-Esnalea*-k atera aal izan.

Beste bilduma bat Erreteriko Makazaga moldiztegiak egin zuan. Izenburu au eman zion: "*Bilintx'en Bertsoak / Makazaga'ren irarkolan / Biteri, 32 / Errenderi*". Bertsoak bakarrik argitaratu zituan, beraz, itz-laua alde bat utzita. Baiña bertso batzuk ere falta ditu, bestela naiko bilduma txukun eta osoa bada ere. Liburuak ez du urterik esaten, baiña 1931 edo 1932-

koa izango da. Urte aietan atera zuan, ain zuzen, moldiztegi orrek berak *Bertsolariya* aldizkaria, eta artan ere Bilintxen bertsoak geienak agertu ziran.

Irugarren bilduma *Auspoa*-k egin zuan, bere 12-garren zebakian, 1962 urtean. *Izenburua: Indalecio Bizcarrondo / Bilintx / Bertso ta lan guziak.*

Manterolaren bilduma agertu berria zan orduan, eta antxe Bilintxen bertso ezezagun batzuk azaldu ziran. Oiek leen ere esan bezela, Manterolak Bilintxen esku-idatzietatik kopiatuak zituau, baiña argitara atera gabe illunpean utziak. Esan bearrik ez dago poz ederra artu genduala oiek argitaratzeaz.

Baiña *Auspoa*-ren zenbaki ori guk prestatutako aurrenetako bat zan; eta oraingo gure lanak ere bai, baiña arek akats nabarmen batzuk baditu. Orre-

gatik, berritu egin bear zan Bilintxi buruzko liburu ori.

Egokiera ori 1976 urtean izan genduan. Orduantxe betetzen zan Bilintx il zaneko eugarren urtea. Ori zala eta, Euskal-Erriak, eta Donostiak batez ere, Bilintxen oroitzua berritu nai izan zuten, ospakizun eder batzuk egiñez. Gure aldetik, aren bizitza eta bertsoak berrito aztertu genituan, eta liburu lodikote bat argitara atera, Donostiko Aurrezki Kutxa Munizipalaren babesean, 1978 urtean.

Orain, berriz, *Auspoaren Sail Nagusia* argitaratzeari ekin diogun ontan, liburu-sorta berri au ezin utzi genezakean Bilintxen bizitza eta bertsoak bertan sartu gabe. Utsune aundiegia litzake noski. Bertsolaritzaren gaillur bat da, izan ere, amodioa euskeraz iñork baiño obeto kantatu duan Bilintx, donostiar bertsolari-olerkaria.



BERTSOAK

ZENBAIT OAR

Eskuratu degun argitaraldirik zaarrenari kopiatu dizkiogu beti bertsoak. Zorionez, Bilintxen denborako bertso-paperak sarritan izan ditugu esku artean.

Urrena, ezagutzen ditugun beste argitaraldi guzien berri ematen degu, bakoitzak dituan aldaketak agertuz.

Ala ere, lan oni muga ezarri bear izan diogu. Azken urte auetan maiz samar agertu izan dira an eta emen, aldizkarietan, egunkarietan eta abarretan, Bilintxen bertsoak. Oiek danak izendatzen asiko bagiña, bukatu eziñezko lana artuko genduan, eta irakurlearentzat ere aspergarri utsa.

Ala, muga ezarri bearrean, Bilintxen eriotzaren eungarren urtean ipiñi degu.

Gure erriak bere gustoko bertsoak kopiatzeko oitura aundia izan zuan garai batean. Kuadernotan eta edozein paper-klasetan egiten zuan ori. Oietan -nola ez?- Bilintxen bertsoak maiz agertzen dira; eta, oi danez, aldaketa askorekin. Baiña esku-idatzien eta beren aldaketa oien berri ez degu liburu ontan emango, bestela ere naiko luzea eta aundia egin zaigu eta.

Zenbait bertso-sailletan, Bilintxen esku-idatzia ere eskuetan izan degu. Esku-idatzi oiek gaur egunean Madrillen daude, aren billoba Antonioren etxean. Oietxek ziran, ain zuzen, Manterolak alargunari eskatu eta ainbeste aldiz aitatzen dituanak. Leen esan bezela, bere beste paper guziak erre egin zituan Bilintxek, eta oiek Aita Larramendiren iztegi baten barruan salbatu ziran.

Bertsoak esku-idatzi oiei kopiatu bear genizkiela pentsatuko dute askok. Ez degu, bada, orrela egin. Zergatik ote? Gero bein baiño geiagotan errepikatuko degunez, Bilintxen esku-idatzi oiek eta bertso-paperak alkarren ondolan jarri eta konparatuta, ura bertsogintzan nola aritzen zan argi eta garbi ikusten dalako.

Bilintxek asko lantzen zituan bere bertsoak. Leen ere esan bezela, esacra polit bat bururatzen zitzaionean, bertso-neurrietan eratu eta idatzi egiten zuan, gero bertsoren batean sartzeko. Bertsoak egindakoa, berriz, batzuk puskatu egiten zituan, eta besteak ere etziran bereala inprentara joaten. Etxean edukitzen zituan; eta denboraren buruan, moldiztegira baiño leen,

berriro aztertu eta an eta emen zuzendu, ikutu edo aldatu egiten zituana. Zenbait aldiz bertso berriren bat erantsi ere bai. Orregatik, bertso-paperetan obeto daude Bilintxen bertsoak, beraren esku-idatzietan baiño.

Aldaketa eta eransketa oiek egindakoan, paper garbira pasako zituana eta paper berri ori eramango zuan inprentara. Emen, berriz, beren lana egin ondoren, bertso oiek inprentatutakoan alegia, Bilintxek ekarritako papera ezertarako ez eta bota egingo zuten.

Paper ori zan Bilintxen azken esku-idatzia; eta, eskuetan izan bagendu, berari kopiatuko genion. Baiña ura galdu egin baitzan, inprentatik atera zan bertso-papera degu iturririk garbiena, eta berari kopiatu bearra zegoan.

Baiña etxeke esku-idatzi oiek dituzten aldaketak ez dute baztertzetik merezi, eta ezarri egin ditugu oiek ere.

Batzuetan, bai liburu, aldizkari eta egunkari zaarretatik, eta baita jendearen aotik ere, argibide jakingarri asko bildu aal izan ditugu, Bilintxek alako saila zergatik eta nola paratu zuan, zer ondoren ekarri zion, noiztsu moldatu zuan eta abar. Argibide oiek ere bertso-sail bakoitzaren ondotik eskeintzen ditugu.

Bertsoen ondoren, berriz, doiñuak arkituko ditu irakurleak. Oietako batzuk Santesteban eta Etxeberria eta Gimón-en kanta-bildumetan zeuden. Oientzat gorde degu leenengo lekua, liburu ontara argazkiz aldatuta. Azkuek eta Aita Donostik ere badituzte, Bilintxen bertsoak kantatzeko doiñu bat edo beste. Oientzat ere utzi degu lekua. Ondoren, berriz, gerok erriaren aotik jaso ditugunak datoz. Magnetofonotik entzun eta solfeoz idatzi dituana, berriz, Manuel Yaben adiskidea izan da.

GALOP INFERNAL
LAGUNKIDA FRATERNAL-EKO
GALAIK BEREN DAMARI

- 1/ Emakume maiteak,
dantzara gurekin
etortzen zeratenak
borondatiakin,
esan biaizutegu
dezazuten jakin:
dantzak bukatzen dira
gaur gabekoakin.

- 2/ Zuben dantzetan zegon
gure alegriya,
aitortzen dizutegu
klaroan egiya;
orain utzi biarrak
zuben konpañiya,
biotzeratzen digu
tristura aundiya.

- 3/ Pena ori degula
biotzen betian,
zubengandik biagu
egon apartian,
ez eunki osuan,
ez ogei urtian,
baizik eta Pazkuak
etorri artian.

4/ Itxoron biar degun
denbora motzian,
pena franko izango da
gure biyotzian;
baña sartuko gera
berriro pozian,
gure naieko egun
oiek etortzian.

5/ Betoz ordu onian,
datozenerako
dantzako sala degu
egoki parako;
soñu politik ere
etzaigu faltako,
guziya ondo egin
naiko degulako.

6/ Orra, maite politik,
klaro eman parte
ez degula dantzarik
gaizuma jua arte;
lenengua noiz degun
jakiñian zaute,
faltatu gabetarik
etorri zaitezte.

ZIRIRIKUAK

1/ Langilleen dantzetan
izaten geranak,
bost arratsetan pruebak
dauzkagu emanak,
gure kontra izketan
aritu diranak,
txit askoz engañatu
dirala dianak.

2/ Aiek guregaitan
esan zutena da:
“Barulloa sortzeko
kuadrilla ona da!!!
Neskatxa onradurik
baldin juaten bada,
lotsatuta kanpora
irten biarra da”.

3/ Baita ere gauza onik
gurekin ez dala,
jaungoiko Bako-k bere
mendian gauzkala;
ezagun da inbiriyak
prejitzen zautzela,
etzenduten gezurrik
sortuko bestela.

4/ Eta segitu zuten
lenago bezala,
esanaz guziz gauza
seguruba zala
adornatuzten gure
dantzetako sala
dama onradurikan
izango etzala.

5/ Oraindik deskontentu
esan zutenakin,
deskantsatu ziraden
añaditubakin:
“Alakorik batian
biar degu jakin
etxeratu zirala
txandarme banakin”.

- 6/ Dantzarako tokirik
ote zegon nonbait,
galdezka Donostiyan
asi giñan zenbait;
uraxen topatzea
kostatu zan zerbait,
galarazi nayian
bazebillen norbait.
- 7/ Noiz ere bait topatu
genduben tokiya:
aduana zarreko
zertegi aundiya;
dudan gaude illa dan
ero dan biziya,
eskubetatik itzul
egin zigun iya.
- 8/ Nai baluteke ere
orain defenditu,
lengo itzak lazuan
arrapatzen ditu;
gure dantzak pakian
dira despeditu,
aiek esantakorik
ez da suzeditu.
- 9/ Orain gelditzen gera
guziz ditxosuak,
irten geradelako
bitoriosuak;
guk bezela esango du
Donosti osuak:
“Bost gezur sortzen ditu
inbitoriosuak!!!”

10/ Gure dantzara damak
polit onradubak
etorritzen dirade
guztiz apaindubak,
adornaturik ondo
gorputz ta burubak,
mantxarikan gabeko
birjiña purubak.

11/ Gure dantzetan juan da
guziya konpleto,
damak serbitu dira
iñon baña obeto;
izandu diyotegu
milla errespeto,
berak kontentu daude,
badakigu zierto.

12/ Izan degu soñuba
dantzatzeko diña,
bai eta damak ere
bana eta biña;
guziya izan da txit
ederki egiña,
bosti eman diyote
sabeleko miña.

Bilintx

* * *

Irakurlea oartuko zanez, sail onek bi zati ditu. Leenengoan aditzera ematen danez, Iñauteri batzuetarako paratutako bertsoak dira. Bigarrenengoan esaten danez, berriz, Iñauteri oietako dantza-tokia eta abar prestatzen asi ziranean, kontrarioren batzuk izan zituzten Bilintxek eta bere lagunak; “Lagunkida Fraternal-eko galaiak”, alegia. Ala ere, ondo antolatu zituzten gauzak.

Bertso aukerak *“Donostian Pio Baroja-ren moldizteguian - 1852”* argitara emandako paper batetik ditugu. Paper ori Peñaflorida kondearen liburutegian-edo omen zegoan, eta gure eskuetaraiño Donostiko Juan Arbelaitz eta Tolosako Juan Jose Beloki ziranen

bitartez etorri zan.

Moldiztegiak, Jaunari eskerrak, urtea ipintzeko burubidea izan zuan: 1852. Baita egillearen firma ere: *Bilintx*. Ortik dakigu bertso auen aita nor izan zan.

Guk ezagutzen ditugunetan, aukerak izango dira Bilintxen bertsoak zaarrena. Ogei ta bat urte zituan onek orduan. Ondo gazterik asi zan, beraz, bertso gintzan.

Bilintx izengoitia nundik datorren, iñork ere ez daki gaur. Paper ontan azaltzen da, uste degunez, leenengo aldirik. Bitatik bat izango zuan donostiar bertsolariak: bere aurrekoengandik zertorkiona edo oso gazterik berari erantsia.

ZALDI BATEN BIZITZA EDO ZALDI ZURIYARENA

1/ Orra sei bertso kale
garbitzalleari,
zeña bere izenez
dan Joxe Mari;
erreza lezazkike
iru abe mari,
indarra etortzeko
zaldi zuriyari;
animali ori
urriki zait neri,
falta du ugari
egoteko guri;
kartoiakiñ egiña
dala diruri.

2/ Goizero biar diyo
eraso lanari,
zikiñak bildu arte
erri danari;
berriz ere obeto
bizi ez danari
nabarbenduko zaizka
ezurrak ugari;
ez naiz txantxaz ari,
eta, Joxe Mari,
zaldi gaxuari
nai aña janari
eman zaiozu, jartzen
ote dan lori.

3/ Dago eskeletuen
itxura arturik,
diña jan ezak daka
orla galdurik;
nola ez da egongo
oso argaldurik,
irukitzen badute
askotan baraurik?
Zaldiya orri nik
ez det esperorik
ezer ikusterik
ezurak besterik;
ez du beintzat izango
odol-kolperik.

4/ Lana sobra du baña
janariya falta,
urrikigarriya da
dakarren planta;
gaxuak ez lezake
luzaro aguanta,
flakiyarekiñ eziñ
mugitu du anka;
pentsu gutxi jan ta
kalian jiraka,
gaizki bizi da ta
indarrrik ez daka;
eziñ karriatu du
karro bat kraka.

5/ Munduban ez liteke
zaldirik arkitu,
dubenik orrek aña
pena sufritu;
biyotzik gogorrena
lezake kupitu,
ez du zartzera txarra
gaxuak atxitu;
pausua nagitu,
eziñ da mugitu,
gutxienaz ditu
zazpi espiritu,
bestela bizirikan
eziñ segitu.

6/ Gizarajuaz danak
pena ar zazute,
baldiñ biyotz biguñak
badituzute;
asi zan egunetik
eta oraiñ arte,
serbitzuba egiñ du
erriyan bastante;
igande ta aste,
jaiarekiñ naste,
makiña bat urte
pasa dizkitzute;
oraiñ erretirua
merezi luke.

ZALDIAREN ERIOTZA

Indarra zekan arte
zikiña karraio
eragiten zioten
makiña bat saio.
Bañan miñez jarri da,
indarra juan zaio!
Nekearen pagua
balaz eman zaio!

OBIZDEA

Azkenak emen daude
zaldi argal baten,
zeñak ez zuen iñoiz
pentsu on bat jaten;
gelditu zaizkan mami
puskak eramaten,
beliak lan askorik
apenas daukaten.

R. I. P. Amen.

* * *

Bertso auk bi bide edo iturritatik etorri dira guregana.

Bata, moldiztegietatik datorkiguna. Santesteban musikariak, Bilintx bizi zalarik, doiñua eta leenengo sei bertsoak argitaratu zituan bere *Colección de Aires Vascongados* kanta-bilduman. Bertso guziak, zortzi alegia, Bilintxen paperetan azaldu dan bertso-paper batean arkitu ditugu. Paper orrek moldiztegi-izenik ez du, baiña Bilintxen denborakoa izan diteke. Bilintx il ondoren, Jose Manterolak ere zortzi bertso oiek sartu zituan bere *Cancionero Vasco* bilduman(1). Ondoren, askok

argitaratu dituzte bertso auk. Baiña guzi-guziak aitatu ditugun oietako bati kopiatuta. Batez ere, Santestebani eta Manterolari.

Bigarren bide edo iturria Bilintxen esku-idatziak dira. Auetan leenengo sei bertsoak daude, eta azkeneko biak falta. Manterolak, dirudianez, etzituan bertso auk Bilintxen esku-idatzietan ezagutu; aitatu ere ez ditu egiten eta.

Leen ere esan degunez, Bilintxek, leendik idatzita zituan bertsoak, inprentara bialdu baiño leen, berriro aztertu eta an eta emen ikutu eta aldatu egiten zituan. Ondoren, paper garbira pasa eta orduan moldiztegiara bialdu. Emen beren lana egingo zuten: bertso-

-paperak inprentatu eta zabaldu alegia. Baiña Bilintxek idatzi eta bialdutako orria an geldituko zan eta bertan galdu.

Orregatik, Bilintxen *orijinala* ez da etxean gorde zan esku-idatzia, baizik-eta moldiztegira eramane eta an gelditu eta galdu zana. Ala, moldiztegi esku-idatzi ori esku artean izan ezean, andik atera zan bertso-papera artu bear da, guk uste beintzat, orijinaltatzat.

Aldi ontan bertso-paper ori agertu dala uste degu; Bilintxen paperetan azaldutako ori izango da. Eta bai Santestebanek eta bai Manterolak berdintsu dituzte bertsoak.

Baiña ezberdintasun aundi samar bat billatzen diegu iru argitaraldi auei. Bilintxen esku-idatziak onela dio: *janariya, zuriya, gaxua, biyotzik, munduban, ezin* eta abar. Iru argitaraldi oiek, berriz, beste onela: *janaria, zuria, gaisoa, biotzik, munduan, ezin* eta abar,

Onek zera esan nai du: eskuren bat ibili zala or fonetismoak kentzen; Donostiko euskeraren aozkatze-moduak gramatikatzen, alegia.

Guri, beintzat, askoz geiago gustatzen zaizkigu Bilintxen bertsoak beren donostiar kutsu eta izkerarekin. Ala ere, begiratu bear zaiona ez da ori, beste au baizik: berak orrelaxe jarri zituala, eta iñork ere eskubiderik ez daukala ezertxo ere aldatzeko.

Ala, oraingo ontan esku-idatziari kopiatzen dizkiogu bertsoak, toki auetan izan ezik, lerro auek bertso-paperrak obeto ditualako gure ustetan: 1/1:

Arreta guciyaquiñ; 1/2: entzun Joshemari; 1/3: ta eman cumplimentu; 1/4: encargubari; 1/5: erresatu zazquitzu; 3/1: Dago esqueletuaren.

Laugarren bertsoaren amalaugarren lerroari buruz zalantza sortua dago: “Karro bat kaka” ala “karro bat kraka” bear duan. Egunkariren batean ere ortaz zerbait itzegin da. “Karro bat kaka”, izan ere, karro betea da; “karro bat kraka”, berriz, karro utsa; eta bera ezin karriatzeak grazi aundiagoa du. Orregatik, bigarren era au artu degu liburu ontarako.

Bilintxen paperetan azaldutako bertso-paper orrek, baita Santestebanek eta Manterolak, eta bai iru oiei kopiatu dizkieten beste argitaraldi guziak, beste aldaketa auek ere badituzte: 2/13: eman zayozu, ea; 2/4: jartzen dan lodi; 3/2: itxurak arturik; 3/4: orrela galdurik; 3/9: zaldi orri nik; 5/14: ezin gelditu; 6/1: Gisagaisoaz danak.

* * *

Leen esan bezela, Santestebanek bertso auen doiñua argitaratu zuan. Doiñu orri buruz onela dio Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n:

“Zaldi baten bicitza ha sido puesto en música por D. Juan José Santesteban, y arreglada para canto y piano por su hijo J. A. forma parte de la notable Colección de Aires Vascongados, de dicho Maestro, en la que figura con el número 18.”

Badakigu, beraz, nork egiña dan bertso auek kantatzen diran bederatzi puntuko doiñu polit ori.

* * *

Ondoren, leenago esan bezela, Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n sail osoa argitaratu zuan; zortzi bertsoak, alegia. Auek nundik artu dituan ez du aldi ontan esaten; baiña beste argibide jakingarri asko ematen ditu. Onela dio:

“Entre las poesías festivas y satíricas del país vasco, no habrá quizás una que haya alcanzado mayor popularidad que esta del malogrado vate domostiarra Vilinch.

Había allá por los años 1860 -si mi memoria no me es infiel- un carro tirado por un jamelgo blanco, destinado á la limpieza de las calles de San Sebastian.

El pobre penco, encargado de tan penosa tarea cotidiana, habia enflaquecido hasta lo imposible, á fuerza de palo y de trabajo, y quizás tambien de la no sobra de alimento.

Aquella arpa viviente, aquella sombra de caballo, que recorría sin cesar las calles de la ciudad uncido á su carro, inspiró al pobre Vilinch esta composicion, llena de gracia, conocida vulgarmente con el nombre de Zaldi zuriyarena.”

Alegia, Santestebanek, Manterolak eta Bilintxen paperetan azaldutako bertso-paper orrek *Zaldi baten bicitza* ezarri zioten izena sail oni; baiña erriak *Zaldi zuriyarena* ere esaten zion orduan, eta bai gaur ere. Orregatik, bi izenburuak ipiñi ditugu guk emen.

* * *

Bilintxen billoba Antoniok beste argibide jakingarri au eman zigun: bere aitona naigabe aundia izan zuala bertso auekin.

Garai artan, izan ere, bai omen zan Donostian, Gros abizena zuan famili bat. Berak eman zion izena Gros bailarari.

Donostian, erriko garbiketa-lanak famili orretzek artuak omen zituan, bertako agintariekin tratu bat eginda; eta *zaldi zuria* ere famili orrena izaki, Joxe Mari izeneko morroi batek erabiltzen bazuan ere. Eta bertso oiek ateratakoan, izugarri asarretu omen ziran famili ortakoak Bilintxekin. Denbora askoan ez omen zioten itzik ere egin.

* * *

Manterolak onela jarraitzen du:

“Esta poesía, una de las pocas festivas de Vilinch, acreditó más y más el nombre de este desgraciado poeta, é inmortalizó a aquel infeliz caballo blanco, casi tan popular en nuestro país como lo es en Castilla el famoso Rocinante del celeberrimo Don Quijote de la Mancha.

Zaldi baten bicitza, con todo y estar escrita sobre un asunto tan pobre y vulgar, sobrevivirá mientras se hable la lengua euskara como una de los mejores composiciones satíricas escritas en dicho idioma, por la espontaneidad que revela, por lo gráfico de la pintura, la viveza del colorido, y la pureza del lenguaje.”

Arrazoi bete-betea zuan Manterolak ori esatean. Euskera bizi dan artean, bertso-sail onek ere iraungo du noski. Egin zanetik eun ta ogei ta amar bat urte igaro dira, baiña gure erriaren biotz eta ezpaiñetan bizi-bizirik dago.

* * *

Ondoren onela dio Manterolak:

“Algunos versos hay, (el 1º y el 14º de cada estrofa), que, leídos, quedan cortos en buena ley métrica; sin embargo, yo no sé cómo, pero la verdad es que ajustan perfectamente á la música especial á que se hallan acomodados, sin que quepa introducir en ellos reforma ni cambio alguno.”

Lerro auei buruz badago zer esana. Bertso guzietan leenengo eta amalau-garren lerroak motx daudela esaten du Manterolak; baiña ala ere doiñuarekin ondo datozenak dirala.

Leenengo lerroagatik ori esateak arritu egiten gaitu. Zazpi silaba ditu, eta ori da berez bear duana.

Amalau garrena ere motx arkitzen du Manterolak. Ori esateak ez gaitu arritzen. Bederatzi puntuko bertsoak, izan ere, edozein bertsozalek dakianez, uste gabeko bi lege ditu: laugarren eta amalau garren lerroak bost silaba izatea. Sei silaba bear ko zirala ematen du, baiña ez: bost bakarrik. Manterola oartu da amalau garrena orrela dagoala, eta ez daki zergatik; baiña laugarrena ere berdin dagoanik ez da konturatu.

Bertso auek doiñu berezia dutela dio ondoren. Bai noski. Leen esan degunez, Santestebanek berri-berria paratu zien. Onek, ordea, silabak ondo ote zeuden batere kezkatu gabe, bertso auei ongi etorriko zitzaien doiñua sortu zuan. Orrela egin eta asmatu. Eta erriak gaur ere doiñu orrekin kantatzen ditu bertso auek.

Baiña doiñu ori Santestebanek asmatua bada, zein doiñutan moldatu zituan Bilintxek bertso auek? Gure iritzirako, bederatzi puntuko bertsoak

kantatzeko balio duan doiñuren batean, bat baiño geiago badago eta. Ezagunenak *Betroiarena* eta *Nagusi ta morroiarena* izango dira, eta oietako batean bearbada.

* * *

Ondoren, berak Santestebanen kanta-bilduman-edo orrela ezagutuko baitzuan, *zaldi orri nik* motx dagoala eta *zaldi gaiso orreri* bear ko lukela dio Manterolak. Bai, motx dago; baiña ez da erren ori orrela konpontzen. Puntua galtzen baitu. Bilintxen esku-idatzietan dago ederki, bai neurritz eta bai puntuz, gramatikari burla egiten badio ere: *zaldiya orri nik*. Leen ere esan deguna: Santestebanek-eta argitaratu baiño leen, eskuren bat mugitu zala bertso auetan, an eta emen gauzak aldatzen.

* * *

Azken bertsoak, bukaerako biak alegia, ez dira bederatzi puntukoak, zortziko txikiak baizik. Esan bezela, oiek ez daude esku-idatzietan; ezta Santestebanen kanta-bilduman ere. Manterolak eta beste bertso-paper orrek berriz, bai, badituzte. Ori zergatik dan, Manterolaren onako itz auek adierazten dute:

“A los pocos meses de escrita la composición de Vilinch, hubo necesidad de dar muerte á aquel pobre penco, enfermo, é inútil para todo trabajo, y entónces añadió Bizcarrondo á dicha poesía las dos estrofas que aparecen á su final, destinada la primera á lamentar el

triste fin de aquel pobre caballo blanco, y la segunda que constituye su Epitafio (!), las cuales en nada desmerecen del resto de la obra."

* * *

Urrena, euskal bertsolariak onelako gaia maiz samar erabili dutela esaten du Manterolak:

"El asunto, manejado por Vilinch con tanta gracia y habilidad, es muy comun á los poetas vascos, y son varias las composiciones de análoga índole que he visto escritas en los diversos dialectos, pero en ninguna encuentro el mérito ni la perfeccion que en la del malogrado Bizcarrondo, por más que la mayor parte de ellas ofrezcan rasgos aislados, especialmente en la descripcion, que no carecen de gracia.

Recuerdo, entre otras, las poesías tituladas Ikhazketaco mandoa, escrita en un dialecto mixto (alto y bajo-navarro), dada á conocer por los ilustrados filólogos MM. Michel y Sallaberry, en sus respectivas colecciones; Ampleren Zamaria é Ichkerraren zamaria, que sin más cambio que el nombre del título y una que otra ligera diferencia son la misma composicion en dialecto suletino; otra anónima, en el mismo dialecto, denominada Asto zahar bat: otra más, anónima tambien, que comienza con el verso

Behor bat erosi dut, adin onecua...,

reproducida tambien por Michel; otra de un modesto pero laboriosísimo artesano de esta Ciudad, que lleva el título de Erdaldun baten zaldiyari, escrita en dialecto guipuzcoano, y de fecha muy reciente; unos Verso berriac, en el mismo dialecto, impresos en Tolosa, en casa de la Viuda de Mendizábal, en 1867, sin otro título, y que comienzan así:

Zaldi ecuscarri bat
Irunen saldu da...,

Y por último, otros, anónimos también, impresos en la misma casa y forma, sin fecha de impresion, y que principian:

Marcos Lasartecuac
Saldu du zaldiya...,

pero ninguna de dichas producciones me satisface en conjunto, ni con mucho, lo que la afortunada inspiracion de Vilinch, que tengo el gusto de ofrecer en este tomo á los lectores del Cancionero."

Bertso-sail oietako batzuk, Mante-rolak esan bezela, Michel-en eta Sallaberry-ren kanta-bildumetan daude. Erdaldun baten zaldiyari deritzaion ori, berriz, Ramon Artolarena da, eta Auspoa-ren leenengo zenbakian argitaratu zan. Baiña Tolosan, Mendizabalen alargunaren etxean, bertso-paperetan argitaratutako beste bi oiek ez ditugu iñun arkitu.

* * *

Bertso auek askotan argitaratu dira. Guziak ezin aitatuko baditugu ere, onaguk ezagutzen ditugun batzuk.

Bertso-papera, "Eibar - Imprenta de Pedro Orúe", Parisko Liburutegi Nazionalean. Eskuz idatzita, onako oar au: "Pris à Durango, 1891".

Bertso-papera, "Irun'en - Valverde alargunaren etxean - 1909", Donostiko Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Bertso-papera, "Imprenta y Librería de Elosu - Durango", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "*Imprenta Económica*", Migel Yarza, Arjel baserria, Altza.

Poesía Euskara, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896.

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C^a-ren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Euskal-Erria aldizkaria, 1916.

Argia'ren Egutegia, 1923.

El Día egunkaria, 1931.V.13.

Argia aldizkariak gutxienez iru bider argitaratau zituan bertso auk. Baiña iru aldi oiek guraizez ebaki eta aldizkaritik berezitako paper-puntetan arkitu ditugu, eta egunik ezin esan. Bata, Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan azaldu zan. Bestea, Azpeitiko Segundo Agirrezabalagaren eskutik jaso genduan. Irugarrena, Manuel

Lekuona apaiz jaunaren bilduman arkitu degu.

Bertsolariya astekaria, Makazaga, Erreteri, 1931-XI-8.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkolan, Erreteri.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I, Makazaga, Erreteri.

Ĝure kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, Donosti.

Milla olerki eder. A. Onaindia. Larrea-Amorebieta, 1954.

Leen esan bezela, oiek danak Santestebani edo Manterolari kopiatu dizkiote bertsoak. Orregatik, aldaketarik ez dute.

Auspoa, 12, 1962.

1. *Cancionero Vasco, Primera serie, Tomo III, Enero de 1878.*

ZALDI BATEN BICITZA.

PIANO.

Piano introduction in 2/4 time, featuring a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The melody consists of eighth and sixteenth notes, with a bass line providing harmonic support.

Musical score for the first line of lyrics. The vocal line is in a treble clef with a key signature of one sharp. The piano accompaniment is in a grand staff. The lyrics are: O - rra sei ber so ca - le gar - bi - tza lle - a -

Musical score for the second line of lyrics. The vocal line is in a treble clef with a key signature of one sharp. The piano accompaniment is in a grand staff. The lyrics are: - ri ce - ñac be - re i - ce - nez dan Jo - sé Ma - ri e -

- rreza le-zaz - qui - que i - ru a - ve - ma - ri in - da - rra e - tor -

- tzeco zal - di zu - ri - ya - ri a - ni - ma - li o - ri u -

- rriqui zait ne - ri fal - ta du u - ga - ri e - go - te - co gu -

- ri car - to - yaquin e - gui - ña da - la di - ru - ri.

Segundo Kalonje, Oriamenti, Aiete, Donosti:

A musical score consisting of four staves of music. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 2/4. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef and a key signature of one flat. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line.

Patxi Larrañaga, Azkoiti'n jaio eta Zarautz'en bizi dana:

A musical score consisting of four staves of music. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 2/4. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef and a key signature of one flat. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line.

Inazio Pikabea, Ugaldetxo, Oiartzun:

A musical score consisting of five staves of music. The key signature has two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 2/4. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef and a key signature of two flats. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line.

Koxme Lizaso bertsolaria, Oiartzun:

A musical score consisting of four staves of music. The key signature has two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 2/4. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef and a key signature of two flats. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line.

Arta guciyagui
 entran Testimoni;
 ta eman cumplimentu
 encarguari;
 erresatu xarquitru
 ire nesmani,
 indarra etortze
 zaldi zurigari;
 animali ere,
 urriqui xait neri,
 jalla du ugari,
 egelco guzi,
 carter, paxari, eguina
 dala diruri.

Seicero liar diyo
 eraso lanari,
 ciguino beldu arte
 eri dasuari;
 berri or etate
 lici or danari,
 nab arben dize xiercu
 ezurac ugari;
 ez nari etancliaz ari
 eta Testimoniari,
 zaldi gashucari,
 mayara jant
 eman xac

zayo esquisiturasen
 ichura arlurri,
 dina jan erac daca
 orta galdurri;
 nola ez du eyonge
 oso argaldurri,
 iniquitzen badute
 ustolan baraurri:
 zaldiga erri ni,
 ez del esparreri,
 eer iculteri,
 ezurac besteri,
 ez du beritrat izungo
 edel golpuri.

Sana sobra du bacia
 janurija fulta,
 urriyugurija du
 dacurren pilantia;
 gashucari or lozque
 lurrac agucaria,
 flaquiyarquin erri
 maguitu du uncu;
 jentisu gashu jan ta,
 calian girna,
 gairqui lici dala,
 indurri ez daca,
 erri carriatu du
 curu bat eraca.

Mandubau or bilopie
 zaldiri arguitu,
 dularri erri ana
 jena xarfitu;
 biyote gogorrena
 lozque erpitu,
 ez du xurtxora derra
 gashucari achitu;
 pausua maguitu,
 erri da maguitu,
 guciyomaz dila,
 xagu esjuriu,
 bestela lurrerri
 erri gashucari sequitu

Guzurajunt darrac
 jona ar xarute
 baldin biyote ligetnac
 baditurite;
 erri van egucaria
 eta erri arte
 sorbitaba equin du
 erriyan bastante;
 igunde ta aste,
 jayurquin naste,
 maguina bat urte,
 jate dirquitute,
 orain orretorna
 erri luyte.

ZALDI BATEN BIZITZA.

Orra sei berso cale
Garbitzalleari,
Ceña bere icenez
Dan José Mari:
Erreza lezazquique
Iru Ave Mari,
Indarra etortzeco
Zaldi zuriari,
Animali ori
Urriqui zait neri,
Falta du ugari
Egoteco guri,
Cartoyaquiñ eguiña
Dala diruri.

Goizero bear diyo,
Eraso lanari,
Ciquiñac bildu arte
Erri danari:
Berriz ere obeto
Bizi ez danari,
Nabarbenduco zaizca
Ezurrac ugari:
Ez naiz chanchaz ari
Eta Joshé Mari,
Zaldi gaisoari,
Nai aña janari
Eman zayozu, ea
Jartzen dan lodi.

Dago esqueletuen
Ichurac arturic;
¡Diña jan ezac dauca
Orrela galduric!
¡Nola ez da egongo
Oso argalduric,
Iruquitzen badute
Ascotan barauric?
Zaldi orri nie
Ez det esperoric
Ecer icusteric
Ezurrac besteric,
Ez du beintzat izango
Odol golperic.

Lana sobra du bañan
Janaria falta,
Urriquigarria da
Decarren planta:
Gaisoac ez lezaque
Luzaro aguanta,
Flequiarequin ecin
Muguitu du anca,
Pentsu guchi jan ta
Calean giraca,

Gaizqui bici da ta
Indarric ez daca,
Ecin carriatu du
Carro bat caca.

Munduan ez liteque
Zaldiric arquite,
Duenic orrec aña
Pena sufritu:
Biotzic gogorrena,
Lezaque cupitu,
Ez du zartzera charra
Gaisoac achitu,
Pausua naguitu,
Ecin da muguitu,
Zaldi orrec ditu
Zazpi espiritu,
Bestela bjeirican
Ecin guelditu.

Guisagaisoaz danac
Pena artzazute,
Baldin biotz biguiñac
Badituzute:
Asi zan egunetic
Eta orain arte,
Serbitzuba eguin du
Errian bastante,
Igande ta aste
Jayarequin naste
Maquiñabat urte
Pasa dizquitute:
Orain erretirua
Mereci luque.

ZALDIAREN ERIOITZA.

Indarra cecan arte
Ciquiña carrayo,
Eraguiten cioten
Maquiñabat zayo:
¡Bañan mñiez jarri da!
¡Indarra juan zayo!
¡Nequearen pagua
Balaz eman zayo!

OBIZDEA.

Azquenac emen daude
Zaldi argal baten,
Ceñac ez zuen iñoiz
Pentzu on bat jatez.
¡Guelditu zaizcan mami
Puzcac eramaten,
Beliac lan ascoric
Apenas daucaten.
R I. P. Amen.

KONTZezIRENTZAT

- 1/ Kantatutzera indar aundiko
desio batek narama,
Kontzezi, zuri nai dizut eman
mereziya dezun fama;
gure probintzi Gipuzkoakoan
igualik gabeko dama,
berinkatuba izan derilla
zu egin zinduben ama.

- 2/ Zerorrek uste etzenubela
egon nitzaizun begira,
lenbizikuan oñetara ta
urrena berriz gerrira;
oñak dituzu txiki politak,
gustagarriyak txit dira,
gerriyan berriz eman litzazke
kana bat zintak bi jira.

- 3/ Andik urrena ipiñi nizun
erreparua petxura,
ordubantxen bai eman nizula
aingeru baten itxura;
Jainkoak berak deitu izan balit
iyo nerilla zerura,
zure ondotik ara juan biarrak
emango ziran tristura.

- 4/ Ondoren jarri nitzan denboran
begiratubaz lepora,
biyotzak salto egiten ziran
irten nayian kanpora;
irten ta zuzen, badakit zierto,
juango zan zure kolkora,
nik jakitera nai zenubela
utziko niyon gustora.
- 5/ Atentziyua begiyetara
paratu nizun segiran,
ez dakit zierto begiyak ero
eguzki berri bi ziran;
ondo ikusi ez nizkitzun ta
nola esango det zer diran?
Begiratutzen nizun guziyan
bista kendutzen zeniran.
- 6/ Ille beltz eder dizdizariya
oparo dezu buruban,
konparatzeko baliyo duben
sedarik ez da munduban;
trentzak egiñik zenekan dana
erregiñ baten moduban,
diamantezko koro eder bat
falta zitzaizun orduban.
- 7/ Ointxo politak, gerriya mia,
graziya milla petxuban,
lepo biribill diruriyena
egin berriya tornuban;
pare gabeko begi argiyak,
ille ederra buruban,
zu baño aingeru politagorik
ez da izango zeruban.

8/ Beti ariko naiz Jaunari eskaka
 ondo izan zaitezela,
 etzazula uste nere biziyan
 zutzaz aztuko naizela;
 eskumuñak maiz bigal nazkitzu
 orain artian bezela,
 ainbeste egin biar dirazu,
 penaz ilko naiz bestela.

* * *

Jose Manterolak, bere *Cancionero Vasco*-n bertso auek argitaratu zituanean, onela esaten zuan aurretik:

“*Cuéntase esta composición entre las más conocidas del simpático y desgraciado Vilinch.*

Escrita el año 1858 obtuvo diversas reimpressiones y alcanzó bien pronto gran celebridad, y puesta en música por el maestro J. J. Santesteban é incluida en su Colección de aires vascongados ha llegado á hacerse verdaderamente popular en Guipúzcoa”,

Lerro oiek 1878-an idatzi zituan Manterolak, eta ordurako ala zegoan bertso-sail au: bein baiño geiagotan argitaratua eta Gipuzkoan oso zabaldua.

Baiña, idatzi zuan urteaz, zertxobait esan bearrean gaude. Gaur Chicago-ko *New Library*-n dagoan Bonaparteren bildumako bertso-paper batek, izan ere, beeko ertzean moldiztegiaren izena eta urtea ditu: “*Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegiuan. - 1857*”. Manterolak uste zuan baiño urte betez zaarragoak dira, beraz, bertso auek.

Beste argitaraldi bat, guk arkitu ditugunetan, andik bi urtera egin zan. Au ere bertso-papera da: “*Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegiuan. - 1859*”.

Parisko Liburutegi Nazionalean dago.

Beste bertso-paper bat ere agertu da Bilintxen paperetan, eta aren denborakoa izango da, seguru aski. Zoritxarrez, urterik ez du esaten; baiña moldiztegiaren izena bai: “*Donostian: Osés-en moldiztegiuan*”.

Bertso-paper onek onela dio irugarren bertsoaren bostgarren lerroan: *Jaungoicoak deitu izan balit*; aurreko oiek, berriz: *Jaungoicoak berac deitu izan balit*. Batean motz eta bestean luze, beraz. Orregatik, eta ala bear dualakoan, *Jainkoak berac deitu izan balit* idatzi degu guk.

Ortaz gaiñera, aurreko bi paper oiek onela diote: *desio, mereziya, berinkatuba, lenbizikuan, nerilla* eta abar. Bilintxen paperetan arkitutako beste bertso-paper orrek, berriz: *deseo, merezia, bedeinkatua, lenbizikoan, nedilla* eta abar. Emen ere eskuren bat aritu da, beraz, Bilintxen euskera gramatikatzen; donostiar fonetismoak kentzen, alegia. Baiña, leen ere ikusi degunez, Bilintzek donostiar izkera erabiltzen zuan; eta bere idazkera ori errespetatu egin bear zaiola pentsatzen degu.

Beste aldaketarik ez dute beren artean bertso-paper oiek; ezta ere beste argitaraldi guziak. Orregatik, izendatu bakarrik egingo ditugu.

* * *

Santestebanen *Colección de Aires Vascongados*. Onek doiñua ere bada-
kar, eta kanturako eta pianorako gaiñe-
ra.

Leen esan bezela, Manterolak ere argitaratu zuan bertso-sail au bere *Cancionero Vasco-n: Segunda serie, Tomo II, Mayo de 1878*.

Bertso-papera, "*Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*", Gregorio Mujika za-
naren bilduman.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jertrudis Arrieta zana, Erre-
nteri.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Anjel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiartzun.

Bertso-papera, "*Oñate: Imp. de M. Raldua*", Zezilio Agirre, Ea.

Bertso-papera, "*Tip. Iriondo y*

Cía.", Joakin Ganborena Zabala, Erre-
nteri.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Garro baserria, Getaria. Zortzi bertso auen segiran, *Juramentuba* ize-
na dutenak.

"*Poesía Euskara, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896*".

"*Bilintx, Neurtitzak eta Neurri ga-
beko itzak, 1911, Donostia'n, Martín,
Mena y C.*"ren etxean, *Euskal-
-Esnalea*-k argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga, Erre-
nteri, leenengo zenbakian, 1931-
IX-20-an.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irar-
kolan, 1932 urte inguruan.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo II, Makazaga, Erre-
nteri.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo III, Makazaga, Erre-
nteri.

Milla olerki eder, 1954, Aita Onaindia, Amorebieta-Larrea.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Euskal Kantak, Bilbao, 1960.

Auspoa 12,1962.

CONTZECIRENTZAT.

Andantino.

PIANO.

The piano introduction is in 3/4 time, marked 'Andantino' and 'PIANO'. It features a treble and bass clef. The treble clef has a melody starting with a quarter note G4, followed by eighth notes A4 and B4, then a quarter note C5. The bass clef provides a harmonic accompaniment with chords and single notes.

1ª y 2ª Voz.

Canta - tu - zera indar -

The first system of the vocal score shows the vocal line and piano accompaniment. The vocal line is in a soprano or alto register, with lyrics 'Canta - tu - zera indar -'. The piano accompaniment is in the same key and time signature, with dynamics markings 'ss' and 'p'.

_aun - dico desi - o bañec na - ra - ma Contze -

The second system of the vocal score continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line has lyrics '_aun - dico desi - o bañec na - ra - ma Contze -'. The piano accompaniment continues with similar harmonic support.

ci Zuri - nai - di - zut eman mere - ci - ya de - zun fa -

The first system of the musical score consists of a vocal line on a single staff and a piano accompaniment on two staves (treble and bass clef). The vocal line begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The lyrics are: "ci Zuri - nai - di - zut eman mere - ci - ya de - zun fa -". The piano accompaniment features a steady bass line and chords in the right hand.

-ma Gu - re Pro - vintzi Gui - puzcoa - cu - an Ygua -

The second system continues the musical score. The vocal line has the lyrics: "-ma Gu - re Pro - vintzi Gui - puzcoa - cu - an Ygua -". The piano accompaniment continues with similar harmonic support, including some dynamic markings like *mf* and *f*.

-lic gabe - co - da - ma Berin ca - tuba i - zan de -

The third system of the score has the lyrics: "-lic gabe - co - da - ma Berin ca - tuba i - zan de -". The vocal line includes a fermata over the word "Berin". The piano accompaniment features a more active bass line and chords in the right hand.

-di - lla zu e - guin - cindu - ben a - ma.

The fourth and final system on this page has the lyrics: "-di - lla zu e - guin - cindu - ben a - ma." The vocal line ends with a double bar line. The piano accompaniment concludes with a final chord and a double bar line. Dynamic markings like *ss* are present.

Joxepa Oiarbide, Ibarre, Ugaldetxo:

A musical score consisting of four staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/8 time signature. The music is written in a single melodic line with various note values including eighth and sixteenth notes, and rests. The piece concludes with a double bar line.

Patxi Larrañaga, Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi dana:

A musical score consisting of four staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/8 time signature. The music is written in a single melodic line with various note values including eighth and sixteenth notes, and rests. The piece concludes with a double bar line.

Maria Oiartzabal zana. Lorentziona, I



CONTZECIRENTZAT.

Cantatutzero indar andico
 Deseo batec narama,
 Contzeci zuri nai dizut eman
 Merecia dezun fama:
 Gure Prvintzi Guipuzcoacoan
 Iguatic gabeco dama,
 Bedeincatua izan dedilla
 Zu eguin zinduen ama.

Cerorrec uste ez zenuela
 Egon nitzaizun beguira,
 Lembicicoan oñetara ta
 Urrena berriz guerrira:
 Oñac ditazu quiqui politac
 Gustagarriac chit dira,
 Guerrian berriz eman litzazque
 Cana bat cintac bi gira.

Andic urrena ipiñi nizin
 Erreparua pechura,
 Orduanchen bai eman nizula
 Aingueru baten ichura:
 Jaungoicoac deitu izan balit
 Igo nedilla Cerura,
 Zure ondotic ara joan bearrac
 Emango zidan tristura.

Ondoren jarri nitzan demoran
 Beguiratuac lepora,
 Biotzac salto eguten zidan
 Irten nayeen campora:
 Irten ta zucen baaquit cierto
 Joango zan zure colcora,
 Nic jaquitera nai zenuela
 Ulzico nion gustora.

Atencioa beguitera
 Paratu nizin seguidan,
 Ez daquit cierto beguiac edo
 Eguzqui berri bi ciran:
 Ondo icusi ez nizquizen ta
 Nola esango det cer diran,
 Beguiratutzen nizin gucian
 Vista quendutzen ceniran.

Ille beltz eder diztzaria
 Oparu dezu buruan,
 Comparatzeco balio duen
 Sedaric ez da munduan:
 Trentzac eguñic cenecan dana
 Erreguñi baten moduan,
 Diamantzeco coro oder bat
 Falta zitzaizun orduan.

Oircho politac, guerrira mea,
 Gracia milla pechuan,
 Lepo biribill dirudiena
 Eguin berria tornuan:
 Pare gabeco begui arguiac,
 Ille ederra buruan,
 Zu baño aingueru politagoric
 Ez da izango Ceruan.

Beti arico naiz Jaunari escaca
 Ondo izan zaitecela,
 Ez zazula uste nere bician
 Zutaz aztueo naicela:
 Escumufiac maiz bigal nazquizen
 Orain artean becela,
 Ambeste eguin bear dirazu
 Penaz ilco naiz bestela.

(VILINCUL.)

POZEZ TA BILDURRAK

1/ Dama gazte polit bat
bada Donostiyan,
berdiñik ez dubena
zeruban azpiyan;
biyotza mugitzen zait
modu txit eztiyan,
nere pentsamentura
datorren guztiyan.

2/ Graziyazko aingeru
adoragarriya,
Jaunaren ondotikan
egan etorriya,
zerubak egintako
milagro berriya,
gloriyaz bete dezan
Donostiko erriya!

3/ Arpegiya zeñek du
arrek bezin fiña?
Eta zeñek gorputza
aĩn ondo egiña?
Ibilleran ere da
guztizko ariña,
euskerak ez du itzik
famatzeko diña!

- 4/ Naiz plazara juan bedi,
naiz juan iturrira,
nork ez du arreta jartzen
aren ibillira?
Bat bañan geiago're
gelditutzen dira,
ezkututzen dan arte
berari begira.
- 5/ Bere jatorrez duben
patxara fiñian,
biria pasatzen du
pauso ariñian;
lurrik ez du zanpatzen
txoriyak añian,
txutik juango litzake
uraren gañian.
- 6/ Orrenbeste graziya
dituben meriyo,
arentzako gordia
zenbat amoriyo
biyotzian dakatan
nork kontatu diyo?
Kalian ikusita
esan dit ariyo!
- 7/ Berriz ikusitzeko
egingo det modu,
juango diran baño len
ogei ta lau ordu;
ariyo esaten badit
laister entzungo du:
“Nere arratseroko
ametsa, zer modu?”

- 8/ “Ongi nai ta eziñ izan”
esango dit anbat;
nik erantzungo diyot:
“Noski besteren bat
izango da, sufritzen
dubena zuk ainbat...”
“Zein da, bada? Esazu!”
“Zu nai zinduzken bat!”
- 9/ “Burlaz esaten dezu!
Nork naiko nau ni? Nork?
Aberatsa ez danik
ez du maite iñork”.
Baña nik ordubantxen
erantzungo diyot:
“Zoragarriya, naizu
maita gaiten biyok?”
- 10/ Baietz esaten baldiñ
badit erdi farrez,
erotu egingo naiz
pozaren indarrez;
ezetz entzuten badet
nere suerte txarrez,
itz orrek utziko nau
betiko negarrez!

* * *

Sail onen argitaraldirik zaarrena, guk ezagutzen ditugunetan, “*Donostian: Pio Baroja-ren moldizteguian, 1862-garren urtean*” argitaratutako bertso-paper bat da.

Bertsoen azpian, beeko ertzean, egillea nor dan onela adierazten da: *Vilinch*. Ogei ta amaika urte zituan onek orduan.

Bertso-paper ori Bilintxen papere-

tan ere azaldu da; Larramendiren iztegi baten barruan salbatu ziran oietan, alegia.

Baita Parisko Liburutegi Nazionalen eta Chicagoko *New Library*-n ere.

Bertso-paper onek leenengo bertsoaren laugarren lerroa onela du: *cerubaen azpiyan*; guk *zeruban azpiyan* idatzi degu.

Donostiko Jose Manterolak ere ba-

ditu bertso auk bere bilduman, baiña eskuz idatzita. Pio Barojaren moldiztegia aitatzten du; baita 1862 urtea ere. Nunbaitetik eskuratu zuan, beraz, bertso-paper ori, eta artatik kopiatuko zituau.

F. de Furundarena musikalariai doñua jarri zien bertso auei; eta biak, doñua eta bertsoak alegia, Etxeberria eta Gimón-en *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman argitaratu ziran, 11-garren zenbakian. Oar batean onela adierazten da: "*Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor*". Ori, noski, doñuagatik esaten da; ez bertsoengatik. Doñu ori bertsoen atzetik eskeintzen degu.

* * *

Sail onen beste argitaraldi batzuk:

Bertso-papera, "*Donostian: J. Baroja eta seme-en moldiztegiuan*" Donostiko Joakin Muñoz-Baroja zanaren eskutik jaso.

Bilintx, Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Martín, Mena y C.^aren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Onak eta onen ondorengo argitaraldi guziak izenburua onela aldatzen dute: *Pozez ta bildurrez*. Orixe bera gertatzen da beste aldaketa batekin. Bostgarren bertsoaren leenengo lerroa beste era ontan idazten dute: *Bere jatorriz duben*. Au ere *Euskal-Esnalea*-ren argitaraldi orrek aldatu zuan, *jato-*

rrez moldiztegiaren utsegiteren bat zalakoan-edo. Baiña ez da ori orrela. Bilintxek bein baiño geiagotan esaten du *jatorrez*. Baiña *Euskal-Esnalea*-ri kopiatu diote geroztikako argitaraldi guziak. Orregatik, ez degu aldaketa oien berri emango.

Periodiko-punta bat, Tolosako Antonino Lakuntza zanaren eskutik. Baiña ez dakigu zein periodiko dan; ezta zein egunetakoa dan ere.

Bertsolariya astekaria, Makazaga, Erreterri, 1932-III-27.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga, Erreterri, 1932 urte inguruan.

Auspoa 12, 1962.

* * *

Tolosako Estanislao Urruzola *Uxola* zanaren kuaderno batean ere arkitu ditugu bertso auk.

Aldaketak: 1/7: argan pensamendua; 4/1: Naiz plazara joan edo; 4/2: berdin iturrira; 4/3: nork ez du erreparatzen; 4/5: Amaika baña geio; 4/6: gertatutzen dira.

Eta bostgarrena:

Gero eleizatikan
etxeratutzian,
txoriak bezelaxe
saltoka bidian,
kaliak pasatuaz
pauso ariñian;
xutik joango litzake
uraren gañian.

A mi amigo D. Julian Uria.

Pozet ta bildurrac.⁽¹⁾

Nº 11.

Zortzico.

Música de F. de Furundarena.

Poesia de Vilinch.

Moderato. *p con sentimento*

1. Dama gaz-te po-

lit bat ba-da Do-nos-ti - yan ber-di-ñic ez du - be - na

ce-ru baen az - pi - yan. Dama gazte po - lit bat ba-da Do-nos-ti-

yan ber-di-ñic ez du - be na ce-ru baen az - pi - yan.

Bi-yo-tza mu-gui - tzen zait mo-du chit ez - ti - yan ne-re pen-sa-men-

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

tu - - ra da - torren guz - ti - yan. Bi - yo - tza mu - gui - tzen zait

mo - duchit ez - ti - yan ne - re pensa - men - tu - ra da - to - rren guz - ti - yan.

2.

Graciyazco aingueru
adoragarriya,
Jaunaren ondotican
egun etorriya:
cerubac eguintaco
milagro berriya
¡gloriyaz bete dezan
Donostico erriya!

3.

¿Arpeguiya ceñec du
arrec becin fiña?
eta ¿ceñec gorputza
aiñ ongui eguiña?
ibilleran ere da
guztizco arña,
euskerac ez du itzic
famatzeco diña!

4.

Naiz plazara juan bedi
naiz juan iturrira
¡nore ez du arreta jartzen
arren ibillira?
bat bañan gueyagore
guelditutzen dira
ezcutatzen dan arte
berari beguira.

5.

Bere jatorrez duben
pachara fiñian
biria pasatzen du
pauso arñian:
lurric ez du zampatzen
choriyac añian
chutic juango litzaque
uraren gañian.

6.

Orrembeste graciya
dituben meriyo
arentzaco gordia
cembat amoriyo
biyotzian dacatan
¿nore contatu diyo?
calian icusita
esan dit ¿ariyo?

7.

Berriz icusitzeco
eguingo det modu,
juango diran baño len
oguei ta lau ordu:
¿ariyo? esaten badit
laister entzungo du:
¿nere arratseroco
ametsa, cer modu?

8.

Ongui nai ta eciñ izan,
esango dit ambat;
nic erantzungo diyot:
nosqui besterembat
izango da sufritzen
dubena zuc aibat...
¡cein da bada? esazu?
¡zu nai cinduzquen bat!!

9.

Burlaz esaten dezu,
¡nore naico nau ni? ¿norc?
aberatsa ez danic
ez du maite iñorc:
baña nic ordubanchen
erantzungo diyot:
¡zoragarriya, naizu
maita gaiten biyoc?

10.

Buyetz esaten baldiñ
badit erdi farrez,
erota eguingo naiz
pozaren indarrez:
ezetz entzuten badet
nere suerte charrez,
¡itz orrec utzico nau
betico negarrez!!

Maria Oiarzabal zana, Lorentziona, Donosti:



POZEZ TA BILDURRAC.

Dama gazte polit bat
bada Donostian
berdiñic ez dubena
cerubaen azpiyan :
biyotza muguitzen zait
modu chit eztiyan
nere pensamentura
datorren guztiyan.

Graciyazco ainguern
adoragarriya ,
Jaunaren ondotican
egan etorriya :
cerubac eguintaco
milagro berriya
; gloriyaz bete dezan
Donostico erriya !

¿ Arpeguiya ceñec du
arrec becin fiña ?
eta ; ceñec gorputza
añ ongui eguiña ?
ibilleran ere da
guztizco ariña ,
eusquerac ez du itzic
famatzeco diña !

Naiz plazara juan bedi
naiz juan iturrira
; norc ez du arreta jartzen
aren ibillira ?
bat bañan gueyagore
guelditutzen dira
ezcutatzen dan arte
berari beguira.

Bere jatorrez duben
pachara fiñian
biria pasatzen du
pauso ariñian :
lurric ez du zampatzen
choriyac añian
chutic juango litzaque
uraren gañian.

Orrembeste graciaya
dituben meriyo
arentzaco gordia
cembat amoriyo
biyotzian dacatan
; norc contatu diyo !
calian icusita
esan dit ; ariyo ?

Berriz icusitzeco
eguingo det modu ,
juango diran baño len
oguei ta lau ordu :
; ariyo ? esaten badit
laister entzungo du :
; nere arratseroco
ametsa , cer modu ?

Ongui nai ta eciñ izan ,
esango dit ambat ;
nic erantzungo diyot :
nosqui besterembat
izango da sufritzen
dubena zuc aimbat...
; cein da bada ? esazu ?
; zu nai cinduzquen bat !!

Burlaz esaten dezu ,
; norc naico nau ni ? ; norc ?
aberatsa ez danic
ez du maite iñorc :
baña nic ordubanchen
erantzungo diyot :
; zoragarriya , naizu
maita gaiten biyoc?

Bayetz esaten baldiñ
badit erdi farrez ,
erotu eguingo naiz
pozaren indarrez :
ezetz entzuten badet
nere suerte charrez ,
; itz orrec utzico nau
betico negarrez !!

VILINCH.

Donostian : Pio Baroja-ren moldiztegiuan.—1862 garren urtian.

POZEZ TA BILDURRAC.

Dama gazte polit bat
bada Donostian
berdiñic ez dubena
cerubaen azpiyan:
biyotza muguitzen zait
modu ohit eztiyan
nere pensamentura
datorren guztiyan.

Graciyazco aingueru
adoragarriya,
Jaunaren ondotican
egan etorriya:
cerubac eguintaco
milagro berriya
¡gloriyaz bete dezan
Donostico erriya!

¡Arpeguiya ceñec du
arrec becin fiñia?
eta ¿ceñec gorputza
añi ongui eguiña?
ibilleran cre da
guztizco arriña,
eusquerac ez du itzie
lamatzeco diña!

Naiz plazara juan bedi
naiz juan iturrira
¡norc ez du arreta jartzen
aren ibillira?
bat bañan gueyagore
guelditutzen dira
ezcutatzen dan arte
berari beguira.

Bere jatorrez duben
pachara fiñian
biria pasatzen du
pauzo ariñian:
lurric ez du zampatzen
choriyac añian
chutic juango litzaque
uraren gañian.

Orrembeste graciaya
dituben meriyo
arentzaco gordia
cembat amoriyo
biyotziñ dacatan
¡norc contactu diyo?
calian icusita
esan dit ¿ariyo?

Bayetz esaten baldiñ
badit erdi farrez,
erotu eguingo naiz
pozaren indarrez:
ezetz entzuten badet
nere suerte charrez,
¡itz orrec utzico nau
betico negarrez!

Berriz icusitzeco
eguingo det modu,
juango diran baño len
ogueti ta lau ordu:
¿ariyo? esaten badit
laister entzungo du:
¿nere arratseroco
ametsa, cer modu?

Ongui nai ta eciñi izan,
esango dit ambat;
nic erantzungo diyot:
nosqui besterembat
izango da sufritzen
dubena zuc aimbat...
¡cein da bada? esazu?
¡zu nai cinduzquen bat!!

Burlaz esaten dezu,
¡norc naico nau ni? ¿norc?
aberatsa ez danic
ez du maite iñorc:
baña nic ordubanchen
erantzungo diyot:
¡zoragarriya, naizu
maita gaiten biyoc?

VILINCH.

Donostian: Osés-en moldizteguián.—1888 garren urtian.

JURAMENTUBA

- 1/ Begi urdiñak dituzu eta
arpegi zuri-gorriya,
nere biyotzak maite zaituben
aingeru zoragarriya;
zumia beziñ biguña eta
mia da zure gerriya,
estutu bage artu liteke
bi eskubakin neurriya.

- 2/ Lengo batian, izar berriya,
ongi fortuna nerian,
maite ninduzun galdetu eta
baietz erantzun zeniran;
pozakiñ iya zoraturikan
aditu eta segiran,
beso eskuia estutu nuben
zure gerriyaren jiran.

- 3/ Neri begira gelditu ziñan
buruba triste etzanaz,
ni ere zuri begira negon
“Maite neria!” esanaz;
luzaro ala egondu giñan
suspiriyuak emanaz,
biyok elkarren begiyetatik
amoriyua cranaz.

- 4/ Ongi penakin askaturikan
zure gerritik besua,
ez zait aztuko nola esan nizun:
“Nere maitetxo gozua!
Zorionaren ekartzallia,
izar amoriosua,
zu adoratzen igaroko det
nere bizitza osua!
- 5/ Maite nazula len esan dezu,
berriz esan zazu arren!
Ez naiz entzutez gogobeteko
milla bider esan arren;
nun ta zerubak erabakiya
beste moduz ez dakarren,
denbora gutxi barrun gu biyok
izango gera elkarren”.
- 6/ Imajiña bat zillarrezkua
kordoi batekin lotuba
begiz aurrian jarri zeniran
kolkotik ateratuba,
zeñetan zegon gurutzeturik
Jaunaren Seme santuba:
“Onen aurrian -esan zeniran-
egizu juramentuba!”
- 7/ Faltsiyarikan ez zeguela
nere biyotz samurrian,
proga emango nizun eguna
arkitzen zala urrian,
begiratuba imajiñan ta
belaun eskuia lurrian,
juramentuba eskeñi nizun
Jaungoikoaren aurrian.

8/ “Fintasunakiñ kunplituko det,
ez da zer egon zalantzez,
denborarikan igaro gabe
gogo txarrezko balantzez;
erakutsitzen baldin badizut
faltsiyarikan mudantzez,
nere biyotza bete dezala
damutasunak arantzez”.

* * *

Bertso auk Jose Manterolak argitaratu zituan, bere *Cancionero Vasco-n: Primera serie, Tomo I, Noviembre de 1877*.

Aurretik argibide jakingarri au ematen du:

“No debo terminar estas líneas sin hacer presente que habiendo tenido ocasión de examinar los papeles que á la muerte de Vilinch se encontraron por su Viuda, he visto, entre otros, copiados de puño y letra de este desgraciado poeta, los originales de la poesía Juramentuba.

Y como quiera que en ellos existen diversas variantes de la composición tal cual se publicó allá hacia 1862, he creído deber anotar al pié todas las diferencias que he encontrado en las cuartillas del autor, por más que el estudio hecho de uno y otro texto me inclina á creer que las cuartillas halladas son las primitivas de Vilinch, que debió aumentar y corregir al tratar de dar su composición á la prensa”.

Etzituan, beraz, Manterolak bertso auk Bilintxen esku-idatzietatik kopiatu, naiz eta auk esku artean eduki. Ori zergatik egin zuan errez somatu ditek. Batetik, sail onek zortzi bertso ditu; eta esku-idatzi orrek, guk ere ikusi

degunez, zazpi. Bostgarrena falta. Bestetik, berriz, bertsoak obeto daude argitaratu ziran bezela, esku-idatzietan baiño.

Leenago ere esan degunez, Bilintxek, etxean idatzita zeuzkan bertsoak, inprentara baiño leen, berriro aztertu eta an eta emen aldatu egiten zituan. Ondoren, paper garbira pasa. Paper berri ori izango zan moldiztegira joan zana, eta an gelditu.

Dударик gabe, Manterolak ezagutu zuan 1862-ko argitaraldi ori, eta berari kopiatuko zizkion bertsoak, bere *Cancionero Vasco-n* argitaratzeko.

Bere bilduman ere jaso zituan Manterolak bertso auk, eskuz idatzita. Baiña zalantzak izan zituan kopiatzerakoan, bigarren bertsoaren zazpigarren lerroan. Leenengo, *ustaitu* idatzi zuan. Urrena, ori tatxatu eta *estutu* ipiñi. Azkenik, ori ere kendu eta berriz ere *ustaitu* ezarri. Baiña bere *Cancionero Vasco-n estutu* idatzi zuan.

Baiña 1862-ko bertso-paper ori nun ote da orain? Bilintxen paperetan bertso auen argitaraldi zaar bat agertu da, eta bearbada bera izango da. Zoritxarrez, urterik ez du esaten; moldiztegiaren izena bai: *“San Sebastian: Imp. de*

Osés". Onek bertsoak Manterolak bezela ditu.

Guk ere Manterolak eta Osés etxean argitaratutako bertso-paper orrek dituzten bezela idatziko ditugu emen bertsoak. Baiña esku-idatzietako alda-
ketak ez dute izkutatzerik merezi. Onako aukerak dira.

Leen esan bezela, aldaketarik aundiena bostgarren bertsoa faltatzea da. Gaiñontzekoak, Bilintxek idatzitako ortografiaz: 3/2: buruba nigan etsanaz; 3/7: biyoc alcarren beguiyetic; 4/1: oraindic ere zure guerriyan; 4/2: ala necala besua; 4/5: begui ederrak dituzu eta; 4/6: biyotz amoriyosua; 4/7: zu adoratzen pasatuco det; 6/2: berezco catez lotuba; 6/5: ceñetan cegon gurutzaturic; 7/5: escui escuba biyotzian ta; 7/6: belaunac biyac lurrian; 7/7: juramentuba nic eguiñ nizun; 8/2: baceundeque confiantzez; 8/3: bire orretan ez det emango; 8/4: pauso bat ere balantzez.

* * *

Bertso aukerak ere askotan argitaratu dira, eta beti edo geienetan Manterolak dituan bezelaxe; oso aldaketa gutxirekin, alegia. Aitatzetik merezi duanik ez, beintzat. Ona emen gure eskue-taraño iritxi diran argitaraldiak.

Bertso-paperak, "*Donostian: Pio Baroja-ren moldizteguiak*", Parisen, Liburutegi Nazionalean.

Bertso-paperak, "*Irun'en - Valverde-ren alargunaren etxean - 1909*", Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Bertso-paperak, "*Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*", Manuel Urreta zana, Tolosa.

Bertso-paperak, "*Imprenta, Librería y Encuadernación de Goitia y Compañía - Guernica*", Inazio Zabala. Olazabal-berri, Altzo.

Bertso-paperak, "*Imprenta y Librería de Elosu - Durango*", Bodleyan Library, Oxford. Aurretik Aita Meagher-ek ardoari jarritako bertsoak ditu; ondoren, Bilintxen *Juramentuba*.

Bertso-paperak, moldiztegi-izenik gabea, Garro baserria, Getaria. Aurretik *Kontzesi* edo *Kontzeizentzat* bertsoak, eta ondoren *Juramentuba*; baiña batere etenik gabe, sail bakar-ra balitz bezela alegia.

Etxeberría eta Gimón-ek ere argitaratu eman zituzten bertso aukerak, beren *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman, Kandido Buenaetxearen doiñuarekin. Doiñu ori ondoren eskeiñiko degu.

Bertso-paperak, "*Imprenta Económica*", Migel Yarza, Arjel baserria, Altza.

Poesía Euskara, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896.

Bilintx, Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Martín, Mena y C.^aren etxean, Euskal-Esnalea-k argitaratu arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga, Erreterri, 1931-X-4.

Auspoa 12, 1962.

Juramentuba.⁽¹⁾

Nº 10.

Aire vascongado.

Música de Cándido Buenechea.

Poesía de Vilinch.

1. Begui ur-diñac di-tu-zu

e-ta, arpe-gui zu-ri-go-ri-ya, nere bi-yotzac mai-te-zai-tu-ben aingue-

ru-zo-ra-ga-ri-ya; Begui ya; Zu-mi-a be-ciñ bi-gu-ña

e-ta mi-a dá zu-re-gue-ri-ya, es-tu-tu bague ar-tu-li-

un poco rit. *f a tempo*

un poco rit. *f a tempo*

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

2.

Lengo batian, izár berriya,
ongui fortuna nerian,
maite ninduzun galdetu eta
bayetz eranzun ceniran;
pozaquin iya zoraturican
aditu eta seguiran,
beso escuya estutu nuben
zure guerriyaren giran.

3.

Neri beguira guelditu ciñan
buruba triste etzanaz,
ni ere zuri beguira negon,
„¡maite nería!“ esanáz;
luzaro ala egondu guiñan
suspiriyuac emanaz,
biyoc elcarren beguiyetatic
amoriyua eranaz.

4.

Ondo penaquin ascaturican
zure guerritic besua,
ez zait aztuco nola ezan nizun:
„¡nere maitecho gozua!
„zorionaren ecartzallia,
„izar amoriosua,
„zu adoratzen igaroco det
„nere bicitza osua!“

5.

„Maite nazula len esan dezu,
„berriz esan zazu arren!
„ez naiz entzutez gogobeteco
„milla bider esan arren:
„nun ta cerubac erabaquiya
„beste moduz ez dacarren,
„dembora guchi barrun gu biyoc
„izango guera elcarren.“

6.

Imagiña bat cillarrezcua
cordoi batequin lotuba,
beguz aurrian jarri ceniran
colocotic ateratuba,
ceñetan egon gurutzeturic
Jaunaren seme santuba:
„onen aurrian, — esan ceniran =
„eguizu juramentuba.“

7.

Faltziyarican ez cegüela
nere biyotz shamurrian,
proga emango nizun eguna
arquitzen zala urrian,
beguiratuba imagiñan ta
belaun escuya lurrian,
juramentuba esqueñi nizun
Jaungoicoaren aurrian.

8.

Fintasunaquiñ cumplituco det
ez da cer egon salantzez:
demorarican igaro gabe
gogo charrezco balantzez:
eracusitzen baldin badizut
falsiyarican mudantzez,
nere biyotza bete dezala
damutazunac arantzez.

LORIAK

- 1/ Beti nik damari
loriak ugari,
endemas pixka bat
maite naubenari;
damak berriz neri
-gezurra diruri!-
osiñez pagatu
lorezko zor ori.

- 2/ Oso nago mendian
jaungoiko itxubaren,
ama Venus-engandik
jaiotakoaren;
neroni ez naiz jabe
nere biyotzaren,
gaxua preso dakat
amoriyuaren.

- 3/ Sartutzen dan bezela
balkoi batetikan
eguzkiya gelara
kristaletatikan,
modu ortaraxe bein
igaro zitzaitan
biyotzera dama bat
begiyetatikan.

- 4/ Biyotz nerian preso
gelditu bire zan,
geratzen dan bezela
txingarra iyeskan;
obligatuba dago
egotera bertan,
nun-ta biyotz ta guzi
ateratzen ez dan.
- 5/ Ditu ille urrezko
albiñu luziak,
alakorik apaintzen
ez du orraziak;
frankotan inbiriya
eman dit aiziak,
aren trentza tartetik
jostatzen pasiak.
- 6/ Ondo konparatzia
da gauza eziña
arren begiyetako
urdintasun fiña;
ez da irrutira-re
aitatzeko diña
itxasoko bagaren
kolore urdiña.
- 7/ Ez da zer aitaturik
zeru zabala're,
bolaraz urdiñ-urdiñ
jarritzen dala're;
aingeru neriaren
begiyak alare
urdiñ purubagoko
zerubak dirare.

- 8/ Izarrak dirurite,
aiñ ditu argiyak,
aingerubak zerutik
jetxita jarriyak,
gloriyan egintako
ispillu garbiyak,
Jaungoikua badala
gogoragarriyak.
- 9/ Cupido-k eritzen nau
fletxakin berriro,
neregana jiratzen
dituben aldiro;
biyotzera sartzen zait
eztiro-eztiro
amoriyotasun bat
gozua guztiro.
- 10/ Aren ezpaiñ gorriyak
nere atsegintzat,
ondo merezi dute
famatzia fintzat;
zerbaitez apartetik
ikusita beintzat,
mundu guztiyak artzen
ditu kraelintzat.
- 11/ Farrik egiten badu
zerutar birjiñak,
erakusten dituben
ortza txiki fiñak,
txuriz elurrarekin
dirare berdiñak;
perlak iruri dute
zillarrez egiñak.

12/ Gozuaren birtutez
aren asnasiak
lo arazitzen ditu
nere oñaziak;
usai oberik ez du
banatzen aiziak,
loriak maitatubaz
baratzan pasiak.

13/ Lepo biribilla ta
gorputza liraña,
txikiz ez det esaten
oñaren tamaña;
ibiltzen airetsuba,
jantziyan apaña,
aren graziyak dira
eziñ esan aña.

* * *

Jose Manterolak, bertso auk bere *Cancionero Vasco*-n argitaratu zituan, argibide au jarri zuan aurretik:

“...*fué escrita en 1862, y vió la luz en las columnas del periódico local El Guipuzcoano, correspondiente al 24 de Julio del mismo año.*”

El Guipuzcoano ori ez dakigu orain nun egongo dan. Erabat galdua izatea ere ez litzake arritzekoa izango. Guk beintzat ez degu iñun arkitu. Eta pena artzekoa da. Izan ere, sail osoa eskuratu eta arretaz aztertu ezkeru, Manterolak bildu gabeko Bilintxen beste bertso-saillen bat edo beste bearbada azalduko litzake eta.

Manterolak, *El Guipuzcoano* ortatik artu eta bere bilduman idatzi zituan bertso oiek. Antxe ikusia degu kopia ori. Azpian, bertsoak nundik zituan adierazteko, onela idatzi zuan:

“*Esta composición vió la luz en el periódico El Guipuzcoano el 24 de Julio de 1862.*”

Bonaparteren bilduman ere antxe dago sail au, Chicago-ko *New Library*-n. Egunkari-puska bat da; baiña ez da esaten ez zein periodiko dan, eta ez zein egunetakoa ere. Bertsoak Manterolaren bilduman bezelaxe daude, ordea, eta izenburu berarekin gaiñera. Orregatik, baditeke *El Guipuzcoano* egunkaria izatea.

Bonaparteren bilduma ortan bertan, sail au bertso-paper batean ere badago. Paper orrek egillearen firma badu: *Vilinch*; baita moldiztegiaren izena eta urtea ere: “*Donostian: Pio Baroja-ren moldizteguian, 1862-garren urtian*”.

Bertso-paper onek Manterolaren bildumak eta Bonaparteren egunkari-puskak bezelaxe ditu bertso guziak.

Iru toki auetan, izenburuaren azpian eta bertsoen gaiñetik, erdal bertso au irakurtzen da:

*Tanta frase inútil y rodeo,
a mi corto entender, no es mas que ruido;
pero también a mí me entra deseo
de echarla de poeta, y el oído,
palabra tras palabra colocada,
con versos regalar “sin decir nada”.*

(El diablo mundo, poema de D. José Espronceda.)

Ezin esan erdal bertso ori Bilintzek berak ala besteren batek erantsia dan.

Bilintxen paperetan beste bertso-paper bat ere agertu da sail onekin. Urterik ez du esaten, baiña Bilintxen denborakoa izango da. Moldiztegiaren izena, berriz, onela du: *Imp. de Pozo y Comp.^a - Andía, 2 accesorio*”. Onek ere aurreko oiek bezelaxe ditu bertso guziak.

Etxeberrri eta Gimón-en *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman ere badator bertso-sail au, 19-garren zenbakian, bere doiñuarekin. Doiñua eta bertsoak zein zeñenak diran adierazteko, onela esaten da: “*Música de Felipe Gorriti.*

Poesía de Vilinch”. Bertsoak aldaketarik ez dute. Doiñua urrengo orrialdeetan eskeintzen diogu irakurlari.

* * *

Aurreneko bertsoak zerbait berezirik badu. Beste guziak zortziko txiki jatorrak dira; lerroak zazpi eta sei silabekin antolatzen diranak, alegia. Baiña leenengo orrek sei silabakoak ditu lerro guziak. Ori ala naita moldatu dala dudarik ez da. Baiña Bilintzek orrelakorik zergatik egin zuan, guri beintzat etzaigu burura etortzen.

* * *

Gizon ikasiak oraingo adierazpenaren bearririk ez dute noski. Baiña gure irakurleen artean erromatar mitologjiaren berri ez dutenak izango diralakoan, eta bat baiño geiago gaiñera, zerbait esan dezagun bigarren bertsoaz.

Garai bateko erromatarren jaungoiko bat aitatzen du or Bilintzek. Bederatzigarren bertsoan, berriz, izena ere esaten du: Cupido. Aur bat omen zan, itxua edo begiak estalita zituana. Fletxak edo azkonak tiratzen zituan; eta, ikusten ez baitzuan, nora etzekiala tira ere. Ala, edozein jo eta eritu zezateken aren azkonak, eta zauritutako ori maiteminduta geratzen zan. Beste gai-tzik etzuan.

Orregatik esaten du Bilintzek jaungoiko itxuaren mendean dagoala; eta ondoren, bederatzigarren bertsoan, Cupido-k fletxakin berriro eritu duala.

Cupido-ren ama Venus zan, jaun-
goiko emakumezkoa, amodioaren
sortzaillea. Ori bigarren bertsoak aita-
tzen du.

* * *

Bilintxen esku-idatzietan ere antxe
daude bertso auk; baiña onako alda-
keta auekin, beren ortografia zaarrean:

- 1/3: batez ere serbait;
- 3/5-7: neri guisa berera
beñ sartu citzaitan
dama bat biyotzera;
- 4/1-2: Biyotzera sartu ta
guelditu zan bertan;
- 4/5-8: bici naicen artian
iruquico det an,
eta ¡o! ser gustora
iruquico detan;
- 8/7-8: ayehec dira nere
buru galgariyac;
- 9/7: alacoshe gauza bat;
- 10/2-4: faman daude fiñtzat
iñoiz pasatzen dira
lore polit bitzat;
- 11/1-8: Ayen barrengo aldetic
ortza chiqui fiñac,
churiz elurrac ere
mentsutu eziñac;
errencara polit bi
aiñ ditu berdiñac,
nola izan baciran
moldian eguiñac.
- 12/1-5: Gaur arte sortutaco
usay on clasiac,
aspitic usten ditu

arren asnasiac;
obiagoric ez du;
13/1: Arpeguiya polita.

* * *

Manterolak, bere *Cancionero*
Vasco-n, oar jakingarri au egiten du
bertso auen aurretik:

“De la composición Loriaak he tenido el gusto de ver borradores originales del autor, que me han movido á aceptar algunos cambios de versos, introducidos por el mismo Vilinch, en época probablemente posterior á su publicación. El lector hallará señaladas todas estas variantes en las notas que acompaño al pié del texto.”

Baiña danak etzituan jarri esku-
-idatzietan dauden bezela. Berak esku
artean izan zuan bertso-paperean beze-
la utzi zituan: 4/1, 8/7-8, 11/1-8 eta
12/1-5.

Guk ere, *Auspoa*-ren 12-garrenean,
Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n
dauzkan bezela idatzi genituan bertso
auk. Obe bearrez egin genduala esan
bearrik ez dago noski. Baiña gure
oraingo iritzia auxe da: etxeko esku-
-idatziaren aldaketak ez dirala, Mante-
rolak dion bezela, bertso-papera argi-
taratu ondokoak, aurrekoak baizik.

* * *

Ara orain bertso auen argitaraldi
batzuk, eta bakoitzak dituan aldaketak,
guk eskeiñi degun erarekin konparatu-
ta.

Bertso-papera, "*Tolosan E. Lopez'en echean*", Erreteriko Joakin Ganborena Zabalaren eskutik. Aldaketak: 1/3: ta geigo pixka bat; 3/2: leio batetikan; 4/4: txingarra lastotan; 4/5: bearturikan nago; 6/1: Ondo berdindu; 6/5: ez da urrutira ere; 7/7: urdiñ berdingabeko; 10/4: goratzia pintzat; 10/5: zerbaitez urrutira; 12/1: Gozoren indarrez; 13/5: ibiltzen aizetsuba.

Euskal-Erria aldizkaria, 1906: Manterolaren *Cancionero Vasco*-n bezelaxe. Emendik aurrerako argitaraldiak ere Manterolak bezelaxe dauzkate bertsoak.

Bilintx / Neurtitzak eta neurri gabeko itzak / 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.^oren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Bertsolariya Makazaga, Errenderi, 23 zenb., 1932. II.21. Aurrekoa bezelaxe.

"*Bilintx'en bertsuak, Makazaga'ren irarkolan, Erretereri*". Aurrekoa bezelaxe.

"*Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo II, Makazaga, Renteria*". Aurrekoa bezelaxe.

Auspoa 12, 1962.

Recuerdo à mi amigo D. José M^a Echeverria.

Nº 19.

Loriac.⁽¹⁾

Zortzico.

Música de Felipe Gorriti.

Poesía de Vilinch.

Maestoso.

p legato

The piano introduction consists of two staves. The right hand features a series of chords and moving lines in a 3/4 time signature, while the left hand provides a steady accompaniment with chords and eighth notes.

p espressivo

I. Be - ti nic da - ma - ri lo - ri - ac - u - ga - ril en - demas pish - ca bat -

The first line of the song features a vocal melody with a piano accompaniment. The lyrics are: "I. Be - ti nic da - ma - ri lo - ri - ac - u - ga - ril en - demas pish - ca bat -". The piano part continues with a similar accompaniment style.

p

mai - te nau - be - na - ri, da - mac be - rriz ne - ri gue - zu - rra di - ru - ri! O

The second line of the song features a vocal melody with a piano accompaniment. The lyrics are: "mai - te nau - be - na - ri, da - mac be - rriz ne - ri gue - zu - rra di - ru - ri! O". The piano part continues with a similar accompaniment style.

si - ñes pa - ga - tu lo - res - co zor - o - ri.

The third line of the song features a vocal melody with a piano accompaniment. The lyrics are: "si - ñes pa - ga - tu lo - res - co zor - o - ri.". The piano part continues with a similar accompaniment style.

p

O - so na - go men - di - an Jaungoi - co i chu - ba - ren a - ma Ve - nus - en - gan - dic

The fourth line of the song features a vocal melody with a piano accompaniment. The lyrics are: "O - so na - go men - di - an Jaungoi - co i chu - ba - ren a - ma Ve - nus - en - gan - dic". The piano part continues with a similar accompaniment style.

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

ja - yo - ta - co - a - ren; ne - ro - ni ez naiz ja - be ne - re bi - o - tza - ren ga - shu

a pre - so dau - cat a - mo - ri - yu - a - ren

2. Be - ti nic da - ma - ri, glo - ri - ac u - ga - ril

ne - ro - ni ez naiz ja - be ne - re bi - o - tza - ren gasu - a pre - so dau - cat

a - mo - ri - yu - a - ren ne - ro - ni ez naiz ja - be ne - re bi - o - tza - ren

gashu-a pre-so dau - cat a-mo-ri-yu-a-ren

a - mo - ri - yu - a - ren.

3.

Sartutzenan becela
balcoi batetican,
eguzquiya guelara
cristaletatican:
modu ortarashe bein
igaro citzaidan,
biyotzera dama bat
begiyetatican.

4.

Biyotz nerian preso
guelditu bire zan,
gueratzen dan becela
chingarra iyescan,
obligatuba dago
egotera bertan
nunta biyotz ta guzti
ateratzen ez dan.

5.

Ditu ille urresco
albiñu luciác
alacoric apain - tzen
ez du orraciac
francoatan imbiriya
eman dit aiciác
aren trentza tartetic
jostatzen paciác.

6.

Ondo comparatzia
da gauza eciña
arren beguietaco
urdintazun fiña
ez da irutirare
aitatzeco diña,
itsasoco bagaren
colore urdiña.

7.

Ez da cer aitaturic
ceru zabalare,
bolaras urdin urdiñ
jarritzen dalare;
aingueru neriaren
beguiyac ala - ere,
urdiñ purubagoco
cerubac dirare.

8.

Izarra dirurite
aiñ ditu arguiyac,
ainguerubac cerutic
jechita jarriyac;
gloriyan eguintaco
ispillu garbiyac
Jaungoicoa badala
gogogarriyac.

9.

Cupidoc eritzen - nau
flechaquin berriro
neregana jiratzen
dituben aldiro
biyotzera zartzen zait
eztiro - eztiro
amoriyotazun bat
gozua guztiro.

10.

Aren espiñ gorriyac
nere atzeguintzat
ondo mereci dute
famatzia flintzat
cerbattes apartetic
icusita beintzat
mundo guztiyac artzen
ditu crabelintzat.

11.

Farric eguiten badu
cerutar virgiñac
erascusten dituben
ortza chiqui fiñac
churis elurrequiñ
dirare berdiñac
perla iruri dute
cillarres eguiñac.

12.

Gozuaren virtutez
aren asnaciác
loarasitzen ditu
nere oñaciác
usai oberic ezdu
banatzen aiciác
loriác maitatubas
baratzen paciác.

13.

Lepo biribilla ta
gorputza liraña
chiquiz ez det esaten
oñaren tamaña
ibiltzen aizetzuba
jantziyan apaña
aren graciyac dira
ecin esan aña.

LORIAN.

1

Beti nie damari,
loriac ugari!
endemas pishca bat
maite naubenari:
damac berriz neri
¡guezurra diruri!
osiñes pagatu
loresco zor-ori.

2

Oso nago mendian
Jaungoico ichubaren,
ama Venus-engandic
jayotaco-aren;
neroni ez naiz jabe
nere biotzaren,
gashua preso daucat
amoriyuaren.

3

Sartutzendan becela
balcoi batetican,
eguzquiya guelara
cristaletatican:
modu ortarashe beñ
igaro citzaidan,
biyotzera dama bat
begiyetatican.

4

Biyotz nerian preso
guelditu bire zan,
gueratzen dan becela
chingarra iyescan;
obligatuba dago
egotera bertan
nunta biyotz ta guzti
ateratzen ez dan.

5

Ditu ille urresco
albiñu luciac
alacoric apairtzen
ez du orraciac
francotan imbiriya
eman dit aiciac
aren trentza tartetic
jostatzen paciac.

6

Ondo comparatzia
da gauza eciña
arren beguietaco
urdintazun fiña
ez da irrutirare
aitatzeco diña,
itsasoco bagaren
colore urdiña.

7

Ez da cer aitaturic
ceru zabalare,
bolaras urdiñ urdiñ
jarritzen dalare;
aingeru neriazen
beguiyac ala-ere,
urdiñ purubagoco
cerubac dirare.

8

Izarra dirurite
aiñ ditu arguiyac,
aingerubac cerutic
jehita jariyac;
glorijan eguintaco
ispilla garbiyac
Jaungoicoa hadala
gogoragarriyac.

13

Lepo biribilla ta
gorputza liraña
chiquiz ez det esaten
oñaren tamaña
ibiltzen sizetzuba
jantziyan apaña
aren graciyac dira
eciñ esan aña.

9

Cupidoc eritzen-nau
flechaquin berriro
neregana jirutzen
dituben aldiro
biyotzera zartzen zait
eztiro-eztiro
amoriyolazun bat
gozua guztiro.

10

Aren espiñ gorriyac
nere atzeguintzat
ondo mercei dute
famatzia fintzat
cerbaites apartetic
ieusita beintzat
mundo guztiyac artzen
ditu crabelintzat.

11

Farric eguiten badu
cerutar virginiac
erascusten dituben
ortza chiqui fiñac
churis elurrarequiñ
dirare berdiñac
perla iruri dute
cillarres eguiñac.

12

Goznaren virtutez
aren asnaciac
loarasitzen ditu
nere oñaciac
nsai oberic ezdu
banatzen aiciac
loriac maitatubas
baratzen paciac.

VILINCH.

POTAJIARENA

- 1/ Egunaren izena
ez dakit nola zan,
baño señalagarri
partidu bat bazan,
pelotan jokatzeko
Oiartzungo plazan;
nai det nere orduko
gertaera esan,
urrenguan beste bat
eskarmenta dezan.

- 2/ Partiduba jokatzez
bukatu zanian,
ostatura jua nintzan
zuzen-zuzenian;
maiera jana ekartzen
asi ziranian,
apaiz bat serbitzen zan
aurren-aurrenian,
makiña bat sartu zan
arren barrenian.

- 3/ Zintzur ona zubela
klaro siñaliak
eman zituen apaiz
barbantzu zaliak;
dozenaka tragatzen
zituen aliak,
maskatu ere gabe
tripazai jaliak,
alako aixa nola
antxua baliak.

- 4/ Tragatutzen zituen
igar da eziak,
etziran aren diña
zetozen klasiak,
ekarri orduko zeuzkan
tripara pasiak
kortesia gabeko
txapela luziak;
arrek naikua jan ta
ni berriz gosiak.
- 5/ Nere ditxa guziak
badute ajia,
noski naiz Jaungoikoak
aztutzat lajia;
gosiak egin nuben
ango biajia,
kulpa duenarentzat
daukat korajia,
apaiz batek jan zuben
nere potajia.
- 6/ Geroztik ostatuan
sartu ordurako,
galdia egin bage
ez det nik lajako:
egun artan apaizik
ote dan arako,
ez apaiz jaun guziyak
igual diralako,
baizik batek bildurra
sartu ziralako.



Oiartzungo plaza, 1850 urtean, San Telmo'ko museoan dagoan grabado batean.

* * *

Bilintxen paperetan, bertso aukeratuak kanta-paper bat agertu da. Aren denborakoa izango da, ziur aski. Moldiztegiaren izena onela du: “*Imp. de Pozo y Comp.^a - Andia, 2 accesorio*”.

Paper onek, beean, *Ja-jai* izeneko bertsoak ditu; eta goien, *Potajiarena* esanda entenitzen dan sail au. Paper ontan beste izenburu bat du, ordea: *Apaiaren cantac*. Baiña erriak *Potajiarena* esan dio beti, eta ez derizkiogu orain izenburua aldatu bear zaionik. Baiña bertsoak bai; bertsoak paper oni kopiatu dizkiogu.

* * *

Bilintxen denborakoa da, baita ere, Santestebanek bere *Colección de Aires Vascongados* kanta-bilduman egin zuan argitaraldia. Onek doiñua ere badakar; urrengo orrialdeetan arkituko du irakurleak.

Santestebanen argitaraldi onek baditu aldaketa batzuk. Leenbizikoa, bertsoen ordena; onela eratzen baititu: 1, 2, 5, 3, 4 eta 6-garrena. Baita zenbait itz aldatu ere: 2/9: sartu zan makiña bat; 2/10: aren barrenean; 4/1: Pasatutzen zituen; 4/5: agertu orduko zeuzkan; 5/7: kulpa zuenarentzat; 6/3: galdia egin gabe; 6/4: ez det nik faltako; 6/5: egun artako apaiza.

Ortaz gaiñera, aurreko paperak *urreguan, partiduba, zanian, juan,*

zuzenian, señaliak, zuben, eziak eta abar esaten bazuan, onek *urtegoan, partidua, zanean, joan, zuzenean, señalearak, zuen, ezeak* eta abar idazten du. Eskuren bat saiatu zan, beraz, emen ere Bilintxen euskera gramatika-ratzen; donostiar fonetismo guziak kentzen, alegia.


* * *

Euskal-Erria aldizkariak 1909 urtean argitaratu zituan bertso aukeratuaren azpian argibide au ezarriz:

“*CANCION celebrada por todo Guipúzcoa y escrita allá por los años 1862, por Indalecio Bizcarrondo (Bilinch).*”

Euskal-Erria aldizkari ori etzan gauzak nolaini esaten dituzten oieta-koa. Orregatik, guk uste beintzat, zerbait bide edo oiñarri izango zuan ori adierazteko; bertsoak zein urtetakoak diran alegia. Agian Bilintxen denborako bertso-paperen batetik-edo ikasiko zuan ori.

Argitaraldi onen aldaketak: ordena: 1, 2, 5, 3, 4 eta 6-garrena. Ortaz gaiñera: 1/3: bañan siñalagarri; 1/5: pillotan jokatzeko; 2/9: sartu zan makiña bat; 3/2: ondo señaliak; 3/4: baberrun zaliak; 4/5: agertu orduko zeuzkan; 5/7: kulpa zubenarentzat; 6/3: galdia egin gabe; 6/4: ez det nik faltako; 6/5: egun artako apaiza.



Pelotari. Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis. Viaje al país de los fueros*, 1878.

* * *

Aldaketa oietako batez zerbait esan bearra dago. Leenengo bi argitaraldiak, bertso-paperak eta Santestebanen kanta-bildumak alegia, *egun artan apaizik* esaten dute. Bertso aukerrela dute, izan ere, gatza eta piperra, eta Bilintxek orrelaxe moldatuko zituan noski. Baiña *Euskal-Erria* orrek beste onela dio: *egun artako apaiza*. Bada alde pixka bat batetik bestera. Bere artan uztea apaizen izen ona arriskuan jartzea zala usteko zuan aldaketa ori sartu zuanak.

Aldaketa ori nork egin ote zuan? Ez degu inoiz ere ziur jakingo orixe. Baiña, oker edo zuzen, zerbaiten usaia artu ditekela uste degu. *Euskal-Erria* orrek dionez, 1862 urte inguruan paratu zituan Bilintxek bertso auker. Garai artako bertso-paper askotan, berriz, argitaratzeko baimena agertzen da: “*Se pueden imprimir, Vergara 23 de Setiembre de 1865. El promotor-fiscal Agustín de Villachica: edo bestela: Benito Gorostegui. Itxura danez, zensura bazan orduan ere, eta berak sartuko zuan agian zuzenketa ori.*”

Edozein moduz, indar aundiko be-larra sortu zan ori; galtzen zailla, alegia. Andik aurrerako argitaraldi guziak onartu zuten beintzat. *Euskal-Erria*-ri kopiatuko zioten, eta Bilintxek bestela jarri zuanik pentsatu ere etzuten egin-go.

* * *

Manterolak etzitan bertso auker

bere *Cancionero Vasco*-n argitaratu; aitatu bakarrik egiten ditu:

“...y en el género satírico, aparte de multitud de chistes, anécdotas y dichos agudos que brotaban continuamente de sus labios, nos ha dejado su inimitable Zaldi baten bicitza, su Potagiarena, y algunas otras de ménos importancia.”

* * *

La Voz de Guipúzcoa egunkarian, 1896-I-28-an, *Nuestro suelo*. Oyarzun izeneko idazlan bat agertu zan, *Emendik* izenordeaz firmatzen duan batek bialduta. Onela esaten du:

“...Tiene plaza de pelota, una de las más antiguas que se conocen, en donde Bilinch se inspiró para escribir, durante un partido que se jugó allá por los años de 1862, aquella preciosa composición en donde tan graciosamente satiriza a aquel dómine que se comió, después de terminado el partido, la mayor parte de la comida en cierta posada que, próxima a dicha plaza, existía por entonces:

Ez apaiz jaun guziak
igualak diralako,
baizik batek bildurra
sartu ziralako...”

* * *

Bertso auetan agertzen dan apaizari buruz, Juan Mari Lekuona adiskideak argibide au eman zigun:

“*Potajiarenak* bertsoetan azaltzen dan apaiza, Astigarragako bikarioa

zen; Txoperena abizenez. Gorputz
aundiko gizona zen; azkarra eta, jaki-
ña, apetitu aundikoa. Pelotan oso tre-
bea izan bear zuen; eta dirua jokatzeara
ere gustatzen zitzaion nunbait.

Oiartzuna joaten zan, naiz pelotan
jokatzera, naiz apostuak egitera.

Andres Garmendiak Domingo San
Sebastian, *Txadonzaia*, Astigarragako
sakristau zenari entzuna”.

* * *

Ori ikasi ondoren, Astigarragara jo-
an giñan, ango eliz-artxiboan zerbaiten
aztarrena aterako ote genduan.

An arkitu genduan, *Juan Bautista
de Choperena* bertako erretore izan
zan. Nafarroako Igantziko semea zan,
eta Oiartzungo parrokian *beneficiado
interino* izana.

1853 urtean etorri zan Astigarra-
gara, emengo erretore izatera; eta ber-
tan jarraitu zuan, 1881-ean erioak era-
man zuan arte.

* * *

Azkenik, *Diario de San Sebastián*
egunkariak, 1876-I-20-an, granadak
Bilintx jo zuan egunean alegia, onela
esaten du:

“Segun nos dicen de Astigarraga el cura
Choperena continúa en aquella villa, en cuya

*parroquia celebra misa todos los días festi-
vos.”*

* * *

Beste argitaraldi batzuk:

*Poesía Euskara, Biblioteca Selecta
de Autores Vascongados, San Sebas-
tián, 1896.* Onek bertso guziak *Eus-
kal-Erria*-k bezelaxe ditu.

Poesía Euskara oni edo *Euskal-
Erria*-ri kopiatu diote, geroztik bertso
auk argitaratu dituzten guziak.
Orregatik, ez degu geiago aldaketarik
aitatuko.

Bertso-papera, “*Irun'en - Valverde
alargunaren etxean - 1909*”, Gregorio
Mujika zanaren bilduman.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik
gabea, Oiartzungo Arrasku baserrian
eskuratua.

*Bilintx, Neurtitzak eta Neurri gabe-
ko itzak, 1911, Donostia'n, Martín,
Mena y C.^oren etxean*”, *Euskal
-Esnalea*-k argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga,
Erreterri, 1932-I-24.

Bilintxen bertsuak, Makazaga'ren
irarkolan, Erreterri, 1932 urte ingu-
ruan.

Milla olerki eder, Aita Onaindia,
Amorebieta-Larrea, 1954.

Euskal Kantak, Bilbo, 1960.

Auspoa 12, 1962.

POTAGI ARENA.

Tempo di Zortzico.

PIANO.

Piano introduction for Potagi Arena, featuring a treble and bass staff with a 3/4 time signature and a key signature of two flats. The melody is characterized by eighth-note patterns and rests.

Vocal and piano accompaniment for the first line of lyrics. The vocal line is in a treble clef with a dynamic marking of *p*. The piano accompaniment is in a grand staff with a dynamic marking of *p*. The lyrics are: E - gu - naren i - se - na Ez - da - quit no - la san

Vocal and piano accompaniment for the second line of lyrics. The vocal line is in a treble clef with a dynamic marking of *p*. The piano accompaniment is in a grand staff with a dynamic marking of *p*. The lyrics are: Ba - ñan ci - ña la - ga - rri Par - ti - du bat - ba - san

Potajiarena

p
Pe - lo - tan jo - ca tze - co O - yar - zungo pla - zan.

Naydet nere or - du - co Guer - ta e - ra e - san

V - rren guan bes - te - bat Es - car - menta de - sau

V - rren guan bes - te - bat Es - car - menta de - sau.

Demetrio Alberdi, Azkoitia:

A musical score for a piece titled 'Bilintx' by Demetrio Alberdi. The score is written in G major (one sharp) and 3/8 time. It consists of five staves of music. The melody is characterized by eighth and sixteenth notes, often beamed together, with some rests and slurs. The piece concludes with a double bar line.

Patxi Larrañaga, Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi izana:

A musical score for a piece titled 'Bilintx' by Patxi Larrañaga. The score is written in G major (one sharp) and 3/8 time. It consists of four staves of music. The melody is similar to the previous piece, featuring eighth and sixteenth notes with various rhythmic patterns and slurs. The piece ends with a double bar line.

Pedro Artetxe, Aia'ko Urdaneta'n jaiio eta Lasarte'n bizi dana:

Musical notation for the first piece, consisting of three staves of music in a single system.

Azkueren esku-idatzietatik, Zarauzko Benantzio Ameztiaren aotik jasoa:

Musical notation for the second piece with lyrics in Basque, consisting of four staves of music in a single system.

E - gu - na-ren i - ze-na ez - ta - kit no-la zan, bai - nan se-ña-la-
 ga- rri par - ti - du bat ba- zan, pi- lo- tan jo- ka- tze-ko Oi- ar- tzun- go pla-
 zan. Nai det ne-re or- du-ko ger - ta - e- ra e- san, u- rren- go- an bes-
 te bat es - kar - men- ta de- zan, u- rren- go- an bes- te bat es - kar - men- ta de- zan.

Bilintx (Bertsoak eta bizitza)

A musical score for the piece "Bilintx (Bertsoak eta bizitza)". The score is written on four staves in a single system. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 3/8. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and slurs. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and a 3/8 time signature. The music concludes with a double bar line and repeat dots.

APAIZAREN CANTAC.

1

Egunaren icena
ez daquit nola zan
baño señalagarri
partidu bat bazan;
pelotan jokatzeo
Oyarzungo plazan,
nai det nere orduco
gertaera ezan
urrenguan beste bat
escarmenta dezan.

2

Partiduba jokatze
bucatu zanian
ostatura juan nintzan
zucen zucenian;
mayera jana ecartzen
aci ciranian,
apaiz bat serbitzen zan
aurren aurreniam,
maquinabat zartu zan
arren barrenian.

3

Cintzur ona zubela
claro sifaliac
eman cituen apaiz
barbantzu zaliac;
docenaca tragatzen
cituen aliac,
mascatu ere gabe
tripazai jaliac,
alaco aiza nola
anchua baliac.

4

Tragatutze cituen
igar da eciaç,
etsiran aren difa
cetozen clasiac;
ecarri orduco ceuzcan
tripara jaciac
cortesia gabeco
chapela luciac,
arrec naicua jan ta
ni berriz gociaç.

5

Nere dica guciac
badute agia,
nosqui naiz Jaungoicoac
astutzat lagia;
gociaç eguin nuben
ango viagiac,
culpa duenarentzat
daucat coragiac
apaiz batec jan zuben
nere potagiac.

6

Gueroztic ostatuan
sartu orduraco,
galdia eguin bague
ez det nic lajaco;
egun artan apaizic
ote dan araco,
ez apaiz jaun guciyac
igual diralaco,
baicic batec bildurra
sartu ciralaco.

JA--JAY!

1

Bein batian Loyolan
Erromeriya zan
Anchen icusi nuben
Nescacha bat plazan
Choriya bahan ere
Arinago dantzan
Urashen bai polita
An politic bazan.

2

Esan niyon desio
Senti nuben guitan,
Arequin izqueta bat
Nai nubela izan:
Erantzun ciran ecie
Atzeguin arnezan:
Adituco cirala
Cer nai niyon ezan

3

Arquitu giñanian
Inor gabe giran
Coloriac gorritu
Araai cizquiran
Contatuco dizuset
Guztiya seguiran
Cer esan niyon eta
Nola erantzun ciran.

4

Dama polita cera
Polita guztiz ¡ay!
Bañan alare saude
Oraindic escongray
¡Escon gaitecen biyoc?
¡Ezan zedazu bay?
—¡Ni zurequin ezcondú?
¡Ni zurequin? ¡Ja—Jay!

VILINCH.

MAITA NAZAZU ARREN!

- 1/ Biyotzaren erditik
zeruzko dama bat
amoriyoz maite det
eziñ esan ainbat;
sufri arazitzen dit
erotzeko din bat,
artara ekarriko nau
oraindikan anbat.

- 2/ Nere maitasun onek
falta du ordaña,
etzait ongi portatzen
aingeru liraña;
itxumen guztiyakin
maitatzen det, baña...
berak ez nau ordia
nik merezi aña.

- 3/ Zoraturikan beti
aren billa nabill,
ura berriz nigandik
igesika dabill;
laister logratuko du
onla banarabil,
biyotzikan gabiak
penaz nai banau ill!

- 4/ Iñon ikusi gabe
sei aste luziak,
beti artaz pentsatzen
negarrez pasiak;
begi biyak dakazkit
malkotan asiak,
ez du asko kupitzen
nere oñaziak.
- 5/ Aren krueltasuna
izanik ainbeste,
penaz betia nago,
miñez eta triste;
izar dizdizariya,
nitaz kupi zaite!
Zuregatik ilko naiz
ez banazu maite.
- 6/ Baldin gertatzen bada
orrelakoren bat,
zedorri're damubak
ilko zaitu anbat;
maita nazazu bara
nik zaitutan ainbat,
elizan egiteko
biyotz birekin bat!

* * *

Onako sail au Parisko Liburutegi Nazionalean gordetzen dan bertso-pa-per batetik degu. Began, firma bezela, onela dio: *Vilinch*; eta ondoren moldiztegiaren izena eta papera azaldu zan urtea: "*Donostian: Pio Baroja-ren moldizteguian. - 1862garren urtian*".

Urtea esatea guretzat oso mesedegarria da. Bilintxek ogei ta amaika ur-

te zituan orduan, eta artean ezkongai zegoan. Orregatik, au izango da bear-bada bertso auen leenengo argitaraldia.

Baiña leenengoa ez-ezik, orain arte agertu dan bakarra ere bai, *Auspoa*-ren 12-garrenean berriro argia ikusi zuan arte.

Zergatik ote? Manterolak nunbaite-

tik eskuratu bai, baiña iñun ere argitaratu etzitualako, ez *Cancionero Vasco*-n eta ez *Euskal-Erria* aldizkarian. Ala, Bilintxen bertsoak argitara eman dituzten beste guziei, Manterolaren bilduma ezagutzen ez baitzuten, bertso auk ziranik ere etzitzaien burutik pasako ere noski.

Eskuz idatzita dauzka Manterolak bertso auk bere bilduma ortan. Barojaren moldiztegiaren izena ere idatzizuan, eta urtea ere bai: 1862. Guk erabili degun argitaraldi ori bera ezagutzuan, beraz, arek ere.

Baiña Bilintxen esku-idatzietan ere

arkitu zituan Manterolak bertso auk. Guk ere esku-idatzi oiek esku artean izateko zoria izan degu. Baiña bertsoak ez datoz beti berdin Barojaenean argitaratutako paperarekin.

Ona emen aldaketa oiek, beren ortografia zaarrean: 1/2: zerutar dama bat; 2/1: Diyotalaric ere; 2/2: naitasun bicaña; 2/3: nere amoriyuac; 2/4: falta du ordaña; 2/5: ichumen aundiyaquiñ; 3/3: bera berriz ni gandic; 3/7: biyotzican bagiac; 4/1: Iñon icusi bage; 4/2: bi aste luciac; 5/2: dalaco aiñbeste; 5/6: nitzaz cupi zaite; 6/3: zu ere guero damubac.

i Maryta nazazu arren!

Biyotzaren erditie
cerutar dama bat,
amorigoz maite det
eciñ esan aintat;
ufriarazitzen dit
erobrezco dinibat,
artara ecarrico nase
orañdican aibat.

Zoraturicac beti
aren billa nabill,
bera ~~bera~~ beriz ni gaudie
iguesica dabill;
laizter lograluco du
onka banarabill,
biyotzicac baguiac
pencar nauy banau ill.

Aren crueltazuma
dalaco aintabeste,
prenaz betia nago,
miner eta triste;
inar dirdirariga
nitzar cupi zaite,
zuregatic ileo naitz
ez banazu maite.

Diyotalaric ere
naitazun bicana,
nere amoriguac
salta du ordana;
ichumen aundiyaguin
maiztatsen det, bana...
beric ez nau ordia,
nie mereci aña.

Ynon icusi lague
bi aste ~~aste~~ luçiac,
beti artaz pentsatzen
negarrez pasiac;
begui biyac dacarquit
malcoctan asiac,
ez du asco cupitren
nere enaciac.

Baldin guertatzen bada
orelacorenbat,
zu ere guero damuicac
illeo zaitu aibat;
maita nazazu bara
nie zaituta aintat,
elizan eguñteco
biyotz bireguin bat.

BETI ZUTZAZ PENTSATZEN

- 1/ Dama gazte bat ezagutzen det
diruriyena izarra,
eguzkiyari kopetetikan
saltatutako txingarra;
biyotz nerian ala piztu da
amoriyozko su-garra,
nola mendiyan piztu lezaken
tximistak arbol igarra.

- 2/ Beti goguan zauzkatan dama
izarra dirurizuna,
eguzkiyaren biarrik gabe
argi egiten dezuna;
berdin gabeko amoriyua
senti arazten nazuna,
aditzera eziñ eman liteke
dizutan maitetasuna.

- 3/ Nere begiyak beren aurrian
ikusten ez bazaituzte,
gixaraxuak eta biyotza
egoten dira txit triste;
xinista zazu mundu guztian
ez dala iñor ni beste,
zu maitatzeko kapaz danikan
merezi dezun ainbeste.

- 4/ Gau eder alai aietako bat
gertatutzen dan orduban,
izarrak dizdiz egiten dute
zeruko urdiñ puruban;
diferentzirik batere gabe
zuk nere pentsamentuban
dizdiz alaxen egiten dezu
nola izarrak zeruban.
- 5/ Ia gozua izango al dan,
enamoraturik dana,
ama on batek aur maitiari
ematen diyon laztana?
Alare bada beste gauza bat
askoz gozuago dana:
zureganako amoriyua
nere biyotzak daukana.
- 6/ Nork irukiko zaitu nik beziñ
ixtimaziyo aundiyan,
animatikan maite bazaitut
erotutzeko zoriyan?
Amoriyozko naitasunakiñ
gorderik erdi-erdiyan,
biyotz nerian ala zaukazkit
nola niniya begiyan.
- 7/ Boste urte diran ez dakit baño
beñepeñ badirare lau,
faltatu gabe nere oroitzan
zaudela egun eta gau;
zu itxumenez maitatutzeko
zerubak siñalatu nau,
aliek lenena premiya zazu
egiyazko naitasun au.

* * *

Bertso auek Bilintxen paperetan azaldu dan kanta-paper batetik artuak ditugu. Izenburua or goien ezarri deguna dauka paper orrek ere. Firma bezela, berriz: *Bilintx*. Ondoren, eguna: *Abendubaren aurrenien 1868'yan*.

Paper ori Bonaparteren bilduman ere badago, Chicago-ko *New Library*-n.

Jose Manterolak ere jaso zuan bere bilduman.

Bere *Cancionero Vasco*-n ere argitaratu zuan Manterola onek bertso-sail au, aurretik argibide jakingarri au emanetz:

"...dedicada á la que fué despues su amantísima esposa y es hoy su viuda, se publicó en el diario "Aurrera" de 1º de Diciembre de 1868, sin que haya vuelto a ser reproducida desde aquella fecha."

Gauzak itxura badu. Andik bost illabetera ezkonduko ziran, izan ere, eta tratabidea asia izango zuten.

Aurrera egunkari orren sorta osoa ez dakigu gaur egunean iñun izango dan. Guk beintzat ez degu arkitu, eta pena artzekoa da; ortxe, bearbada, Bilintxen bertso-sail ezezagunen bat edo beste azalduko litzake eta.

* * *

Manterolak, bertso auek bere *Cancionero Vasco*-n argitaratzerakoan, Bilintxen esku-idatziak aitatu ondoren,

oietan arkitutako aldaketak oarretan ezartzen ditu.

Guk ere esku-idatzi oiek esku artean erabiltzeko zoria izan degu, eta aldaketa auek billatu ditugu:

2/7: aditzera eciñ eman nezaque.

Leenengoz onela idatzi zituan Bilintxen 7/5-8 lerroak:

Maitia zuri erregutzera biyotzac obligatzen nau, alic lenena paga zazula eguiyazco naitasun au.

Urrena, lerro oietako iru tatxatu eta beste onela papereratu zituan:

ichumenaquin maitatutzera cerubac señalatu nau premiyatuba izan derilla eguiyazco naitasun au.

Azkenik, lerro oietako bi tatxatu eta or goien idatzi ditugun bezela utzi zituan.

* * *

Zuzenketa oiek asko erakusten digute Bilintxen bertso-gintzari buruz. Orain baiño leen ere esan degunez, arek bere bertsoak bein eta berriro aztertzen eta lantzen zituan. Bertsoak papereratu ondoren ere, obetzen aalegiñean saiatzen zan, aldaketa aldaketa-
ren gaiñean egiñik. Azkenik, paper garbira pasa eta inprentara bialdu. Emengoak, ordea, beren lana bein egin

ezkero, paper ori bota egingo zuten. Orregatik, gure iritzirako beintzat, moldiztegitik ateratako bertso-paperak dauka erarik jatorrena, eta berari kopiatu bear zaio. Aldi ontan ere orixe egin degu.

* * *

Bertso-sail au besteak baiño gutxiago argitaratu izan da. Argitaraldi oiek orain aitatuko ditugu, baiña aldaketarik esan gabe, danak ere Manterolari kopiatu diote eta:

Euskal-Erria aldizkaria, 1906.

Bilintx, Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, Donostia'n, Martín, Mena y C.^aren etxean", *Euskal-Esnalea*-k argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga, Erretereri, 1932-II-28.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkolan, Erretereri, 1932 urte inguruan.

Donostiko *El Día* egunkaria; egunik ez dakigu.

Auspoa 12, 1962.

BETI ZUTZAZ PENSATZEN.

Dama gazte bat esagutzen det
diruriyena izarra,
eguzquiari copetetican
saltatutaco chingarra;
biyotz nerian ala piztu du
amoriyozco su-garra,
nola mendiyen piztu lezaquen
chimistac arbol igarra.

Beti goguan zauzcatan dama
izarra dirurizuna,
eguzquiaren biarrie gabe
argui eguiten dezura;
berdin gabeco amoriyua
senti-arazten nazuna,
aditzera eciñ eman liteque
dizutan maitetasuna.

Nere beguiyac beren surrian
icusten ez bazaituzte,
guisharashuac eta biyotza
egoten dira chit triste;
shinista zazu mundu guztiyan
ez dala ihor ni beste,
zu maitatzeco capaz danican
mercei dezun aimbeste.

Gau eder alai aycetaco bat
guertatutzen dan orduban,
izarrac didiz eguiten dute
ceruco urdiñ puruban;
diferentziric batere gabe
zuc nere pensamentuban,
didiz alashen eguiten dezu
nola izarrac ceruban.

¿Hia gozua izango aldan
enamoraturic dana,
ama on batec aur maitiari
ematen diyon laztana?
alare bada beste gauza bat
azcoz gozuago dana,
zureganaco amoriyua
nere biyotzac daucana.

¿Nore iruquico zaitu nic beciñ
ishtimaciyo aundiyan,
animatican maite bazaitut
erotutzeco zoriyan?
amoriyozco naitasunaquiñ
gorderic erdi-erdiyan,
biyotz nerian ala zaucazquit
nola niniya beguiyan.

Bost urte diran ez daquit baño
benepebiñ badirare lau,
faltatu gabe nere oroitzan
zaudela egun eta gau;
zu ichumenez maitatutzeco
cerubac sinalatu nau,
alic lenena premiya zazu
eguiyazco naitasun au.

VILINC.

Abendubaren aurrenien 1868-yan.

Poeti gutrak pentratzen.

Dama gaste bat esagutzen det
dirurriyena izarra,
eguzquiari copietetican
saltatutaco chingarra;
biyotz nerian ala pistu du
amorigosco sugarra,
nolamendiyan pistu lezaquen
chimistae arbel igarra.

Poeti gozuan saucatan dama
izarra dirurizuna,
eguzquiaren lianric gabe
argui eguiten deruna;
berdin gabeco amoriguina
senti arazten nazuna,
aditara eciu eman nezague -
dirutan maitetazuna.

Nere beguiyae beren aurrian
icusten ez bazaiturte,
guisharashuac eta biyotra
egoten dira chit triste:
shinista saru mundu gurtiyan
ez dala inor ni beste,
zu maitatzeo capaz damican
nereci derun aimbeste.

Gau eder alay aytaw bat
guetaturten dan ordulan,
izarrae dis dis eguiten dute
ceruco undin juruban;
diferentriac batere gabe
zue nere pentramentuban,
dis dis alasthen eguiten deru
nola izarrae ceruban.

! Hia gozua izango aldan
enanoraturic dana,
ama on batec aur maitian
enaten digun lastana;
alare bada beste gaua bat
aseos gonago dana;
zuruganaico amoriguina
nere biyotrac dancana.

! Kore iruquico zaitu nichedun
ihitnaciyo aundiyan,
animatican maite bazaitut
erolutzeo sorriyan;
amorigosco naitazunaguin
gorderic erdi-erdiyan,
biyotz nerian ala saucogut
nola niniya beguiyan.

! Hia

7

! Hika

! Hika

Post urte diran ez daquit baño

benepcin badirare lau,
saltatu gabe nere orritran
saudela egun eta gau;

~~maitia san erregutzeo~~ infirmosquin maitatuzuna
~~biyotrac obligaten nare,~~ zu ihu nerec maitatuzeco
~~alio leuena naga saula~~ ceruba tingalaco non
~~eguiyasco naltacur au~~ premyatuzun dextilla
alio leuena premya saru

JA-JAI!

- 1/ Beñ batian Loiolan
erromeriya zan,
antxen ikusi nuben
neskatxa bat plazan;
txoriya bañan ere
ariñago dantzan,
uraxen bai pollita
an pollitik bazan!

- 2/ Esan niyon desio
senti nuben gisan,
arekiñ izketa bat
nai nubela izan;
erantzun ziran ezik
atsegiñ ar nezan,
adituko zirala
zer nai niyon esan.

- 3/ Arkitu giñanian
iñor gabe jiran,
koloriak gorritu
arazi zizkiran;
kontatuko dizutet
guztiya segiran
zer esan niyon eta
nola erantzun ziran.

- 4/ “Dama polita zera,
polita guztiz, ai!
Bañan alare zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biyok!
Esan zadazu bai!”
“Ni zurekiñ ezkondu?
Ni zurekiñ? Ja-jai!”

* * *

Lau bertso auen argitaraldirik zaarrenetako bat, Bilintxen paperetan arkitu degun kanta-paper bat da. Leen ere aitatu degu: goiko aldean *Potajiarrena* deritzaion sailla du; beekoan, berriz, *Ja-jai* izeneko au.

Beste bat, zaarrenetakoa au ere, Jose Manterolaren bilduman arkitu degu. Paper-puska bat da; bearbada, periodiko-punta bat, alboan beste sail bat daukana, auen aurretik jarri ditugun eta *Beti zutzaz pentsatzen* izenburua duten bertsoekin. Beste sail onek, leen esan bezela, beean onela dio: “*Abendubaren aurrenian 1868-yan*”. Paper oiek arretaz irakurtzen badira, biak letra berdiña dutela ikusten da. Toki eta garai beretsuan argitaratuak izango dira, beraz.

Urrengo argitaraldia, guk ezagutzen ditugunetan, Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n egin zuana izango da. Bertsoak nundik eskuratu dituan, edo leenengoz noiz argitaratu ziran, eta olako zenbait argibide, beti edo geienetan ematen du jaun orrek. Baiña oraingo ontan ez du orrelakorik ezer ere.

Ondoren, Etxeberria eta Gimon-ek

bertso auekin eman zioten asiera beren *Ecos de Vasconia* izeneko kanta-bildumari. Ontan bertso auek aldaketa bakarra dute, eta bera izenburua: *Egun batian Loyolan*. Leenengo bertsoaren asieratik artua noski izenburu ori, baiña gaizki, neurria luzatzen baitiote.

Etxeberria eta Gimon-ek eskeintzen duten doiñua, berriz, urrengo orrialdeetan arkituko du irakurleak. Egille ezezagunarena dala diote, ordea: *Música de XXX*. Armonizazioa jaun oiena, beraz; baiña melodia, erriak sortu eta kantatzen zuana. Bertso auek musikalariai baiña leen ezagutu zituan, beraz, erriak.

* * *

Beste zenbait tokitan ere arkitu ditugu bertso auek, baiña aldaketarik gabe:

Bertso-papera, “*Imprenta y Librería de Elosu - Durango*”, Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, “*Imp. R. Altuna - San Sebastián*”, Gregoria Ibarгойen zana, Orio.

Bertso-papera, “*Imp. Echenagusia. - María Muñoz, 8. - Bilbao*”, Isidora Mokoroa, Tolosa.

Bertso-papera, “*Imp. J. Díaz, Irún*”, Aita Donosti zanaren bertso-bilduma, Lekarotz. Onek leenengo bi bertsoak bakarrik, beste kanta batzuen artean.

Euskal-Erria aldizkaria, 1882.

Poesía Euskara, Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, Tomo I, San Sebastián, 1896.

Euskal-Erria aldizkaria, 1905.

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Argia'ren Egutegia, 1926.

Gure kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, San Sebastián.

Milla olerki eder, Aita Onaindia, Amorebieta-Larrea, 1954.

Euskal kantak, Donosti, 1959.

Boga, boga, Donosti, 1959.

Euskal Kantak, Bilbo, 1960.

Auspoa 12, 1962.

Egun batian Loyolan.

Zortzico.

Nº 1.

Musica de XXX.

Poesia de Vilinch.



Piano introduction for the first system, featuring a treble and bass clef with a 3/8 time signature. The music consists of several chords and melodic lines.



Bein ba - ti - an Lo - yo - - lan Er - ro - me - ri - ya zan

Second system of musical notation with lyrics. It includes a piano introduction and a vocal line with lyrics. The piano accompaniment is marked with a piano (*p*) dynamic.



An - chen i - cu - si nu - - ben Nes - ca - cha bat pla - zan. zan.

1. 2.

Third system of musical notation with lyrics. It includes a piano introduction and a vocal line with lyrics. The piano accompaniment features a first and second ending.



Cho - ri - ya ba - ñan e - - re A - ri - ña - go dan - tzan

Fourth system of musical notation with lyrics. It includes a piano introduction and a vocal line with lyrics. The piano accompaniment features a first and second ending.

Ja-jai!

con espressione

U - ras - hen bai po - li - ta An po - li - tic ba - zan

Cho - ri - ya ba - ñan e - - re A - ri - ña - go dan - tzan

con calor

U - ras - hen bai po - - li - - ta An po - li - tic ba - zan.

con canto

2.

Esan niyon desio
Senti nuben guizatu,
Arequin izqueta bat
Nai nubela izan:
Erantzun ciran ecie
Atzeguin arnezan
Adituco eirala
Cer nai niyon esan.

3.

Arquitu giñanian
Iñor gabe giran
Coloriac gorritu
Arasi eizquiran
Contatuco dizutet
Guztiya seguiran
Cer esan niyon eta
Nola erantzun ciran.

4.

Dama polita cera
Polita guztiz jay!
Bañan alare saude
Oraindic escongay
¿Escon gaitecen biyoc?
¿Esan zadazu bay?
—¿Ni zurequiñ ezcondú?
¿Ni zurequiñ? ¿Ja-Jay!

Jose Ramon Erauskin zana, Gazteluene, Alza:

Musical score for Jose Ramon Erauskin, consisting of three staves of music in 3/8 time. The key signature has one flat (B-flat). The melody is written on the top staff, and the accompaniment is split between the middle and bottom staves.

Joxepa Oiarbide, Ibarre, Ugaldetxo:

Musical score for Joxepa Oiarbide, consisting of three staves of music in 3/8 time. The key signature has two flats (B-flat and E-flat). The melody is written on the top staff, and the accompaniment is split between the middle and bottom staves.

Juan Mari Lekuona, Oiartzun:

Musical score for Juan Mari Lekuona, consisting of three staves of music in 3/8 time. The key signature has two flats (B-flat and E-flat). The melody is written on the top staff, and the accompaniment is split between the middle and bottom staves.

Azkueren esku-idatzietatik, Zarauzko Benantzio Ameztiren aotik jasoa:

Allegro moderato

Bein ba-te-an Lo-io-lan e-rro-me-ri-a-zan, an-tren i-ku-si
nu-en nes-ka-txa bat pla-zan. Txo-ri-a ba-ñon e-re
a-ri-ña-go dan-tzan, u-ra-xen bai po-li-ta an po-li-tik ba-zan.

ZENBAIT DAMAREN ESKER TXARRA

- 1/ Atzo probetxu gabe,
etxeko auzuan,
egondu nitzan zure
zai egun osuan;
gaur suertez ikusitzen
zaitutan kasuan,
itz egiñ biar dizut
izketa gozuan.

- 2/ Zeiñ-ta politik diran
arrosa, jazmiña,
azuzena, liriyo
eta klabeliña,
danak bat egiñta're
ez dirade diña
igualatzeko nere
maite atsegiña.

- 3/ Nai det jakiñ dezazun
oraiñ beriala
txit asko nai dizutan
neskatxa zerala;
gaur zu ikusitziak
poztutzen nau ala,
nun iruritzen zaitan
jai aundi bat dala.

4/ Au da mundu guziyak
ongi dakiyena:
zu zerala dama bat
grazi utsa dena;
bat oietan badezu
erotzen naubena,
artan arkitzen dizut
grazirik geiena.

5/ Izan ere gorputza
dezu aproposa,
ikusi utsarekiñ
ematen du poza;
beste iñor ez dala
zu beziñ airosa,
erri guziyan dago
banatuba boza.

6/ Patxaran ibiltzia
dago gaur bolaran,
pausaje fiña oraiñ
zergatik moda dan;
eta zu ikustia
modako patxaran,
ez dakizu neretzat
nolako ditxa dan!

7/ Nik esan ta zuk jakiñ
biazu ezikan:
lau andregai dakazkit
artu nai ezikan;
ezkonduko nitzake
gaur bertan kasikan,
besterekiñ ez bañan
zurekiñ pozikan!

8/ Amoriyorik gabe
pasatu eziñez,
nik damak maite ditut,
aitortzen det ziñez;
begiyakiñ guziyak,
milla bai mingañez,
bañan biyotzarekiñ
zu besterikan ez!

9/ Zu zera, bai, zu zera,
damatxo maitia,
nere desiuaren
zeruko atia;
biyotz onez nerekiñ
bat egiñ zaitia,
eta biziko zera
kontentuz betia.

10/ Ortarako aguro
genuke eguna,
nik nai detana balitz
biyok nai deguna;
bañan zure asmua
da txit ezaguna:
ez dezu estimatzen
nere naitasuna.

11/ Ditxa bat ez dit opa
fortuna zekenak,
negarrez daramazkit
ordurik geienak;
eziñ aundiyagoko
oñaze ta penak
sufritutzen bizi naiz,
zuregatik denak.

12/ Miñ abetaz kupitzen
ez baldiñ bazera,
nere buruba nua
betiko galtzera:
Matxo-ra iyoko naiz
andik botatzera,
duben altubenetik
Gaztelu atzera.

* * *

Bertso auen argitaraldirik zaarrena, orain arte azaldu diranetan, Bilintxen paperetan arkitu degu. Kanta-paper bat da. Moldiztegiaren izena onela du: “*Donostiyan: - Juan Oses-en, moldiztegiyan*”.

Izenburutzat, or goien ezarri degun ori bera dauka. Bertsoen azpian, firma bezela, onela dio: *Vilinch*.

Ondoren, onako oar luze au dakar: “*Debecatuba dago, canta obec iñorc moldeco letraquiñ, paperian ezarriztia, beren zortzalliaren baimena bague, bara onenchen bere beriac dirare, eta ontan faltatzen dubenac izango du leguiac aguintzen duben castiguba*”.

Bertso-paper ontan *ezarriztia, bana eta esango du* irakurtzen da. Oker dagoala dudarik ez da. Baiña *Juana Bixenta Olabe* izeneko saillaren azpian ere oar au bera egiten da, okerrik gabe ordea. Artaz baliatu gera oker auek zuzentzeko.

Oar luze orrek Bilintxen denborako papera dala adierazten du. Bertsoen egillea il ondoren ez baitzegoan ori orrela idazterik.

Beste gauza bat ere aditzera ematen digu oar orrek: agidanean, Bilintxen bertsoak arrera ona zutela ikusirik, ari ezer esan gabe berriro argitaratzen asiak ziran batenbatzuek; eta ura mindu egin zan, itxuskeri ori ikusita.

Bertso-paper ori bera badago Jose Manterolaren bilduman ere.

Etxeberria eta Gimonek ere argitaratu zituzten bertso auek beren *Ecoss de Vasconia* kanta-bilduman, 20 zenbakiarekin. Doiñua ere badakar, *R. Garmendia*-k asmatua. Urrengo orrialdeetan arkituko du irakurleak.

Bi argitaraldi auek ez dute beren artean aldaketarik. Ezta geroztik egin diranak ere. Guk eskuratu ditugunak, onako auek dira:

Bilintx, Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martín, Mena y C.^aren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkolan, Errenteri, 1932 urte inguruan.

Auspoa 12, 1962.

* * *

Azken bertsoan, bere burua *El Macho*-tik beera botatzeko prest dagoala esaten digu Bilintzek. Izen orrekin Donostiko gaztelua dagoan orri esaten zaio. Garai artan etzan itxas-bazterre-

tik pasatzeko biderik, gaur dagoana geroztik egiña baita; eta goitik itxasoraiño amiltegia eta malkarra besterik etzegoan.

A mi querido amigo D. Victoriano Mieta.

Cembait Damaren Ezquer Charra.⁽¹⁾

Nº 20.

Zortzico.

Música de R. Garmendia.

Poesia de Vilinch.

Moderato.

The musical score is written for voice and piano. It consists of four systems of music. The first system is an instrumental introduction for the piano, marked 'Moderato' and 'f' (forte). The second system begins with the vocal line, marked 'p' (piano), with the lyrics 'At - zo pro - ve - chu ga - be E - che - co au - zu - an'. The piano accompaniment continues. The third system continues the vocal line, marked 'f' (forte) and 'fen.' (finito), with the lyrics 'E - gon - du nit - zan zu - re zay e - - gun o - su - an'. The piano accompaniment is marked 'cresc.' (crescendo) and 'f'. The fourth system repeats the vocal line from the second system, marked 'p', with the lyrics 'At - zo pro - ve - chu ga - be E - che - co au - zu - an'. The piano accompaniment continues.

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

E - gon - du nit - zan zu - re zay e - - gun o - su - an.

ten. *p*

cresc. *f* *p*

Gaur suer - tez i - cu sit - zen zai - tu - tan ca - su - an

Itz e - guñ bi - ar di - zut Iz - que - ta go - zu - an.

p

Gaur suer - tez i - cu sit - zen zai - tu - tan ca - su - an

cresc.

Itz e - guñ bi - ar di - zut Iz - que - ta go - zu - an

f *rit.* *pp* *p a tempo*

f *pp* *p*

Itz e - guin bi - ar di - - - - - zut Itz que - ta go - zu - an.

2.
Cein ta politac diran
Arrosa, jasmiña,
Azucena, liriyo
Eta claveliña:
Danac bat eguiñ tare
Ez dirade diña,
Iguatzeco nere
Maite atzeguiña.

3.
Nay det jaquiñ dezazun
Oraiñ beriala,
Chit asco nay dizutan
Nescacha cerala:
Gaur su icusitziac
Postutzen nau ala
Nun lruritzen zaitan
Jay aundi bat dala.

4.
Au dà mundu guciyac
Ongui daquiyena,
Zu cerala dama bat
Graci utza dena:
Bat, oyetan badezu
Erotzen naubena,
Artan arquitzen dizut
Gracirie gueyena.

11.
Dicha bat ez dit opa
Fortuna sequenac,
Negarrez daramazquit
Orduric gueyenac;
Eciñ aundiyagoco
Oñase ta penac,
Sufriritzen bici naiz
Zuregatic denac.

5.
Izan ero gorputza
Dezu aproposa,
Icusi utzarequiñ
Ematen du posa:
Beste iñor ez dala
Zu beciñ airosa,
Erri gusiyan dago
Banatuba vosa,

6.
Pacharan ibiltzia
Dago gaur bolaran,
Pausage fiña oraiñ
Ser gatic moda dan:
Eta zu icustia
Modaco pacharan,
¡Ez daquizu neretzat,
Nolaco dicha dan!

7.
Nic esan ta zuc jaquiñ
Biazu ecican,
Lau andre gay dacazquit
Artu nai ecican:
Ezconduco nitzaque
Gaur bertan casican,
Besterequiñ ez bañan
¿Zurequiñ, posican!!

12.
Miñ abetaz cupitzen
Ez baldin bacera,
Nere buruba nua
Betico galtzera:
Machora iyoco naiz
Andic botatzera,
Duben aitubenetic
Gastelu atzera.

8.
Amorioric gabe
Pasatu eciñez,
Nic damac maite ditut
Aitortzen det cifez:
Beguiyaquiñ guciyac
Milla bay mingañez
¿Bañan biyotzarequiñ?
¡Zu besterican ez!!

9.
Zu cera, bay zu cera,
Damacho maitia,
Nere desiuaren
Ceruco atia:
Biyotz onez nerequiñ
Bat - eguiñ zaitia,
Eta bicico cera
Contentuz betia.

10.
Ortaraco aguro
Guenaque eguna,
Nic nay detana balitz
Biyoc nay deguna:
Bañan zure asmua
Dà chit esaguna,
Ez dezu estimatzen
Nere naytazuna.

Debecatuba dago, canta obec inore moldeco letraquin, paperian ezarritza, beren zortzallaren haimena bague, bana onen -
chen bere beriac, dirare, eta ontan faltatzen dubenac esango du leguiac aguintzen duben castiguba.

CEMBAIT DAMAREN EZQUER CHARRA.

Atzo, provechu gabe,
Eheco auzuan,
Egondu nitzan zure
Zay egun osuan:
Gaur suertez icusitzen
Zaitutan casuan,
Itz eguiñ biar dizut
Izqueta gozuan.

Izan ere gorputza
Dezu aproposa,
Icusi utzarequiñ
Ematen du posa:
Beste inor ez dala
Zu beciñ virosa,
Erri gusiyan dago
Banatuba vosa,

Zu cera, bay zu cera,
Damacho maitia,
Nere desiuaren
Ceruco atia:
Biyotz onez nerequiñ
Bat-eguiñ zaitia,
Eta bicico cera
Contentuz betia.

Ceciñ ta politac diran
Arrosa, jasiñña,
Azucena, liriyo
Eta claveliña:
Damac bat eguiñ tare
Ez dirade diña,
Igualatzeco nere
Maite atzeguiña.

Pacharan ibiltzia
Dago gaur bolaran,
Pausage fiña oraiñ
Ser gatic moda dan:
Eta zu icustia
Modaco pacharan,
¡Ez daquizu neretzat,
Nolaco dichá dan!

Ortaraco aguro
Guenoque eguna,
nic nay detana balitz
Biyoc nay deguna:
Bañan zure asmuá
Dá chit esaguna,
Ez dezu estimatzen
Nere naytazuna.

Nay det jaquiñ dezazun
Oraiñ beriala,
Chit asco nay dizutan
Nescacha cerala:
Gaur su icusitziac
Poztutzen nau ala
Nun iruritzen zaitan
Jay aundi bat dala.

Nic esan ta zue jaquiñ
Biazu ecican,
Lau andre gay daczazquit
Artu nai ecican:
Ezconduco nitzaque
Gaur bertan casican,
Besterequiñ ez bañan
¡Zurequiñ, posican!!

Dicha bat ez dit opa
Fortuna sequenac,
Negarrez daramazquit
Orduric gueyenac;
Eciñ aundiagoco
Oñase ta penac,
Sufritutzen bici naiz
Zuregatic denac.

Au dà mundu guciyac
Ongui daquiyena,
Zu cerala ñama bat
Graci utza dena:
Bat, oyetan badezu
Erotzen naubena,
Artan arquitzen dizut
Graciric gueyena.

Amorioric gabe
Pasatu ceciñez,
Nic damac maite ditut
Aitortzen det ceciñez:
Beguiyaquiñ guciyac
Milla bay mingañez,
¡Bañan biyotzarequiñ?
¡Zu besterican ez!!

Miñ al elaz cupitzen
Ez baldiñ bacera,
Nere buruba nua
Beticó galtzera:
Machora iyoco naiz
Andic botatzera,
Duben altubenetic
Gastelu atzera.

Vilinch.

Debecatuba dago, canta obec inorc moldeco letraquiñ, paperian ezarrirtza, beren zortzalliaren haimena bague, bana onenchen bere beriac dirare, eta ontan faltatzen dubenac esango du leguic aguintzen duben castiguba.

Donostian; — Juan Oses-en, moldistaguiyan.

IZAZU NITZAZ KUPIRA

- 1/ Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat,
ari ainbeste nai diyotanik
ez da munduban beste bat;
iñoiz edo bein pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
biyotz guztira banatutzen zait
alako gauza triste bat.

- 2/ Neskaxa gazte pare gabia,
apirilleko arrosa,
izarra beziñ dizdizariya,
txoriya beziñ airosa;
oraintxen baño gusto geiago
nik eziñ nezake goza:
zori onian ikusten zaitut,
nere biyotzak au poza!

- 3/ Ez al dirazu antzik ematen
nik zaitutala naiago,
ai, mariñelak gau illunian
izarra baño geiago?
Nere onduan zauzkatalako
pozez zoraturik nago,
zu ikustiak alegratu nau,
triste neguen lenago.

- 4/ Nik ainbat iñork nai dizunikan
arren ez zazula uste,
nere begiyak beren aurrian
beti desio zaituzte;
eguzkirikan ikusi gabe
txoriya egoten da triste,
ni ez nau ezerk alegratutzen
zu ikustiak ainbeste.
- 5/ Arpegi fiña, gorputza berriz
ez dago zer esanikan,
izketan ere grazi ederra,
ezer ez dezu txarrikan;
mundu guztiya miratuta're
zu bezelako damikan
agiyen izan liteke baño
ez det sinisten danikan.
- 6/ Nere betiko pentsamentuba,
nere konsolagarriya,
zu gabetanik ezin bizi naiz,
esaten dizut egiya;
zu baziñake arbola eta
ni baldin banitz txoriya,
nik zu ziñaken arbol artantxen
egingo nuke kabiya.
- 7/ Amoriyuak nere biyotza
zureganuntza darama,
erri guztiyan zeren daukazun
neskatx bikañaren fama;
beste fortunik mundu onetan
ez det desiatzen, dama:
aur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

8/ Falta dubenak logratutzeko
itz egitia txit on du,
eta nik ere saiatu biat
ote gintezken konpondu;
gaur nagon bezin atrebitubá'
sekulan ez naiz egondu,
argatik kolpez galdetzen dizut
nerekin naizun ezkondu.

9/ “Ezkondutziak izan biar du
preziso gauza txarren bat!”
Ala esaten ari zait beti
nere konsejatzalle bat;
alaxen ere aren esanak
oso utzirik alde bat,
ongi pozikan artuko nuke
zu bezelako andre bat.

10/ Zerorrek ere ongi dakizu
aspaldi ontan nagola
zuregatikan penak sufritzen,
bañan ordia au nola!
Alaxen ere nigana eziñ
bigundu zaitut iñola,
ni zuretzako argizaia naiz,
zu neretzako marmola!

11/ Nere biyotza urtzen dijua
eta ez da misteriyo:
penaren kargak estutu eta
zumua kendutzen diyo;
begiyak dauzkat gau eta egun
egiñikan bi erriyo,
beti negarra dariyotela
zu zerarela meriyo.

12/ Zu zeralako meriyo baldiñ
juaten banaiz lur azpira,
gero damuba eta malkuak
alperrik izango dira;
beñ jua ezkeru oien birtutez
berriz ez niteke jira,
ori gertatu baño lenago
izazu nitzaz kupira!

* * *

Bilintxen paperetan bertso-sail onen bi argitaraldi azaldu dira, bi kanta-paper, dudarik gabe biak ere egillearen denborakoak.

Moldiztegiaren izena onela du batek: *“Imprenta de A. Sanz”*; eta besteak, *“Imp. de La Libertad”*.

Izenburua, or goien ezarri deguna dute; eta firma bezela onela diote: *VILINCH*.

Bertsok berdin daude bi paperetan, batere aldaketarik gabe.

* * *

Jose Manterolak ere jaso zuan bertso-sail au bere bilduman, baiña eskuz idatzita eta itz auek erantsiz:

“Esta poesía ha sido encontrada entre los papeles de Vilinch, de puño y letra de su autor, y debe ser inédita.”

Bere *Cancionero Vasco*-n agitaratu zuanean(1), berriz, onela adierazi zuan aurretik:

“Esta composición, inédita hasta hoy, y encontrada entre los papeles de su autor, escrita de su puño y letra, puede incluirse en el número de las mejores de Vilinch.”

Berriro ere argitaratu gabetzat jotzen du. Baiña guk ere Bilintxen paperak esku artean erabiltzeko zoria izan degu, eta ez ditugu bertso auek eskuz idatzita arkitu; bertso-paperetan bai, ordea. Ez dakigu zer izango dan. Bearbada, oroimenak etzion Manterolari oraingo ontan bear bezela lagundu; eta, denboraren buruan, inprentaz zegoana esku-idatzizat artuko zuan.

* * *

Manterolak bere *Cancionero Vasco* ortan esaten dituan guziak ezin aldatuko ditugu onera; onako auek bai, ordea, ondoren zerbait eransteko:

“El numeral bat, puede como todas las demás palabras emplearse en la rima perfecta, pero no como se vé en las estrofas 1.ª y 9.ª, en donde realmente se halla repetido sin variante alguna en los ocho versos de que consta cada

una de ellas: defecto tan comun como de mal gusto, y que creo necesario señalar para que los aficionados al cultivo de la literatura euskara procuren salvarlo”.

Itz oietan auxe bakarrik nabarmentzen da: Bilintxek Manterolak baiño obeki zekiala euskal bertso gintza zer dan eta nola egin bear dan.

Bertso oietan ez dago, izan ere, *bat* itza lau aldiz punturako jarrita. Puntua leenagotik asten da, aurreko itzetik alegia: *gazte bat*, *beste bat*, *aste bat* eta *triste bat* leendabiziko bertsoan; eta *txarren bat*, *konsejatzalle bat*, *alde bat* eta *andre bat* bederatzigarren bertsoan. Eta era orretan ez da pota; ez da puntu eskasa, oso aberatsa eta ederra baizik.

* * *

Bukaeran onela dio Manterolak:

“Esta composición ha sido puesta en música recientemente por el profesor de piano D. Julio Joaquín Santesteban, quien ha dedicado á su amigo el Sr. Conde de Peñafiorida esta melodía, que arreglada para canto y piano se halla de venta en el almacén de música de la calle de Garibay y en el establecimiento de la Viuda de Vilinch.”

Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n egin zuana baiño leenagoko argitaraldia, beraz. Sail osoa ez, ordea; bost bertso bakarrik: 1, 3, 6, 11 eta 12-garrena.

Santestebanen doiñu ori bertsoen ondolik arkituko du irakurleak.

* * *

Etxeberria eta Gimonen *Ecós de Vasconia* izeneko kanta-bilduman ere agertu zan sail au, 35-garren zenbakian. Doiñua eta bertsoak zein zeñenak diran adierazteko, onela esaten da: “*Música de M. Cendoya. Poesía de Vilinch*”. Bigarren doiñu au ere urren go orrialdeetan eskeñiko diogu irakurleari. Bertsoak aldaketarik ez dute.

Aita Donosti zanak ere argitara eman zituan bertso auk, *Gure Herria* aldizkarian, 1930, IX-X. Doiñua eta bertsoak Lekarozko Iñaran etxeko Markos Baraibarren aotik jaso zituan berak. Doiñu au ere urren go orrialdeetan eskeñiko degu.

Bertsoak, berriz, onako aldaketa auk dituzte: 1/3: ari adinbat nai diotenik; 3/3: jai mariñelak gau ilunian; 3/5: Nere onduan zaitudalakotz; 3/7: zu ikustiak konsolatu nau; 4/1: Nik ainbat iñork nai zutenik; 4/8: zu ikustiaz ainbertze; 5/4: ezer eztuzu tatxikan; 6/6: ni banitzake txoria; 6/7: zu ziñaden arbola artantxen; 7/1: Amodiua nere biotzak; 7/2: zuregan onuntz darama; 7/6: ni deseiatzen dedana; 7/7: aur batek berriz izan gaitzala; 8/4: ote egin dazken konpondu; 8/7: orgatik Lopez galdetzen dizut; 10/7: ni zuretako argizaria.

Gerok ere izan degu erriaren aotik bertso auk kantatzeko doiñu bat edo beste jasotzeko zoria. Oiek ere, zein zeñen aotik artua dan esanez, bertsoen ondolik ezarriko ditugu.

* * *

Beste zenbait argitaraldi:

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde - Irún*", *Bodleian Library, Oxford*.

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde - Irún*" (beste argitaraldi bat), *Bodleian Library, Oxford*.

Bertso-papera, "*Guernica. - Imp. Artística Goitia y Hormaechea*", Sebero Altube zana, Gernika. Aldaketak: 1/2: maite dot dama gazte bat; 3/1: Ez al dirazu ematen; 3/3: ai, mariñelak gau egunian; 3/5: nere onduan zaukatalako; 5/4: ezer ez dozu txarrikan; 5/7: egiyak izan liteke baño; 6/7: nik zu ziñaken arbol artatzen; 7/3: erri guzian zuk dakazun; 7/6: ez det desiatzen dana; 9/1: Ezkondutxian izan bear du; 9/3: ala esaten ari zan beti; 11/3: penaren kargak ostuta eta.

Bertso-papera, "*Guernica: A. de Goitia y Compañía*", Jose Maria Esnaola, Tolosa. Aurreko papera bezelaxe.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, baiña gure iritzirako Erreteriko Makazagaenean argitara emana. Ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan. Aldaketak: 6/6: ni banitzake txoria; 7/4: neskatx ederraren fama.

Bertso-papera, "*Imp. de San Antonio. Olalquiaga y Borne - Vergara*", Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman.

Bertso-papera, "*Eibar - Imprenta de Orúe*", Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman.

Guk eskuratu ez baditugu ere, Ion Bilbaok bere bibliografian aitatzen dituan beste bi argitaraldi auek:

Bertso-papera, "*Guernica & Hernández*".

Bertso-papera, "*Durango: Elosu*".

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.^aren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Erreteriko Makazaga moldiztegia, 1932-II-14.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkola, Erretereri.

Argia astekaria, ez dakigu zein egunetakoa. Aldaketak: 4/1: Nik aña iñork nai dizunik; 5/5: mundu guztia miratutzera; 6/6: ni baziñake txoria; 10/7: ni zuretzako argizaya; 10/8: zu bezelako andre bat.

Bertso-papera, "*Itxaropena Argitaldaria - Zarautz*", Josefa Aizarna, Aizarna. Paper onek aurrekoari kopiatzen dio; baiña 6/6: ni banitzake txoria.

Argia astekariaren beste argitaraldi bat: 1935-IV-21: 10/1: Zerorrek ere ondo dakizu.

El Día egunkaria, 1931-V-1: 5/5: mundu guztiya miratutzera; 6/5: zu baziñake arlote eta.

Euskal-Erriko Kanta Zarrak, Erreteriko Makazaga moldiztegia, Tomo II.

Aita Onaindia: *Milla olerki eder, Amorebieta-Larrea, 1954.*

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Boga, boga, Donostia, 1959.

Euskal Kantak, Bilbo, 1960.

Auspoa 12, 1962.

1. *Cancionero Vasco, Serie II, Tomo I, abril de 1878.*

YZAZU NITZAS CUPIRA.

Andantino.

PIANO. *p*

Lo -

ri - ae u - dan int-za be-ce-la Mai - te det da - ma gaz - te bat A -

ri ain beste nai di - yo-da-nie ez damun-du-ban beste bat Y-ñoiz

e - do be-in pa-sat-zen ba - det Y - cu - si ga-be as-te bat biyotz-gus-

ti - ra ba - na - tu - zen zait a - la - co gau - za tris - te

col canto

cresc. bat bi - yotz gus - ti - ra ba - na - tu - zen zait a - la - co

con calore

gau - za tris - te bat.

Ez aldirazu antzic ematen
 Nic zaitutala nayago,
 Ay mariñalac gau illunian
 Yzarra baño gueyago:
 Nere onduan zauzcatalaco
 Pocez zoraturic nago,
 Zu icustiac alegratu nau
 Triste negüen lenago.

Nere betico pensamentuba
 Nere cosolagarriya,
 Zu-gabetanic ecin bici naiz
 Esaten dizut eguiya:
 Zu baciñaque arbola eta
 Ni baldiñ banitz choriya,
 Nic zu cñaquen arbol artanchen
 Eguingo nuque cabiya.

Nere biyotza urtzen dijua
 Eta ez da misteryo,
 Penaren cargac estutu eta
 Sumua quendutzen diyo:
 Beguiyac dauzcat gau eta egun
 Eguñican bi erriyo,
 Beti negarra dariyotela
 Zu cerarela meriyo.

Zu ceralaco meriyo baldin
 Juaten banaiz lur azpira,
 Guero damuba eta malcuac
 Alferric izango dira:
 Bein juan esquero oyen virtutez
 Berriz ez niteque gira,
 Ori guertatu baña lenago
 Yzazu nitaz cupira.

A mi amigo Ignacio Tabuyo.

Nº 35.

Izazu Nitzaz cupira.⁽⁴⁾

Musica de M. Cendoya.

Poesia de Villinch.

Adagio (126 ♩)

p *cresc. f* *p* *f*

rit.

1. Lo-ri - ac u - dan i - tzac be - ce - la mal - te

det - da - ma - gas - te bat a - ri alm - beste nai di - yo - ta - nic ez - da mun - du - ban bes - te

bat, ez - da mun - du - ban bes - te bat. Lo - ri -

bat, i - ñoiz e - do bein pa - sa - tzen ba - det i - cu - si ga - be as - te

bat, bi - yotz gus - ti - ra ba - na - tu - tzen zait a - la - co gau - za triz - te

p *f* *p*

(4) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

bat biyotz gus-ti-ra ba-na tu-tzen zait a-la-co gau-za triz-te bat. i-ñoiz

bat. a-la-co gau-za triz-te bat.

2.
Nescacha gazte paregabia,
Apirilleco arrosa.
Izarra beciñ dizdizariya
Choriya beciñ airosa;
Orainchen baño gusto gueyago
Nic eciñ nezaque goza,
Zori onian icusten zaitut,
; Nere biyotzac au poza!!

3.
Ez aldirazu antzie ematen
Nic zaitutala nayago
; Ay! mariñelac gau ilunian
Izarra baño guelago;
Nere onduan zauzatalaco
Pozez zoraturic nago,
Zu icustiac alegratu nau
Triste negüen lenago.

4.
Nic aibat iñore nai dizunican
Arren etzazula uste.
Nere beguiyac beren aurrian
Beti desio zaituzte:
Eguzquirican icusi gabe
Choriya egotenda triste.
Ni ez nau ezere alegratutzen
Zu icustiac aimbeste.

11.
Nere biyotza urtzen dijua
Eta ez da misterio,
Penaren cargac estutu eta
Sumua quendutzen diyo:
Beguiyac dauzeat gau eta egun
Egüñican bi erriyo,
Beti negarra dariyotela
Zu ceralaco meriyo.

5.
Arpegui fiña gorputza berriz
Ez dago cer esanican,
Izquetan ere grac ederra,
Ezer ez dezu charrican;
Mundu guztiya miraturate
Zu becelaco damican,
Aguiyan izan liteque baño
Ez det sinisten danican.

6.
Nere betico pentsamentuba,
Nere consolagarriya,
Zu gabetan ecin bici naiz
Esaten dizut eguiya:
Zu baciñaque arbola, eta
Ni baldin banitzehoriya,
Nic zu ziñaquen arbol artanchen
Eguingo nuque cabiya.

7.
Amoriyuac nere biyotza
Zureganuntza darama
Erri guztiyan ceren daucazun
Nescach bicañaren fama
Beste fortunice mundu-onetan
Ez det deslatzen dama
Aur batec berac izan gaitzala
Ni aita eta zu ama.

12.
Zu zeralaco meriyo baldiñ
Juanen banaiz lur azpira,
Guero damuba eta malcaue
Alperrie izango dira;
Beñ juañ esqueru oyen birtutez
Berriz ez niteque jira
Ori guertatu baño lenago
; Ilzazu nitaz cupira!

8.
Falta dubenac logratuzeco
Itz eguitia chit on du
Eta nic ere sayatu biat
Ote guindezquen compundu
Gaur nagon becin atrebituba
Seculan ez naiz egundu
Argatic golpez galdetzen dizut
Nerequin naizun ezcondu.

9.
Ezcondutziac izan beardu
Preciso gauza char embat,
Ala esaten ari zait beti
Nere consejatzalle bat:
Alashen ere arren esanac
Oso utziric alde bat,
Ongui pozican artuco nuque
Zu becelaco andaco bat.

10.
Cerrorec ongui daquizu
Aspaldi outan nagola,
Zuregatican penac sufritzen
Bañan ordia au nola:
Alashen ere nigana ecin
Bigundu zaitut iñola.
Ni zuretzaco arguizaya naiz
Zu neretzaco marmola.

Koxme Lizaso bertsolaria, Oiartzun:

Musical score for Koxme Lizaso, Oiartzun. The score is written in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#) and a 3/8 time signature. It consists of four staves of music. The first staff begins with a 7-measure rest. The melody is characterized by eighth and sixteenth notes, often beamed together, and includes some triplet-like rhythms. The piece concludes with a double bar line.

Jose Luis Lekuona, Lexoti bertsolaria, Oiartzun:

Musical score for Jose Luis Lekuona, Lexoti bertsolaria, Oiartzun. The score is written in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#) and a 3/8 time signature. It consists of four staves of music. The melody is composed of eighth and sixteenth notes, with frequent beaming and some triplet-like rhythms. The piece concludes with a double bar line.

Gure Herria, 1934, 9-10.



Inazio Pikabea, Ugaldetxo, Oiartzum:



Izazu nitzaz kupira

Patxi Larrañaga, Azkoiti'n jaio eta Zarautz'en bizi izana:

A musical score for a single melodic line in 3/8 time. The piece consists of 16 measures. The notation is written on a single staff with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The melody is characterized by eighth and sixteenth notes, with some rests and a final double bar line.

Jose Mari Etxaburu, Ondarroa:

A musical score for a single melodic line in 3/8 time. The piece consists of 24 measures. The notation is written on a single staff with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The melody is more complex than the first piece, featuring many sixteenth notes, eighth notes, and some rests. It ends with a double bar line.

Xabier Aranburu, Ondarribi, bere osaba Klaudio Sagarzazu *Satarka* olerkariari ikasia.

The image shows an instrumental introduction for the song 'Bilintx'. It consists of four staves of music in a treble clef, with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The melody is composed of eighth and sixteenth notes, creating a rhythmic and melodic pattern.

Azkuren esku-idatzietatik; ez du esaten noren aotik jaso zuan:

The image shows the vocal part of the song 'Bilintx'. It consists of four staves of music in a treble clef, with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The lyrics are written below the notes.

Lo-re - ak u - dan in-tza be - ze - la mai-te det da-ma gaz - te
 bat, a - ri ain-bes-te nai di - o - ta - nik ez-ta mun-du - an bes - te
 bat. I - noiz e - do bein pa - sa - tzen ba-det i - ku - si ga - be as - te
 bat, bi-otz guz-ti - ra ba-na - tu-tzen zait a - la - ko gau-za tris - te bat.

IZAZU NITZAZ CUPIRA

1

Lorine udan intza beclia
maite det dama gazte bat,
ari aimbete nai diyotanie
oda munduban beste bat,
noiz eba kein posatzen badet
eusi gabe aste bat,
biotz gutria banatutzen zait
alaco gauza trizte bat

2

Noseacha gazte parezabia,
apirilco arrosa,
izarra beñ didizariya
ehoriya beñ arrosa;
otamelen baño guseyo
ne eñfi neaque goza,
zori onan josten zafut,
nere biyotzaco an poza!

3

Ez aldirazi antze onaten
nie zaitfala nayago
[Ay, maribelac gau ihuan
izarra baño guseyo;
nere ondan zaitfalaco
potez zoraturic nago,
zu iustiac alegatu nau
trizte nequen leuago.

4

Nie aumbotiore nai dizunen
aren otzuala aste,
nere begituae heren aurrian
beti desio zaitude;
eguzquirian rasi gabe
ehoriya egofenda trizte,
ni ez nau ezere alegatuzen
zu iustiac aimbete

5

Arpegui fña gorpuzta berri
ez dago cer esanien,
izquetan ero graci ederra,
ezer ez dezu charrican;
mundu guziya miratulare
zu beclaco damian,
aguiyan izan liteque baño
ez det sinisten danican

6

Nere helico pensamentua,
nere consolagariya,
zu gabetane ecin biei naiz
esaten dizut eguiya:
zu lacinaque arloki, eta
ni bakin banitz ehoriya,
nie zu zinaquen arbol artanhen
eguingo nuque ebiya

7

Amorituac nere biyotza
zueganuntza larama
ero gutizian eeren daucazin
noseach biceñaren fama
beste fortunemundu-onetan
ez det desiatzen dama,
aur hater herac izan zaitzala
ni ata eta zu ama.

8

Falta dilenac logratuzeco
ilz eguitia chit on du
eta nie ere sayatu biat
ote guindezquen compendu
gaur nagon becin atrebiluba
seculan ez naiz egondu
argatic golpez galdetzen dizut
nerequin naizun ezcondu

9

Ezcondutziac izan beardin
preciso gauza char embat,
ala esaten ari zait beti
nere consejatzalle bat;
alashien ero arren esanac
oso utziric alde bat,
ongui pocian artuco nuque
zu beclaco andre bat.

10

Cerorec ero ongui daquizu
aspabili onan nagola,
zuroyatican penac sñfritzen
bañan ordia au nola;
alashien ero nigana ecin
bigundu zaitut ihola,
ni zuretzaco arguziava naiz
zu neretzaco marmola

11

Nere biyotza urtzen dijua
eta ez da misteriyo,
penaren cargac estutu eta
sunna quendutzen diyo;
bekituae danzet gau eta egun
eguitian bi erriyo,
beti negarra dariyotela
zu ceralaco meriyo.

12

Zu zeralaco meriyo batiñ
juten lanaz lur azpira,
guero dímuba eta malenac
alperric izango dira;
beti juan esquero oyen birtutez
berri ez niteque jira
ori guertatu baño lenago
izazu nitzaz cupira!

VILINCH

IZAZU NITZAZ CUPIRA

1

Loric udan intza becela
maite det dama gazte bat,
ari nimbeste nai diyotunic
ezda munduban beste bat,
inoiz edo bein pasatzen badet
icusi gabe aste bat,
biyotz gozaira banatuzten zait
alaco gauza trizte bat.

2

Nesacha gazte paregabın,
apirilco arrosa,
izarra becin dizidzariya
choriya becin airosa;
orainchen baño gusto gucyago
nic ecin nezuque goza,
zori onian icusten zaitut,
nere biyotze au poza!

3

Ez aldirazu antzie ematen
nic zaitutala niyago
¡Ay! maritelic gau illunian
izarra baño guengo;
nere ondian zauzentalaco
pozez zoraturic nago,
zu icustiac alegatunau
triste negnen lenago.

4

Nic aimbat ihore nai dizunican
arren etzaula aste,
nere beguiyac beven aurrian
beti desio zaitute;
eguzquirican icusi gabe
choriya egotenda triste,
ni ez nau ezere alegatuzten
zu icustiac aimbeste.

5

Arpegui fita gorputza berrix
ez dago er esunican,
izquetan ere gracı ederra,
ezer ez deau charrican;
mundu gustiya miratutere
zu becelaco damican,
aguiyan iman lileque baño
ez det sinisten damican.

6

Nere hetico pentsamentuba,
nere consolaguriya,
zu gabetanic ecm hucı nait
esaten diat eguiya;
zu bacinaque arbola, eta
ni baldin banitz choriya,
nic zu zifapnen arbol artanchen
egutigo niuque caliya.

7

Amoriyane nere biyotza
zueganunta darama
erri guruiyan ceten damican
nesach bicaharen fama
beste fortunie mundu-onetan
ez det desiatzen dama
aur bates bérac izan gaitala
ni aita eta zu aita.

8

Falta dubenac logratuteco
ita egulic hit in du
eta nic ere saxatu biat
ote guindequen compoundu
gaur nagon becin atrebituba
seculan ez nait egondu
argatic golpea galdetzen diat
nerequin naitan ezcondu.

9

Ezcondutiac iman beardu
preiso gaua clar embat,
ala esaten ari zait beti
nere consagatalle bat;
alashen ere arren esanic
oso nitric alde bat,
ongui pozicun artico niuque
zu becelaco andre bat.

10

Cerorrec ere ongui daquian
aspaldi ontan mugola,
zuegitean penac sufrizen
bañan ordia zu nola;
alashen ere nigana ecm
bigundu zaitut ihola,
ni zure-taco argutzaya nait
zu neretaco maritola.

11

Nere biyotza urten diya
eta ez da misteryo,
penaren cargac estatu eta
summa quenduten diyo;
beguiyac dauzat gau eta egun
eguiticun bi erriyo,
beti negarra daryotela
zu cerdaco meriyo.

12

Zu zerlaco meriyo baldin
juden banais lur aspia,
guero dambaba eta malcuac
alperric itango diru;
bein juan esiquero oyen birtutes
berria ez nitque jira
ori guertatu baño lenago
¡Itasu nitzaz cupira!

VILINCH

GAZTETAN JARRIYAK DAMA BATI

- 1/ Argitasun aundiko
perla garistiya,
nere osasuna ta
nere eguzkiya;
baita ere zu zera,
maitetxo eztiya,
mundu ontako nere
desio guztiya.

- 2/ Eziñ fiñago dala
da txit seguruba
zuganako dakatan
naitasun puruba;
beti dauzkat zugatik,
nere aiñgeruba,
sentitzen biyotza ta
pentsatzen buruba.

- 3/ Ixilik gorde arren
asko dira penak,
nere biyotz gaxuan
zugatik daudenak;
biazuna baño`re
miñkatsago denak,
bañan zuk nai ezkeru
goza litezkenak.

- 4/ Dauzkatan pena oiek
ixilik gordeta,
uts biyurtuko dira
zuk nai zazu eta;
bertatik jarriko naiz
kontentuz beteta,
neria izatera
konforma zaite ta.
- 5/ Ez naiz mutill ederra
-au lana, au lana!-,
ez naiz aberatsa're,
maitetxo laztana!
Bañan biyotz bat badet
oberik ez dana,
betia zukanako
amoriyoz dana.
- 6/ Auxen eskeiñtzen dizut
guztizko suabe,
arren egiñ nazazu
zuriaren jabe!
Bestela penaz ill ta
laister naiz lurraz be,
bara ni eziñ bizi
niteke zu gabe.

* * *

Sei bertso auk Bilintxen esku-ida-
tzietatik ditugu. Baita izenburua ere.

Jose Manterolak ere ezagutu zituan
bertso auk Bilintxen esku-idatzietan,
eta andik artu eta bere bilduman ko-
piatu ere bai, izenburuaren azpian ona-
ko itz auk erantsiz:

*"Encontrado entre los papeles de Vilinch,
de su puño y letra; ¿es inédito?"*

Ala izango zan, argitaratu gabea

alegia. Guk beintzat ez degu Bilintxen
denborako argitaraldirik inñun arkitu.

Orregatik, Manterolak argitaratuko
zituan leenengo aldiz bertso auk:
*Cancionero Vasco, Serie II, Tomo I,
Abril de 1878.*

Izenburuaren azpian lerro auk
idatzi zituan:

*"Como lo expresa su título, esta composi-
ción, hallada entre los manuscritos de Vilinch,*

de su puño y letra, es una de las escritas por este allá en sus mocedades."

Manterolak, uste gabea ziur aski, aldaketa bat sartzen du. Seigarren bertsoaren seigarren lerroa onela idazten du: *laister naiz lurra be*. Bilintxen esku-idatzietan, berriz, beste onela dago: *laister naiz lurraz be*.

Manterolaren *Cancionero Vasco*-ri kopiatu diote, bertso-sail au argitaratu duten guziak; eta, orregatik, aldaketa ori danak sartu. Baiña aitatzerik merezi duan beste aldaketarik ez dute.

* * *

Beste zenbait argitaraldi:

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martin,

Mena y C.^o ren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Bertso-papera, "*Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*", Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Bertso-papera, "*Oñate: Imp. de M. Raldua*", Ea, Bizkaia, Zezilio Agirre apaiz jauna zanaren bitartez.

Bertsolariya astekaria, Erreteriko Makazaga moldiztegia, 1932-IV-17.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkola, Erretereri.

Euskal-Erriko Kanta Zarrak, Tomo III, Makazaga, Erretereri.

Gure kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, San Sebastián.

Aita Onaindia: *Milla olerki eder, Larrea-Amorebieta, 1954.*


Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Auspoa 12, 1962.

Inazio, Pikabea, Ugaldetxo, Oartzun:



Segundo Kalonje zana, Oriamendi, Aiete, Donosti:



NESKATXA BATI MUTILL BATEK JARRIAK

- 1/ Goguan izango det,
bai, gaurko eguna,
berriro biyok alkar
ikusi deguna;
auxen da ditxa eta
auxen da fortuna,
zergatikan zu zeran,
maitetxo kutuna,
nere asnasia ta
nere osasuna.

- 2/ Egiyazko amoriyoz
nai dizutalako,
zugatik pasatzen det
naibagia franko;
oraiñ au poza bistan
zaukazkitalako!
Aspaldiyan ikusi
ez ziñdutalako,
ura bildurra nekan
miñ zenubelako!

- 3/ Nere biyotzak o zer
poza duben artu!
Onen golpiak eziñ
ditut aguantatu;
bere lekutik dabill
nayian faltatu,
kanpora irten ez dediñ
biar det kalkatu,
gaxuak zuregana
nai luke saltatu!

4/ Au nere zoramena:
zutzaz gustatuta,
bildur naiz gera nadiñ
burutik galduta;
ainbesteraño nago
enamoratuta,
nai badezu, oñetan
belaunikatuta,
adoratuko zaitut,
agindu zazu ta.

5/ Zer ote da graziyan
norbait erortzia!
Zu zerala meriyo
ai au erotzia!
Frankotan gertatu zait
gogora etortzia:
kanpan-torrian gora
korrika iyotzia
ta zure alabantzan
kanpanak jotzia.

6/ Nik eziñ xinistu det
zuk esan dezula
nere amoriyua
dudan dakazula;
arren, orlakorikan
pentsa ez zazula,
eta nai det seguru
jakiñ dezazula
beti bezela zure
mende nakazula.

7/ Fiñ nabillen edo ez
ez zaudezen dudan,
ara zer juramentu
egingo dizuran:
aíñ amoriyo aundiz
nola zu zaituran,
maitatzen baldiñ badet
besterik sekulan,
ez dezatala izan
parterik zeruban.

8/ Zure grazietara
oso zoratuba,
biyotza sentitzen det
enamoratuba;
ni bizi naizen arte,
baratz loratuba,
dizdizara klarozko
izar doratuba,
ez zaizu faltatuko
nork adoratuba!

9/ Ala dirurizu ta
zaukazkit loretzat,
baratzakuak baño
oraindik obetzat.
Norentzako zera zu,
loria, norentzat?
Ez zenuke izan biar
beste iñorentzat,
baizikan biyotzetik
nai dizun onentzat!

10/ Lengo egun batian
-ai, San Antoniyo!-
doi-doi egiñ zeniran
kalian ariyo;
badakit, sobra dakit
zer dala meriyo
errezibitzen nazun
orlako seriyo:
zuk asko merezi ta
nik gutxi baliyo!

11/ Aguro ezkontzeko
dakat animua,
bakarrik aspertu naiz,
biat arrimua;
obran zurekiñ jarri
nai nuke asmua,
bara, zumo gozodun
marrubi umua,
zu nere miñarentzat
zera balsamua.

12/ Aditzera detanez,
dama begi alai,
zure ondoren dabill
makiña bat galai;
bañan aietakorik
ez omen dezu nai;
bara ni nai banazu
izan zuk senargai,
konformatzen al zeran
esan ez edo bai.

13/ Bañan ikusten zaitut
erantzun nai ezik,
baitzik esan gabe,
ain gutxi ezetzik;
orla gelditutzia
egin bage itzik,
ezin pentsa nezake
dala beste gauzik,
senartzako artu nai
ez nazula baizik.

14/ Senartzat nai al nazun
egon naiz galdez ta,
ez nazu baitz esan,
ezetz ere ez-ta;
ori zuk ez dirazu
nai esan itzez ta,
beste modu batera
baliya zaitz ta,
igual da ematia
kartaz errespuesta.

15/ Baldiñ ez banaitzazu
sartutzen gogora,
ez det asko pasako
erriyan denbora:
paraje abetatik
juango naiz iñora,
egun gutxiren barrun
betiko kanpora,
Buenos Aires-a edo
Montevideo-ra.

Au nik diyot:

16/ Ez dakit zer esaten
ziyon errespuestan,
baña nola mutilla
Donostiyan ez dan,
falta zan egunetik
pasa diranetan,
onezkero sartu da,
nere kontubetan,
Montevideo-n edo
Buenos Aires-etan.

* * *

Bertso auek Bilintxen esku-idatzie-
tatik kopiatu ditugu.

Leenago esan degunez, Bilintxek
bein eta berriro jorratzen zituan bere
bertsoak. Erakusbide ederra sail ontan
degu. Bertso auetan, 3/3, 4/5-10, 9/9,
12/7-10 eta 14/1-10 lerroetan, aurrena
idatzi zuana Bilintxen gustokoa ez
izan nunbait, paper-puska bat gaiñetik
erantsi eta berriz idatzita dago.

Baiña argi eta ispillu baten lagun-
tzarekin, azpian dagoana irakurri aal
izan degu, 9/9 eta 12/10 lerroetan izan
ezik. Beste lerro oiek onela diote:

3/3: onen saltuac eciñ

4/5-10: ala nago zugana
enamoratuta,
adoratuco zaitut
aguindu zazu ta
zure oñen aurrian
belaunicatuta.

12/7-9: ni nay banazu bara
zuc artu senargay
conformatzen baceran

14/1-10: Cerrorrec pentsatu ta
cerrorrec icusi,
senartzaco nay nazun
artu edo utzi,
ta bereisten dezuna
azcar eracutsi,
baño eciñ diteque
duda ontan bici
errespuesta artu gabe
biyar edo etcí.

Eta 15/7 lerroa leenengoz onela
idatzi zuan Bilintxek: *ordu guchiren
barrun*; gero *ordu* ori tatxatu eta *egun
jarri*.

* * *

Jose Manterolak ere ezagutu zituan
bertso auek Bilintxen esku-idatzietan.

Baita bere bilduman kopiatu ere, leenengo bertsoaren aurretik itz auek erantsiz:

“Nescacha bati mut... (Está roto el original: es posible que diga:) ill batec jarriac. (Está escrito de puño y letra de Vilinch; ¿será inédita?)”.

Bearbada, izenburua etzan Manterolak uste zuana izango. *Nescacha bati mutill*, bai, ori garbiro irakurtzen dala ematen du. Baiña ondoren, falta dan paper-puskaren eskubitik alegia, beste letra auek irakurtzen ditugu guk beintzat: ...*uec al...*; edo olako zerbait. Falta dana ezin osatu; baiña letra oiek baldin badira, ezin liteke *batec jarriac* izan.

Txeetasun ori ezin argitu degun ezker, ontzat artzen degu, eta bere ortan uzten, Manterolaren izenburua.

Manterolak, bestalde, bertso-sail au argitaratu gabea izango ote zan galdeetzen du. Seguru aski, artean ala egongo zan. Guk beintzat ez degu Bilintxen denborako argitaraldirik inun arkitu.

Manterolak berak ere, bere *Cancionero Vasco*-n bertso auek argitaratu zituanean(1), *Poesías inéditas de Vilinch* izeneko atalean sartu zituan. Sail au liburu ortan agertu zan, beraz, guk uste, leenengo aldiz.

Aurretik adierazpen au egiten du Manterolak:

“...con el título incompleto, pues sólo aparecen en el original las palabras Nescacha bati mut..., por haberse roto un trozo del papel que lo contenía, he hallado esta composición entre los manuscritos de Vilinch.

Ignoro cuál sea la fecha en que pudo ser escrita, pero el aspecto y el estado de los ori-

ginales me inclinan á creer cuenta bastantes años de existencia.”

Ortik aurrera, bertso auen merituak neurtzen jarduten da. Baiña luze joango litzake eta ez du merezi ori dana emen jartzerik.

* * *

Manterolaren *Cancionero Vasco* dalako orri kopiatu diote, uste degunez beintzat, bertso auek argitaratu dituzten guziak. Guk ezagutzen ditugunak onako auek dira:

Bilintx - Neurritzak eta Neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C^aren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia. Onek bi lerro falta ditu: 5/3-4.

Oni kopiatuko baitzioten, bi lerro orien faltan daude urrengo bi argitaraldirak ere:

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Errenteri, 1932-II-7.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkola, Errenteri.

Bertso-papera, “*Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*”, Gregorio Mujika zaren bilduman.

Auspoa 12, 1962

(1) *Cancionero Vasco, Segunda Serie, Tomo I, Abril de 1878.*

Kesaccha bati me^{1/2} ure ay

Goguan zango det
bay gaurco eguna,
berro biyoc alcar
icusi deguna:
aushen da dicha eta
aushen da fortuna,
cergalican zu ceram
maitacho cutuna,
nere asmasia ta
nere osasuna.

Au nere zorramena
zutraz gustatu ta,
bildur nair guera nadin
buratic galdu ta:
ainbesterano nago
enamoratu ta
nau badesu onetan
belaunicatu ta
adraluco xaitut
aguindu zazu ta

Siñ nabillen edo ez
ez zaudecen dudan,
aru ser juramentu
eguingo diruzan:
ain amoriyo aundiz
nola zu zaiturcan,
maitatzen baledin badet
besteric secular,
er dezatala izan
parteric caruban.

Egunazco amoriyoz
nau dizutalaco,
zu gatic pasatzen det
nau baguia franco:
i orain au poza, vistan
~~zauca~~ zaurcazquitedaco!!
aspaldiyar icusi
ez cindutalaco,
i ura bildura necan
min cenubelaco!!

i Ser ote da g' ian
nur bait er utria!!
zu cerala m riyo,
i ay, au erotz,!!
francotan g' estatu zait
gogora etortria,
campan torian gora
corrica iyotria,
ta zure alabantran
campanac potria.

Zure graciyeiara
oso zoratuba,
biyotra sentitzen det
enamoratuba:
ni bici naicen arte,
i burats loratuba,
diridizara claraco
izor doratuba,
er zairuz itatuco
nere ador. "a!!

E're biyotracio! ser
poza dub'en artu,
asera golpuac eivn
ditat aguantatu:
bere becutic dabil
nagian saltatu,
campora irten ez dedin
biar det calcatu,
i gashuac zureguna
nau luque saltatu!!

Nic ecin shimistu det
zuc esan dezula,
nere amoriyua
dudan dacarula:
arren orlacoricar
pentsa ez zarula,
eta nau det seguru
jaguin dezarula,
beti becela zure
mende nacarula.

Ala diruzizu ta
zaurcazquit lorezat,
baratsacuaac baño
oraindie ob'ezat,
i norentraca cerca zu?
i loria! norentrat!!
er cencupe izan biar
beste inorentzait.
i baicican biyotratie
nau dizun onentzait!!

Lengo egun batian,
 iay, San Antoniaz!!
 doy doy eguin cemiran
 calian arrijo;
 bucuquit, solra daquit,
 cer dala meriyo,
 errecebitzen nazun
 orluco serriyo;
 izue arco mereci ta,
 nie guchi berrijo!!

Aguero ercontzeo
 dacet animua,
 bacurric asperbi naiz
 biat arrimua;
 obran zurequin jarri
 nay neque amua,
 bara sumo gozortun
 marrubi amua,
 zu nere minarentzat, ~~era~~
 cera balsamua.

Aditerra detamer
 dama begui alay,
 zure ondoren dabill
 maquina bat galay;
 baiñan ayotacoric
 ez omen dazun nay;
 bara ni nay banazu
 izan zue senar gay,
 conformataren al coran
 eran ex edo bay.

Bañan ieusten zaitut
 erantzun nay eic,
 bayetzie eran gabe
 ain guchi ecetzie;
 orla gueldituzia
 eguin bague itric,
 ecin penta nezaque
 dala beste guaic,
 sendrataco artu nay
 ez nezula bajic.

Senartzat nay al maxun
 egun naiz galdez ta,
 ez nazun bayetz eran
 ecetz ere ezta;
 ori zue ez dirazu
 nay eran itsez ta,
 beste modu batera
 balaya zaitoz ta,
 igual da ematia
 cartaz errespueda

Baldin ez banaitzazu
 sartutren zogora,
 ez det arco puraco
 erriyun dombora;
 parage abetadic
 juango naiz inora,
 egun ~~oracoz~~ guchiren bannun
 belico campora;
 Buenos aires-a, edo
 Montevideoa.
 Au nie digot

(Es daquit ser esuten
 cizon errespuestan,
 baiña nola mutilla
 Donostijan ez dan...
 falta zun eguaitie
 para diranetan,
 onerquero sartu da
 nere contubetan,
 Montevideoan edo
 Buenos aires-etan)
 Wilhauk.

BIYOTZ ERITUBA

- 1/ Askok diyote kantetan beti
amore-kontu naizela,
nik esaten det arriturikan
motibo gabe daudela.
Zer egin biat baldin zerubak
doaitu banau orrela?
Ez dute ikusten usaia mendak
bere jatorrez dubela?
Nere biyotzak amoriyua
mendak usaia bezela.

- 2/ Triste bizi naiz eta
illko banitz obe,
badauzkat biyotzian
zenbait atsekabe;
dama bat maitatzen det
bañan... aren jabe
sekulan izateko
esperantza gabe.

- 3/ Nere biyotz gaxua
penatuba dago,
eziñ egon liteke,
ai!, penatubago;
pasatzen ditutala
aspaldiyan nago
egunak triste eta
gabak tristiago.

4/ Amorez erituba
zenbait denbora ontan,
gaurik ez det pasatzen
soseguzko lotan;
penaren kargarekiñ
urtuta, frankotan
kanpora irteten zait
biyotza malkotan!

5/ Auxen da miña laister
ill biar naubena,
kupitutzen ez bada
senda lezakena;
aiñ arkitutzen zaizkit
sartubak barrena
animan tristura ta
biyotzian pena.

6/ Biyotza eziñ jaso det,
au karga barrenak!
Iya gastatu zaizkit
indarrik geienak;
ez luke xinistuko
progratu ez dubenak,
zenbat pisatzen duben
egiyazko penak.

7/ Anima tristurakiñ
añ dakat negarti,
nun egiñ al dezaken
arriya bi parti;
adorantzak ematen
-belauniko beti!-
biyotzian daukatan
imajiña bati.

- 8/ Zeiñ ote dan eziñik
kontura erori,
kutiziya jaioko
zaiote askori;
nik ordian ez diyot
esango iñori,
berak badaki eta
bastante det ori.
- 9/ Nere maitatuba da
gutziz dama fiña,
biyotz onekua ta
ondo itzeğiña;
bentaja guztiyakiñ
zerubak eğiña,
munduba pasatzeko
lagun atseğiña.
- 10/ Zertako desiatu
ditu gauza on oiek
nere biyotz koitadu
gixaraxua onek?
Kulparen kastigutzat
datozkit pena obek,
merezki dituala
badakit neronek.
- 11/ Aingeru zoragarri,
mirabe laztana,
pentsamentu nerian
beti zauzkatana;
biyotzaren erditik
maite zaitutana,
zu zera neretzako
nai zinduzketana.

12/ Nere amoriyua
aiñ fiña izanik,
beti goguan zauzkat
aztu gabetanik;
ez da mundu guztiyan
iñor kapaz danik,
dama, zu maitatzeko
ainbeste nola nik.

13/ Begiyaren aurrian
beti nai zinduzket,
ikusten ez bazaitut
naibagia maiz det;
gogoratu bageko
minuturik ez det,
amoriyoz maitatzen
ez daki nik bestek.

14/ Etzaitut ikusitzen
desio ainbeste,
ditxa ori logratzen det
iñoiz edo beste;
eta ez detanian
logratzia uste,
ura triste ibiltzen naiz!
Jesus, ura triste!

15/ Eziñ bizi zu gabe,
au amoriyua!
Logratzen ez bazaitut,
zer martiriyua!
Ez badezu desio
nere eriyua,
zuregan arkitzen da
erremeryua,

16/ Erregutuzten dizut,
o Jesusen Ama,
nitaz kupi derilla
maite detan dama;
biurtzen badirazu
biyotzera kalma,
kantaz banatuko det
milagruen fama.

* * *

Sail onen argitaraldirik zaarena, guk ezagutzen ditugunetan, Bilintxen paperetan azaldu diran bi bertso-paper dira.

Biak izenburu bera dute, or goien ezarri deguna; eta firma bezela: *Vilinch*.

Paper oietako batek moldiztegi-izen badu: "*Donostian Osés-en Moldizteguien*".

Bestea ez da berez bertso-papera, bertso-paper baten argazkia baizik. Moldiztegi-izenik orain ez du; baiña beeko ertza moztuta dauka eta baditeke garai batean or euki izana.

Argazki ori, *kuadro* batean sartuta, bere gelan zintzilik eduki zuan, il zan egunera arte, Bilintxen alargunak. Ez da arritzekoa, berari eskeiñitako bertsoak omen ziran eta. Leenengo, zazpi bertso-edo jarri omen zituan Bilintxek, eta urrena besteak. Orrela esan zigun onen billoba Antoniok. Amonaren gelan ezagutu omen zuan berak beti bertso-sail au.

Paper edo argazki onek, ain zuzen, firmaren azpian eguna ipintzen du: *Urriyaren 11n, 1868yan*. Eta andik sei illabetera, 1869-IV-5-ean, ezkonduko baitziran, orduantxe ariko ziran alkarrengana urreratzen.

Bertso-paper auei kopiatu dizkiogu bertsoak. Aldaketarik ere ez dute beren artean.

Beste bertso-paper bat, "*Donostian: J. Baroja eta seme-en moldizteguien*" argitara emana, bi tokitan jaso genduan: Donostiko Barojaenean, bertako Joakin Muñoz-Baroja jauna zanaren eskutik; eta Elgoibarren, Antonio Arrillaga mediku jauna zanarenetik. Paper onek aurreko biak bezelaxe ditu bertso guztiak.

Etxeberria eta Gimonek ere argitaratu zituzten bertso auek beren *Ecós de Vasconia* kanta-bilduman, zortzigarren zenbakian. Oi bezela, bertsoak ez-zezik, doiñua ere bai. Onela diote: *Música de Manuel Cendoya. Poesía de Vilinch*. Doiñu ori bertsoen ondoren arkituko du irakurleak. Bertsoak, berriz, aurreko beste oiek bezelaxe ditu.

Euskal-Erria aldizkariak 1904 urtean argitaratu zituan bertso auek. Baiña onek aldaketarik badu: 1/4: beti orrela daudela; 1/6: doaitu banau onela; 2/4: zenbat atsekabe; 2/5: dama bat mitzatzeten det; 7/5: maitasunak ematen; 8/8: naikoa det ori; 9/1: Nik maite detana da; 10/3: nere biyotz dontsua; 12/6: iñor gauza danik; 13/4: naigabia maiz det. Bukieran, berriz, firmaren azpian,

onela dio: *Urriaren 11-an 1868-an*. Aurrena aitaturako bertso-paperak jartzzen duan eguna da ori. *Euskal-Erriak* ere ezagutu zuan, beraz, paper ori. Baiña gero aldaketa oiek sartu zituan, euskera *garbitzarren*-edo.

Euskal-Erria-ri kopiatu zioten, eta orregatik aldaketa oiek berak dituzte, beste iru argitaraldi auek:

Bilintx - Neurtitzak eta Neurri ga-

beko itzak, 1911, Donostia'n, Martin, Mena ta C.^aren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Errenteri, 1932-IV-17.

Bilintx'en bertsuak, Makazagaren irarkola, Errenteri.

Beste argitaraldi bat:

Auspoa 12, 1962

Biyotz Eritubà.⁽¹⁾

Nº 8.

Zortzico.

Música de Manuel Cendoya.

Poesía de Vilinch.

The musical score is written for voice and piano. It consists of four systems of music. The first system shows the piano introduction with a piano (*p*) dynamic. The second system begins with the vocal melody and piano accompaniment, with lyrics: "Tris-te bi-ci-naiz e - ta ill-co ba-nitz o - be ba-duuzcat bi-yot-zi - an". The third system continues the melody and accompaniment, with lyrics: "sembait a-tze-ca - be. Tris-te bi-ci-naiz e - ta ill-co ba-nitz o -". The fourth system concludes the piece, with lyrics: "be ba - dauz - cat bi - yot - zi - an sembait a - tze - ca be. Da -". The piano part features various dynamics including *pp*, *pp dim.*, *pp rit.*, and *ff*. The key signature is three flats (B-flat major/D-flat minor) and the time signature is 3/8.

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

ff

ma bat mai-ta - tzen det ba-ñan a-ren ja - be Ce - cu - lan i - su - te - co

ez-pe-ran-tza ga - be. Da - ma bat mai-ta - tzen det ba-ñan a-ren ja - be ce -

cu - lan i - su - te - co ez - pe - ran tza ga - be. *pp* Ce - cu - lan i - su -

te - co ez - pe - ran-tza ga - be Ce - cu - lan i - sa - te - co


ez-pe-ran-tza ga - be.




Pedro Artetxe, Aia'ko Urdaneta'n jaio eta Lasarte'n bizi dana:



Iñaki Eizmendi, Basarri Bertsolaria, Zarautz:



Koxme Lizaso bertsolaria, Oiartzun:



BIYOTZ ERITUBA.

Ascoo diyote «cantetan beti
Amore contu naicela.»
Nic esaten det, arriturican
Motivo gabe daudela;
¡Ser eguin biat baldin cerubac
Doaytu banau orrela,!
¡Ez dute leusten usaya mendac
Bere jatorrez dubela,?
Nere biyotzac amoriyua
Mendac usaya becela.

Triste bicinaiz eta
Illeo banitz obe,
Badauzat biyotzian
Sembait atzecabe;
Dama bat mitatzen det
Bañan ... aren jabe,
Ceulan isateco
Eperantzaz gabe

Nere biyotz gashua
Penstuba dago,
Eciñ egon liteque
¡Ay! penatubago;
Pasatzen ditutela
Azpaldiyan uago,
Egunac triste eta
Gabac tristiago.

Amoroz erituba
Sembait dembora ontan,
Gauric ez det pasatzen
Soseguzco lotan;
Penaren cargarequif
Urtuta, ¡francotan,
Campora irteten zait
Biyotza malcoctan!.

Aushen da miña laister
Ill bisr naubena,
Cupituzen ez bada
Senda lezequena;
Añi arquituzen zaizquit
Sartubac barrená,
Animan tristura ta
Biyotzian pena.

Biyotza eciñ jaso det,
¡Au carga barrenac,!
Iye gastatu zaizquit
Indarric gneyenac;
Ez luque shinistuco
Progratu ez dubenac,
Sembat pisatzen duben
Eguiyazco penac.

Anima tristuraquif
Añi dacet negarti,
Nun eguif aldezaquen
Arriya bi partí;
Adoratuzac ematen
¡Belaunico beti,!
Biyotzian daucatan
Imagiña bati.

Ceñi ote dán eciñic,
Coutura erori,
Cuticiya jayoco
Zayote asoori;
Nic ordian ez diyot
Esango iñori,
Berac badaqui eta
Bastante det ori.

Nere maitatuba da
Gutziz dama fiña,
Biyotz onecuata ta
Ondo itzeguifia;
Bentaja guztiyaquif
Cerubac eguifia,
Munduba pasatzeco
Lagun atzeguifia.

¡Certaco desiatu
Ditu gausa on oyec,
Nere biyotz coitadu
Guisharashua onoc,?
Culparen castigutzat
Datozquit pena obec,
Meroci ditutala
Badaquit neronec.

Aingeru zoragarri
Mirabe lastana,
Pentamentu nerian
Beti zuzcetana;
Biyotzaren erditic
Maite zaitutana,
Zu cara neretzaco
Nai cinduzquetana.

Nere amoriyua
Añi fiña isanic,
Beti goguan zauscat
Aztu gabetanic;
Ez da mundu guztiyan
Iñor capaz danic
Dama, zu maitatzeco
Aimbeste nola nic.

Beguiyaren aurrian
Beti nay cinduzquet,
leusten ez bazaitut
Nay baguia maiz det;
Gogoratu baguico
Minuturic ez det,
Amoriyoz maitatzen
Ez daqui nic bestec.

Etzaitut leusitzen
Desio simbesto,
Dicha ori logratzendet
Iñoiz edo beste;
Eta ez detanian
Logratzia uste
¡Ura triste ibiltzen naiz,!
¡Jesus, ura triste,!!

Eciñ bici zu gabe,
¡Au amoriyua,!
Logratzen ez bazaitut
¡Cer martiriya,!
Ez badezu desio
Nere eriyua,
zuuregan arquitzen da
Erremeriya.

«Erregutuzten dizut»
«¡O Jesusen ama,!»
«Nitaz cupi derilla»
«Maite detan dama;»
«Biurtzen badirazu»
«Biyotzera calma,»
«Cantaz banatuco det»
«Milagruen fama.»

VILINCH.

BİYOTZ ERITUBA

Ascoc diyote «cantetan beli
Amore contu naicela,»
Nic esalen det, arrilurican
Motivo gabe daudela;
i Ser eguin bial baldin cerubac
Doaytu banau orrela, !
Ez dute icusten usaya mendac
Bere jatorrez dubela,?
Nere biyotzac amoriyua
Mendac usaya becela.

Triste bici naiz eta
Ilco banitz obe,
Badauzcat biyotzian
Sembait atzecabe;
Dama bat mitatzen det
Bañan... aren jabe,
Ceculan isateco
Ezperantza gabe.

Nere biyotz gashua
Penatuba dago,
Ecin egon liteque
i Ay! penatubago,
Pasatzen ditutala
Azpaldiyan nago,
Egunac triste eta
Gabac trisiago.

Amorez erituba
Sembait dembora ontan,
Gauric ez det pasatzen
Soseguzco lotan;
Penaren cargarequin
Urtuta, i francotan,
Campora irteten zait
Biyotza malcotan!.

Aushen da miña laister
Il ciar naubena,
Capitutzen ez bada
Senda lezaquena;
Ain arquitutzen zaitquit
Sartubac barrenana,
Animan tristura ta
Biyotzian pena.

Biyotza ecin jaso det,
i Au carga barrenac,
Iya gastatu zaitquit
Indarric queyenac;
Ez luque shinituco
Progatu ez dubenac,
Sembat pisatzen duben
Eguiyazco penac.

Ánima tristur aquin
Ain dacat negarti,
Nun eguin aldezaquen
Arriya bi parti;
Adorantzac ematen
i Belanico beli,
Biyotzian daucatan
Imagiña bati.

Ceinote dan ecinic
Coutura erori,
Cuticiya jayoco
Zayote as-cori;
Nic ordian ez diyot
Esango inori,
Berac badaqui eta
Bastante del ori.

Nere mailatuba da
Guzliz dama fina,
Biyotz onecua ta
Ondo itzeguina;
Bentaja guzliyaquin
Cerubac eguina,
Munduba pasatzeco
Iagun atzeguina.

i Certaco desiatu
Ditu gausa on oyeo,
Nere biyotz coitadu
Guisharashua onec?
Culparen castigutzat
Datozquit pena obeo,
Mercci ditutala
Badaquit neronec.

Angueru zoragarri
Mirabe lastana,
Pentamentu nerian
Beli zauzcatana;
Biyotzaren erditic
Maite zaitutana,
Zu cera neretzaco
Nai cinduzquetana.

Nere amoriyua
Ain fina isanic,
Beti goguan zauscat
Aztu gabetanico;
Ez da mundu guztiyan
Inor capaz dauic
Dama, zu mailatzeco
Aimbeste nola nic.

Beguiyaren aurrian
Beli nay cinduzquet,
Icusten ez bazaitut
Nay baguia maiz det;
Gogoratu bagueco
Minuturic ez det,
Amoriyoz mailatzen
Ez dauic nic bestec.

Etzaitut icusitzen
Desio aimbeste,
Dicha ori lo GRATZENDET
Inoiz edo beste;
Eta ez detanian
Lo GRATZIA USTE
! Ura triste ibiltzen naiz, !
i Jesus, ura triste, !!

Ecin bici zu gabe,
! Au amoriyua, !
Logratzen ez bazaitut
i Cer martiriyua; !
Ez badezu desio
Nere eriyua,
Zuregan arquitzen da
Erremeriya.

« Erregutuzten dizut »
« iO Jesusen ama! »
« Nitaz cupi derilla »
« Maite detan dama; »
« Biurzen badirazu »
« Biyotzera calma, »
« Cantaz banatuco det »
« Milagruen fama. »

Winch.

DAMA TA GALAIA

Galaiak:

- 1/ Dezu gorputz egokiya,
polita txit arpegiya
eta ederra begiya;
zure begiya
agitz argiya
da guztiyetan aurrena;
bestiak dira urrena,
ori da-ta ederrena,
diruri eperrarena.

- 2/ Ez det, dama begi eder,
desiatzen beste ezer,
bañan bai... esango det zer:
legezko birez,
faltsiyakiñ ez,
zu neretzako logratu;
nik orla naia obratu
txantxa dala ez pentsatu,
zutzaz naiz enamoratu.

- 3/ Konformatutzen bazera,
laster ezkonduko gera,
ez galdu orlako era;
biyok munduban
bizi-moduban
artutzen badegu parte,
asnasiak iraun arte,
jakiñian gera zaite,
nik izango zaitut maite.

- 4/ Millaka ditut ardiyak,
larogei ta lau ariyak,
mardulak eta guriyak;
zezen eta bei
berreun ta ogei,
sei eun eta bost iriyak;
baitare soro aundiyak,
belar ugariz jantziyak,
mantendutzeko guziyak.
- 5/ Nik ori guztiya daukat
ez balitz bezela deus bat,
badet-eta beste gauz bat:
giltzaz azpiyan
leku itxiyan
dakat montuan billbilla
urrezko zenbait kurpilla:
uraxen bai dala pilla:
ontzako utsak lau milla.
- 6/ Dauzkatanaren giltzaz be
zu egiñgo zaitut jabe,
bazeudeke duda gabe:
bara, begira,
izango dira,
orra eman notiziyak,
zure kontura utziyak,
dituzu-ta mereziyak,
etxeko giltza guziyak.
- 7/ Zer ongi biziko geran,
nai dezuna jan ta eran,
guztiya zure aukeran;
jazteko ere
zuk ez batere
gastubari begiratu;
dendik onenetan sartu,
gayik ederrenak artu
eta soñak enkargatu.

8/ Alaja-zale bazera,
juango gera esatera
alajategi batera:
erakusteko,
zuk ikusteko,
dakaten alajeriya;
naiz bada're garistiya,
izango da erosiya
gustatzen zaizun guziya.

9/ Zu serbitzeko nik ortan,
gauz oiek erriya ontan
ez daude denda inñontan;
ta eroatera
erri bestera
egiñgo degu, bai, jira;
nai badezu Donostira
edo bestela Frantzira,
ango zuk naizun errira.

10/ Esaten dizkitzutanak,
dira-ta ziñez esanak,
kunplituko ditut danak;
fiyatu zaite,
nik zaitut maite,
eta jakiñ zazu ezik
zugatik ez dala kasik
egiñgo ez nuken gauzik
gusto aundira ta pozik.

11/ Zutzaz enamoratuba,
nago kasikan artuba
illaren erretratuba;
miñik txarrena
dakat barrena,
animaraño sartuba;
au legoke sendatuba,
gauza bat desiatuba
nik baneka logratuba.

12/ Sendako litzaiket miña,
bestela senda eziña,
zu neretzako baziña;
azken ortara
ni nua bara
guztiz intentziyo onez,
eziñ liteke-ta obez,
arren esazu faborez:
neretzat zeran edo ez!

Damak:

13/ Dirazu naitasun fiña,
gozua ta atsegiña,
obiagorik eziña;
jakiñ naizuna
da erantzuna
esatiakiñ onela:
alaxen banitz bezela,
zierto egon zaitezela
zuria izango naizela.

Au nik diyot:

14/ Ara gauzak nola diran:
egun artatik segiran
biyak alkarrenak ziran;
ordu ezkeru
au zan espero,
kunplitu-ta berak naia:
ongi daudela da baia,
pasiar bizi alaia,
gure dama ta galaia.

15/ Egiya nik esateko,
ez zebilltzan ezkontzeko
geldi-geldi egoteko:
galaiak obra,
seguru sobra,
aurreratuba darama;
egiñ dirala da fama
bat aita, bestia ama,
gure galaia ta dama.

Bilintx

Sail onen argitaraldirik zaarrena, guk esku artean izan ditugunetan, Bilintxen paperetan azaldu dan bertso-paper bat izango degu. Dударik gabe, aren denborakoa da. Manterolaren bilduman ere antxe dago bertso-paper ori.

Izenburua, or goien ezarri deguna du. Egillearen firma onela dakar: *Vilñch*. Nun argitara eman zan, berriz, itz auekin esaten du: “*Donostiyan Juan Osés-en moldisteguiyan*”.

Bertso auek zer doiñutan kantatzen diran adierazteko, onela dio paper orrek izenburuaren azpian: “*Ay ori begui ederra-ren doiñuban*”.

Sail onen beste argitaraldi bat, Etxeberria eta Gimonen *Ecos de Vasconia* deritzaion kanta-bilduman arkitu degu, amabigarren zenbakian. Bertsoak berdin daude emen eta aurre-

ko bertso-paperean; baiña doiñua beste bat da.

Doiñu ori nork prestatua dan adierazteko, onela esaten da: *Música de Manuel Cendoya*; eta oar batean: *escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor*.

Guk biak jartzen ditugu emen: leenengo, *Ai ori begi ederra*-rena, Santestebanen *Colección de Aires Vascongados* kanta-bildumatik artuta; eta, bigarren, Manuel Zendoia dalako orrena, Etxeberria eta Gimonen *Aires de Vasconia* bildumatik.

Bertso auek ez dira ezagunak izan. Geroztikako argitaraldirik ez degu, guk beintzat, beste iñun arkitu. Manterolak etzituan ez bere *Cancionero Vasco*-n eta ez *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu, eta orregatik izango da.

AY ORI BEGUI EDERRA.

Andante.

PIANO.

The piano introduction consists of two staves. The right hand plays a melody of eighth and sixteenth notes, while the left hand provides a harmonic accompaniment with chords and single notes. A dynamic marking of *p* is present.

The first system features a vocal line and piano accompaniment. The vocal line begins with the lyrics "Ay o - ri be - gui e - de - rra i - ru - ri". The piano accompaniment includes a dynamic marking of *p*.

The second system continues the vocal and piano accompaniment. The vocal line includes the lyrics "sen - trait e - pe - rra Gau - za o - be - ri - can cer -". The piano accompaniment includes a dynamic marking of *p*.

Dama ta galaia

mf

-dà Om-cho po - li - ta sa - pa - ta -

e - derr Chorca - ti - lla guz - tis fi -

p

- ña Jant - ci e - derr - qui e - gui - ña Te - li - a

mo - da - co fi - ña Ay ne - re - tza - co ba - si - ña

Dama ta Galaya.⁽¹⁾

Nº 12.

Aire vascongado.

Música de Manuel Cendoya.

Poesía de Vilinch.

Piano introduction in 3/4 time, featuring a melody in the right hand and a bass line in the left hand.

De - zu gor - putz e - go - qui - ya po - li - ta chit ar - pe - gui - ya, e - ta e -

1. der - ra be - gui - ya: De - zu gor - - ya: 2. Zu - re be - gui - ya, arguiz ar - gui - ya, da guz - ti -

ye - tan au - rre - na, bes - ti - ac di - - ra u - rre - na, o - ri da

ta e - de - rre - na, di - ru - ri e - pe - rra - re - na.

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.

DAMA TA GALAYA.

(Ay ori begui ederra-ren doñuban.)

Galayac. Dezu gorputz egoquiya,
polita chit arpeguiya,
eta ederra beguiya:
zure beguiya,
aguitz arguiya,
da guztietan aurrena;
bestiac dira urrena,
ori da ta ederreña,
diruri eperrarena.

Ez det dama begui eder,
desiatzen beste eser,
bañan bay... esango det ser:
leguezco birez,
faltziyaquiñ ez,
zu neretzaco logratu;
nic orla naya obratu,
chancha dala ez pentsatu,
zutzaz naiz enamoratu.

Cónformatutzen bacera,
laster ezconduco guera,
ez galdu orlaco era:
biyoc munduban,
bici moduban,
artutzen badegu parte;
asnasiac irauñ arte,
jaquiñian guera zaitte,
nic izango zaitut maite.

Millaca ditut ardiyac,
larogüey ta lau ariyac,
mardulac eta guriyac:
cecen eta bey,
berréun ta oguey,
sey éun eta bost iriyac;
baitare soro aundiyc,
belar ugariz jantziyac,
mantendutzeco guciyac.

Nic ori guztiya daucat
ez balitz bezela deus bat,
badet eta beste gauz bat:
guiltzaz aspian,
lecu ichiyan,
dacañ montuan billbilla;
urrezco cembait curpilla,
urashen bay dala pilla,
ontzaco utsac lau milla.

Dauzcatanaren guiltzaz be,
zu eguiño zaitut jabe:
baeudeque duda gabe:
bara beguira,
izango dira,
orra eman noticiyac;
zure contura utsiyac,
dituzu ta mereciyac,
echeco guiltza guciyac.

Ser ongui bicico ceran,
nay dezuna jan ta eran,
guztiya zure auqueran:
jazteco ere,
zuc ez batere,
gastubari beguiratu;
dendic onen-elan sartu
gayic ederreñac artu,
eta soñac encargatu.

Alaja zale bacera,
juango guera esatera,
alajategui batera:
eracusteco,
zuc icusteco,
dacañen alajeriya;
naiz badare garizliya,
izango da erosiya,
gustatzen zaizun guciya.

Zu servitzeco nic ortan,
gauz oyec erriya ontan,
ez daude denda inñontan:
ta eroñera,
erri bestera
eguiño degu bay gira;
nay badezu Donostira,
edo bestela Francira,
ango zuc naizun errira.

Esaten dizquitzutanan,
dira ta cifez esanac,
cumplituco ditut danae:
fiyatu zaitte
nic zaitut maite,
eta jaquiñ zazu ecie;
zu gatic ez dala casic,
eguiño ez nuquen gaudiac,
gusto aundira ta pocic.

Zutzaz enamoratuba,
nago cacion artuba,
illaren erretatuba:
miñic charrena,
dacañ barrena,
animaraño sartuba;
au legoque sendatuba,
gauza bat desiatuba,
nic baneca logratuba.

Sendaco litzaiquet miña,
bestela senda eciaña,
zu neretzaco baciaña:
azquen ortara,
ni nua bara,
guztiz intentziyo onez;
jaciñ liteque ta obez,
arren esazu favorez,
neretsat ceran edo ez!!

Dumac.

Dirazu naitazun fiña,
gozua ta atzeguiña;
obiagoric eciaña:
jaquiñ naizuna
da erantzuna,
esatiyaquiñ onela;
alashen banitz becela,
cierto egon zaittecela,
zuria izango naicela.

Au nic diyot.

Ara gauzac nola diran,
egun artatic seguiran,
biyac alcarrenac ciran:
ordu ezquero,
au zan espero,
cumplitu ta berac naya;
ongui daudela da baya,
pasiaz bici alaya,
gure dama ta galaya.

Eguiya nic esateco,
ez cebilltan ezcontzeco,
guelldi guelldi egoteco:
galayac obra,
seguru sobra,
aurreratuba darama;
eguiñ dirala da fama,
bat aita, bestia ama,
gure galaya ta dama.

JUANA BIXENTA OLABE

1/ *J. Bixenta:*

Nagusi jauna, auxen da lana,
amak bigaltzen nau berorregana.

N. jauna:

Ai, bigalduko bazinduke maiz!
Zu ikusita konsolatzen naiz.

Xinista zazu:
oso zoraturikan nakazu!
Orren polita nola zera zu?

2/ *J. Bixenta:*

Amak esan dit, etxeko errenta
pagatzeko dirurik ez zuben-ta,
ia egingo diyon mesere,
illabetian geienaz ere,
itxogotia;
bara zierto dala ematia
pasa baño len illabetia.

3/ *N. jauna:*

Logratutzia, errex alare,
naiz ori ta beste zernai gauza're,
seguru dala esan amari
zu baldiñ bazatoz mandatari;
dudarik gabe
nere borondatiaren jabe
zu zera, Juana Bixenta Olabe.

4/ *J. Bixenta:*

Beraz bertatik nua etxera
poz aundi bat amari ematera;
oraiñ ariyo, nagusi jauna,
presaka jua biat amagana.

N. jauna:

Ez zuazela;
portatu zaite nik nai bezela,
gaur etxera jua ez zaitzela.

5/ Zuen etxia dago irruti,
birian zer gerta izan bildurti;
bara iya pasa da eguna,
arratsa berriz dator illuna;
oraiñ juatia
txartzat iruki, nere maitia;
gaur emen bertan gera zaitia.

6/ Ez jua etxera bire oietan,
gabaz, bakarrik eta illunbetan:
kontura erori zaitia zu:
gabaz illunbian jua biazu
peligro aundiz,
eta obe dezu eun aldiz
biyar goizian jua egun argiz.

7/ *J. Bixenta:*

Ezetz etsiya egon liteke,
ni emen gelditu eziñ niteke;
amak espero nau gaberako,
eta ark espero naubelako,
jua biar det nik;
alaba ikusi bagetanik
amak izango ez luke onik.

8/ *N. jauna:*

Emen zuretzat dira parako
jaki txit goxuak afaitarako;
erariya berriz -Jaungoikua!-,
illak piztutzeko modukua:
 ardo onduba,
ontzen urtietan egonduba,
Malagatikan da bigalduba.

9/ *J. Bixenta:*

Jauna, berorrek, bañan alferrik,
badaki armatzen lazo ederrik;
lazua eiz bage gera dediñ,
nere etxian nai ditut egiñ
 afaldu ta lo;
naiago ditut ango bi talo,
ta ez emengo milla erregalo.

10/ *N. jauna:*

Biyotz nereko dama polita,
asmoz muda zaitte, auxen tori-ta:
amasei duroko urre fiña,
sendatu nai zazun nere miña.

J. Bixenta:

 Ez, jauna, ez, ez!
Merezi beziñ kopeta beltzez,
esango diyot ezetz ta ezetz!

11/ *N. jauna:*

Gañera berriz, Juana Bixenta,
utziko dizutet etxeko errenta:
kito zor dirazuten guziya,
kunplitzen banazu kutiziya.

J. Bixenta:

 Lotsa gogorra!!
Sufritzen dago gaur nere onra,
penaz malkuak darizkit orra!!

12/ *N. jauna:*

Nik ditut kulpak, ez egiñ negar,
orlakorik ez nizun esan biar;
animan sentitutzen det miña
zuri ofensa ori egiña.

Maldiziyua!

Ez dakit nun nekan juiziyua,
eskatzen dizut barkaziyua!

13/ *J. Bixenta:*

Barkaziyua, du-ta eskatu,
nere biyotz onak eziñ ukatu;
erakutsi ditalako, jauna,
gaitz egiñaren damutasuna,
konforme nago;
ez egiñ-ta ofensa geiago,
gaurkua oso aztutzat dago.

14/ *N. jauna:*

Berriz nik egiñ zuri ofensa?
Arren orlakorik ez bara pentsa!!
Zaukazkit neskatxa fiñ batetzat,
eta gusto aundiz emaztetzat
artuko zaitut;
biyotzetikan esaten dizut,
zuretzat ona baderizkizut.

15/ *J. Bixenta:*

Ori egiaz baldiñ badiyo,
neregana egon liteke fiyo;
bañan usatubaz kortesiya,
ama neriari lizentziya
eska bezaio.

N. jauna:

Ori gustora egingo zaio,
biyar goizian juango naitzaio.

16/ *J. Bixenta:*

Banua oraiñ.

N. jauna:

Atoz onuntza,
birerako artu zazu laguntza.
Adi zazu, morroi Joxe Juakiñ:
etxera farolan argiyakiñ
aingeru oni
gaur zuk laguntzia da komeni,
kezketan egon ez nariyen ni.

17/ *Morroiak:*

Aingeru ari lagundu eta
orra, jauna, egiñ ostera buelta;
birian, bai, bildurtxo zan bera,
bañan allegatu-ta etxera
kontentu zegon;
oraiñ kezketan ez du zer egon,
oiera jua ta pasatu gau on.

18/ Eldu zanian urrengo goiza,
nagusiyak zuben kunplitu itza:
jua zitzaion amari etxera,
andretzat alaba eskatzera;
ama txit firme
artu ta gero milla informe,
gelditu ziran biyak konforme.

19/ Andik zortzi bat egunetara,
edo amar ziran ez dakit bara;
ez, amar eziñ zitezken izan,
andik zortzi egunera elizan
ezkondu ziran;
ezkondu ta etxera segiran,
jendia franko bazuten jiran.

20/ Bost illabete edo sei ontan
ez dirade beti egondu lotan;
eman dute zenbait jirabira
eta gozatutzen bizi dira
ditzak ausarki;
obeto eziñ litezke arki,
espero dute aurtxo bat aurki.

21/ Dama gaztiak, ez egon lotan,
begira zaitetze ispillu ontan:
gustatuta birtute ederra
andretzat artu bere maizterra
du nagusiyak;
orla irabaztera graziyak
saia zaitetze beste guziyak.

Bilintx

* * *

Donostiko *Diario de San Sebastián* egunkarian, 1874-eko azaroaren 21-ean, onela irakurtzen da:

“Hemos tenido el gusto de recibir un ejemplar de unos preciosos versos en vascuence que con el título de Juana Vishenta Olave, ha publicado el conocido y popular poeta VILINCH, y cuya lectura recomendamos a nuestros lectores, que encontrarán en ellos toda la gracia y el sentimiento que con un purismo rarísimo hoy sabe verter en sus versos euskaros el modestísimo Vilinch, á quien suplicamos continúe en esta empresa, de la que puede obtener honra y provecho.

Dichos versos se hallan de venta en casa del autor, y en la litografía de D. V. Iraola.”

Garai artan, egunkari orren zuzendaria Jose Manterola jauna zan; Bilintxen balioaz iñor baiño leenago oartu zana, alegia. Ziur aski, lerro oiek ere berarenak izango dira. Bertso-paper berri orrek ematen zion egokieraz

baliatuta, langintza ortan jarraitzeko esaten dio Bilintx gizarajoari. Etzekiten, ez Manterolak eta ez Bilintxek, onek eriotza ain urrean zuanik.

Orduantxe argitaratuko ziran bertso auek leenengo aldiz. Egunkari orrek dionez, bertso-paper ori Bilintxen etxean eta V. Iraola-ren litografian saltzen zan.

Ain zuzen, Jose Manterolaren bilduman antxe daude bertso auek paper batean; eta moldiztegi-izena onela adierazten da: “V. Iraola-ren litografiyan”.

Paperaren beeko barrenean, berriz, oar luze au egiten da:

“Debecatuba dago, canta obec, iñorc moldeco letraquiñ paperian ezarritzea, beren sortzalliaren baimena bague. Bara onenchen bere beriac dirare, eta ontan faltatzen dubenac izan-

go du leguiac aguintzen duben castiguba."

Dakigunez, oar ori bera dago Zenbait damaren esker txarra bertsoetan.

Iñork argitaratzeko aren baimena bear baldin bazan, sortzaillea artean bizi zala esan nai du. Bestela, etzegoan ori jartzerik. Bilintxen denborako papera degu, beraz.

V. Iraola ori, irakurlea oartuko zenez, liburu ontan ainbeste aldiz aitatu degun Biktoriano Iraola da.

* * *

Baiña Bilintxen paperetan beste argitaraldi bat ere arkitu degu. *Donostian: Juan Osés-en moldiztegián* inprentatuta dago. Gaur egunean Chicago-ko *New Library*-n gordetzen dan Bonaparteren bilduman ere antxe dago bertso-paper au.

Arestian itzez itz aitaturako oar luze ori paper onek ere badu. Sortzaillearen baimenik gabe bertso-sail ori ezin argitaratu zitekeala esaten duan oarra alegia. Paper au ere Bilintxen garaikoa izango da, beraz.

Leen ere adierazi degunez, Bilintx orren txorrotx jartzeko arrazoi bakarra ikusten degu: aren bertsoak salmenta ona zutela ikusirik, batenbatzuk aren bertsoak inprentara bialtzen asiak zira-la, egilleari ezer esan gabe; baiña gero irabazia beren patrikarako zutela.

Itxuskeri nabarmena noski, baiña gauza bat erakusten diguna: asieratik

oso arrera ona egin ziela gure erriak Bilintxen bertsoei.

* * *

Biktoriano Iraolaenean egindako argitaraldi orrek amargarren bertsoaren leenengo lerroa onela du: *Biotz nereco maite polita*. Baiña *Biotz nereco dama polita* diote beste danak. Juan Osés-eneko moldiztegia asi zan lerro ori orrela idazten, Bilintxen denboran asi ere, eta beste danak berari jarraitu. Orregatik, orrelaxe jarri degu guk ere.

* * *

Biktoriano Iraolaren eta Juan Osés-eneko argitaraldietan, eta urrengo beste askotan ere bai, onela esaten da izenburuaren azpian: *Hurra Papitoren doñuban*. Zer doiñu da ori?

Doiñu ori oso ezaguna izango zan iñundik ere. Bestela, etzuan Bilintxek orrela aitaturako. Karliten eta liberalen arteko bigarren gerra-denborako bi bertso-paper ere doiñu ortan jarriak dira. Oietako batek izenburua onela du: *Orra Papitoren doñuan kantatzeko*. Leenengo bertsoa auxe da:

Bertso berriak noa paratzen,
dibersiyuaz denbora pasatzen;
liberalai diet esaten
badijuazela umiltzen.

Ta noiz zatozte
maiztarretara kapoien eske,
maiztarretara kapoien eske?

Liberalak, beste bertso-paper batean, onela erantzun zuten:

Donostiako baserritarrak
eragiñazten dizkigute farrak;
igualak dira gazte ta zarrak,
danak dira Karlosen maiztarrak.
“Ta noiz zuazte?”
galdezka gabilta jai ta aste;
bañon ez gera juango, ez det uste.

Bertso auek eta Juana Bixenta Olaberrenak, silabaz, puntuz, lerroz eta abar bertso-mota berdiña dute. Garai artan, esan bezela, oso ezaguna izango zan *Urra Papitoren* doiñu ori; eta berdin bertsoak ere.

Baiña bertso oiek ez ditugu iñun ere arkitu. Doiñua, berriz, J. A. Santestebanen kanta-liburu batean azaldu da: *Cantos y Bailes tradicionales vascongados arreglados para piano por J. A. Santesteban*. Liburu ontan kanta bakoitzaren izenburua eta doiñua datoz; bertsorik ez, ordea. Eta, bigarren zenbakian, *Urra Papito* izenburua duan doiñu bat arkitzen da; ain zuzen, gaur ere *Juana Bixenta Olabe*-ren bertsoak kantatzeko erabiltzen dana.

Euskal-Erria aldizkariaren leendabiziko urtean, 1880-an alegia, beraren zuzendaria Manterola zala, bertso auen doiñua bertan argitaratu zan. Aurretik, ziur aski Manterolak berak idatzita, onela esaten da:

“Con el presente número acompañamos á nuestros lectores la música de esta lindísima canción bascongada, original del profesor de nuestra Academia de música D. Raimundo de Sarriegui, y transcripta por el mismo para voces y piano, en obsequio á los suscriptores de la Euskal-Erria.

En union con dicha música pensábamos acompañar también la letra de esta bellísima composición popular, una de las últimas debidas á la pluma del simpático Vilinch, pero la circunstancia de hallarse haciendo una tirada especial de la misma, por cuenta de su viuda, nos impide realizar nuestros propósitos, á fin de no perjudicar en lo más mínimo los intereses de la que fué cariñosa compañera del malogrado Indalecio Bizcarrondo.”

Andik denbora-puska batera, urte berean, onela esaten du *Euskal-Erria* aldizkari orrek:

“En el estanco de la viuda de Viscarrondo se ha puesto a la venta, a precio de diez céntimos el ejemplar, la canción popular “Juana Vixenta Olave”, del malogrado poeta easonense Vilinch.”

Sail onen argitaraldi-zerrenda luzea arkituko du laster irakurleak. Baiña ez dakigu bereizten oietako zein dan Bilintxen alargunaren aginduz egin zan ori. Ba ote degun ere ezin esan.

Edozein moduz, argitaraldi berria egin bazuten, bertso auek erriaren gustokoak zirala dudarik ez da.

Etxeberria eta Gimonek beren *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman argitaratu zuten bertso-sail au, batere aldaketarik gabe. Baita doiñua ere. Baiña Sarriegik eratu eta *Euskal-Erria*-k argitara eman zuan ori bera da. Onela dio: *Música de R. Sarriegui, Letra de Vilinch*. Emen agertu naiez, *Ecos de Vasconia* dalako ortatik artu degu doiñu ori.

* * *

Beste doiñu batzuk ere jaso ditugu erriaren aotik. Oiek ere liburu ontan

arkituko ditu irakurleak. Bertso auek gaur egunean nola kantatzen diran erakutsiko digute. Ez dira, zuzen esateko, doiñu berriak; *Urria Papito* doiñuaren aldaketak baizik. Baiña jakingarriak zirala iduritu zaigu, eta orregatik emen azaldu bearrak.

* * *

Izendatutako oietaz gaiñera, beste argitaraldi asko izan dituzte bertso auek. Ona orain gure eskuetara iritxi diran argitaraldien zerrenda, baiña al-daketarik esan gabe. Dituztenak, izan ere, uste gabeko okerrak baitira, eta aitatzerik merezi ez dutenak.

Bertso-papera, "*Eibar - Imprenta de Pedro Orue*", Parisko Liburutegi Nazionalean. Eskuz idatzita, itz auek ditu paper onek: "*Pris à Durango, 1891*".

Bertso-papera, "*Oñate: Imp de M. Raldúa*". Ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde - Irún*", Bodleyan Library, Oxford. Beeko barrenean, eskuz idatzita, itz auek: "*de Vilinch, Mayo 1899*".

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde - Irún*", beste argitaraldi bat. Errenteriko Jertrudis Arrieta zana.

Bertso-papera, "*Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*", Manuel Urreta zana, Tolosa.

Bertso-papera, "*Rentería: Tip. Vda. Valverde*", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "*Imp. de S. de Diego - Eibar*", Isaak Lopez-Mendizabal zana, Tolosa.

Bertso-papera, "*Imp. de S. de Diego - Eibar*", beste argitaraldi bat, Frantzisko Lasa, Zaldibarren, Bidania.

Bertso-papera, "*Imp. de S. de Diego - Eibar*", beste argitaraldi bat, Pepe Bolunburu, Plazentzia.

Bertso-papera, "*Eibar - Imprenta de Pedro Orúe*", Enrike Elizetxea zarenaren bilduma, Errenteri.

Bertso-papera, "*Guernica: A. de Goitia y Compañía*", Gregoria Ibarгойen zana, Orío.

Bertso-papera, *Imprenta Goitia y Compañía - Guernica*", Altxalegi baserria, Berriatua, Ondarroako Jose Maria Etxabururen bitartez.

Bertso-papera, "*Guernica - Imp. Artística Goitia y Hormaecha*", Jose Goikoetxea, Amarotz, Tolosa.

Guk eskuratu ez ditugunak, baiña Ion Bilbaok bere bibliografian, *Bizcarrondo Ureña Indalecio* atalean aitatzen dituanak, beste bi bertso-papera auek:

Bertso-papera, "*Eibar: Pedro Orue*".

Bertso-papera, "*Guernica: Goitia y Comp.*".

Aldizkari eta liburuetan, berriz, beste argitaraldi auek ezagutzen ditugu:

Euskal-Erria aldizkaria, 1907.

Bilintx - Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.'ren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Errenteri, 1931-XII-20.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irarkola, Errenteri.

Euskal-Erriko Kanta Zarrak, Tomo I, Makazaga irarkola, Errenteri.

Gure kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, Donosti.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Revista Trama, Gráficas Valverde, Donostia, 1962.

Auspoa 12, 1962.

J. A. Santesteban: Cantos y bailes tradicionales vascongados.

Andantino.

№ 2.
URRA PAPITO



Juana Vishenta Olave.

Nº 9.

Música de R. Sarriegui.

Canto vascongado.

Poesía de Vilinch.

Andante. M.M. $\text{♩} = 100$.

Jua-nu, Jua-nu Vi-shen-ta Vi-shen-ta Jua-na Vi-shen-ta O-lu-ve.

Na-gu-si Jan-na, au-shen-da la-na, a-mak bi-gal-tzen nau be-ro-rren ga-na.

mf ¡Ay! ¡Ay! bi-gal-du-ko ba-zin-du-ke maiz, zu i-ku-si ta kon-so-lu-tzen maiz, chi-

p nis-ta zu-zu o-so zo-ra-tu-ri - kan nau-ka-zu! O-rren po-li-ta no-

la ze-ra zu. la ze-ra zu. O-so zo-ra-tu-ri - kan nau-ka-zu O-rren po-li-ta no-

la ze-ra zu. lu ze-ra zu Juana-cho po-li-ta ze-ra zu, ze-ra zu.

Maria Oiartzabal zana, Lorentziona, Donosti:

A musical score consisting of four staves of music. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 3/8. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and a 3/8 time signature. The music consists of eighth and sixteenth notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line.

Xabier Ugaldebere, Millene, Iturriotz, Oiartzun:

A musical score consisting of four staves of music. The key signature is two sharps (F# and C#) and the time signature is 3/8. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef, two sharp signs, and a 3/8 time signature. The music features eighth and sixteenth notes, with some rests and slurs. The piece concludes with a double bar line.

Jose Mari Etxaburu, Ondarroa:

Musical score for Jose Mari Etxaburu, Ondarroa. The score is written in treble clef with a key signature of three sharps (F#, C#, G#) and a 3/8 time signature. It consists of four staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of three sharps, and a 3/8 time signature. The music features a series of eighth and sixteenth notes, with some rests. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns. The third staff shows a continuation of the piece, with some notes beamed together. The fourth staff concludes the piece with a double bar line.

Koxme Lizaso bertsolaria, Oiartzun:

Musical score for Koxme Lizaso bertsolaria, Oiartzun. The score is written in treble clef with a key signature of three sharps (F#, C#, G#) and a 3/8 time signature. It consists of four staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of three sharps, and a 3/8 time signature. The music features a series of eighth and sixteenth notes, with some rests. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns. The third staff shows a continuation of the piece, with some notes beamed together. The fourth staff concludes the piece with a double bar line.

Mariano Ortolaitz, Oiartzun:

Musical score for Mariano Ortolaitz, Oiartzun. The score is written in treble clef and consists of four staves. The first staff begins with a 3/8 time signature and a common time signature. The second staff contains a double bar line with a 3/8 time signature. The third staff contains a double bar line with a 2/8 time signature. The fourth staff contains a double bar line with a 3/8 time signature. The music features various rhythmic patterns, including eighth and sixteenth notes, and rests.

Juan Mari Lekuona, Oiartzun:

Musical score for Juan Mari Lekuona, Oiartzun. The score is written in treble clef and consists of four staves. The first staff begins with a 3/4 time signature. The music features various rhythmic patterns, including eighth and sixteenth notes, and rests.

AMORIYUARI

- 1/ Biotza daukat gaitzikan gabe
joan dan aspaldian eri,
sendatu ezin dalako kulpa
beti ematen dit neri;
itz erditxo bat aitatzen ezin
atrebitu naiz iñori,
eta aitortzen ez baldin badet
etzait kenduko miñ ori.

- 2/ Amoriyua daukatalako
maitetxo polit batentzat,
uste gabean pensamentua
berarengana joaten zat;
aren igualik jaio izandu
danik iruritzen etzat,
berak nai balu betiko pozik
artuko nuke neretzat.

- 3/ Kalian topo eginda ziran
batian esan ariyo,
itz arrek zuen nere barrenen
sartu milla amoriyo;
geroztik ezin esan ainbeste
biotz neriak nai diyo,
sentimentu bat artzen det bestek
itzik egiten badiyo.

- 4/ Nik arengana dedan naitasun
edo amoriyo fiña,
alde batetik gozua da ta
bestetik berriz samiña;
nere barrenen arkitzen ditut
atsegiña eta miña,
indarrez ez naiz bi gauz oieri
aguantatutzeko diña.
- 5/ Biok izketan gauden denboran
alkarri begira farrez,
nere barrena irukitzen det
suspriyoka negarrez;
bera izanik daukadan miña
senda lezakena errez,
au esatia atrebitutzen
ez naiz lotsaz da beldurrez.
- 6/ Ez det jaten da lorik egiten,
gau t'egun nago penetan,
neria izan artean ez naiz
jarriko nere onetan;
segitu bear badet aurrera
sufritzen modu onetan,
urte askorik bizirik ez det
pasako mundu onetan.
- 7/ Nik arganako naitasun fiña
iruki arren nerekin,
arrek ez dakit niganakorik
daukan edo ez berekin;
baldin baleuka ta biok bata
bestearen berri jakin,
laster giñake alkarren jabe
egingo Ines ta Joakin.

8/ Berak maitatzen ez baldin banau
sentimentuba artuta,
nere buruba arkituko det
penaz tristuran sartuta;
miñez jarririk zain, azal, ezur
utsetara biurtuta,
despeituko naiz sebo-kandela
bat bezelaxen urtuta.

Zortzi bertso auek, or goiko izenbu-
ruarekin, Donostiko Jose Manterola
zanaren bilduman arkitu ditugu.

Eskuz idatzita daude. Egillearen
izenik ez da esaten.

Baiña lerro asko irakurri baiña le-
en, Bilintxen antza artzen zaie bertso
auei: aren sentimentuak, aren joskera,
aren esaldiak, aren bertsogintza...

Ortaz gaiñera, irugarren bertsoaren
asierari arreta piska bat jarri bearko
genioke:

Kalian topo egin da ziran
batian esan ariyo...

Asiera orrek Bilintxen bi bertso go-
gora arazten dizkigu. Bata, *Pozez ta
bildurrak* izeneko saillaren seigarrena.
Onek bukaera era ontan du:

kalian ikusita
esan dit ariyo.

Eta *Neskatxa bati mutill batek ja-
rriak* izeneko saillaren amargarren
bertsoa onela asten da:

Lengo egun batian,
ai, San Antoniyo!,
doi-doi egin zeniran
kalian ariyo...

Iru bertso oietan pentsamentu bera
arkitzen degu. Bilintxena izango ote
da, beraz, beste bertso-sail au ere?

Batetik, bertso onak dira eta arenak
izan ditezke. Bestetik, ordea, pentsa-
mentu ori garai artako bertsolarien ar-
tean zebillena izatea ere baditeke. Ez
Bilintxek asmatua, alegia. Edo, beste-
la, Bilintxek asmatua bai, baiña beste
bertsolari batek bereganatua.

Ortaz gaiñera, Manterola oso xuxe-
na zan bere lanetan, eta nekez aaztuko
zitzaion bertso oien egillearen izena
idaztea, norenak ziran jakin izan balu;
eta are nekezago noski, Bilintxenak zi-
rala jakiñik.

Orregatik, beste argitasunik ez de-
gun bitartean, ez diogu irizten bertso
auek Bilintxenak dirala segurutzat jo
ditekenik. Baiña arenak ez dirala ere
ezin esan. Ala, zalantza orren mende-
an bada ere, bertso oiei ere liburu onen
ateak zabaltzen dizkiogu.

DOMINGO KANPAÑA

- Mando baten gañian
Domingo Kanpaña,
etzijuak utsikan
mando orren gaña.
Azpiyan dijuana
mandua dek baña,
gañekua ere badek
azpikua aña,
mando baten gañian
bestia alajaña!

- Indalezio, Indalezio,
Indalezio Moko,
uste al dek, uste al dek
ez autela joko?

- Berriz esaten banak
Indalezio Moko,
ezurrak autsi arte
ez diyat lajako.

Argitaraldirik zaarrena, guk arkitu ditugunetan, Etxeberria eta Gimonen *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman dago, 60-garren zenbakian. Itzak norenak diran adierazteko, onela dio: *Poesía de Canpaña y Vilinch*. Kanpaña dalako orrek erantzuna eman baitzion; etzan ixilik gelditu. Doiñuagatik, berriz, onela esaten du: *Música de XXX*. Erriaren aotik jaso, beraz.

Etxeberria eta Gimonen doiñua urrengo orrialdeetan eskeiñiko diogu irakurleari. Bertsoak, berriz, or goien ezarri degun bezela dute, irugarren lerroa izan ezik. *Utsirik* irakurtzen da kanta-bilduma ortan. Ala bear dualakoan, *utsikan* idatzi degu.

* * *

Bilintzek Domingo Kanpañari bota ziona baiño bertso ezagunagorik, Euskalerrian oso gutxi izango da. Orregatik, oraingo ontan ezin jardungo gera zenbat tokitan arkitu degun eta bakoitzak zer aldaketa dituan esaten. Luzeegia litzake.

Bertso au nun eta nola kantatu zuan Bilintzek? Bi kontaera arkitu ditugu, ori adierazten digutenak. Bata, Pepe Artolarena; bestea, izenez Dionisio Azkue eta izengoitiz *Dunixi* zanarena. Ez dituzte gauza guziak berdin konta-

tzen. Nori sinistu bear zaion, irakurle-aren gain geldituko da. Gure eginkizuna, izan ere, arkitutakoak arkitu bezela agertzea besterik ez da.

Pepe Artolarena, leenago jarria degu. *Dunixi*-rena, berriz, ona emen:

“Dejé al lector, en el anterior “croquis”, frente a un caserío del alto de Ixturín, prometiéndole el relato de cómo, en aquel lugar, surgió hace muchos años una bella poesía.

El caso es sencillo de contar, pero, antes de pasar adelante, tengo que consignar aquí una aclaración oportuna.

En mi reciente conferencia dedicada al poeta donostiarra Indalecio Bizcarrondo (“Bilintx”), con motivo del centenario de su nacimiento, comenté con admiración la extraordinaria agudeza de una de las sátiras de nuestro vate, aquella tan popular en todo el país euskeldun, que se titula “Domingo Kanpaña” y en la que con cuatro rasgos ciertos se traza una caricatura maravillosa del personaje de este nombre.

Al poner de relieve, en un inciso de la charla, el mérito para mí incomparable de esta poesía, por su fuerza gráfica y su rima penetrante, apunté con timidez la hipótesis de que pudo, según creencia bastante generalizada, haber nacido por espontánea improvisación de “Bilintx” y no, como yo entendía (guiado por la perfección literaria de las estrofas), por gestación escrita. Añadí entonces que si la verdad histórica era la primera, había que calificar de insólito el ingenio capaz de aquel brote imaginativo.

Terminada la conferencia, un veterano donostiarra(1), noble aficionado a nuestras tradiciones y archivo viviente de recuerdos locales, se me acercó y me dijo:

- “Domingo Kanpaña”-rena, bat-batekua izan zan. (Lo de Domingo Kanpaña” fue improvisado...)

- ¿Bai?

- Bai, jauna. Nun da nola, nik esango dizut. Ikusi zuenak kontatu zidan eta...(Sí, señor. Cómo y dónde, se lo diré, por habérmelo referido quien lo vió.)

Me interesó, naturalmente. Quedamos citados. Unos días después, mi amigo me relataba la historia. La sabía él por “Pikolin”.

- ¿Conoció usted a “Pikolin”?

- ¿“Pikolin”? ¿El profesor...?

- No, hombre; el fajero, un fajero viejo, un tal Iraeta, de la Calle Mayor... del tiempo de “Bilintx”!

En resumen: mi amigo conoció y trató a “Pikolin”, aunque no alcanzó a conocer a “Bilintx”. Ahora bien, “Pikolin” el fajero y “Bilintx” el estanquero, eran buenos camaradas. Indalecio, hombre sencillo, alternaba de buen grado con el peón, y con ambos se juntaban sin melindres en la donostierra democracia de las sidrerías, democracia jocunda y niveladora como ninguna, otros personajes mejor acomodados de fortuna que “Pikolin” y “Bilintx”.

Completaba en ocasiones la cuadrilla un tipo bastante original: Domingo “Kanpaña”.

Domingo era un obrero de la litografía de Fidel Múgica, antecesor de Victoriano Iraola, cuyos talleres de la calle de Narrica, esquina a la de San Vicente, muchos de mis lectores llegaron a conocer. Pues bien: entre las funciones que en la litografía competían al mozo “Kanpaña”, la más importante consistía en el cuidado de la fuerza motriz del establecimiento. En vísperas, todavía, del motor de gas y de la dinamo, la propulsión se reducía en casa de Múgica a un modesto mulo blanco que bien podía equivaler a un caballo-vapor.

Domingo, pues, cuidaba de la “central” de energía. Alimentaba al buen mulo, lo engrasaba, regulaba sus revoluciones por minuto, lo bañaba en el Urumea y, con frecuencia, terminada la común jornada, jinete y cabalgadura paseaban sus aplomadas y superpuestas anchuras por las calles de la parte vieja.

Tanta afición le tomó “Kanpaña” a la equitación en mulo, que se habituó a utilizar la montura en toda ocasión y lugar.

Una tarde, “Bilintx” con “Pikolin” y otros cuantos, saboreaban en paz una regular sidra en el caserío “Santa Teresa”, situado, como ya se ha dicho, en el alto de Ixturin. “Bilintx” (cuya vida, por lo que se advierte, no debió transcurrir tan dolorosa como escriben sus biógrafos), reunía a los primores de su vena poética una reconocida pericia culinaria. Su especialidad era la preparación del “arraigorri”. Aquella tarde, precisamente, “tenía” “arraigorri” en Santa Teresa la cuadrilla de “Bilintx”.

El poeta, en el interior, atendía al último hervor de la cazuela, con el aliño del artista que da los últimos toques a una composición, cuando los camaradas de fuera divisaron con asombro, por la parte de “Pintore”, la recia figura del amigo “Kanpaña” montado sobre el no menos recio mulo, que se acercaba camino de la sidrería. Lo nuevo y extravagante del caso fue al instante comunicado a “Bilintx”.

- Aizak, i!... Domingo Kanpaña mando gañian! (¡Oye...! ¡Domingo Kanpaña en mulo!)

Bizcarrondo asomó a la portalada con las manos pringadas.

- Bota akiyok bertso bat, Indalexio! (¡Echale un verso, Indalexio!)

En aquel momento llegaba Domingo, y “Bilintx”, de en medio del corro, frente al rústico grupo ecuestre jamás visto en sidrería, soltó de súbito, a mulo y jinete, los diez versos inmortales de su sátira famosa:

Mando baten gañian
Domingo Kanpaña,
ez dijoa utsikan
asto orren gaña;
azpian dijoana
mandua da, baña,
gañekua ere bada
azpikua aña:

mando baten gañian
bestia, alajaña!

La crónica de “Pikolin” referida por Otegui es escueta. Termina aquí. Nada dice del efecto causado en el sujeto de la poesía y en el auditorio por la improvisación de Bizcarrondo. Podemos conjeturarlo, sin embargo, mirando a la pieza e imaginándonos los personajes y el ambiente. No aclara, pues, si el caballero “Kanpaña”, a pie o montado, respondió a la acometida. Respecto de esto bastará recoger, para consignarla sin más garantías, la versión popular que dice que Domingo respondió, y que lo hizo en verso, por no ser menos, en los términos que siguen:

Indalexio, Indalexio,
Indalexio Moko,
uste al dek, uste al dek
ez autala joko?

A lo que Indalexio, herido a su vez en lo sensible de su defecto físico, replicó contundentemente, apeándose ya de toda gala poética:

Berriz esaten baidak
Indalexio “Moko”,
ezurrak autsi arte
ez aut nik lagako.

Es de creer que la cosa no pasó a mayores. Que Domingo Kanpaña se apearía del mulo; que “Bilintx”, por su parte, descendería del Parnaso y que, juntos con “Pikolin” y demás alegres compadres, pasarían a rodear la humeante cazuela de los “arraigorris”.

1. Don Enrique Otegui, de la antigua casa “Argintxiki” de la calle Mayor.

Mando baten gañian bestia.

Nº 60.

Música de XXX.

Poesía de Campaña y Vilinch.

Allegretto.

p

Man-do ba-

ten ga - ñi - an Do - min - go Cam - pa - ña e - tzi - ju - ak u - tzi - rik

pp *ff* *pp*

man - du - a - ren ga - ña. Az - pi - yan di - ju - a - na ma - du - a dek

ba - ña ga - ñe - kua e - re ba - dek az - pi - ku - a a - ña

ff *pp*

Domingo kanpaña

man - do ba - ten ga - ñi - an bes - ti - aa - la - ja - ña.

ff *pp*

Mas vivo.

In - da - le - cio In - da - le - cio In - da - le - cio mo - ko us - te al - dek us - te

p

Mas lento.

al - dek ez - au - te - la jo - ko. Be - rriz e - sa - ten - ba - nak In -

con expresion *p*

da - le - cio mo - ko e - zu - rrak au - tzi - ar - te ez di - yat la - ja - ko.

Azkuaren esku-idatzietatik, Tolosako Migel Rivillaren aotik josoa:

In - da - le - zio, In - da - le - zio, In - da - le - zi - o Mo - ko, us - te al dek us -
te al dek ez au - te - la jo - ko. Be - rriz e - sa - ten ba - diak In - da - le - zi - o
Mo - ko, us - te al dek us - te al dek ez au - te - la jo - ko?

“ASPALDIYAN, JOXEPA...”

- 1/ Aspaldiyan, Joxepa,
famatuba zeunden,
gu berriz ikusteko
desiotan geunden;
Ondarrabi aldian
aditzen genduben
dama bertsolari bat
nola bazeguen,
zeñak Euskalerrriyan
parerik etzuben.

- 2/ Egiyak ote ziran
famaren ots aiek,
bixitatu zindugun
zenbait jakiñ zalek,
amar edo amabi
donostiyatarrek;
aiekiñ batian zan
bizar aundi arrek,
izkribatzen dizkitzu
zuri bertso abek.

- 3/ Ni bertsolariya naiz,
bañon det aditu
ez nitzaizula zuri
ala iruritu;
zuk orla pentsatzia
ez da zer arritu:
nere jakinduririk
ez nuben argitu,
zergatikan ez nitzan
premiyan arkitu.

- 4/ Baliteke irixtia
premiya orretara,
agindu zenirala
goguan det bara,
prestaturikan nere
desiuetara,
baldiñ dibertsio bat
nai banuben para,
etorriko ziñala
Errenteriyara.
- 5/ Egizu naizunian,
dama, etorrera,
zuregan utzitzen det
egunan aukera;
ipintzen badirazu
orrelako era,
aprobetxatu gabe
ez niteke gera,
alkarrekiñ berriro
mintzatuko gera.
- 6/ Arkitzen baldin banaiz
orduban umorez,
proga emango dizut
lenagoko ordez,
beste iñori bañan
gustorago doblez,
gero juzga dezazun
ezaguera obez,
ia bertsolariya
al naizen edo ez.

Sei bertso aukeratu Bilintxen esku-identzietan arkitu ditugu.

Manterolak ere esku-idatzi oietan-
txe ezagutu zituan bertso aukeratu, eta be-
re bilduman kopiatu ere bai, onako oar
au erantsiz:

“*Encontrado entre sus originales de su pu-
ño y letra*”.

Etzituan, ordea, iñun argitara eman,
eta illunpetan gelditu ziran.

Manterolaren bildumatik artu geni-
tuan guk, *Auspoa*-ren 12-garrenean ar-
gitaratzeko. Baiña uste gabean oker
aundi samarra sartu genduan: bostga-
rren bertsoaren seigarren lerroa,
Bilintxek *orrelako era* idatzi zuana,

guk *orrelako aukera* kopiatu genduan; eta, *Aukera* leen ere bertso berean punturako baitago, potu egin arazi genion Bilintxi.

Beste anka-sartze bat egin genduan *Bilintx (Indalecio Bizcarrondo (1831-1876) Donostia, 1978* liburuan ere: seigarren bertsoaren zazpigarren lerroan *gero juzga dezagun* kopiatu genduan guk; baiña Bilintxek *gero juzga dezazun* idatzi zuan.

Bilintxen esku-idatzietan, bostgarren bertsoaren laugarren lerroan, *egunaen auquera* esaten da; neurrirako-eta obeto dagoalakoan, *egunan aukera* idatzi degu guk.

Esku-idatzi oietan eta Manterolaren bilduman, izenbururik ez dute bertso auk. Or goien ezarri deguna, gerok leenengo bertsoetik berezia da.

Bertso auetan adierazten danez, Ondarrabian Joxepa izeneko dama bertsolari bat bizi zan, eta ari desafioa egiten dio Bilintxek. Joxepa orri buruz ez degu beste argibiderik inñundik bildu aal izan.

Bigarren bertsoan, *bizar aundi arrek* esaten du Bilintxen bere burua-

gatik. Leen esan degunez, bizarduna zala ortik dakigu.

Joxepa dama bertsolari orrek aintzat artu ez duala-ta, minduta azaltzen da emen Bilintx. Bere izen ona etzeukan nunbait ere edozein modutan galtzeko.

Laugarren bertsoan onela esaten da:

baldin dibertsiyo bat
nai banuen para...

Itz ori bera, *dibertsiyo* alegia, erabili zuten Patxi Bakallok eta Xenpelarrek, alkarri desafio egin ziotenean. Bakallok:

dibersiyo polit bat
nai genduke jarri...

Eta Xenpelarrek:

gizona gonbidatzia
dibersiyo bat'a...

Aspaldiyar, Jostepa,
 famatuba seundex,
 gu beriz icusteo
 desiofan guenden:
 Ondarrali aldian,
 aditren guenduben,
 dama vertrolari bat
 nola bā següen,
 cenac euscā emiyan
 parrerie etubten.

Equiyae ote cinan
 famaren ote agee,
 vishitatu cindugun
 cembait jaguin salee;
 aman edo amali
 Donostiya-tarree,
 agequin botian ran
 bizar aundi arree,
 izribatzen dirquitzen
 zuri bertzo abec.

At vertrolariya nairz
 lanan det aditu,
 ez nitraizula zuri
 ala inuritu:
 zue onla penetratia
 ez da cer arritu,
 nere jaguinduzine
 ezriben arguitu,
 cergatican ezmitran
 premiyā arguitu.

Ba lite que irishitia
 premiya orretara,
 aguindu cenirala
 goguan det lara;
 prestaturican nere
 desiiētara,
 baldin dilentriyo bat
 nai baniben para,
 etornio cinala
 Errenteriyara.

Equiru nairumian,
 dama, etorrera,
 zuregan nitritzen det
 egundān auguera;
 isintzen badirazu
 orrelaco era,
 aprobechatu gabe
~~edot~~ ~~mañda~~ gora
 ezmitteque guera,
 alcarreguin berriro
 minbratuko guera.

Arguitzen baldin banac
 orduban ~~inuriez~~,
 proga emango ditut
 lenagoco ordiez
 beste inori banan
 quitorago doltez,
 guero fusga dezazun
 esagüera oler,
 hta vertrolariya
 alnairzen edo ez.

BERTSOLARIEN GUDUA

Peruk:

1/ Aizak, Txanton, Premiñi
ik esan al diyok
ez dikala irabazten
bertsuetan iñork?
Beraz ni kontu ortan
ire mende niok?
Nola itz egiten dekan
ai, mutil begirok!
Nai dek jai lenenguan
proga gaiten biyok?

Txantonek:

2/ Egia dek Premiñi
esan diyotala
bertsuetan guziyak
txautzen ditutala;
eta esan badiyot
Premiñi nik ala,
oraindik niok itza
mantentzen detala.
Uste al dek esana
damutu zaitala?

Peruk:

3/ Ez zaikala damutu
niok jakiñian,
jakiñ eta alare
sinist eziñian,
ez dala bertsolari
iñor i añian;
abilidade asko
dakak mingañian;
progradu nai induket
gauza orren gañian.
.....(1)

Peruk:

4/ Gauza orren gañian
nai banak progradu,
Txanton Aritzpekua,
zer nai dek jokatu?
Orra kontra nork egin
aguro topatu.
Nai dituk amar ardi
demandan paratu,
zeñek ederragoko
.....(2)

Txantonek:

5/ Nere amar ardiyak
orra, Peru, emen,
esaminatu itzik
mardul ote dauden,
mardularen tartian
argalik daguen;
mira itzik banaka
bat bestien urren,
oiek ez ditek izan
falta belarraren.

Peruk:

6/ Nere amar ardiyak
ona emen, Anton,
mira itzik banaka
argalikan dagon;
ez dituk iñoiz ere
belar-faltan egon,
ez diyotek tatxikan
billatuko iñon,
uste diat daudela
iriak bezin on.

* * *

7/ Txanton ikusitzen det
onuntz datorrela,
Matspeko Martin jauna
jueztzat dubela;
ederki etorriya
izan deriyela.
orrek juzgatuko du
gauza dan bezela,
ero mundu ontako
iñork ez bezela.

8/ Garaiko Premiñ dator
juez Perurentzat,
gizon obiagorik
ez dala deritzat;
ondo portatu izan da
orain arte beintzat,
mundu guziyan dago
prestu eta fintzat,
orrek ez du juzgatzen
gorriya urdintzat.

9/ Garaiko Premiñentzat
ez da zer esanik,
sekulan ez du egiñ
biar eztan lanik;
gizon fiñagoen bat
mundu ontan danik
izan liteke baño
sinisten ez det nik,
fiya liteke orrengan
kezka gabetanik.(3)

10/ Martin Matspekuagan
fiyatu zaitezte,
gizon oberik iñon
danik ez det uste:
zeok zeon jueztzat
jarri gaituzute,
gugana konfiantza
beraz badezute.(4)

11/ Txanton, neri ardiyak
ik irabazi? Ai!
Koitadu triste orrek
ez uke gutxi nai!
Desiatzen dek baño
ez aiz ordia gai,
gizarajua orrek
etsi ezakek, bai,
alperrik egon gabe
ardiya oben zai.(5)

Bertso auek Bilintxen esku-idatzie-
tatik ditugu. Manterolak ere ortxe eza-
gutu zituan, eta bere bertso-bilduman
kopiatu. Ondoren, bere *Cancionero*
Vasco-n(6) argitara atera zituan.

Saillaren izenburua, *Bertsolariyen*
gudua alegia, Bilintxen esku-idatzie-
tan olakorik ezer ere ez dago eta

Manterolak asmatua izango da. Jaun
onen bilduman, ain zuzen, izenburua
jartzen duan tokian, *Bertsolariyen*
itzaren azpian, *Koplariyen* idatzita da-
go. Manterola zalantzan egon zan, be-
raz, *Koplariyen gudua* ipiñiko ote
zuan.

Gaia ere orixe dute bertso auek; bi

bertsolariren saioa eta jarduera adierazi nai dizkigute.

Ori dala-ta, Manterolak bere denborako bertsolaritzaz zer pentsatzen zuan azaltzen digu. Aitamen luze samarra izango bada ere, oso-osorik aldatuko degu onera:

“Es fenómeno extraño en verdad y digno de notarse, que, siendo el país vasco tan pobre en poetas que hayan cantado sus glorias, legando sus obras á la posteridad, sea á la vez tan abundante en improvisadores populares (Itz-neurtulariac edo berzolariac), que dotados de un maravilloso instinto poético, aunque desprovistos la mayor parte de las veces de toda cultura, hablan en verso con una facilidad verdaderamente asombrosa y con una espontaneidad, que no puede ménos que llamar la atención del que observa las costumbres de este pueblo, tan digno de ser estudiado por el sello de originalidad que en todas las esferas le distingue y caracteriza.

Ciertamente se presta mucho para la poesía, tanto por su dulzura y su flexibilidad, como por su armonía y su estructura especial, la hermosa lengua que conservan desde tiempo inmemorial los descendientes de Aitor, pero esta sola circunstancia no basta; es preciso además suponer en la masa del país, de donde salen tantos de estos desconocidos trovadores, un grado mayor de cultura general, un sentimiento más delicado y mejor desarrollado del que por lo comun domina en las clases populares, algo, en fin, de más perfecto, que preste materia á su inspiración.

El número de estos improvisadores abunda, especialmente en Guipúzcoa, de una manera extraordinaria y es muy comun hallar en nuestras romerías y fiestas, en cualquier punto donde hay reuniones un tanto numerosas, dos ó tres de ellos, que ante un gran concurso y sin preparación alguna disertan horas enteras en verso vascongado, y sostienen largas polé-

micas, demostrando en ellas un buen sentido y una lógica tal, que no pueden ménos de extrañarse en hombres completamente rudos, que no han visitado más aulas que las nativas montañas, donde han aprendido á sentir y á cantar.

Los asuntos del día, la crónica menuda de la localidad, el amor, las virtudes del Santo en cuya memoria se han congregado en la romería, y otros asuntos de análoga índole, son generalmente los que sirven de tema en estas luchas; pero no es raro tampoco verles disertar en ocasiones sobre materias más arduas y delicadas, sin que por eso se note en ellos mayor embarazo ni dificultad.

!Qué pensamientos más ingeniosos salen más de una vez de sus labios! ¡Qué causticidad y gracejo muestran en sus improvisaciones! ¡Qué epigramas más agudos! ¡Cuánta espontaneidad en aquellos versos, á vuelta de una que otra incorrección, y de algun desaliño en su forma!

Y cuidado que muchos de estos improvisadores, por no decir todos, no sólo ignoran que existe un arte poética, sino que no han leído en su vida un solo verso: más que eso, muchos de ellos ni aun conocen una letra del alfabeto.

No han visto un solo tratado de lógica, ni saben si existe, y sin embargo, razonan y discuten perfectamente.

No han estudiado más moral que la que contiene el Catecismo; y á pesar de esto, rarísima vez se les oye, -y en esto difieren esencialmente de otros muchos copleros populares-, una sola palabra mal sonante, una idea repulsiva ó atentatoria al pudor y á las buenas costumbres.

Por eso he dicho y repito que en estos hombres rudos, avezados al trabajo y desprovistos de toda cultura, es preciso suponer, para hacer lo que hacen, además de su inspiración poética, una exquisita sensibilidad, un gran sentido práctico, cierta educación espontánea é ingénita, si así puede decirse, un oído excelente, algún sentimiento musical, y sobre

todo eso, una gran dosis de honradez y un gran fondo de moralidad.

El pueblo vasco ha sido siempre muy aficionado á escuchar á estos populares trovadores, y en las fiestas de nuestros pueblos era en tiempo antiguo casi indispensable su presencia para animar las romerías.

El excelente escritor guipuzcoano D. Juan Ignacio de Iztueta refiere que un dia del mes de Febrero de 1800 se verificó en la plaza de Villabona uno de esos certámenes, en el que se cruzaban cinco onzas de oro por cada parte, y ante un jurado especial nombrado para el caso, y un público de más de cuatro mil personas, improvisaron durante un par de horas, con extraordinario aplauso, dos de estos verzolaris (Zabala, Amezquetarra y Chabalátegui de Hernani) y, en efecto, el fallo dado por los jueces, que declararon igualmente dignos á ambos contrincantes, se hizo tan popular, que ha merecido ser incluido por el maestro Santestéban en su excelente Colección de aires vascongados, donde figura con el título de Iru juecen erabaquia.”

Ondoren, Bilintxen bertso-sail oni buruz itzegiten du Manterolak. Onela dio:

“Pintar una de estas luchas entre dos rústicos pastores que se disputan la gloria de ser maestros en el arte de improvisar, tal es el objeto que se propuso Vilinch en su Berzolariyen guduá, cuyo fragmento, hallado entre sus originales, verán los lectores á continuación.

Este trabajo, que se halla incompleto, sin ser de un gran mérito ni mucho ménos, presenta al vivo, con su propio lenguaje, con sus propias maneras, y hasta con su peculiar estilo de versificación, á dos pastores, que vanagloriándose de no hallar rival en la improvisación en verso, cruzan una apuesta de diez ovejas, y se disponen á disertar ante testigos y jueces nombrados al efecto y que diriman la contienda.

Lástima es que de esta composición no nos hayan quedado sino escasísimos fragmentos,

pues á pesar de la vulgaridad del asunto y de la rusticidad de la forma, hubiera sido indudablemente leída con gusto, dado su carácter popular, por cuantos han asistido alguna vez á estas luchas tan comunes en otros tiempos en nuestras montañas.

De todas maneras, y aunque valen poco los trozos que he podido conseguir, los ofrezco á los lectores del Cancionero, tal cual he podido salvarlos, por si pueden formarse una ligera idea de este trabajo inédito del malogrado poeta donostiarrá.”

* * *

Manterolak esan bezela, garai artako bi bertsolariren jarduera eta saioa agertu nai dizkigu emen Bilintxek. Baiña galdera bat egin diteke: gauzak ziran bezelaxe azaldu al zituan? Gure iritzirako, pixka bat edertu egiten ditu; poesiaz jantzi alegia. Ala ere, balio aundiko testigantza ematen digu, denbora aietan bertsolari-saioak nola egiten ziran.

Or agertzen danez, orduko bertsolariak alkarri desafioa egiten zioten; ainbeste diru edo gauzaren trabesa egin; epailari bana aukeratu; erria edo tokia izendatu; beste baldintza danak ere aurretik erabaki; eta, saio-denboran, zein garaile atera gogotik saiatu. Orrela egiten zutela ematen du. Aizkol-apus-turen bat balitz bezela, alegia. Billabonako ori ere orrela egin zan.

Manterolak esaten duanez eta irakurlea ere bereala oartuko zanez, bertso-sail au osatu gabe dago. Agidanean, etzuan Bilintxek bukatzeko betarik izan. Gaia ondo erabiltzeko, bertso geiago bearko litzake. Ortaz gañera,

amargarren bertsoak bi lerro falta ditu. Tartean bertso bat edo beste ere falta da. Ori nun gertatzen dan, oarretan adierazi degu, Manterolaren itzak aita-tuz.

Gaizki kopiatu zuan Manterolak amargarren bertsoaren leenengo le-rroa. *Martin mats-pecuaren* idatzi zuan; eta *Martin mats-pecuagan* esaten du esku-idatziak.

Beste bi tokitan, leenengo idatzia zuana tatxatu egin zuan gero Bilintxek. Ala ere, itz zaarrak ondo irakurri ditezke. Manterolak jasotzen ez baldin baditu ere, onera aldatzea merezi dute-nak dirala derizkiogu.

Zuzenketa oietako bat bostgarren bertsoaren irugarren eta laugarren le-rruetan egin zuan Bilintxek. Aurrena beste onela idatzi zuan:

zer dan ez daquitenac
falta belarraren.

Zazpigarren eta zortzigarren bertso-en artean, berriz, lau lerro daude tatxa-tuta. Onela diote:

garaico premin dator
peruren jueztzat
beste bat bañan ori
obe da gureztat.

Eta paperaren ertz batean bi lerro auek irakurtzen dira:

Chanton nere ardiyac
ara emen aman.

* * *

Bertso-sail onek, osaturik gabe da-goalako-edo, ez du argitaraldirik asko izan. Onako auek arkitu ditugu, Manterolak bere *Cancionero Vasco-n* egin zuanaren ondorengoak:

Bilintx - Neurtitzak eta Neurri ga-beko itzak, 1911, Donostia'n, Martin, Mena y C.^oren etxean, Euskal-Esna-lea-k argitara arazia. Onek, irugarren eta laugarren bertsoen arteko puntu-lerroaren alboan, *Txanton* ipintzen du, or falta dan bertsoa onek botea bear zuala jakin arazteko. Seigarren eta zazpigarrenaren artean ere *Txanton* idazten du, gauza bera adieraztearren. Ortik aurrera, Manterolak ez du esaten zeñek zer kantatzen duan; Bilintxen esku-idatzietan orrelakorik ez baitago. Are geiago: zortzi eta bederatzigarren bertsoak juezak kantatuak izango ote diran esaten du Manterolak oarretan. Liburuxka onek, berriz, pauso bat aurrera ematen du, bertso bakoitza nork kantatua izango zan seiñalatuz: 7: Peru; 8: Txanton; 9: Martin; 10: Premiñ; 11: Peru.

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Errenteri, 1932-IV-24.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irar-kola, Errenteri. Onek *Euskal-Esnalea-ren* liburuxkak bezela ditu bertsoak.

Auspoa 12, 1962.

1. Manterolak, bere *Cancionero Vasco-n*, onako oar au egiten du emen:

"*Falta aquí indudablemente una estrofa que no existe en el borrador original, de puño y letra de Vilinch.*"

2. Puntuz idatzitako lerro onengatik oar au egiten du Manterolak bere *Cancionero Vasco* dalako ortan:

“Falta este verso en el original. Se conoce que al llegar ahí tuvo que suspender el poeta su trabajo por cualquier causa. Las estrofas que siguen á esta se encuentran en cuartilla separada, sin órden y con algunas enmiendas.”

3. Manterolaren oarra: *“Esta estrofa y la siguiente están indudablemente puestas por el poeta en boca respectivamente de los jueces Martín y Fermín, designados por los interesados para dirimir la contienda”*.

4. Irakurlea olartuko zanez, bi lerro falta ditu bertso onek.

5. Manterolaren oarra: *“Esta estrofa debe suponerse ya la 1.ª del certámen, puesta en boca de uno de los contrincantes. En los papeles de Vilinch que he examinado cuidadosamente no he podido encontrar un solo verso más que haga referencia á esta composición”*.

6. *Cancionero Vasco, Serie II, Tomo I, Abril de 1878.*

Bertsolarien gudua

Patxi Larrañaga, Azkolti'n jaio ta Zarautz'en bizi dana:



Guzutia jureminentat
 eda ser esanie
 seculan eda zquin
 biar esta lanie
 guison finago embet
 mundu ontan danie
 irara liteme bario
 sinisten esdet nie
 fiya liteme orrengan
 quexa gabetanie

Chanton neri ardigae
 ie irabari's! ayi
~~desiatzen de bario~~
 esais ordia gay
 gaisara

Martin matzpecaagan
 fiyatu saiteste
 guison oberie inon
 danie esdet ueste
 seos seon fuestat
 jamri gaitu stite
 gaigana confianza
 beras ladesute

Cervera gararada

Chanton neri ardigae
 ie irabari's! ayi
 coyta du triste birre
 ! Esu que guochi nayi
 desiatzen de bario
 esais ordia gay
 guisarayna orree
 etri esaque bay
 alpurie egon gabie
 ardigae eben saiz

Chanton neri ardigae
 ara emen arnan

~~Shantax piquitrendet~~
~~onunte daterrela~~
 mata-peco Martin jauna
 justrat, dubela
 ederqui estorriya
 isan derizela
 orrec jurgatuco du
 gausa dan becela
 ero mundu ontaco
 inore es bestela

~~garaico premin dator~~
~~perurven justrat~~
~~kaste lat kanoa ori~~
~~obe da gustrat~~

garaico premin dator
 juos perurentzat
 guison abigorie ~~adala~~
 esdala denitrat
 ondo portatu ipanda
 orain arte beintzat
 mundu gurijan dago
 prestu eta fintzat
 orrec esdu justratzen
 gorriya urdintzat

Kere amar ardiyae
 orra peru emen
~~sen sa edoquitetas~~
~~falta beldarria~~
 esaminatu itrie
 mandul ote dauden
 mandularen tartian
 argali daguen
 mira itrie banaca
 bat bestien urren
 ofte edote inan
 Julia belarraren


Kere amar ardiyae
 orra emen anton
 mira itrie banaca
 argalioan fagon
 erditu inas ere
 bekon falta egon
 esdiyotas tachicant
 biltatuo imon
 este diat dau dela
 inas bein on.

[Handwritten signature and scribbles]

[Handwritten signature]

2

[Handwritten signature]



Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis. Viaje al país de los fueros, 1878.*

ORENTZARO

- 1/ Zai egoten naiz luzaro
eldu dediñ Orentzaro,
zergatik dan eguna
zelebratzen deguna
bazkariz eta afariz,
eldutzen dan ainbat aldiz.

- 2/ Orentzaro izan ezkerro,
gure etxian urtero,
nola oroitzen zaitan,
egun artan bazkaitan
ez da, ez, izango falta
eltzian odolki galanta.

- 3/ Afari oberik berdiñ
ez du beste iñork egiñ;
ez pezeta franko´re
kostatu bazaio´re
ostaturik onenian:
Martíñ Ezkurrarenian.

- 4/ Orduko nere gloriyan,
dantzan asteko zoriyan
jartzen naiz geienian,
egiten dutenian
arduak botillan *dun dun dun*,
gaztañak surtan *pun pun pun*.

Bilintx

Lau bertso auk Bilintxen esku-idatzietatik kopiatu ditugu.

Irugarren bertsoan, irugarren eta laugarren lerroak tatxatu eta alboan osteratuta idatzita dago. Itz berri oiek idatzi ditugu noski lerro oietan; baiña Bilintxek aurrea papereratu zuana ere ezagutzea komeni da, eta ona emen:

ez, ez iñortok ere
afaldu badu ere...

Bilintxen esku-idatzietan, leenengo bertsoaren bigarren lerroan *bediñ* irakurtzen da. Orrela bear dualakoan, *dediñ* idatzi degu guk.

Jose Manterolak ere ezagutu zituan bertso auk Bilintxen esku-idatzietan; baita bere bilduman kopiatu ere. Eta, *Euskal-Erria* aldizkariaren sortzaillea eta zuzendaria bera baitzan, bertan argitaratu zituan, 1880 urtean. Baiña ortarako, Bilintxen esku-idatzietan orre-

lakorik ezer ez baitago, izenbururen bat asmatu bear eta or goien ezarri deguna sortu eta jarri zuan.

Bertso auk ez dute argitaraldirik asko izan. Guk arkitu ditugunak, onako auk dira:

Bilintx - Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Martin, Mena y C.^oren etxean, Euskal-Esna-lea-k argitara arazia. Onek Euskal-Erria aldizkariari kopiatzen dio.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irarkola, Erretereri. Onek ere Euskal-Erria-ri kopiatzen dio.

Auspoa 12, 1962.

* * *

Metrika aldetik, bertso auk Aita Domingo Meagher-ek ardoari jarritako bertsoen egitura daukate. Baita Xenpe-larren *Iya guriak egin du* bertso famatuena ere.

Zauy egoten nair luzaro
 eldu bediri cretsari
 sergati dan eguna
 celebratzen deguna
 barcariz eta afariz
 elduzen dan aln bat abeliz

Orentzaro izan erquero
 gure echiari urtero
 nola oroitzen zaitan
 egun artan berceitan
 ez da ez izango fadta
 eltrian odolqui galanta

Orduco nere gloriam
 dantzari asteo zorrian
 jartzen nair gutyemian
 eguiten ditenian
 arduac botillan elun elun elun
 gastañac surtan pum pum pum

Egari obene ~~gure~~ berdiñ
 ez du bestee inore equin
 ez ez ~~inore~~ ~~ere~~
 afaldu ~~hachu~~ ~~ere~~
 estatuec omenian
 Matin Erreurreniam

ez peata francora
 costatu barayore

KANPUAN DA

- 1/ Izar maite nubena
aiñ biyotz guztitik
juan zan Donostitik;
oraiñ neregandikan
irrutian dago;
bañan goguan dakat
juan baño lenago
itza eman zirala:
denbora gutxi barrun
etorriko zala.

- 2/ Tristetason aundi bat
juan zan ezkeroztik
senti det geroztik;
zierto dakit ordia,
berriz neregana
etorritzen danian
aiñ maite derana,
poztuko naizela
goizaren etorreran
txoriya bezela.

- 3/ Dagolarikan ere
nigandik irruti
ikusten det beti:
erritikan juan arren
oroitzatik eziñ;
zerubaren erdiyan
izar batek beziñ
argitasun aundiz,
nere pentsamentuban
egiten du diz-diz.

4/ Desiatuba nago
etorri deriyen
alegra nariyen;
kontentu biziko naiz
andikan aurrera,
maitetxo neriaren
edertasunera
itxutuba oso;
emango diyozkat, bai,
milla laztan gozo.

Lau bertso auk Bilintxen esku-idatzietatik artu ditugu. Izenburua ere, toki beretik.

Jose Manterolak ezagutu zituan bertso auk Bilintxen esku-idatzietan; baita bere bilduman kopia ere.

Ondoren, *Euskal-Erria* aldizkarian argitara eman zituan, 1882 urtean. Baiña ez esku-idatzietan dauden bezela, beraren itz auk jakin araziko digutenez:

"Hé aquí una de las composiciones menos conocidas, y no por eso de las menos apreciables, del tierno y sentimental poeta easonense Vilinch, publicada por vez primera el año 1862, es decir, hace veinte años justos."

Guk, berriz, bestetan bertso-paperei kopia badiogu ere, oraingo ontan, esan bezela eta obe bearrez, esku-idatzitari artu dizkiogu bertsoak.

Euskal-Erria-k, 1/5 eta 3/2 lerroetan *urrutiyen* eta *urruti* dio. Baiña Bilintxen bertsoetan bein baiña geiagotan irakurtzen da *irruiti*. Ez da, beraz, uste gabeko okerren bat, eta bere ortan utzi bear dala derizkiogu.

Gaiñontzeko aldaketak: 1/7: joan bañan lenago; 1/8: itzeman zirala; 2/7:

maitatzen derana; 3/4: ondotikan joan arren; 4/1: Desiatubaz nago; 4/9: iskribatuko ditut; 4/10: milla kanta gozo.

* * *

Donostiko *La Voz de Guipúzcoa* egunkaria, 1892-XII-11. Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, "*Irun'en - Valverde alargunaren echean - 1909*", Gregorio Mujika zanaren bilduma. *Euskal-Erria*-k dituan aldaketak eta beste auk: 1/9: denbora gutxi barren; 4/10: milla kantu gozo.

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Martin, Mena y C.^oren etxean, Euskal-Esna-lea-k argitara arazia. Aurrekoak dituan aldaketak eta beste au: 3/5: oroitzatik ezik.

Bertsolariya egunkaria, Makazaga moldiztegia, Erretereri, 1932-IV-17. *Euskal-Erria* bezelaxe.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irarkola, Erretereri. *Euskal-Erria* bezelaxe. *Auspoa* 12, 1962.

Lampuan da.

Yzar maite nibeña
 aín biyotz gurtitico,
 juan zan Donostitico:
 orain neregundicun
 irrutiyun dago,
 brañan goguan dacat
 juan bañan lenago,
 itza eman cirula;
 dembora gutxi barrun
 etorrico zala.

Arrietazun aundi bat
 juan zan esquerostico,
 senti det gueroztico:
 cierto daquit ordia,
 berrez neregana,
 etorritzen denian,
 aín maite derana,
 portico naicela;
 goizaren etorreran
 etorriya becela.

Dagolarican ere
 nigandic irutitico,
 icurten det beti:
 errotican juan arren,
 oroitratitico eain;
 cerubaren erditzan,
 izar butee becin
 arguitazun aundiz,
 nere pentramentuban
 eguiten da diz diz.

Desiatula nago
 etorri deriyen,
 alegria nariyen:
 contentu bicico naitz,
 andican auarera,
 maitetxo neriaren,
 edertazunera,
 iekutula oso;
 emango dizozcat, bay,
 milla lastam gozo.

Auspoa, 12, 1961.

POBRIAREN SUERTIA

Beste alibiyorik
pobriak ez daka:
negarrez jαιο eta
bizi arrastaka,
galtzarbian kolkuan
nun-nai arraskaka,
erropetan koipia,
zikiña ta kraka.
Jendiak ikustian
artutzen du lazka,
danak pasatzen zaizka
ondotik presaka;
nai baldin badu ibilli
kalian bueltaka,
ateratu orduko
etxetikan anka,
mutill txikiyak ditu
atzetik millaka,
azanariyo ero
patata tiraka;
zakurrak ere asten
zaiozka zaunkaka,
aberiak tiratzen
diyote pullanka;
danak, kristau ta abere,
guziyak txandaka
gizarajua dute
ibiltzen burlaka;
batek obe luke izan
pobre bañon kaka.

Bertso luze au'ere Bilintxen esku-idatzietatik artua degu.

Jose Manterolaren bilduman ere arkitu degu. Eskuz idatzita dago, dudarik gabe Bilintxen esku-idatzietatik kopiatuta, eta izenburuaren gainean onela esaten da:

“Entre los papeles de Vilinch encuentro un cacho de cuartilla, de sabor ya antiguo, y escritos de su puño y letra los siguientes versos que podrían titularse: Pobriaren Suertia.”

Bertso onek Bilintxen esku-idatzietan izenbururik ez baitauka, ori asmatuzuan Manterolak. Gerok ere orixe jarri degu.

Bilintxen esku-idatzietan, seigarren lerroaren ondoren, zazpigarren eta zortzigarren bear luketen lerroak alegia, tatxatuta daude. Baiña leengo itzak oraindik ere irakur ditezke eta onela diote:

emanaz jendiari
maquiña bat lazca.

* * *

Bertso onek argitaraldi gutxi izan ditu:

Euskal-Erria aldizkarian, 1881 urtean.

Bilintx - Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Martin, Mena y C.^oren etxean, Euskal-Esnalea-k argitara arazia. Aldaketak: 10: artutzen du nazka; 14: kalian jiraka; 19: azenariyo eta.

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Erretereri, 1932-II-6. Aurrekoa bezelaxe.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irarkola, Erretereri. Aurrekoa bezelaxe.

Auspoa 12, 1962.

mitill obiguiyae ditu
 atotie millaca
 asanariyo ero /
 pratata tiraca
 saurrae ere astien
 sayosea saureaca
 aberia tiratzen ~~atotie~~
 diyoite pullanica
 danac cristan ta abere
 guciya chankaca
 guisarapua dute
 ibiltzen bur-laca
 bratec ole laque isan
 pobre banon caca

cherruyae cantan
 orofa berde ganttan
 icuri ditut maristan
 uda burra ganttan

beste alibiyoric	gocozuluca	
pubria edaca	pullaca	caola
negarres jago eta		ibiltzen
biici arrastaca		sayosea
galtzarbian, coluan,		urda
nunnay, arrastaca		arratzen
emanae ² puntian		haratzen
maguina but laca		caola
eropotan' coipia		traha
eiquina ta croca		arrala
gendiac iustian		eritatzen samitza
artutren du lasca		orala
danac paratzen saurea		corrala
ondotie presaca		balla balla
maibaldin badu illi		olala
calian bueltaca		galinza
ateratu orduco.		lala gaba
chetican araca		

SARTZIA SOLDADU

1/ Penetan daramazkit
eguna ta gaba,
poz bat sentitu gabe,
au suerte billaba!
Gosaritzat talua
eta bakallaba,
bazkaitan katillu bat
salda ta sei baba,
amalau jango eta
bi berdin afaldu,
batek ez luke obe
sartzia soldadu?

2/ Urrikigarriya da
nere izaera:
goizero nai ta nai ez
juan biar lanera,
egarritutzen banaiz
ura eratera...
Nik orla zer
nezake atera?
Ezer sobratu ez ta
osasuna galdu;
ez det ondo egingo
sartzia soldadu?

3/ Kontuz ibilli arren
eta juiziyuan,
iñor aberasten ez
da ofiziyuan.
Ni lanakin ibilli
beti sesiyuan?
Erremientak norbaiti
erdi preziyuan
ero kasik debalde
al banizka saldu,
biartikan sartuko
nitzake soldadu.

4/ Jaunak, ariyarazi
ez liteke itzez
zein aspertuba nagon
onela bizitzez,
beti negarrez eta
penetan ibiltzez,
jornal txikiyaren truk
lanian aritzez;
batek beti onela
bizi bear badu,
ez du gaizki egingo
sartzia soldadu.

Lau bertso auek Jose Manterolak Bilintxen esku-idatzietan arkitu zituan, eta bere bilduman kopiau, aurretik oar au erantsiz:

“Entre los mismos originales se encuentran, en una cuartilla llena de enmiendas, estos versos de escaso mérito también y de un pesimismo desconsolador. Creo que deben ser de los primeros ensayos de Vilinch, y dudo que se hayan publicado.”

Guk ere esku artean izan ditugu Bilintxen esku-idatziak, baiña onako bertso auek falta dira. Ez ditugu arkitu. Ez dakigu zer gertatuko zan.

Bilintzek etzien bertso auei izenbururik jarriko. Manterolak ere etzuan olakorik ezer ere asmatu. Or goien ezarri deguna, gerok erantsia da, bertsoen azken lerrotik berezita.

Bigarren bertsoaren zazpigarren le-roak iru silaba falta ditu. Ori zergatikan dan, Manterolak itz auekin adierazten du: *“Está completamente ininteligible la palabra que completa este verso”*.

Dirudianez, Manterolari etzitzaizkion bertso auek gustatu, eta etzituan

iñun argitaratu. Orregatik, zokoratuta gelditu ziran, alik-eta Manterolaren bilduma azaldu zan arte. Andik artu genituan guk, *Auspoa*-ren amabigarren zenbakian argitara emateko.

Bilintxek *sartzia soldadu* itz oiekin zer esan nai zuan obeto jabetu gaitezzen, bertso auek fueroak galdu aurretik moldatuak dirala gogoratu bear de-

gu. Garai artan euskaldunak etzeuden soldaduska egitera beartuak. Joaten zana bere borondatez joaten zan, agidanez bere bizimodua beste iñun ezin aterarik. Orregatik esaten zan: “Soldadua, etxeko seme sobradua”. Esaera ori ere, seguru aski, fueroak galdu baiño leen asmatua izango zan.

ZORTZIKO

Ikusi-ta desgrazi
eritubarena,
penaz nori etzaio
urtzen biyotz dena?
Da oieri ematea
nork al dezakena,
zeruba irabazteko
obrarik onena.

Bertso bakarra degu oraingo ontan. Jose Manterolaren bilduman arkitu degu. Baiña jaun onek ez du esaten nundik artua duan.

Izenburua oar baten asiera da, berez. Onela dio:

“Zortzico cantado á beneficio de los heridos, por varios jóvenes del antiguo Orfeon la noche del 5 de Enero de 1874.”

Firma ere badu bertso onek Manterolaren bilduman: *Vilinch*. Ortik ikasi degu beraren egillea nor dan.

Manterolak etzuan bertso au iñun ere argitara eman. Orregatik, baztertua

eta illunpean egon zan, aren bilduma azaldu zan arte. Orduan, andik artu eta *Auspoa*-ren amabigarrenean argitaratu genduan.

Liberalen eta karlisten arteko bigarren gerra beroenean eta indar-indarrean zebillen garaia zan. Ordukoak izango dira, beraz, zauritu oiek, baiña liberalekoak.

Donostiko garai artako egunkarian, *Diario de San Sebastián* zeritzaionean alegia, azterka saiatuak gera jaialdi orren berririk arkituko ote genduan. Baiña alperrik gure egiñaala; ez degu beraren aitamenik ere arkitu.

PAGATZALLE ON BAT

Egun batian juañ zan
gizon bat kafera,
beste askoren gisa
zerbait artutzera,
eta ango mutillak
al zuben lenena
eraman ziyon berak
eskatu zubena.
Sillan ixiririka
deskantsu onian,
komeni zitzaiona
artu zubenian,
oju bat egin zuben
soñu aundikua,
zeñetan deitu zuben:
“Aizak, mutikua:
ua galdetutzera(1)
nagusiyagana
zenbat pagatutzen dan
nik artu derana”.
Seiak ekarri zion
zuzen mandatuba:
“Jauna, bost errial da
bedorren kontuba”.
Gizona ordubantxe
trantzian zeguen,
pezeta bat bakarra
besterik etzuen,(2)

eta eskañi ziyon
esanaz seriyo:
“To, eta nausiyari
eraman akiyo”.
Mutillak esan ziyon
artu ordurako:
“Errial bat falta du
emen konturako”.
Arrek erantzun ziyon
bere-beriala,
len alegiya ez aitu:
“Zenbat: erriala?
Ik ez dirak serbitu
mandatugilletzat?
Bien, errial ori
gorde zak iretzat!”

Sail au ere Manterolaren bilduman arkitu degu. Eskuz idatzita dago.

Irakurlea oartuko zanez, *epígrama* bat da; parre eragiteko eta bertsoan moldatutako kontutxo bat alegia.

Izenburuari erantsita, onako oar au irakurtzen da:

“*Esta composición carece de epigrafe ó título en el original.*”

Baiña Manterolak *Kontua* ezarri zion izenburutzat.

Izenburuaren azpian beste oar au idatzita dago:

“*Entre los originales de Vilinch encuentro en una cuartilla cuyo color y estado implican alguna antigüedad, la siguiente composición de escaso mérito, tanto por su fondo como por su forma. El original es de puño y letra de Vilinch.*”

Manterolak *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zuan kontu au, 1880 urtean. Baiña bi aldaketa sartu zituan. Bata, izenburua. *Pagatzalle on bat ja-*

ri zion, eta guk ere ala ipiñi diogu. Beste aldaketa, azken bigarren lerroa onela idatzi zuala: Errial ori bada.

Beste iru argitaraldi, irurak *Euskal-Erria*-ri kopiatzen diotenak:

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Martin, Mena y C.^aren etxean, Euskal-Esna-lea-k argitarara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Erreterri, 1932-III-6.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irarkola, Erreterri.

Auspoa 12, 1962.

* * *

R. M. Azkueren *Cancionero Vasco* kanta-bilduman, 623 zenbakiarekin, ipui onen leenengo zortzi lerroak arkitu ditugu, batere aldaketarik gabe, baiña doiñuarekin.

Doiñu ori, gutxi gora-beera, *Etxeberria* eta Gimonen *Ecos de*

Vasconia bilduman, 40 zenbakiarekin eta *Mañubel ta Praisku bertsuetan* izenburuarekin, argitaratu zana da.

Azkuek ere, oso doiñu ezaguna zala oarturik, itz auek erantsi zizkion:

“Es melodía muy en boga entre improvisadores de versos. Los que figuran en esta canción son de Bilintx.”

Garai artako bertsolariak sarritan erabiltzen zuten doiñua omen zan ori; eta Bidaniko N. Muñoa orrek, Bilintxen bertso ori ikasi eta doiñu orixe

erantsiko zion, kantatu aal izateko. Baiña, guk esan bear bagendu, kontu au etzuan Bilintxek kantatzeko moldatu, irakurtzeko baizik.

1. Manterolaren esku-idatzietan *ua galdetzer*a dago. Nabarmen dago orrela silaba baten faltan dagoala. Orregatik, *ua galdetutzer*a idatzi degu.

2. Manterolaren esku-idatzietan ez da lerro ontako bigarren itza garbi irakurtzen; *etzuen* bear dualakoan, orrela idatzi degu.

623.-EGUN BATEAN

Andante mosso

28. 
E-gun bat.e - an joan zangiz.onbat ka.fe - ra



bes.te as.ko - ren gi - san zer.bait ar.tu .tze - ra;



e - ta an.go ,mu - til - ak al zu.en len - en - a



e - raman zi - on ber - ak es.ka .tu zu .en - a.

De N. Muñoa, de Bidania (G).

BEGIROZUTE, PIKADORIAK

Jaunak, seguru nago,
gaur arratsaldian
pikadoriak ondo
portatu baziran,
festa ederra izango zan,
zezen onak ziran;
bañan pikadoriak?
Beti pikardiyan!
Zezen bat on samarra
irtentzen danian,
etzaiozka jarritzen
aurreko aldian,
nola itzul egiña
dakaten artian,
eta suertatzen bada
txiripa batian
zezen bat txit brabua
bere errabiyan,
pikara sartzen dana
furiya aundiyan,
zer egiten diyote?
Urrengo sartzian
pika jartzen diyote
besoen gañian;
eta sartu ezker
pika beñ andikan,
zezen gizarajuak
ez du indarrikan;

kojo gelditutzen da
beso artatikan,
eta berriz pikara
egotsigatikan,
ez diyo zalduyari
sartzen adarrikan,
beso-buruban dakan
eridagatikan;
bañan presidentiak
ala pikatzian
deituko baliyoke
istante batian,
eta bere aurrera
etortzen danian
esango baliyoke:
*“¡Atienda V., perillán:
por haber espaldillado
de ese modo al animal,
300 reales de multa!
Y páguelos sin replicar,
y tenga V. mucho cuidado
en no volver a espaldillar,
porque entonces, se lo advierto,
multa doble recibirá.”*
Gaur egin baldin bazan
ori Donostiyan,
orduban seguru naiz,
txit seguru, biyar
ez pagatziagatik
iru eun errial,
pikatuko zutela
biar dan legian.
Bañan gaur orren ondo
nola irten diran,
pikatuko dituzte
gaur bezela biyar.
*Au aritu niyon nik
atzo arratsian
gizon sudur motz bati
taberna batian.*

Bilintx

Bertsotan moldatutako kontu au ere Manterolak Bilintxen esku-idatzietan arkitu zuan, eta bere bilduman kopia-tu.

Ainbeste aldiz esan bezela, guk ere esku-idatzi oiek esku artean izan ditugu, baiña kontutxo au ez degu arkitu.

Or goien ezarri degun izenburua, berriz, Manterolak bere bilduma ortan

duana da.

Jaun onek etzuan Bilintxen idaz-lantxo au iñun ere argitaratu. Aula edo eskasa idurituko zitzaion.

Orregatik, zokoratuta egon zan urte askoan, Manterolaren bilduma azaldu arte. Orduan, andik artu eta *Auspoa*-ren amabigarrenean atera genduan argitara.

“AROTZ BATI ZIYOTEN...”

- 1/ Arotz bati ziyoten
mandatuba laja:
al zuben azkarrena
egiteko kaja,
don Gaspar Lizarralde
ipigandu zediñ.
Arotzak esan ziyon
mandatariyari:
“Nik artu biar diyot
neurriya berari,
kaja gorputzarentzat
justu irten dediñ.

- 2/ Eta nora juango naiz
artzera neurriya?”
“Done Migel kalera,
etxe bat berriya
an ikusiko dezu,
balkoi urdin duna.
Bigarren bizitzara
juan zaitia billa,
an arkituko dezu
pulmoniyak illa,
kaja lenbailen egiñ
biar diyozuna”.

- 3/ Juan zan gure arotza
listoi bat artuta;
eta, esan ziyoten
etxera sartuta,
bigarren bizitzara
iyo zan aguro.
Bañan iyo zanian
kezketan jarri zan,
okerreko lekuba
zitekela izan;
pixka bat duda-mudan
egon eta gero,
- 4/ bi golpe atiari
eman zizkan: *Da! Da!*
Eta irten zanari
egin ziyon galda:
“Don Gaspar Lizarralde
emen bizi al da?”

Kontu au ere erderaz *epígrama* esaten zaien oietakoa da. Parre pixka bat egin araztekoa, alegia.

Bilintxen esku-idatzietan arkitu degu, eta andik kopiatu.

Manterolak ere ezagutu zituan bertso auek Bilintxen esku-idatzietan, eta bai bere bilduman kopiatu ere. Baiña aulak edo eskasak iduritu zitzaizkion nunbait, eta argitaratu gabe utzi zituan.

Ondoren, urteen buruan Manterolaren bilduma azaldu ondoren, andik artu eta *Auspoa*-ren amabigarrenean argitaratu genduan.

Azken bigarren lerroan *Gaspar Lizarralde* irakurtzen da Bilintxen esku-idatzietan. Onek, gure iritzirako, uste gabeko oker bat sartu zuan or: berez zazpi silaba bear zituana, seirekin utzi; *don* papereratzea aaztu, alegia. Ala, leenengo bertsoaren bostgarren lerroan *Don Gaspar Lizarralde* irakurtzen da. Orregatik, utsune ori betez neurria osatzearren alegia, itz ori erantsi egin diogu.

Manterolaenean izenbururik ez du kontu onek. Or goien ezarri deguna guk erantsia da, saillaren leenengo lerrotik artuta.

"Arotz bati ziyoten..."

Azkueren esku-idatzietatik, Usurbilko Agustin Lertxundiren aotik jasoa:

Andante mosso

The image shows a musical score for a song. It consists of two staves of music in G minor (one flat) and 2/4 time. The tempo is marked 'Andante mosso'. The melody is written in a single voice line. The lyrics are in Basque and are placed below the notes. The first staff contains the first four measures of the melody, and the second staff contains the remaining six measures. The lyrics are: 'A-rotz ba-ti bein, e-san ga-be zein, man-da-tu-a den-dan zi-o-ten la - ja az-kar joa-te - kö, ez e-go-te - kö, len-bai-len e-gi-te - ra il ba-ten ka - ja.'

A-rotz ba-ti bein, e-san ga-be zein, man-da-tu-a den-dan zi-o-ten la - ja
az-kar joa-te - kö, ez e-go-te - kö, len-bai-len e-gi-te - ra il ba-ten ka - ja.

Arrotez latic eiyoten
 Mandatuba lafa
 Alsuben azcarrena
 Equiteu eaja
 Don Gaspar Disarralde
Spigandu sedin
 Arroteac esan eiyon
 Mandatariyari
 Nie artu biandiyot
 Neurrija berari
 Lafa gorputzarentzat
Piestu irten dedin

i Eta norra juango naiz
 Artseva neurrija ;
 Done Miguel calera
 Eche bat berrija
 An iunua desu
Palcoy urdinduna
 Bigaarren bicitrara

~~Arrotez latic~~
 Juan saitia lilla
 An arquituer desu
 Pulmoniyac illa
 Lafa ~~lactien~~ ~~eguin~~
Dian diyosuna

Juan sangurarrota
 Listoy bat artuta
 Eta esan eiyoten
 Echea sartuta
 Bigarren bicitrar
 Nyo san aguro

Danan iyo sarrian
 Querqueta jarri san
 Aguerreco ceuta
 Uiteguela isan
 Pishcabat dudan madan
 Egon eta guerd

~~Arrotez latic~~
 Bi gilpe atiari
 Eman e's can da...! da...!
 Eta irten sanari
 Equin eiyon faldel
 Gaspar ~~Disarralde~~
 Emen bici alda

KONFESORIAGANA

Konfesoriagana
juan zan Marzelina,
gero konfesa zedin
artzera dotrina;
bañan guziz gorra zan
Marzelina ori,
etziyon kasik itzik
aditzen iñori.
Apaizak, beste gauza
batzuben urrena,
galdia egin ziyon:
“Zein da seigarrena?”
Gaixuak, nola zan aiñ
gorrera aundikoa,
galdetzen ziyolako
“Zein da Jaungoikoa?”,
erresponditu ziyon
al zuben lenena:
“Da pentsatu liteken
gauzik ederrena”.

Kontu edo *epígrama* au Manterolaren bildumatik artua degu. Onek Bilintxen esku-idatzietatik kopiatu zuan.

Guk paper oiek esku artean izan ditugu, baiña kontutxo au dakarren orri-rik ez degu arkitu.

Manterolak etzuan idazlantxo au iñun ere argitara eman. Etzitzaion, izan ere, balio aundikoa iduritu, alboan erantsi zion oar ontan irakurtzen danez:

“De escasisimo mérito es también el siguiente arreglo de un cuento muy conocido”.

Denboraren buruan, Manterolaren bilduma azaldutakoan, andik artu eta *Auspoa*-ren amabigarrenean argitaratu genduan.

Izenbururik gabe utzi zuan Manterolak kontutxo au. Or goien ezarri deguna gerok erantsia da, leenengo letrorik berezita.

SOMAKETA

Nere bata ta biya da
somatzen errexena,
bara zerorrek dauzkatzu
esku bakoitzian bana.
Bata ta laba da berriz
Gipuzkoako erri bat,
zeñetan arkitutzen dan
beste inon ez dan arri bat.
Nere iruba ta laba
berekin daukan diruba
ontzat artzia erozeñek
ez da gauza seguruba;
batez ere baldin bada
baliyo aundiko moneda,
ez du gutxik galdetuko:
“Au gero fiña ote da?
Ez da txit katolikua;
zer derizkitzu, Inaxi?”
“Neri? Faltsua derizkit”.
“Eta zuri, andre Graxi?”
“Arrira bota zazu ta
soñuba egiñ-arazi;
ez badu soñuba fiña,
ganbiyatutzen ez asi”.
Iruba eta bigarrena
da gizonaren desdita,
ala pegatzen zaiona
nun balitzake tximitxa;

pegatzen da txit errea,
apartatutzen txit gaitza:
alako asko izatetik
Jaungoikuak libra gaitza.
Zer afariya!! Ogiya,
botilla bat ardo eder,
ta ongi jarriyak lautxo bat
nere iruba bi bider.
Batari eta biyari
laugarrena itxeki-ta,
beste asko're bai baño
donzella da txit polita.
Eta da nere guziya
desiatua gauz ona;
indartsu arkituko da
berekiañ naukan gizona.

Somaketa onentxen itza
-saiatu zaitezte denak-,
propina asko izango du
zer dan asmatzen dubenak.
Logratzen duben arentzako
daukazkit siñalatubak
loteriyako lau billete...
-oraiñ bi urte artubak-.

Bilintx

* * *

Ez det jarri *Bilintx* ori, somaketa
neronek sortuba dan patxandiyaz.

Zer erregalua!! Baizik eta jarri det,
asmatzia logratu duben arrek jakin de-
zan norengana biar duben giyatu,
menturaz nai balu egin billete oien ja-
be.(1)

Teatroko dendan,
zeiña ikusten dan
aspaldi guziyan
Kale Nagusiyen,
aurreko etxearen
etxe eder aren
beraren onduan,
paper abek duan
an ematen dira;
ez iritzi mira,
ez milagro egiñ,
egiya da berdiñ.
Eta balitz norbait
badakanik zerbait
duda gauz orretan,
bijua ta bertan
artuko du proga
au ez dala droga,
baizikan egiya,
ta egi garbiya.
Bara au diyonak,
konseju txit onak
txiki-txikitandik
gurasuakgandik
artubak izan-ta,
ez daki saiatzen
iñor engañatzen
gezurrak esan-ta.

Garai artan, *epigramak ez-ezik*, oso modan zeuden, baita ere, somaketak; erderazko *acertijos*, alegia.

Onako au ere oietakoa da. Bilintxen paperetan azaldu dan bertso-paper batean arkitu degu. Paper orrek ez du moldiztegi-izenik.

Manterolaren bilduman ere azaldu da bertso-paper ori; eta ontan, beeko barrenean eskuz idatzita, onela irakurtzen da: *Bilintx*.

Somaketa au etzuan Manterolak iñun argitaratu. Ala, bertso-paper ontan eta *Auspoa*-ren amabigarrenean izan ezik, ez da beste iñun argitara aterara.

“Kale Nagusiko Teatroko denda” aitatzen da idazlantxo ontan. Leen ere esan degunez, Bilintx kale ortan dagoan Teatro Zaarreko konserjea zan, eta estanko bat ere andik gertu zeukan. Denda ortan salduko ziran bertso-paper auek.

Sail au somaketa bat dala esan de-
gu. Baiña ez da adierazten somatu edo
igerri bear dan ori zer dan. Eta gu
beintzat ez gera ortarako gauza izan.

1. Inoxente egunian emango diyozkat.

SOMAQUETA.

Nere batá ta biya dá
 somatzen erresha dana,
 bara cerorreec dauzatzu
 ezcu bacoitzian bana.
 Batá ta laba da berriz.
 guipuzcoaco erri bat,
 ceñetan arquitutzen dan
 beste inon ez dan arri bat.
 Nere iruba ta laba
 berequiñ daucan diruba,
 ontzat artzia erocēñec
 ez da gauza seguruba;
 Bates ere baldin badá
 baliyo aundico moneda,
 ez du guchiac galdetuco
 —au guero fiña ote da?
 Ez da chit catolicuá
 ¿cer derizquitzu Inashi?
 —¿Neri? faltzua derizquit.
 —¿Eta zuri, andre Grashi?
 —Arrira bota sazu ta
 soñuba eguiñ-arasi.
 ez badu soñuba fiña
 gambiyatutzen ez asi.
 Iruba eta bigarrená
 da guizonaren desdicha,
 ala pegatzen sayona
 nun balitzaque chimicha;
 Pegatzen da chit erresha
 apartatutzen chit gaitza.
 alaco asco isatetic
 Jaungoicuac libra gaitza.
 ¿Cer afariya!! oguiya,
 botilla bat ardo eder,
 ta ongui jarriyac lacho bat
 nere irubabi bider.
 Batari eta biyari
 laugarrena ichequi ta,
 beste ascore bay baño
 doncella da chit polita.
 Eta da nere guciya
 desiatuba, gauz ona;
 indartzu arquituco dá
 herequiñ naucan guizona.

Somaqueta onenchen itzá,
 (sayatu saiteste denac.)
 propina ona izango du
 cer dan asmatzen dubenac.
 Logratzen duben arentzaco
 daucazquit siñalatubac,
 loteriyaco lau billete...
 (orañ hi urte artubac)

Vilinch.

Ez det jarri, *Vilinch* ori, soma-
 queta neronec sortuba dan pa-
 chandiyas.

¿Cer erregalua!! Baicic eta jarri
 det asmatzia logratu duben arrec,
 jaquin desan norengara biar
 deben guiyaut, menturas na
 balu eguin billete oyen jabe. [1]

Teatroco dendan,
 ecina icusten dan
 aspaldi gusivan,
 cañe nagusiyan,
 Amrecochearen,
 eche eder áren
 beraren onduan:
 paper abec, ¡duan!!
 an ematen dira;
 ez iritzi mira,
 ez milagro eguiñ,
 eguiya da berd in.
 Eta balitz norbait
 badacanic cerbait
 duda gauz orretan,
 bijua, ta bertan,
 artuco du proga;
 au ez dala droga.
 baicican eguiya,
 ta egui garbiya.
 Bará au diyonac,
 conseju chit onac,
 chiqui chiquitandic
 gurasuac gandic
 artubac isan ta,
 ez daqui sayatzen
 inor engañatzen
 guczurrae esan ta.

(1) Inoshente egunian emar-
 to diyoscat.

“APIRILLAREN LAGUN ELKARRA...”

Apirillaren lagun elkarra,
saroi berdeko alaitasuna,(1)
Ama Venus-en asnase biguñ,
aize laguna.

Zuk badakizu zenbateraño
arkitzen naizen penaz beterik,
zeren ez nazun entzun izandu
kejak besterik.

Eraman izan dituzu iñoiz
neriak zenbait adi ta negar,
mendirik mendi, saroirik saroi,
ibarrik ibar.

Zuaz ta esan zaiozu nere
anyerusari, noizbait bezela(2)
ez baldiñ banau berriz maitatzen,
ilko naizela.

Nere miñaren berri lenago
jakiten zuben; eta, ni miñez
negon guziyan, bera egoten zan
negar egiñez.

Zori obeko beste denboraz
maite ninduben eziñ geiago;
beste denboraz... Bañan, ai!, orain
aserre dago.

Zuaz aguro, zuaz korrika,
zuaz lasterka, egan juan zaite,
eta esaiozu ilko naizela
ez banau maite.

Ala jaungoiko diran guziyak
amoriyua dezaizutela,
ala zerubak zure zori ona
nai dezatela.

Eta zuk egan ibillitzeko
zein denboretan dezun atsegiñ,
ez dezatela sekulan elur
osto bat egiñ.

Aiñ gutxiyago ditzala iñoiz
oroi beltzaren kaskarabarrak
eritu zure lore ostozko
ego ñabarrak.

Bertso aukerak ere Bilintxen esku-
-idatzietatik artuak ditugu.

Manterolak ere ezagutu zituan es-
ku-idatzi oietan. Baita bere bilduman
kopiatu ere, eta ondoren *Cancionero*
Vasco-n argitaratu eman.

Bilintxek *Apirilaren* idatzi zuan.
Uste gabeko okerren bat dala pentsatu-
rik, *Apirillaren* ezarri degu guk.
Manterolak ere alaxe dauka.

Sail ontako 5/1 eta 8/3-4 lerroak
aurrena modu batera idatzi zituan
Bilintxek, eta ondoren tatxatu eta era
berria erantsi zion. Leenengo idatzi
zuana auxe da:

5/1: Maite ninduben beste denboraz.
8/3-4: Beren seme bat baldin baiciña
becel becela.

* * *

Bilintxen esku-idatzietan izenbururik ez du sail onek. Emen duana gerok leenengo bertsoetik berezi eta ezarria da.

Manterolak, berriz, *Al Céfiro* ipiñi zion izenburutzat bere bertso-bilduman. eta *Cancionero Vasco-n*(3) beste onela: *Imitación en lengua euskera de los sáficos de Villegas "Al Céfiro"*.

Erdal bertso batzuen itzulpena dira, izan ere, bertso aukerak. Bilintxen esku-idatzietan orrelakorik salatzen ez bada ere, Manterola bereala oartu zan ortaz. Erdal literatura ere ongi ezagutzen zuana izan ura. Eta bere bilduma ortan onela idatzi zuan:

"Entre los papeles de Vilinch encuentro la siguiente traduccion libre ó imitacion de los conocidos Sáficos de Villegas. Ellos prueban una vez más las aficciones literarias de Vilinch, y el cultivo que hacía de nuestros buenos poetas. Esta composición debe permanecer inédita, y está escrita de su puño y letra."

Bere *Cancionero Vasco-n*, berriz, onela dio:

"Vilinch ha dejado una preciosa muestra de sus aficciones al estudio de los buenos modelos, y de sus felices disposiciones para la poesía, en esta imitacion ó traduccion libre, que bastaría por sí sola á dar un nombre al malogrado bardo easonense, si este no lo hubiera conquistado ya con sus producciones originales."

En efecto, el trabajo hecho por Vilinch sobre los conocidos sáficos del poeta riojano es muy concienzudo y felicísimo; y aunque el elogio parezca quizás exagerado á algunos de los que no pueden saborear la imitacion euskara, puedo y debo decir sin temor, que en nada desmerece del modelo castellano, cuyas bellezas ha sabido conservar con gran tino, añadiéndole por su parte nuevos y delicados toques."

Se hace preciso conocer bastante á fondo la lengua vascongada, y estar un tanto enterado de su especial mecanismo, tan diverso del de la lengua castellana, para apreciar cómo ha vencido Vilinch todas las dificultades de la empresa, y estimar en todo su valor el mérito de esta produccion, verdadera joya que eleva á Vilinch al nivel de los mejores poetas euskaros."

Vilinch, que ha seguido en su imitacion hasta la misma combinacion métrica del modelo que copiaba, ha ampliado hasta á diez las cinco estrofas del original, sin que esta ampliacion, exigida por la vária índole de las dos lenguas, perjudique absolutamente en nada la sobriedad de esta linda produccion."

Cotéjense las estrofas primera y última del original con las mismas de la imitacion de Vilinch, y se verá que en ellas el bardo vascongado ha seguido paso á paso el modelo aceptado, con una fidelidad y una delicadeza que revelan en él un gran sentido poético y un conocimiento profundo de las dos lenguas."

Las estrofas 2ª, 3ª y 4ª de la imitacion son la segunda del original; la 5ª y 6ª equivalen á la tercera, y la 8ª y 9ª a la cuarta."

...La versificacion toda es notabilísima, por lo fácil, lo correcta y armoniosa, el lenguaje puro y bellissimo, y la composición entera en fin puede presentarse como un buen modelo á los aficionados al cultivo de la poesía euskara."

¡Lástima grande que Vilinch, que ha mostrado en esta imitacion de cuánto era capaz, no se hubiera dedicado más á esta clase de trabajos!"

* * *

Manterolaren iritzirako, beraz, sail onek altxatzen du Bilintx euskal poetarik onenen maillara; sail onek agertzen du zenbateraiño gizona zan

ura; sail au artu bear luteke ixpillutzat euskal olerkariak; eta pena artzekoa da arek orrelakorik geiago ez egiña.

Gure iritzia oso bestelakoa da. Guretzat, sail onek ez; *Ja-jai, Kontxezi, Juramentuba, Juana Bixenta Olabe* eta orrelakoak altxatu dute Bilintx goieneko maillaraiño; oiek ematen dute donostiar bertsolariaren neurria; oiek artu bear dira ixpillutzat; orrelakorik geiago ez egiña da pena artzekoa.

Bilintx askoz ohea da, alegia, euskal bertsolarien bidetik zuzen dijoanean, erdal poeten saillera baztertzen edo okertzen danean baiño. Beste askorekin ere gauza bera gertatu da. Eta berdin litzake noski, kanpotarrak gure bidean sartuko balira.

* * *

Bukatzeko, onela esaten du Manterolak:

“A continuacion de su imitacion reproduzco los sáficos de Villegas, para que los que conozcan la lengua vascongada puedan de este modo cotejar detenidamente y establecer un paralelo entre ambas producciones, en la seguridad de que no han de hallar exagerado el juicio que me merece la traduccion del inspirado poeta easonense.

No me es posible ofrecer otro tanto á los lectores que no posean la lengua euskara, pues ellos comprenderán muy bien que el darles una traduccion literal castellana de la imitacion de Vilinch equivaldría á poner ante sus ojos la preciosa composicion de Villegas en mala prosa y desposeída de todas sus galas poéticas.”

* * *

Guk, berriz, ementxe eskeintzen dizkiogu irakurleari Villegas-en bertsoak, Manterolaren liburutik artuta:

AL CEFIRO
SAFICOS
POR D. ESTEBAN MANUEL DE
VILLEGAS(4)

*Dulce vecino de la verde selva,
huésped eterno del abril florido,
vital aliento de la madre Venus,
céfiro blanco;*

*si de mis ansias el amor supiste,
tú, que las quejas de mi voz llevaste,
oye, no temas, y á mi ninfa dile,
dile que muerdo.*

*Filis un tiempo mi dolor sabía,
Filis un tiempo mi dolor lloraba,
quisome un tiempo; mas agora temo,
temo sus iras.*

*Así los dioses con amor paterno,
así los cielos con amor benigno
nieguen al cielo que feliz volares,
nieve á la tierra.*

*Jamás el peso de la nube parda,
cuando amanece en la elevada cumbre,
toque tus hombros, ni su mal granizo
hiera tus alas.*

* * *

Bilintxen bertso auek gutxitan argitaratu dira. Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n egin zuanaz gaiñera, beste argitaraldi auek arkitu ditugu:

Bertso-papera, "*Irun'en - Valverde'ren alargunaren echean - 1909*". Izenburua onela euskeratu du onek: *Sartaizechoari*. Bertsoak aldaketarik ez dute.

Bertso-paper ori Bilintxen papere-tan ere azaldu da. Baiña, esan bezela 1909 urtekoa baita, aren alargunak edo familikoren batek jasoko zuan.

Gregorio Mujika zanaren bilduman ere arkitu degu bertso-paper ori.

Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostian, Martin, Mena y C.^{as}ren etxean, Euskal-Esna-lea-k argitara arazia. Onek, izenburua eta bertsoak, aurreko bertso-papera bezelaxe.

Auspoa 12, 1962.

1. Saroy-a: *selva, bosque*. (Manterolaren oarra)

2. Anyerusa: *ninfa*. (Id.)

3. *Cancionero Vasco, Serie Primera, Tomo II, Diciembre de 1877*.

4. *Villegas nació en Nájera (la Rioja), por los años de 1595. Cursó leyes en Salamanca. Murió el 3 de Setiembre de 1669*. (Manterolaren oarra.)

Apirilaren lagun elarria,
 Larry berdeu aluitasuna,
 Ama vonusen aonase bigun,
 iAise legurra!
 Que badaguim semlatenara
 Arguitien naisen penas beterie,
 Ceren es nasun entsun isandee
 Guefac busterie.

Eruman isan ditum inois,
 Aeriae, semlaist adi ta negar,
 Mendirie mendi, seroirie samy,
Ubarrie Ubar.

Judas esan sayosu nere
 Angerusan, noribait besela
 Es baldin banau beris maitatzen
 ileo naisela

~~Mante minduben beris sayosua~~
 Aere minaren berri lenaga
 Jaquiten suben; eta ni minies
 Negon gusiyen bera egotri san
Agar equines

Lori obeco beste demboras
 Mante minduben eain gueyago
 Beste demboras; banan say; orain
aserre dago

Quas aguxo, suas corica,
 Guas lasterca, egan juax saite
 Eta esayosu ileo naisela
esbanau mante

Ala Jaungoien diran gusiyae
 Amoriyua desaisutela
~~Esan seme hat baldin banau~~
Bestel busela

ala Gerubae xaur. xori orna
Kay desatela
 Eta sue egan ibillitueo
 Sein demboretan desuon atrequin
 Esdesatela secular elur
osto bat equin
 Aini guehiyago ditrala inois
 Orwy beltraren coseanabarne
 Erite xure lore ostoso
ego nabarrae

ZALDUN GAZTE

1/ Zaldun gazte bozal egoki batek
esan ziyon batian Filys-i:
“Zeru eder maite maitagarriya,
nai al dezu zuk nerekiñ bizi?
Aberatsa naiz zuri kunplitzeko
nai dituzun ainbeste kutizi;
ukatzeko prebenitu baña len
ondo pentsatu zazu lenbizi”.

2/ Galaiari esan ziyon Filys-ek:
“Nere aurretik zuaz beriala!
Uste al dezu lenagoko faltsiyak
orren laster aztu zaizkirala?
Igartzen det zure eskeñi denak
fiñtasunik gabiak dirala;
naiago det onrakin pobre bizi,
ez aberats onrik ez derala”.

Bi bertso auek Bilintxen esku-ida-
tzietatik ditugu. Izenbururik ez baitzu-
ten, or goien ezarri deguna gerok
erantsia da, leenengo lerrotik artuta.

Leendabiziko bertsoa bi aldiz idatzi
zuan Bilintxek. Aurreko erdia bietan
berdin, baiña andik aurrerakoa beste
onela:

ucatzera betustela baña len
ondo pentsatu zazu lembisi
zure bayetz edo ezetzian dago
ni laster ill edo asco bisi.

Manterolak ere ezagutu zituan ber-
tso auek esku-idatzi oietan, eta bere
bilduman kopiatu ere bai, aurretik oar
au egiñez:

“Entre los mismos papeles encuentro la siguiente composición que debe ser también traducción: carece de título y debe ser inédita.”

Baiña etzituan iñun ere argitaratu,

eta illunpean gelditu bear izan zuten,
beraren bilduma azaldu eta *Auspoa*-
ren amabigarrenean argitara atera ge-
nituan arte.

KANTA

Izar argi bi falta dirala
zeruan sortu da gerra;
al dakizu nork ostu dituen,
beltxeran begi ederra?

Kanta izenburua duan bertso bakar
au, Manterolak bere *Cancionero*
Vasco-n argitaratu zuan, eta guk andik
kopiatu degu.

Baiña bertsoen ondotik onela dio
Manterola jaunak:

*“El cantar original de D. Ventura Ruiz de
Aguilera, que sirvió de modelo al poeta donos-
tiarra, dice así:*

*En el Cielo hay alboroto
porque faltan dos luceros,
¿sabes quién los ha robado,
morenita de ojos negros?”*

Baiña Manterolaren bilduman arki-
tu degun egunkari-puska batean ere,
antxe dago euskerazko bertso au, erde-

razkoa aurretik duala, eta galdera au
egiten dala:

*“¿Cuál tiene más mérito, el original o la
traducción?”*

Zoritxarrez, zein egunkari dan eta
zein egunetakoa, etzuan Manterolak
idatzi. Orregatik, guk orain ezin esan
genezake bi argitaraldi oietan zaarrena
zein dan.

Urrena, *Euskal-Esnalea* aldizkariak
argitara arazi zuan, ainbeste aldiz aita-
tu degun liburuxka ontan: *Bilintx -
Neurtitzak eta neurri gabeko itzak,
1911, Donostian, Martin, Mena y
C.^{aren} etxean.*

Auspoa 12, 1962.

DOLORES-I

Zeiñ dan nai al zenuke
jakiñ, dagueña
nere biyotz gaxuan
sartuba barrena?
Bai? Banekiyen zala
naiko zenubena;
beraz, jakiñ dezazun
alík laisterrena,
eskribitzera nua:
D ta O aurrena,
L eta berriz O
elereren urrena,
R ta E ondoren
S bat azkena;
oraiñ letzen badezu
segiruban dena,
nere maite politak
orla du izena.

Bertso au ere Bilintxen esku-ida-
tzieta agertu da.

Manterolak bertso au esku-idatzi
oietatik artu eta bere bilduman kopiatu
zuan.

Izenburua Bilintxek ezarria da.
Baiña azpian onela idatzi zuan
Manterolak:

*“Encontrado entre los originales de
Vilinch: de su puño y letra.”*

Ondoren, bere *Cancionero Vasco*-n
argitaratu zuan, artean iñun argitara
atera gabea zala esanez:

*“Esta pequeña composición, que forma
parte de las inéditas de Vilinch, es un juguete,
sin pretensiones de ningún género.”*

Arrezkero, guk dakigularik, beste toki auetan argitaratu da:

“*Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, Martín, Mena y C.^aren etxean, 1911, Donostian, Euskal-Esnalea-k* argitara arazia.

Bertsolariya astekaria, Makazaga moldiztegia, Errenteri, 1932-IV-17.

Bilintx'en bertsuak, Makazaga irarkola, Errenteri.

Auspoa 12, 1962.

Doloresi

¿ Lein dan nay al cenique
 jaquin, dagiëna,
 nere ~~biyotz~~ biyotz gastaian
 sartuba barrena?

¿ bay? lanequiyen zala
 naico cenubena:
 beraz, jaquin dezarrun;
 alie lainerrena,
 esribiterra nua;
 D. ta O currena,
 & eta berriñ O
 eleveren urrena
 B, ta & ondoren,
 & bat arrena:
 orain letren baderu
 seguiruban dena,
 nere maite polita
 orla du isena.

AZKENENGO BERTSOA

Nik au pentsatu nuben
beñ zu ikusita:
ori bai dala guztiz
neskatxa polita!
Nai balu nere izan
gaude ezkongai-ta,
maiteko nuke nola
ama eta aita,
nere biziya baño
geiago're baita.

Bertso bakar au ere Bilintxen esku-
-idatzietatik artua degu.

Manterolak ere ezagutu zuan idatzi
oietan, eta bai bere bilduman kopiatu
ere.

Diario de San Sebastián egunka-
rian ere antxe dago, 1876-ko ilbeltza-
ren 20-aren alean. Granadak Bilintx jo
zuan egunean atera zan, beraz, argita-
ra. Donostiar bertsolariak bere irakur-
leei azken agurra eman nai ziela ema-
ten du.

Iru toki oietan bertso ori berdin da-
go; batere aldaketarik gabe, alegia.

Manterolak izenburu au ezarri zion

bertso oni bere bilduma ortan: *Vilinch-
en azquenengo versoac*.

Azkena izatea bi eratan artu diteke.
Bilintx bizi zalarik, etzan, guk dakigu-
larik beintzat, beraren beste bertso-
rik argitara atera. Au degu, beraz, argita-
ratu zan azken bertsoa. Baiña agertu
ez-ezik, arek jarri zuan azken bertsoa
ere izan diteke.

Manterolak, izenburuan, *versoac*
esaten du. Guk *bertsoa* idatzi degu.
Bertsoa, izan ere, euskeraz aapaldia
da; erderazko *estrofa* alegia; eta emen
aapaldi edo *estrofa* bakarra baitegu,
bertsoa bear du. Aapaldiaren lerro ba-

koitzari, berriz, erderaz *verso* esaten zaio. Agidanean, orrekin naastu zan Manterola.

Jaun onek etzuan bertso au iñun ere

argitaratu. Orregatik, zokoratuta gelditu bearra izan zuan, beraren bilduma azaldu arte. Orduan, andik artu eta *Auspoa*-ren amabigarrenean atera genduan.

ITZ-LAUZ

Itz-lauz edo prosaz ere idatzi zuan Bilintzek. Orrelakoak lau lan ditu.

Manterolak aren esku-idatzietan arkitu zituan, eta bere bertso-bilduman kopiatu, onen 41-garren orrialdetik 46-garreneira. Baiña 41 eta 42 orriak falta dira orain. Batenbatek indarrez atera eta eramanak dira.

Ala, leenengo eta bigarren idazlanak ez daude orain, eta irugarrenaren puska bat ere ez, "...*batian, sentitzen det barrena...*" dion ortaraiño, alegia. Baiña Manterolak bere *Cancionero Vasco*-n(1) argitaratu zituan eta ortxe oso-osorik daude.

Guk ere Bilintxen esku-idatziak izan ditugu esku artean. Baiña oiek ere ez dira gaur danak gordetzen. Orriren bat-edo galdu da ortik ere. Onela daude orain: leenengo idazlana oso-osorik falta da; bigarrena, oso-osorik dago; irugarrena, "...*arki litezken politenak...*" esaten duan ortan bukatzen da; eta laugarrena oso-osorik dago.

Ala, liburu ontan argitaratzeko, batzuetan Bilintxen esku-idatziei kopiatu diegu; bestetan, Manterolaren bildu-

mari; eta beste batzuetan *Cancionero Vasco*-ri.

Zenbait aldiz, Bilintzek *eguiñ, neria, batequiñ, esnia, aiñ, beñ, biar* eta abar idatzi zuanean, Manterolak *egin, nereia, batekin, esnea, ain, bein, bear* eta abar zuzendu zuan. Baiña oiek danak, orain baiño leen esan degunez, Bilintzek utzi bezela errespetatu bear dira.

Lau idazlan oiek, esan bezela, Manterolak bere *Cancionero Vasco* dalako ortan argitaratu zituan; gero, *Bilintx - Neurtitzak eta neurri gabeko itzak, 1911, Donostia* liburuxkan kale-ratu ziran. Dakigunez, argitalpen au *Euskal-Esnalea*-k atera arazi zuan.

Manterolak *Páginas inéditas en prosa* ezarri zien izenburutzat idazlan auei. Guk naiago izan degu *Itz-lauz* ipintzea, besterik gabe.

Izenburuaren urrena, itz-lauz ere *poesía* egin ditekeala eta Bilintzek idazlan auetan ortatik asko duala esaten du Manterolak. Guk ere ala derizkiogu.

Ondoren onela dio:

“Cuatro son los trabajos de esta índole que he hallado entre los manuscritos de Vilinch: los tres primeros originales, y en los que el poeta derramó sus sentimientos amorosos, quizás como preparacion para nuevas composiciones en verso, tal vez simplemente para dar desahogo á la pasion que encerraba su pecho. El último es un capítulo suelto de leyenda, que por el asunto y por su corte especial parece ser traduccion.”

Todos son de carácter amoroso, pero especialmente los tres primeros, en los cuales se vé perfectamente reflejada el alma de Vilinch, la extremada sensibilidad de su corazon y la ternura de sus afectos.”

Leenengo iru idazlanak bere-bereak ditu beraz Bilinxeek; baiña laugarrena itzulpena da. Zeren itzulpena etzion Manterolak igerri. Baiña *Euskal-Esnalea* argitara arazi zuan liburuxkan one-la esaten da:

“Idazti au erderatik biurtutakoa da; Ariosto’k egindako Orlando Furioso-ren lenbiko eresitik artua dago.”

Bilintxek bere esku-idatzietan ez du *parraforik* edo etenik egiten; Manterolak zerizkion tokietan jarri ziztuan eten oiek, eta guk arenak ontzat artu ditugu.

I

Zuk badakizu zierto egiyetan eta txit asko maite zaitutala, bañan alare zuk uste alako milla biderrez aundiya-go da zukanako nik sentitzen detan naitasuna, iñork sekulan sentitu ezin dezaken añakua.

Neri etzait gogoratzen ez beste ezer eta ez beste iñor; zu bakarrikan zauzkat beti goguan, minutu batian ere pal-tatu gabe, ala egunaz nun gabian. Zuk bakarrik betetzen dezu nere pentsamentu guziya.

Zu zera neretzat guziya mundu ontan. Zu zera nere osasuna, nere asna-sea, nere bizitza, nere eliza, nere zeruba eta nere gloriya.

Jaungoikoak berak bi eskubakin jaso ala naitasun jarri zuben nere biotzian zukanako.(2)

Eguzkia ispilluban bezela sentitzen eta ikusten zaitut nere animan; izarra

urtan bezela nere pentsamentuban, eta niniya begiyan bezela zauzkat nere biotzaren erdian.

Ez du txoriyak sentimentu geiago artzen, bere umeakin zeukan kabia norbaitek ostu dion meriyo palta arkitzen duben denboran, nola nik artzen detan, zu merezi izateko diña ez naizela gogoratzen zaitan bakoitzian.

Pentsamentu neretzat danik tristiena orrek isuri arazi dizkitan malkotan estali liteke mendi bat.

II

Maitiago zaitut... Txit maite zaitut, eziñ esan aña maite zaitut! Jesus!!! Au maite zaitut!!! Badakizu zergatik egiten detan, zu zerala meriyo, ainbeste negar? Zergatik ni zuretzako argizaia naizen, eta zu neretzako eguzkiya zerran, eta eguzkiyak argizaia nola ez du urtuko?

Arduaren edo beste zerbaiten espirituba ikusi al dezu beñere su eman ta garretan?

Ura gar polita egiten du!

Begira zazu, bara: biyotz nerian dago amoriyuaren zumua; amoriyuaren espirituba biyotz nerian dago, eta nola zu zeran nere eguzkiya, zure begiratu-bak(3) neretzako eguzkiyaren errañubak dira(4), eta errañuba oiek piztutzen dute nere biyotzeko(5) amoriyuaren espirituba ori, eta zure onran garretan dago gau ta egun, eta lenago illko naiz ni, au itzaliko dan baño.

Zu zera nere aingeru guardakua. O!
Zer ona zeran neretzat!

Ni penatzen naizenian, zu, nik merezi gabe, nitaz kupitu egiten zera!

Berinkatubak izan ditezela beñ eta milla bider zuri dizutan naitasuna dala meriyo pasa dituran penak, zuri dizutan amoriyuagatik ixuri ditutan(6) malkuak, zergatik guztiyak merezi dituzun; eta geiago're bai, eta milla bider geiago, eta oraindikan ere geiago. Eta orla ta guzti're, etzaude niganako ezer e zorretan, zergatik zuk itz batekiñ, begiratu batekiñ, tontorka ta gañezka pagatzen nazu.

Noiz iritxiko ote da eguna neria izango zaitutana!

A zer kuidaduakin gobernaturko zaitutan! A zer bizi modutxua eman biar dizutan! A zer alegiñak egingo ditutan zu kontentu irukitzeko!

Mayian beti(7) zu izango zera lenbizi serbituba. Zuretzako izango da gauzik onen guziya.

Esnia degunian, zuretzako tela; mamiya degunian, zuretzako gaña; eta saggarrak, udariak, muxikak edo zerbait orlako degunian, zuretzako fiñenak, zuretzako aundiyenak, zuretzako ederrrenak; eta, intxaurrek ditugunian, nik puskatuko ditut, eta azalak atera ta mamiyak jarriko dizkitzut aldamenian; eta, gaztañak ditugunian, nik txurituko ditut zuk jan biar dituzunak.

III

Esan zadazu, Juanatxo: zuregana natorrenian, etxe au ikustiakiñ bat, zerk egiñ arazten diyo nere biyotzari balantz? Eta, barrena sartzerakuan

errespeto aundiz, eliza(8) batera sar-
tzen banitz bezela, zerk eraman araz-
ten dit eskuba burura, txapela erazteko
desiotan, zer egiten detan ere azturik?
Eta zuk arpegira begiratzen dirazun
denboran, zerk begiratu arazten dit lu-
rrera? Eta, izketan asitzen banaitzazu,
zerk ematen dit toteltasun ura?

Ez dakizula diyozu, eta ojala baze-
neki; bañan, zuk jakiñ ez arren, nik da-
kitan kasuan, naizu kontatzia?

Bai?

Ea, bara. Jarri zaite aritzen.

Ikusi al dezu beñere baratza batian,
bere txortenaren puntta-punttan grazi-
yazko patxaran koloka dabillen lore
bati, aize gozozko baga batek nola era-
giten diyon balantz?

Modu artara bertara, nere biyotza
dago esperantza medar baten gañian;
eta, etxe au ikusten detanakiñ batian,
sentitzen det barrena nola sartutzen
zaitan poztasunezko baga bat, zeñak
eragiten diyon nere biyotzari balantz,
aiziak loriari bezela.

Sartzen naiz etxe ontara eliza balitz
beziñ errespeto aundiz, zergatik etxe
ontan bizi dan aingeru bat, nere sentira
guziyakiñ adoratzten detana eta, ikus-
ten zaitutan aldiro, aztutzen zaizkit
beste gauza guziyak, eta etzait gogo-
ratzen zu adoratzia baizik; argatik era-
maten det eskuba(9) burura txapela
erazteko desiotan, zer egiten detan ere
azturik.

Illargiyaren argiya balkoi bateko
kristaletatik gela batera iragazten dan
bezela ixil-ixilik eta gozo-gozo, zure
begiratubaren gozotasuna iragazten
zait begiyetatik biyotzera, biyotzetik
banatzen zait sentira guziyetara, lore

ontzi bateko buketaren usaia sala guzian banatzen dan modura; opiyua baltz bezela loarazten dit kordia, kentzen dizkit zuri begiratzeko indarrak, eta argatikan begiratzeko det lurrera, zuk arpegira begiratzeko dirazun denboran.

Eguzkiyak landariari zumua eraten diyon gisara, nere begiyak eraten dute zugandik amoriyo gozo bat, zeñak utzitzen nauben orditu banitz bezela; amoriyozko orditasun orrek ematen dit toteltasun ura, zurekiñ izketan astian.

Ortatic kontura zintezke, zuri bakarririk dizutan naitasun biyotz nerian orlako sentitasun eztiyak mugiarazten ditubena, zenbaterafio izango dan aundiya eta zenbaterafio puruba.

Zu zera munduban maitiena zaitutana, zu zera maitiena izatia merezi dezuna(10), eta zu zera, neretzako beintzat, munduban dan miraberik politena.

Berezi ditezela beste milla arki litezken politenak, jarri zaitzatela danaren erdi-erdian, eta izango zerare marrubi bat milla masustaren erdiyan jarriya, iruriko dezu izar bat argi milla jiran dituzula, eta ainbeste apirillen erdiyan zu bakarrik izango zera maia-tza.

IV

Gisa artara dago Sakripante zutikan, Anjelika bere mentura tristiaren testigu dubela; negarkara dago, ez ainbeste besuan eta oiñ batian dauzkan oñaziagatik, nola menderatuba izanak ematen diyon damutasunagatik.

Arpegiyan lotsa ezagutzen zitzaio-
la, etartzen du Anjelicaren laguntza,
eta baldin dama eder arren konsueluak
izan ez bazuten danik penatubenari ere
itza eragiteko birtutia, uste det orain-
dik mututuba egongo zala.

- Pakeztu zaite, jauna -esaten diyo-;
erortz ori bakarrik itxeki biar zaio zure
zaldiyaren erbaltasunari; biarraguak
zituben errepausa eta janariya, gonba-
tia baño. Ez det uste gañera ezagutzen
ez degun orrek batere gloriyarik iraba-
zi dubenik topara onen bitartez, bara
batetan egin duben erretiradak esaten
digu nola ezagutu duben garaituko ze-
nukela.

Konsolatzen dagokiyon bitartian,
ikusten dute datorkiyotela mandatari
gisako bat zaldi txar baten gañian;
tronpeta bat darama zintzilik; iruri du
dagola larriturik eta kantsatuba.

Boza iritxi liteken tamañara allega-
tu beziñ laster, galdetzen diyo
Sakripanteri ikusi al duben pasatzen
zaldun bat armadura txuriz estaliya,
kaskuaren gañian kolore igualeko lu-
mazko ttonttor bat dubela.

- Onduegi ikusi det -erantzun du
kristau ezak-; artxek utzi nau gisa on-
tan. Esan zadazu nola duben izena, bi-
llatu al dezatan.

- Txit gusto aundiz -esan diyo man-
datariak-. Jakin zazu ezik izan zerala
umilduba bildurgarriya bezin ederra
dan mirabe gazte batengandik, eta esa-
teko bere izenez, zeña dan txit sonatu-
ba, esango dizut bitoriya arrapatu di-
zuna dala Bradamanta.

Itz obek esatiakin bat, bridak irriya-
tu ta irrutitzen da mandatariya, utzirik

sarrazenua umildurik eta sekulan bañan nastubagua.

Triste eta lotsaturik pentsatze ba-koitzian emakume baten besuak aïñ errezki garaitu zubela, itzik egin gabe iyotzen da Anjelikaren zaldi gañera, bera jartzen du gañankan, eta badijua toki paketsubagoko baten billa.

Ozta ibilli dituzte lauen bat milla kana(11), nun beste soñu batek arretzen duben basoko ixiltasuna; ikusten dute zaldi kementsu bat urrez bordatutako eskutarma bat gañian zubela, errollak eta lutzakidiyak(12) saltatubaz, pasarizuan arbolak beren adar ta guzi puskatzen zitubela.

- Nere bista iragaz baliteke arbol oien eta lañu lori orren tartetik -diyo Anjelikak-, orren ots aunditsu igasi dijuan zaldi ori Bayardo da; bai, etzait dudarik gelditzen; uraxen ta bera da; eta badiruri berariyez datorrela, zaldi onen jaso-al eskasak jartzen gaituben larritasunetik kentzera.

Saltatzen du Sakripantek lurrera, arrimatzen da zaldi arroante arengana eta nai diyo bridetatik eldu; bañan Bayardo bueltatzen zaio atziaz eta tiratzen dizka pullankazo bi, kobrezko mendi bat auts biyurtzeko aski ziranak.

Suerte gabeko prinzipia doi-doi libratzen da, baña orregatikan, egun batzuben kanpuan igaro dituben bere jabia berriro ikusterakuan, zakur leial batek izan lezazkiken poz eta umiltasunakin berakin, zaldi noblia alderatu zaio Anjelikari; etzaio aztu nola kontu egiten ziyon Albraken, Anjelikak Reinaldo amatzen zuben denboran, ba-

ra beñiñ bañan geiagotan jaten eman izandu ziyon.(13)

Eusten diyo Anjelikak brida batetik ezkerreko eskubakiñ, eta eskuiekuakiñ palakatzen dizka petxubak eta lepua.

Orduban Bayardo, miresgarrizko somaz doaituba, dago geldi eta ardiya beziñ umill.

Sarrazenuak lipar ontan saltatzen diyo bizkarrera eta estututzen du indarrez. Anjelikak uzten du bere zaldiya eta ixirtzen da Sakripanteren atzian; bañan begiraten dute batetan arma-ots aundiya datorren toki batera; zaldun bat guziki armatuba berengana dator korrika, eta donzella ederrak, koleraz eta etsimenez beterik, ezagutzen du(14) Aimon-ko dukiaren semia dala.

Umant arrek maitiago du Anjelika bere biziya baño, eta Anjelikak, berriz, ez du ikusi nai begitan, usuak mirotza bañan geiago.

Orregatik izan zan denbora bat zehetan maitatu zuben Anjelikak Reinaldo, eta orduban Reinaldok etzuben ikusi ere nai; oraiñ arkitzen dira oso mudatubak.

Sorgiñ iturri bitako urak egiyazu milagro au(15), bata bestiaren onduan irriyatzen dira Ardenasen: batak betetzen du biyotza amoriyozko desioz, eta bestetik eraten dubena erortzen da ajola gabetasun guzizkuan.

Reinaldok eran zuben lenengoti eta daka amoriyoz erretzen. Anjelikak bestetik ito zuben bere egarriya eta oraiñ aren biyotzak ez daka Reinaldaganantz gorrotua eta bekaitza besterik.

Zalduna ikustiakin bat, geratzen da donzella ikaraz mututurik(16), galtzen

ditu puntu artan bere begiyetan(17) erregintzen ziran alaitasuna eta distiua(18), oroiatzen zaio kopeta eta daridarizko bozakiñ erregutzen diyo Sakripanteri iges egin dezala beste gerriari itxogon gabe.

- Añ gutxian dakazu nere baloria -erantzun du sarrazenuak-, nun duda egiten dezun eskudatuko zaiturala? Aztu al dituzu Albrage-ko batalla eta zu salbatziagatik, kasikan armarik gabe, Agrikan eta bere ejerzito guziyakin batitu nitzan arrats ura?

Anjelikak, zer egin ez dakiyela, ez du erantzuten, bañan Reinaldo alderatu zaiote bitartian, eta aurrera dator zirkasianua meaxtubaz, bara ezagutu ditu zaldiya eta emakume ainbeste adoratzen dubena, eta berriro jaiotzen zaizka biyotzian amoriyo eta koleraren su guziyak.

Bañan urrengo kanturako gordetzen det naikidari arroante aien arteratu zan gudaren kontatera.

1. *Cancionero Vasco, Serie II, Tomo I, 1878, apirilla.*

2. Madrilko ABC egunkariak Unamunoren esku-idatzi batzuk argitaratu zituan bein batez, aren letra agertzearren-edo. Eta esku-idatzi oietako batean onela irakurtzen da:

“*Sobre un pensamiento poético de Indalecio Vizcarrondo, Vilinch, poeta donostiarra en vascuence. Te quiero, te quiero mucho; más que Dios con sus dos brazos puede levantar te quiero; le falta a mi querer campo. 19-VI-28.*”

Bilintxen billoba Antoniok egunkariaren orri ori jasoen egin zuan. Baiña eguna apuntatu gabe.

3. Bilintzek onela idatzi zuan leenengo emen: *bequiratu bacoitza da*, eta gero txatxu. baiña letra zaarrak oraindik irakur ditezke.

4. Bilintzek emen leenengo idatzi zuana: *errañubac becela.*

5. Bilintzek emen leenengo idatzia: *nere biyotzian dagon.*

6. Bilintzek emen aurrena idatzia: *amoriyuac ishuri arasi dizquitan.*

7. Manterolaren *Cancionero Vasco*-n beti itz ori falta da.

8. Bilintzek *elizara batera* idatzi zuan. Guk uste, *eliza batera* bear du. Manterolak ere alaxe dauka bere *Cancionero Vasco* ortan.

9. Manterolak *esku bat* idatzi zuan bere bertso-bilduman. Beraren *Cancionero Vasco* ortan ere orrela dago.

10. Bilintxen esku-idatzietan eta Manterolaren bilduman *dezuna* esaten da emen; baiña *Cancionero Vasco* dalako ortan *duena* irakurtzen da.

11. Lauen bat milla kana: *sobre cuatro mil varas. El autor (ó traductor) ha tomado como tipo de medida la usual en el país, que es la vara, designada en vascuence con el nombre de kaná. Equivaliendo la vara á 0'837 metros, 4.000 varas son 3.348 metros, ó sea con escasa diferencia 3 y 1/3 kilómetros.* (Manterolaren oarrara.)

12. Bilintzek *luxakidiyak* idatzi zuan. Manterolak ere orrela idatzi zuan bere bilduman. Baiña *Cancionero Vasco-n lubakidiyak* irakurtzen da.

13. Bilintzek leenengo onela idatzi zuan: *eraman izan cion janariya.*

14. Bilintxen esku-idatzietan *du* itz ori falta da. Manterolak ere ori gabe kopiatu zuan bere bilduman.

Baiña gero, bere *Cancionero Vasco* argitaratzerakoan, erantsi egin zion, uste gabeko utsune bat izango zala pentsaturik. Guk ere ala irizten diogu, eta jarri egin degu.

15. Guk uste, *duen* itza falta da emen.

16. Bilintzek emen leenengo idatzi zuana: *gelditzen da doncella artu zuben icarac uzten du doncella mututuric.*

17. Bilintxen esku-idatzietan, Manterolaren bilduman eta *Cancionero Vasco-n beguiyeta* dago. Gure irizirako, *begiyetan* bear du eta orrela idatzi degu.

18. Manterolaren bertso-bilduman eta *Cancionero Vasco-n distina* idatzita dago. Baiña guk *distiua* irakurtzen degu Bilintxen esku-idatzietan.

Esan zazu Juanak, surigana natorrean,
 eche au ieustiaquin bat e serc equin, arasten diyo
 nere biyotran balantz? e a barrera sartzeracuan
 errespeto aundis elisara, batara sartzen banitz
 besela? serc eramán-arasten dit escula burusa
 chapela. erasteo desiotan ser equiten detan ere
 asturic? eta zue arpeguira beguiratzen dirazun
 demboran e serc beguiratu arasten dit lurrera?
 eta isquitan acitren lanaitzari e serc ematen dit
 toteltasun ura? esdaquisula diyozu eta ofala
 basenequi, lañan zue jaquin es arren nie daquitan
 casuan e naizun contatzia? e bay? ea bara jarri saite
 aritsen: e Deus alden berez barrera batian bere
 hortentaren puntta-punttan gracioser pacharan
 coloca dabillen bere bati aise goshosco бага батс
 nola eraguiten diyon balantz? modu artara bertaru
 nere biyotza dagr esperantza medar baten garian,
 eta eche au ieusten detanaquin batian sentitzen det
 barrera nola sartutan sartan portasuneseu бага bat
 senac eraguiten duyon nere biyotran balantz, aisiac
 berian besela. Sartzen naiz eche ontara elisa balitz
 becin errespeto aundis, sergatic eche ortan bici dan
 aingueru bat nere sentira guciyaguin adoraten
 detana, eta ieusten saittutan aldira astutzen saisquit
 beste gausa guciyac, eta etsait gogoxatzen zu

adoratria laici; argatic emanaten det
 excuba burura chapelak irasteu desietan ser
 egaita ditau ere asturi. Mlarguizaren arguiza
 balcoy batua cristaletaric gacela lotera iragasten
 dan besela ishik-ishilic eta goxo goxo, zure
~~beguizalaren~~ gurutazura iragasten sait begui-
 yetatia biyotzera, biyotetic banatzen sait sentira
 guiyetara, lore ontri batua biyotetaren usaya
 sala guiyen banatzen dan modura; opijua lalib
 besela loarasten dit cordia, quentzen disquit zuri
 bequiratzen indarac eta argaticau bequiratzen det
 burera zue arpeguira bequiratzen dirazun dembran
~~Eguneraren~~ Landuian sumia eraten diran guisara
 nere beguizac eraten ditau sugandic amurjo
 goxo bat señac utriten maubon orditu banit
 besela, amurjoscu orditazun orrec ematen dit
 totel tarun ura zurequin isquitau astian.
 Ortatic contura cintesque, zuri lacarri dirutan
 naitazun, biyote nerian orlaco sentitazun estijac
 muguiarasten ditubena, sembraterano isango dan
 aundiya eta sembraterano jurula.
 Zu sera munduban maitiena saitutara, zu sera
 maitiena isatia mercci desuna, eta zu sera, neritraw
 beintzat, munduban dan misaleric politena. Berrea
 dutesela beste milla argui lites-queu proleterac

amorioys erretzen. Angelicas bestetik orriben bere egarriya
 eta orain aren iriyotrac esdara Peignaldo gamuntz garristua
 eta becaitza besterie Zalduna icustiaquin bat ~~garristua da~~
~~doncella~~ ~~eta~~ ~~bestie~~ ~~icustia~~ ~~quin~~ ~~bat~~ ~~garristua~~ ~~da~~
 gerratzen da doncella icrras mirtutuni, ~~icustia~~ ~~quin~~ ~~bat~~ ~~garristua~~
~~garristua~~ ~~da~~ ~~doncella~~ ~~icrras~~ ~~mirtutuni~~, ~~icustia~~ ~~quin~~ ~~bat~~ ~~garristua~~
 beguiyeta errequintron ciran alaytatuina eta destua
 orragatzen sayo copela, eta dardarisaseo besagui errequitzen
 diez Sacripanteri iguas egrin desala beste guerrariyan
 ierogon galtz, i' Ain quehiyan daczaru nere valoria, erantzun
 du sarrasenseac, nun duda eguten dezun esculalaco satura-
 ta i' astu alditusu Albrquerque batalla eta su salvatriza
 gatie casian erromari gati; Agnican eta bere ejercito
 queiyaguiñ batitu nitran errate ura, Angelicas
 ser egui esdaquiyla, es du erantzeiten, banan
 Reynaldo, alderatu scypte bitartean eta aurrera dator circucia-
 ma meastubaz, bara esageta ditu saldiya eta emacame
 aibeste adoraten dubena, eta berriñ fayotzen saisea
 iriyotrac amorioys eta coleracoi su queiyac Oranden
 nurrengo cantunac gordetzen ~~bat~~ ~~garristua~~ ~~da~~
 det naideidari arrvante ayen anteratu san gudaroen contaem

BILINTXI
ESKEIÑITAKO BERTSO-SAIL BATZUK

AU POZA SENTI DET!!

(Bilintxen modura eta bere oroipen jarriyak)

- 1/ Gaur uste gabe, maite gozoa,
ikusi zaitutanean,
egiyetako zorotasun bat
sortu zait gorputz danian;
zuk jarri nazu biyotz gaxua
oraintxen zori onian,
eta begiyak pozez malkotan
aurrian zauzkatanean.
- 2/ Zu ikusita nere biyotza
oraiñ ain kontentu dago,
uda-berrian txoriya baña
oraindik kontentubago;
nere begiyak zuriak ditu
bere aurrian naiago,
gizon zekenak kutxa zillarrez
betea baña geiago.
- 3/ Zuri begira lenago ere
esan izan det neregan,
aingeru ori gure artera
zerutik jetxi ote dan;
zu beste iñor orren ederrik
nola ikusi ez dedan,
esan nazazu: ez al zerade
andik etorriya egan?

- 4/ Zure ortz txiki txuri politak,
gañera orren berdiñik,
ez det beñere ikusi iñon
ezer aiñ ondo egiñik.
Eta nork ditu zuk bezin begi
zeru kolore urdiñik?
Ara zer esan arazten nazun:
jango zinduzket gordiñik!
- 5/ Zeñi etzaizka gustatzen zure
pausoa eta mugira,
aiziak luma bultzata baña
ariñaguak badira?
Zuri zerubak eman zizkizun
graziyak ainbeste dira,
ero-azitzen nautenak jartzen
naizen guztiyan begira.
- 6/ Ordu denetan galdezka nabill
norentzat zeran, norentzat,
bada beldur naiz ote zeraden,
dama, besteren batentzat;
usai gabeko loria ona
ez baldin bada zuretzat,
zuk artzen nazu, ala uste det,
usai gabeko loretzat.
- 7/ Ori orrela izanda ere
beti biyotzian zauzkat!
Zeñetan karga guztiz pixuak
ezin jasorikan dauzkat;
berez datozen atsekabeak
ainbesteraño darauzkat,
berak oraindik galduko naute
baldin luzaro badauzkat.

8/ Zure meriyo estu nagola,
arren, sinistra nazazu,
arantza zorrotz baten modura
beti zulaka nakazu;
kupi zaite ta gogobeterik
biyotz barrendik esazu:
*“Atoz gozoro eta betiko
batu gaitean ni ta zu”*.

V. Iraola

Euskal-Erria, 1, 1880.

ARRANOA ETA BELEA

(Donekidatuba Indalezio Bizkarrondo (Bilintx) biursariari bizi zan denboran, eta argitaratu gabea.)

Zure bertso ederraz
oroitzen naiz maiz-maiz,
irakurtzez beñere
aspertu ezin naiz.
Zuk dakizu egiten
bertso onak errez,
parerik ez dutenak
graziya ederrez.
Zu erregatzen zaitu
doaiezko itzak,
zerutik jaisten dira
zuregana itzak.
Gurétzat etzan sortu
onelako ditxik,
dauzkagu graziyaren
ate danak itxik.
Zenbaitek esango du:
“Zer da bada ura?
Zer gauza polit zaizka
jaiotzen burura?
Itz batzubek apaintzen
ikasiya dala,
zer milagroa itzak
apaintzea ala!...

Lan au egin lezake
noiznai edozeñek;
ez naiz bertsolariya,
eta nik neronek”.
Orduban, erozeñek
balezake egin,
itz neurtubetan biet
nik ere itzegin.
Bañan onetarako
nerien modelen,
zuriak artzen ditut,
Bilintx, esan det len.
Aurkez nazkitzu zure
lira ta graziya,
galaz kanta dezadan
nere poesiya,
zeñetan azaldu nai
ditudan belea,
arranoa, ariya
eta arkumea;
bada itz bide ontan
zuzen nadin sartu,
lenengo arranoa
biet aotaratu.
Arrano arrapari
ega luzedun bat,
laño petik zeletan
zeguena anbat,
illunabar batean,
aiziaren gixan,
goi-goitik mendiyaren
gañera jatxi zan,
eta arkume batez
eginñikan jabe,
zarpazo biyan laja
zuben korde gabe.
Beleak ikusirik
zer lan egin zuben,
pentsamentuban egon
gabe, esan zuben:
“Zer! Nik ere beste bat
ill nezake ala;

ez da gaitza egiten
lan arren iguala".
Au esan da jatxi zan
ari batengana,
bañan nola zekarren
oparua lana,
gelditu zan bi zarpak
trabaturik oso,
txoriya bizkan nola
gisa artan preso.
Ariyaren jabea
ontaz oroiturik,
eta beste lau artzai
gazteri deiturik,
bostak joan ziran bele
itsatsiyagana,
eta lendabiziko
kolpaturik dana,
ego biyak moztuta
oso parragarri,
laja zuten bestien
eskarmentagarri.
Burla, mespreziyoak
ditu mereziyak
txiki aundizat pasa
nai duben guziyak.
Arranoa izanik
indartsu azkarra,
au idurizkatzen zan
asi bele zarra;
eta zer zan atera
zubena beretzat?
Burla, eta leziyo
eder bat guretzat.

Bertso egille motxak
obea genduke
ejenplo au gordeko
baldin bagenduke,
esanaz, desengañuz
beterik nola nik:

Bilintx, ez du egiten
bestek zure lanik;
ala zaude poesi
galaiaren jabe,
zu zera arranoa
disputarik gabe.
Zuretzat izan bitez
lorerik onenak,
erramuz egindako
koroï eder denak,
eta ni, aizkenengo
bertso egillea,
ez nadiyahela izan
kontuko belea.

Ramon Artola

Euskal-Erria, VI, 1882.

BILINTX DOAKABEARI

- 1/ Umerik izan bada munduan
zoriontasun gaberik,
Donostiako Bilintx izandu
zala ez dago dudarik;
patu gaiztoak jarraitu zion
utzi gabe egun bat onik,
eraman arte mundu igeskor
eta nasai onetatik.

- 2/ Jaiotzetikan ill arteraño
erio biotz gogorak
bere gañean zeukazkiela
zirurien atzaparrak;
itsuskitua ustekabetan,
denak ez oso ezurrak,
aiñ eriotza izugarria
izan oi dute bakarrak.

- 3/ Baña Apolok ikusirikan
zuela barren garbia,
biotz bera ta txit maitatsua,
aur baten inozentzia,
birali zion pena eta miñ
guzien gozagarria:
tortola baten egalazpian
Erato-ren etorkia.

- 4/ Senar maitea, gurasorikan
izan liteken onena,
mundu ontako neke ta lanak
ondo zeramazkiena;
iñori gaitzik opatu gabe
denak maite zituena,
zan egiazko adiskide bat
etsairikan etzuena.
- 5/ Koplari samur egiazkoa
jaio zan maitatutzeko,
ta amorioa kantatzen zuen
berekin sortu zalako.
Nola etzuen bada gau ta egun
ezpañean idukiko,
baldin onela naigabe denak
bazitzazkion aztuko?
- 6/ Beartsu beti bizitu arren
etziraden penazkoak
aren lantuak eta negarrak,
baizik amoriozkoak.
A!, zirurien atsegintasun
eta doai zerukoak
poztu zezaten, zizkiotela
biraltzen aingerutxoak!
- 7/ Ala da ezik nork ark bezela
ixuri sispiro, lore,
gaitzik ez duten itz eder eta
beste zenbat jolasbide,
neskatx garbiren matrall oriak
gorritu erazi gabe?
Ark bezelako itz eztsuak
esateko nor da trebe?

- 8/ Aren itzerak iruditutzen
zazkit usoren urrugak,
mugida gabe dagoeneko
itsasoaren baga-otsak;
gau osgarbian aize goxoren
suxu-muxutxo biguñak,
gora altxatuak txoriandraren
egunsentiko diosalak.
- 9/ Deritzazkit, ai!, Euskal-erriko
aritz guztien pirpirrak,
lore tartean gordea doan
iturritxoren murmurak;
kabi ondoan tellatupeko
enaratxoen txor-txorrak,
amorez illa dagoeneko
erretxiñolen gorgorak.
- 10/ Ark senti zuen amorioa
da kerubiñen asnasa,
jargoi oñean Jaungoikoari
zuzendutzean otoitza;
egunsentian lore gañetan
egan dabillen artaiza,
azuzenaren orri tartean
pozez gordetzen dan intza.
- 11/ Nor da, ordea, nor gairik aski
pintatzeko(1) nolakoa
izandu zuen anima biguñ
garbiak amorioa?
Aiñ amorio gaitzik gabea,
loratsu eta gaxoa,
toleskabezko ezpañaz iñor
lotserazi gabekoa?

- 12/ Iñor ez noski; ni ez naiz beintzat
eta noa isiltzera...
Baña ez, ez naiz isilduko, ez,
bear det segi aurrera;
pensa gaberik berez etortzen
zitzazkion mingañera
itz egokiak, biursaririk
bikañenaren gisara.
- 13/ Ao betean ezpañetatik
zitzaiozkan ixuritzen
itz jostalluak eta gozitzak
zituztenak par erazten.
Nor egon muker *Joxe Mariren*
zaldiren koplak aditzen?
Neronek ditut zenbat ingeles
ikusi parrez itotzen.
- 14/ Baña, neretzat, ark utzi zigun
moldaerarik onena,
duda gabe da *Juana Bixenta*.
Olabe-ko neskarena;
dezaiokegu eman aldean
poema(2) baten izena,
zeren aleak duten izen au
ez izan arren au diña.
- 15/ A zer lastima etzala izan
nabarmena asko bezela,
paregabeko edertasunez
apaindua zegoela!
Bada utziko zizkigun noski
joia ederrik bestela,
autsi gaberik, esanaz ezer
baliorik etzutela.

- 16/ Geiegikoa zan arek zuen
modesti neurrigabea,
etzuen nai zer izkribatutzen
zuen iñork jakitea;
ez eta ere moldaerarik
bikañetaz galdetzea,
aiñ gutxi bere mirarizleak
argitara ematea.
- 17/ Genezakegu esan, lorerik
politena izan arren,
sasi tartean bere burua
maiz oi zuela gordetzen;
etzituela jazkai ederrak
iñoiz jantzi nai izaten,
baizik bakarrik noiz edo berriz
norbaiti erakutsitzen.
- 18/ Baña eskerrak euskarazale
bati ziradela bildu,
eta liburu polit batean
batzuek argitaratu;
onela ditu bi lan on egin:
bata, ez dedilla galdu
aren oroitza; eta bestea,
euskal izkirak apaindu.
- 19/ Bizitu bedi Euskal-errian,
o Bilintx, zure arraza,
izan dezagun atsekabezko
egunetan zure antza;
patu gaiztoak gu ere gauzka
mendean, ai!, zure gisa,
eta nondikan libre izango
geran da gure ametsa.

20/ Kanta dezagun, kantatu gure
penen konsuelorako,
zeren arkaitzak eta mendiak
dituzte zeruratuko;
eta Aitor ta bere lagunak
Jainkoari eskatuko
izan dezala kupida guri
lege zarrak itzultzeko.

Klaudio Otaegi-koak

(Euskal-Erria, VII, 1882)

* * *

Urtero bezela, Donostian, 1882-an, *Juegos Florales Euskaros* izeneko euskal olerki-sariketa antolatu zan. Idazlan asko bildu ziran. Oietatik lau, Bilintx goraltzearren egiñak. *Euskal-Erria* aldizkariak onela zion:

“4 composiciones en verso, dedicadas á honrar la memoria del simpático poeta easonense Vilinch, de entre las que ha obtenido la escribanía de nikel, regalo de la sociedad Unión Artesana, la titulada Bilinch doakabeari!, de nuestro estimado colaborador D. Claudio de Otaegui, habiéndose adjudicado además un accesit á la de D. Ramón Artola, titulada: “Indalezio Bizkarrondo, Vilinch zeritzaion itz-neurlariari oroimen bat”, y una mención honorífica á un soneto de D. Carmelo Echegaray, cuyo epígrafe es: “Vilinch biursariaren doaindigoan”. La composición premiada del Sr. Otaegui la incluimos en el presente

número; las otras dos esperamos dar á conocer á nuestros lectores en el próximo”.

Lau bertso-sail esaten du *Euskal-Erria*-k, baiña iru bakarrik izendatzen ditu.

Otaegirena oraintxe arkitu du irakurleak. Artolarena eta Etxegarairena urrengo orrialdeetan eskeiñiko dizkiogu.

Klaudio Otaegi Zegaman jaio zan 1836-X-30-ean. Itz-neurtu asko moldatu zituan. Itz-lauz ere saiatu zan. Bonaparteren laguntzaille izan zan. Ondarrabian egin zuan bere denborarik geiena, eta bertan il zan, 1890-I-10-ean.

1. Antzetzutzeko. (Egillearen oarra)

2. Biursatea. (Id.)

INDALEZIO BIZKARRONDO “BILINTX”

ZERITZAION ITZ-NEURLARIARI OROIMEN BAT(1)

- 1/ Argi apur bat sutu zadazu,
Apolo, pentsamentuban,
lira xar baten doñuban doaiz
abiya nadin kantuban;
atozte, musak, ere nigana
eguzkiyaren moduban,
denen laguntzaz bana ditzadan
Bilintx-en famak munduban.

- 2/ Kendu baneio gañetik bera
gordetzen duben arriya,
esna eraingo nuke lotatik
gizon beneragarriya;
kantuz altxatu nai niyoke gaur
oroikarri(2) bat berriya,
bere gañean ikusi dediñ
onratzen Euskal-erriya.

- 3/ Bañan nik nola kanta nitzake
bere baliyo aundiya?
Zertan bear det asi argitan
jartzen beraren graziya,
nere moduban ezagututzen
badute beste guziya,
bada illdako lotan naiz egon
oroitzak dauzka biziya?

- 4/ Penak maiz lotzen zutelarikan
berez izanik alaia,
iñoiz paltatzen ez baitzitzaion
jolas berrirako gaia,
zuben txoriyak bezela errez
kantatutzeko doaia,
eta zan izdun berdingabe ta
izkribalari galaia.
- 5/ Non dira bere izkribu ezti
eta kantatxo gozoak?
Non beragandik jaikitzen ziran
euskal itz baliosoak?
Ez dira iñoiz oiñpetu izan,
guziyak daude osoak,
denok dauzkagu ongi ikasi
eta gogoan jasoak.
- 6/ Nork etzitzaken artu gogoan
aren grazizko esanak,
berak aitzeko zaleturikan
egoten bagiñan danak?
Kantatzen asten zanean igual,
inguruetan ziranak
bere jolasak aitzeagatik
utzitzen zituzten lanak.
- 7/ Eta noizik bein asten zanean
izkribu berriyak jartzen,
zer kantu eder etziran bere
doaitik argitaratzen?
Nork ez giñuzen sortu ordukoz
ikasi eta kantatzen?
Zeñek ez, iñoiz ez aztutzeko
moduban, gogoan artzen?

8/ Nork ez dakizki Euskal-Erriyan
Txomin zanaren kontuba,
Abere baten bizitza eta
kantuzko *Juramentuba*?
Eta zeñek ez ere igualik
ez duben pentsamentuba,
iñoiz aztuko ez dan *Kontxexi*
aingerubaren kantuba?

9/ Nor zan gelditu Euskal-Erriyan,
bañan nor?, ikasi gabe
Ja-jai polit bat berarena ta
Juana Bixenta Olabe?
Berakin kantu *Gaizki bizi naiz*
eta illko banitz obe,
eta... zeñ etzan egiñ *Izazu*
nitzaz kupira-ren jabe?

10/ Oekin beste lan berarenak
gustagarriyak aiñ dira,
eziñ aspertu liteke berak
entzutez edo begira;
beste edozeiñ erresumetan(3)
egiñak izan balira,
oraingoz eman ziyen guziyak
mundu osoari jira.

11/ Euskal tokiya txikiya da ta
nonbait au dala mediyo,
etzan *Bilintx*-en famikan gizon
aundiyan mallara iyo;
baña pentsatze nerearekiñ
arkitutzen naiz txit fiyo:
ez dala jakiñ oraindik ongi
ark zenbat zuben baliyo.

- 12/ Bañan ni zertan ari naiz eziñ
egiñik bere pintura?
Nola nezake merezi duben
ainbat famatu nik ura?
Egunak maiz ta gabaz askotan
jaio izan zait burura
orren neurriko itz-neurlaririk
ez dala jaio mundura.
- 13/ Nik ere igo naia banuben
bere allegatokira,
bañan indarrak paltaturikan
eman izana naiz jira;
arranoaren(4) eta txoriyen
egoak igualak ez dira,
gaur arkitzen naiz miresturikan
arren lanari begira.
- 14/ Eguzkiyaren gisan emanaz
dizdiarizko argiyak,
moldetzat utzi izan zituben
gauza begiragarriyak;
euskera miñez zegoan denboran
egiñak dira guziyak,
ala euskerak eta guk beti
zorko dizkagu graziyak.
- 15/ Nola etziran gauza aundiyak
jaikiko bere burutik,
intza bezela doaia jaisten
bazan argana zerutik?
Guk nai bañan len, utzirik bere
grazi zerukoak zutik,
erreñu eder baten moduban
ezkutatu zan mundutik.

16/ Aundiyak ziran bere graziyak
bañan baita ere penak,
ezin kontatu litezke iya
pasa izan zitubenak;
oek gureztat nola osatzen
dituben goien daguenak,
iñoiz ez ditu banatzen baten
gañean zori on denak.

17/ Mundu berriya billatu zuben
Kolon egon zan katean,
Eskulano bat beti arkitu
oi zan atsekabe pean;
Zerbantes preso, beso bakarra,
beti penaren artean,
eta *Kamoens* aundiya berriz
ill zan eritei(5) batean.

18/ Bati zerutik doai ta grazi
aundiyak jaisten bazaizka,
beren ordaintzan atsekabeak
ere azalduko zaizka;
Jaunak berari zorion utsak
noski emango ez dizka,
txarrakin onak gure artean
partitzen ditu erdizka.

19/ O Bilintx aundi, miragarriya!
O ill ziñana *martiri*!
Zuk ere doai truke zenduben
malkoa pranko ixuri!
Gauza eder ta aundiyak utzi
zizkigutzulako guri,
maitetasun bat denen partetik
agertzen dizut gaur zuri.

20/ Merezierak zauzkatelako
leku altuban jarriya,
zure burura ez naiz iristen
artzeko bere neurriya;
bada uztaitu bear nizuben
tokian koroi berriya,
zere oiñ alko ipintzen dizut
kanta: *Oroimengarriya!*

Ramon Artola

Euskal-Erria, VII, 1882.

Ramon Artola Larrañaga Tolosan jaio zan, 1831-VIII-31-an. Baiña Donostira aldatu zan bizi izatera. Oso bertso jartzaille oparoa eta ugaria izan zan. Donostian il zan, 1906-VIII-20-an.

1. *Composición premiada en los Juegos Florales de esta ciudad con accesit. (Euskal-Erria-ren oarra.)*

2. *Monumento. (Id.)*

3. *Reino. (Id.)*

4. *Aguila. (Id.)*

5. *Hospital. (Id.)*

BILINTX BIURSARIAREN DOAINDIGOAN

(Amalauduna señalado con mención honorífica en los Juegos Florales de esta ciudad.)

- Donostiarrak! Donostiarrak!
Gaur zerk zaituzte zuek gozatzen?
Gudari portitz piñeen jazarrak
al dituzute gogoz ospatzen?
Itxas-umanten azaiñ azkarrak
al zabilzate pozez kantatzen?
Nola bestela zuen ibarrak
modu orretan dira zoratzen?
- Jarri nai degu Bilintx ernaiya
erramu lorez koroiturikan;
beraren izen maitagarriya
urre-letrakiñ ezarririkan,
arritu dedin Euskal-erriya
aren doaiak ikusirikan.

Etxegaray-ko Karmelo-k

Euskal-Erria, VII, 1882.

* * *

Karmelo Etxegarai Azpeitian jaio zan, 1865-VII-3-an. Amazazpi urte besterik etzituan, beraz, olerki au mol-datu zuanean. Kondaira-lanetan igaro

zuan bere bizitza. Gernikan il zan, 1925-IX-4-ean.

1. Zoratu: *rebosar de placer*. (Etxegaray-ren oarra)

AGUR, AGUR, BIZKARRONDO!

- 1/ Zurekin lotan, zurekin esna,
zurekin zergatik nabill?
Zekizulako itzak neurritzen
zuzen, sendo ta biribill;
zuregatikan nere biotza
zoratu naiean dabill,
zurekin nai du aurrera bizi,
zurekin nai luke ere ill.

- 2/ Zure izena etzait kendutzen
beñere begietatik,
ikusitzen det ezkerretan ta
orobat eskubitatik;
irakurtzen det nere atzean,
letzen ari naiz aurretik,
ez naiz irten ta ez naiz irtengo
baratza eder ontatik.

- 3/ Zure omenak kantatutzeko
letartak erregutzen dit,
bañan bai al det, izango al det
lan ontarako modurik?
Gañera berriz etzait arkitzen
zure doaien laurdenik;
auxen da lana!, ezin naiz asi,
ezin naiz egon ixillik.

- 4/ Sinistazazu, Indalezio,
zerala nere maitea,
beraren bidez nola nai dezu
ixillikan egotea?
Ez egon arren nere buruba
jakinduriyaz betea,
itz argal oiek adituzeko,
arren!, altxatu zaitea.
- 5/ Zure amaren sabeletikan
ziñadeneko jaioa,
zerorren billa abiatu zan
txit zuzen amariyoa;
bai eta ere legundu zizun
eztiyarekin aboa,
ziñaden txori onena baño
kantari ederragoa.
- 6/ Zu izan arren itzak neurtutzen
jatorritikan abilla,
ez ziñaden zu arroa izan
baizikan guztiz umilla;
zure lan onak gordetzen berriz
mutu bat beziñ ixilla,
orrengatikan millak baterez,
batek baliyo du milla.
- 7/ Amoriyoan gazte denboran
pasa zenduben bizitza,
amoriyoan egin zenduban
zori oneko ezkontza;
gogoz maitatzen ari ziñala
etxadiari biyotza,
gerta zitzaizun zori gaiztoan
negarrezko eriyotza.

8/ Ai!, etziñaden bakarrikan ill,
ill zan luma bat azkarra,
galdu zitzaion amoriyuari
giyatzat zeukan izarra;
igartu're zan lore bat berriz
bost llaga beziñ ederra,
errenkada oiek izkribatutzen
egiten dizut negarra.

9/ Amoriyoa etzenduban zuk
ez erosi ta ez saldu,
baizik zitzaizun gorputz danean
sube bat bezela bildu;
beraren bidez iguzu guri
Euskal-erriyan zabaldu,
amoriyuak seme oberik
izan ta izango al du?

10/ Zu izanikan amoriyuak
pare gabeko semea,
zu izan ziñan itzak neurtutzen
zazpi doaien jabea.
Nola nai dezu, nola liteke,
nola gentzake ordea?
Norengandikan, nundik nai dezu
zure izena galtzea?

11/ Zure izena galdutzen bada,
galdu dira naitasunak;
galdubak dira gure artean
diran anaiatasunak;
galduko dira emakumeak,
galduko gera gizonak,
galduko dira Jaun Zerukoak
para zizkigun gauz onak.

12/ Uste al dezu zure izena
arkitzen dala galduta?
Zure izena ikusten degu
lore ederrez beteta.
Gañera berriz utzi ez dezu
sugarren batek erreta?
Urume eta Kontxa ederrak
erdiyan zauzka gordeta.

13/ Amoriyua erakutsitzen
umanta ziñalakuan,
amoriyuan izen goiena
daukazu Egiputzuan;
amoriyuan sartuba zaude
betiko gure goguan,
eztago dudik amoriyuan
gozatzen zaude zeruan.

14/ Ondo dakizu zuri begira
daudela gure begiyak,
ongi dakizu gaur nola dauden
iberotarren mendiyak;
ondo dakizu nola dauzkagun
txit negar izugarriyak,
ongi dakizu gaur zure bear
dirala Euskal-erriyak.

15/ Zuk itzegiten dakizulako
gutziz garbi eta ondo,
egin diozu erregu on bat
Jaungoikoari agudo.
Ez al dakizu zer moduz bizi
izango giñan lenago?
Agurtzen zaitut, Indalezio,
agur, agur, Bizkarrondo!

Ramos Azkarate

(Euskal-Erria, XIII, 1885)

BILINTXEN OROIMENGARRIARI BERE GORPUTZAREN ERALDAIRAN

- 1/ Bai al nezake orain zuretzat
bertso batzubek ipiñi,
asi nadiyen biotzetikan
donkidatubaz kantari?
Bai al nezake? Adi zaiozu
nere pentsamentuari,
eta aditzian esan zaiezu
zeruko aingeruari,(1)
zure musatxo aietatikan
bigal nazaten bat neri.

- 2/ Zer lore polit apañarekin
moldatzen zenuben itza!
Zer miragarri egin zenuben
zenbait gazteren bizitza!
Nola ez bada donkitu zuri
eskein dizutan oroitza,
al bazait beti egun eta gau
esaten nere biotza
nola zenduben argitaratu
aztuba zegon jakintza?

3/ Nere barruna, samur, gaixoa,
daukat txit erdiratua,
irakurririk zuk egiñ dezun
kantuzko *Juramentuba*.
Zeñek salaḡu zuk bezelaxen
gizonen amoriyua?
Zeñek azaldu zuk beziñ errez
neurtitzez pentsamentua?
Danak diyote dudarik gabe
zerala lenbizikua.

Frantzisko Lopez-Alen

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Frantzisko Lopez-Alen Donostian
jaio zan, 1869-I-9-an. Bai euskeraz eta
bai erderaz, asko idatzi zuan. *Euskal-
Erria* aldizkariaren zuzendaria izan

zan. Donostian il zan, 1910-VII-27-an.

1. Euskal-Erria-n: aingeruai.

BILINTXEN OBIAN(1)

“Laster esango da zuekgatik
esaten oi dana orai; gugatik:
¡¡Ill ziran!!”.

Iturriaga

1/ Nundikan nora topa nezake
lira bat guztiz alaiya,
nundikan nora kantatuzeko
zure oroimengarriya!
Nundikan nora gaur nik topatu
musa bat guztiz eztiya,
gosatuzeko zure samiñak
ta zure doai aundiya!
Nundikan nora, penaz banago,
a, Bilintx maitagarriya!

1. *Composición premiada con un objeto de arte en los Juegos Florales celebrados en esta Ciudad en 1888. (Euskal-Erria-ren oarra.)*

2/ Ez du lurrean iñoiz topatu
gizonak paketasunik,
baizik zerura begiratuaz
jartzen danian besterik.
Zer da soro bat, ai!, ez badegu
ikusten lorez jantzirik!
Zer da gizona arki ezker
munduan bakar-bakarrik!
Eta zer dira gauza guztiyak
Jaungoikorikan gaberik!

3/ Au ekartzen dit nere gogora
izan zenduben bizitzak,
igarotua seaskatikan
menderaturikan gaitzak.
A, Bilintx! Bañan nola etorri
artzen zenituben gauzak!
Eztuben aintzat artzen beñere
pare gabeko biotzak,
nunbait leguntzen zitubelako
zure barrengo otoitzak.

4/ Dijoanian arrano aundia
egatzen zabal aidian,
o zer aguro ibildutzen dan
aundi izanagatikan!
Dituztenean gizon argiyak
eriotzaren orduan
laja oroitza penagarriak
jaio ziraden tokian,
alaxen ere aben izenak
egatzen dute munduan.

5/ Eta zuria, Bilintx maitea,
euskaldunaren artian,
gizaldietan azalduko da
Donostiakin batian.
Ama Euskarak zaitu maitatzen
beti bere magalian,
eta *izarrak gau illunean*
diz-dizatze'iran antzian,
diz-dizatzen du zure izenak
bizitu ziñan lurrian.

6/ Gaur nago emen zure parean
zu illa ta ni bizirik,
aldare baten aurrian nola
egoten geran geldirik.
Zer dakigu guk lurren gañean
gaudenok, iruditurik
au eta ura orla dirala,
ez badakigu oraindik
illak zer diran, iñoiz beñere
bizirik daudenengandik?

7/ A, Bilintx! Nola atsekabeak
ez izan, emen general!
Nola ez izan samiñak eta
beste gauz asko onela!
Zuk izan arren, ai!, ixuriyak
malkoak emen zeundela,
nork zuk añian aiek legortu!
Nork farrez farrez bezela!
Bazirudien gaitzak zure gaiñ
Jaunak jarri zitubela!

8/ O zer bakarrik! O zer ixillik!
Ez gaitu inork galazten,
ezta txoriyak or datozenak
urrutitikan kantatzen;
gora beiratu, bera beiratu,
etzaitut inon arkitzen,
etzaitut bada nik nai ainbeste
nere gogoan sentitzen,
bañan nork daki zeru ortatik
baldin banazu ikusten!

Frantzisko Lopez eta Alen

Euskal-Erria, XX, 1889.

BERTSOAK ETA LOREAK

*Bilintx zanaren oroimenean itz neurlari On
Joakin Frantziskori.*

- 1/ Espāñiako Euskal-Erriyan
etziñan jaio, Joakin, zu,
eta au dala bide egongo
etzera noski jakintsu;
neri Bilintx zer itz-neurgille zan
bertsoan galdetu nazu,
ta galdearen erantzuera
bertsoan entzun nazazu.

- 2/ Zuk jakiñik ni euskal lorien
billa naizela ibiltzen,
batzuk eskatu nazkitzu eta
gogoz jarduna naiz biltzen;
eta osatu detan sortari
ez diotala bat kentzen,
sortatxo bera Bilintxen onran
dizut gaur zuri eskeintzen.

- 3/ Soruetara udan goitikan
jaisten dan gisan intz ura,
Bilintxi ala jaisten zitzaion
doai preskua zentzura;
ta aren bidez nola grazi dun
beti arkitzen zan ura,
nik din goitzeko ez dakit itzik
jaikiko zaitan burura.

- 4/ Urrezko pluma tinta ontziyan
utzi ta kantatzen asten
zanean, aren esanak ziran
belarriyetan itsasten;
nola doaizko itz txoragarrik
lozez baitzituben jazten,
ark argiratzen zituben kanta
guziyak ziran ikasten.
- 5/ Aren graziyaz apaindutako
itz neurtu baliosoak,
zernai doñutan kutsutzen ziran
gertatzen kanta gozoak;
ez dira gutxi dakizkitenak
bere kantaldi osoak,
ark jarri denak Euskal-Erriak
dauzka kutuntzat jasoak.
- 6/ Gauza ederrak nekez baitute
zarraren itxura artzen,
eta Bilintxen bertsoak ala
iñoiz ez baitira zartzen,
urteak joanik ere etzaie
makurtasunik igartzen;
aren kantuzko lorerik ez da
euskal baratzan igartzen.
- 7/ Lore tartean bera erori
zanean artu zan pena,
esan genduben: “Ezkutatu da
izar baliosoena”.
Bai, egiya da; galdu zan argan
geneukagun gozomena,
bañan etzana galdu da bere
utzi zuben oroimena.

8/ Ark zuben doai modurik goitik
ez da neregana jatxi,
ta kantu ontan bear det lora
tokiko atia itxi;
ni izan banitz printzipea ta
erregetara iritxi,
nere koroa parako nion
bere buruban Bilintxi.

Ramon Artola

El Pueblo Vasco, 1905-VI-11.

I.Moldiztegi-utsegiñak ziralakoan, zuzenketa batzuk egun ditugu. Egunkarian beste onela zegoan: 2/4:

gozoz; 3/1: Zorietara; 4/1: ontziyen; 5/7: garri; 5/8: kuttuntzek.

IRU BERTSO

Leenengo bertso au, Pedro Maria Otañok Bilintxen semeari bein batez kantatua da:

Zu Bilintxen semea
zera nereko,
ez baziraten esan
enun igarriko;
gu aren aurrean gaude
beti belauniko,
emendik joan zan baña
ezta beñere ilko.

* * *

Bertso pare au Errenteriko Makazaga moldiztegiaren *Bertsolariya* astekarrian agertu zan, 1931-XII-20-an, norenak dan esan gabe:

1/ Nork eztu entzun Indalezio Bizkarrondo zana, Bilintx?
Bere denboran amaika bertso jarri zun euskera garbiz;
suerte txarrak persegitua
beti izandu zan desgraziz,
kolpe batekin kokotza autsi,
granadak ixterra berriz.

2/ Emen asi naiz orain, gaztiak,
oroituzeko asmuan,
bere izena gozaturikan
zenbat bertso jarri zuan!
Gizarajuak suerte onik
etzuan izan munduan,
orain bestian desio diyot
gerta dedilla zeruan,

BILINTX ZANAREN OROIMENEZ

1976-garren urtean bete ziran eun urte, Bilintx bertsolari aundia il zala. Ori zala-ta, “Bilintx-urtea” izenean jai-aldi asko ospatu ziran Donostian.

Bertso goxo eta atsegin asko jarri zituen Bilintxek bere denboran; beti

lozez lore ibiltzen zan erlea bezela. Irakurri ditugun aren bertsoak ala adierazten dute beintzat.

Urte artan, “Bilintx-urtea” gai artu ta beste bertso-jartzalle geienak bezela, nik ere eskeñi nizkion nere aleak.

1/ Anai-arreba bertsolaleok,
astera noa lanean,
urtebeteko ixillaldia
igarro ondorenean.
Zuen begiak gozatu nairik
borondate onenean,
bertso batzuek jartzera noa
Bilintx zanan izenean.

2/ Bilintx urtea ospatzen degu
aurtengo urte guztian,
ori dala-ta jaialdi asko
jarri dira Donostian.
Bertsolariak bertsoak jartzen
batian eta bestian,
nik ere zerbait esan bearra
badaukat nere ustian.

- 3/ Berdin gabeko doaia zendun
mundura sortu ziñandik,
amoriozko lore politikak
zabaldu ziran zugandik.
Eun urte luze igaro arren
joan ziñala emendik,
zure izena eta bertsoak
emen dabilta oraindik.
- 4/ Maitasun-gaiak zitun gogozko
ain maitekorra izanik,
etzazutela uste ni ere
gauz orren etsai naizenik.
Bide ortatik jarraitzeakin
ez legoke zer esanik;
samingarri da, baiña lur ontan
gaur ez dago maitasunik.
- 5/ Itxi ziraden zure begiak,
kendu zituzten Fueruak,
illundu ziran Euskalerriko
itxas, mendi ta soruak.
Etorri ziran etsai gaiztoak,
agur gure aingeruak,
orduko zure bertsoen orde
gaur burruka ta tiruak.
- 6/ Lorezko kantuz alaitu zendun
zuk Euskalerra guztia,
ai, zure ezpain goxo aietan
beti bazegon ezta;
maitasun-bertsoz beterikan zuk
utzi zendun Donostia
sarritan dago negar-malkoaz
eta odolez bustia.

- 7/ Egiak garbi aitortutzeko
zertan bear degu lotsa?
Itzez guziok jostaille gera,
obraz ezpata zorrotza;
argatik dabil ainbat burruka
eta ainbat eriotza,
mingaiña degu oso biguna,
altzairuzkoa biotza.
- 8/ Emen guztiok degu arrazoi
bakoitzak bere ustetan,
“Ni pekatari” ez dakit zertan
ikasi gendun gaztetan.
Armak lanean mendi, kamio
eta erriko pestetan,
errugabeak pagatu bear
amarretatik bostetan.
- 9/ Geure izkuntza goraldtu ustez
garrotea bizkarrean,
geure pitxia zabaltzerik ez
geure begien aurrean.
Ematen degun pauso guztia
etsaiaren beldurrean,
begira nola bizi geraden
geu jaiotako lurean.
- 10/ Gure lur ontan zenbait aitonek
barruan daukaten miña,
bizi dirala beren pitxia
emen ikusi eziña.
Al dan azkarren loratu bedi
Euskalerriko jardiña,
danen aurrean zabal dezagun
geurea dan ikurriña.

11/ O biotzeko gure Donosti,
Bilintx zanaren seaska,
nere eskuan dabillen lumak
egin du zenbait lardaska;
neurritz kanpora ote dabillen
badaukat naikoa kezka,
utsegin badet zugana nator
barkazioa galdezka.

12/ Bertso-jario jarraitu dezan
Bilintx zanan iturriak,
nik ale auk eskeintzen dizkat
bere gorantzan jarriak.
Danok deadar egin dezagun
urratuaz eztarriak:
“Gora Donosti berdingabea
ta gora euskal erriak!”

Martzelino Manterola

La Voz de España, 1976-VIII-14 eta 15.
Auspoa, 166 (1983).

ARKIBIDEA

ITZAURREA

BIZITZA	11
Etxeko berri.....	13
Bizibidea	18
Bizilekua	28
Gertaerak	30
Ezbearrak	43
Arpegia.....	45
Bilintx eta garai artako bertsolariak	51
Berri-emale.....	55
Erdal olerkariak.....	57
Bertso-saillak	61
Galdutako bertso-saillak.	63
Jose Manterola	69
Gerratea.....	72
Donostiko bonbardeoa	74
San Sebastian eguna.....	78
Gurutzbidea.....	82
Militarren arteko eskutitzak	85
Eriotza eta illeta	88
Santana jaunaren eskeintza	94
Alarguna eta aurrak	96
Bilintxen esku-idatzietako zenbait orri	107
Bilintxen illobia.....	120
Bilintx kalea	125
Bilintxen bertso-bildumak.....	127
 BERTSOAK	 131
Zenbait oar	133
Galop infernal	135
Zaldi baten bizitza edo zaldi zuriyarena	141
Kontzezirentzat	157
Pozez ta bildurrak.....	167
Juramentuba	177
Loriak	183

Potajiarena.....	195
Maita nazazu arren!.....	209
Beti zutzaz pentsatzen.....	213
Ja-jai!.....	219
Zenbait damaren esker txarra.....	227
Izazu nitzaz kupira.....	237
Gaztetan jarriyak dama bati.....	253
Neskatxa bati mutil batek jarriak.....	257
Biyotz erituba.....	267
Dama ta galaia.....	279
Juana Bixenta Olabe.....	289
Amoriyuari.....	305
Domingo Kanpaña.....	309
“Aspaldiyan, Joxepa...”.....	315
Bertsolarien gudua.....	319
Orentzaro.....	331
Kanpuan da.....	335
Pobriaren suertia.....	339
Sartzia soldadu.....	343
Zortziko.....	347
Pagatzalle on bat.....	349
Begirozute, pikadoriak.....	353
“Arotz bati ziyoten...”.....	357
Konfessoriagana.....	361
Somaketa.....	363
“Apirillaren lagun elkarra...”.....	369
Zaldun gazte.....	375
Kanta.....	379
Dolores-i.....	381
Azkenengo bertsoa.....	385
Itz-lauz.....	387
BILINTXI ESKEIÑITAKO BERTSO-SAIL BATZUK.....	405
Au poza senti det!!.....	407
Arranoa eta belea.....	410
Bilintx doakabeari.....	414
Indalezio Bizkarrondo “Bilintx” zeritzaion itz-neurlariari oroimen bat.....	420
Bilintx biursariaren doaindigoan.....	426
Agur, agur, Bizkarrondo!.....	428
Bilintxen oroimengarriari bere gorputzaren eraldairan.....	432
Bilintxen obian.....	434

Bertsoak eta loreak.....	438
Iru bertso	441
Bilintx zanaren oroimenez	443

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALITZAINDIA
BIBLIOTEKA

1994 AZA 1 5

9002
1006487



1006487

